

E U S K E R A

IKERKETA ALDIZKARIA



2024
69, 1
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44
posta elek.: euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus
webgunea: <https://euskera-ikerketa.euskaltzaindia.eus>

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones
Cette revue s'échange avec d'autres publications
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orrasketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN: 0210-1564

Lege-gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Aurreinprimaketa: Composiciones Rali, S.A.
Costa, 12-14, 7. ezk. – 48010 Bilbo

Inprimategia: Printheaus, S.L.

EUSKERA IKERKETA ALDIZKARIA

Euskera ikerketa aldizkariaren aurrekari gisa, *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala izan da 1920. urtetik 2022ra bitartean. 2023tik aurrera bi argitalpen mota dira: batetik, *Euskera* ikerketa aldizkaria eta bestetik, *Euskaltzaindiaren buletina*. Lehenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu, eta paperean eta euskarri informatikoan argitaratzen da. Bigarrenak Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu eta modu elektronikokoan argitaratzen da. *Euskera* ikerketa aldizkariak bi zenbaki argitaratzen ditu urtero. Lehena, martxo-apirila inguruan (urtarrila-ekaina aldiari dagokiona) eta bigarrena, iraila-urria (uztaila-abendua aldikoa). Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa Batzordeak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du PEER REVIEW itsu bikoitza sistema erabiliz.

***Euskera* ikerketa aldizkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)

Kalitate adierazleak:

CIRC (2024): C maila

MIAR (2023): c1+m1+e1+x1

Como publicación previa a *Euskera ikerketa aldizkaria*, la revista *Euskera* ha sido el órgano oficial de Euskaltzaindia y se ha publicado desde 1920 hasta 2022. De 2023 en adelante son dos tipos de publicación: *Euskera ikerketa aldizkaria* y *Euskaltzaindiaren buletina*. La primera publica artículos de investigación originales, reseñas de libros y otros contenidos del ámbito de investigación de Euskaltzaindia, y se publica en papel y en formato electrónico. La segunda recopila la vida y el trabajo académico de Euskaltzaindia y se publica de forma electrónica. *Euskera ikerketa aldizkaria* publica dos número anuales: la primera (enero-junio) entre marzo y abril y la segunda (julio-diciembre) entre septiembre y octubre. Para publicar los artículos de investigación el Consejo de Redacción recaba, utilizando el sistema de doble ciego PEER REVIEW, la opinión de evaluadores externos.

La revista *Euskera ikerketa aldizkaria* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicadores de calidad:

CIRC (2024): Categoría C

MIAR (2023): c1+m1+e1+x1

Précurseure d'*Euskera ikerketa aldizkaria*, la revue *Euskera* a été la publication officielle de l'Académie de la langue basque – Euskaltzaindia de 1920 à 2022. À partir de 2023, il y a deux publications différentes : d'une part, la revue *Euskera ikerketa aldizkaria* et, d'autre part, *Euskaltzaindiaren buletina*. La première contient des articles de recherche originaux, des comptes rendus de livres et autres dans les domaines de travail de l'Académie, et est publiée sur papier et sur support informatique. La seconde couvre le travail et la vie de l'Académie; elle est publiée électroniquement. *Euskera ikerketa aldizkaria* publie deux numéros par an : le premier vers mars-avril (correspondant à la période janvier-juin) et le second en septembre-octobre (correspondant à la période juillet-décembre). Avant de publier les articles de recherche, le Comité de Rédaction recueille l'avis d'évaluateurs externes en utilisant le système PEER REVIEW double aveugle, qui garantit l'anonymat.

La revue *Euskera ikerketa aldizkaria* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicateurs de qualité :

CIRC (2024) : Catégorie C

MIAR (2023) : c1+m1+e1+x1

As a publication prior to *Euskera ikerketa aldizkaria*, the review *Euskera* was the official organ of Euskaltzaindia, published from 1920 to 2022. From 2023 onwards there are two kinds of publication: *Euskera ikerketa aldizkaria* and *Euskaltzaindiaren buletina*. The former publishes original research papers, book reviews and other content in the research area of Euskaltzaindia, and is published on paper and in electronic format. The second documents the academic life and work of Euskaltzaindia, and is published electronically. *Euskera ikerketa aldizkaria* comes out twice a year: the spring issue (January-June) published between March and April and the second (July-December) between September and October. To publish research papers the Editorial Committee requests the opinion of external assessors, using the double-blind PEER REVIEW system.

***Euskera ikerketa aldizkaria* is available in the following catalogues and databases:**

- Catalogue of the Azkue Library
- Euskaltzaindia website
- Latindex Catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Quality indicators:

CIRC (2024): Category C

MIAR (2023): c1+m1+e1+x1

EUSKALTZAINDIA



IDAZKETA KONTSEILUA – CONSEJO DE REDACCIÓN – COMITÉ DE RÉDACTION – EDITORIAL COMMITTEE

Burua: Andres Urrutia *euskaltzainburua*
Idazkaria: Adolfo Arejita (*Euskaltzaindiaren idazkaria*)

Kideak – Miembros – Membres – Members

MIXEL AURNAGUE CNRS. <i>Paris</i>	ASUN GARIKANO <i>Euskaltzaindia</i>
ENEKO BIDEGAIN HUHEZI. <i>Arrasate/Mondragon</i>	PATXI JUARISTI <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Leioa</i>
JEAN-BAPTISTE COYOS <i>Euskaltzaindia</i>	PATXI SALABERRI ZARATIEGI <i>Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP). Iruñea/Pamplona</i>
EBA GAMINDE <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	

AHOLKU BATZORDEA – CONSEJO ASESOR – COMITÉ CONSULTATIF – ADVISORY BOARD

OLGA ANOKHINA CNRS. <i>Paris</i>	PHILIPPE CHAREYRE <i>Université de Pau et des Pays de l'Adour. Pau</i>
MIREN AZKARATE <i>Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián</i>	JEROEN DARQUENNES <i>Namur University. Belgium</i>
JOXE AZURMENDI <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Donostia/S. Sebastián</i>	BENASET DAZÉAS <i>Lo Congrès permanent de la lenga occitana. Pau</i>
XARLES BIDEGAIN <i>Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona</i>	ANA ETXAIDE <i>Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea/Pamplona</i>
HERVE LE BIHAN <i>Université Rennes 2. Rennes</i>	JOSE RAMON ETXEBARRIA <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Bilbo</i>
JOSU K. BIJUESCA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	MAITE ETXENIKE <i>Universitat de València. Valencia</i>
GIDOR BILBAO <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Vitoria/Gasteiz</i>	PILAR GARCÍA MOUTON <i>Profesora ad honorem ILLA-CSIC. Madrid</i>
ANA ISABEL BOULLÓN AGRELO <i>Universidade de Santiago de Compostela.</i>	EUGÈNE F.-X. GHERARDI <i>Università di Corsica Pasquale Paoli. UMR CNRS LISA. Corsica</i>
IÑAKI CAMINO <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Vitoria/Gasteiz</i>	PATXI GOENAGA <i>Euskaltzaindia. Vitoria/Gasteiz</i>
	RICARDO GOMEZ <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Vitoria/Gasteiz</i>

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. A Coruña

MARTIN HAASE
University of Bamberg. Alemania

BERNHARD HURCH
Graz University. Austria

JOSE IGNAZIO HUALDE
University of Illinois. USA

ITZIAR IDIAZABAL
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Vitoria/Gasteiz*

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Leioa*

XABIER ITZAINA
*CNRS, Centre Emile Durkheim, Sciences Po
Bordeaux. Bordeaux*

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSEBA ANDONI LAKARRA
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Vitoria/Gasteiz*

JON LANDABURU
CNRS. Paris

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP).
Iruñea/Pamplona*

JOAN MARTÍ
*Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica.
Barcelona*

JÈP DE MONTOYA
Institut d'Estudis Aranesi. Vielha (Llèida)

ENEKO OREGI
Eusko Jaurlaritza. Vitoria/Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madrid

ANDONI SAGARNA
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián

ANA TOLEDO
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia/S. Sebastián

HANS VAN DER VELDE
*Fryske Akademy / Utrecht University. Leeuwarden
(Netherland)*

MIKEL ZALBIDE
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián

JUAN JOSE ZUBIRI
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP).
Iruñea/Pamplona*

Teknikariak: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

IBON USARRALDE. Euskaltzaindia. Donostia

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (Euskaltzaindia. Bilbo)

E U S K E R A

AURKIBIDEA

IKERKETA ARTIKULUAK

- [11-47] Beasaingo gazte-hizkera aztergai: testuinguruaren eragina kode-alternantzia
AIESTARAN IPARRAGIRRE, Maddi
- [49-78] Ahozko hizkera informalerako gaitasuna eta harreman-sare informaletako hizkuntza-erabilera: azterketa kuantitatibo bat unibertsitateko gazteen testuinguruan
ARTETXE SARASOLA, Miren, BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe eta BURRESO PARDO, Naroa
- [79-115] Adierazkortasuna euskaraz lantzeko proposamen didaktikoa: imitazio-jolasak
BASAURI ALBERDI, Jon eta OTAEGI ETXEZARRETA, Iñigo
- [117-160] Adinaren araberako bariazio lexikoa Imozko hizkeran: inkesta linguistikoak
FERNANDEZ DE MUNIAIN, Alazne
- [161-205] Hizkuntza Garapeneko Nahasmenduaren adierazle bila euskal hiztunen ahotan: izen- eta aditz-morfologiaren erabilera
LEYARISTI OÑEDERRA, Ainhoa
- [207-252] Ergatiboaren erabilera *euskara-gaztelania* kode-alternantzia: kasu-azterketa bat
URIARTE ORBAÑANOS, Endika

OHARRAK

- [255-275] Aldude eta Urepeleko mintzoa
URREIZTI LAFITTE, Oier

LIBURU AIPAMENAK

- [279-282] *Normativitat, (re)estandardització i glotopolítica. Noves mirades des de la sociolingüística catalana*
URRUTIA BADIOLA, Andres M.

Ikerketa artikuluak

Artículos de investigación

Articles de recherche

Research articles

Beasaingo gazte-hizkera aztergai: testuinguruaren eragina kode- alternantzian¹

El discurso juvenil en Beasain: la influencia del
contexto en la alternancia de códigos

Langage des jeunes à Beasain : l'influence du contexte
sur l'alternance des codes

Youth language in Beasain: the influence of the
context on code-switching

AIESTARAN IPARRAGIRRE, Maddi

UPV/EHU

maiestaran003@ikasle.ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.272>

Noiz jaso: 2024-01-09

Noiz onartua: 2024-03-15

Ikerketa lan honetan Beasaingo gazte-talde baten lagunarteko eta familiarterko elkartrukeak grabatu, transkribatu eta aztertu dira. Haien azterketarekin ikusi nahi izan da, Beasaingo gazte horien eguneroko hitzezko portaerak lagunarteko eta familiarterko testuinguru desberdinetan zein ezaugarri erakusten dituen kode-alternantziari begira. Gazteen hizkera uanean uneko testuinguru komunikatiboari hertsiki lotutako fenomeno gisa aztertu beharra kontuan izanik (Lantto 2015), kode-alternantziaren erabileran testuinguru batek bestera zer alde dauden identifikatzea izan da lan honen helburu nagusia. Horretarako, gazteen solasetako kode-alternantziaren alderdi pragmatikoan, sintaktikoan eta lexikalean jarri da gehienbat arreta, eta alderdi linguistiko bakoitzaren arabera aztertu dira lortutako emaitzak. Lanaren ondorio nagusia izan da, gazteek nabarmen moldatzen dutela beren

¹ Artikulu hau izen bereko Gradu Amaierako Lanean oinarritua dago, eta ikerlana, proiektu gisa, Euskaltzaindiaren Mintzola Ikerketa Sarien 2023ko deialdian saritua izan zen.

hizkera testuinguruaren eta elkar-trukearen izaeraren arabera, testuinguruak eremu informalekoak izanda ere.

Gako-hitzak: gazte-hizkera, solasa, kode-alternantzia, testuinguru komunikatiboa.

En este trabajo de investigación se han registrado, transcrito y analizado los intercambios amistosos y familiares de un grupo de jóvenes de Beasain. Hemos querido analizar qué características muestra el comportamiento verbal cotidiano de estos jóvenes de Beasain en diferentes contextos amistosos y familiares de cara a la alternancia de códigos. Teniendo presente la necesidad de analizar el habla juvenil como un fenómeno estrechamente relacionado con el contexto comunicativo actual (Lantto 2015), el objetivo principal de este trabajo fue identificar las diferencias en el uso de la alternancia de códigos de un contexto a otro. Para ello, se ha centrado la atención principalmente en los aspectos pragmáticos, sintácticos y léxicos de la alternancia de códigos en las conversaciones de los jóvenes, y se han analizado los resultados obtenidos en función de cada aspecto lingüístico. La principal conclusión del trabajo ha sido que los jóvenes moldean significativamente su discurso según el contexto y la naturaleza del intercambio mutuo, incluso si los contextos son informales.

Palabras clave: discurso juvenil, conversación, alternancia de códigos, contexto comunicativo.

Dans ce travail de recherche, les échanges amicaux et familiaux d'un groupe de jeunes de Beasain ont été enregistrés, transcrits et analysés. Nous avons voulu analyser quelles caractéristiques présente le comportement verbal quotidien de ces jeunes de Beasain dans différents contextes amicaux et familiaux face au changement de code. En gardant à l'esprit la nécessité d'analyser le langage des jeunes comme un phénomène étroitement lié au contexte communicatif actuel (Lantto 2015), l'objectif principal de ce travail était d'identifier les différences dans l'utilisation du code en passant d'un contexte à l'autre. À cette fin, l'attention s'est portée principalement sur les aspects pragmatiques, syntaxiques et lexicaux du changement de code dans les conversations des jeunes, et les résultats obtenus ont été analysés en fonction de chaque aspect linguistique. La principale conclusion de ces travaux est que les jeunes façonnent considérablement leur langage en fonction du contexte et de la nature des échanges mutuels, même si les contextes sont informels.

Mots-clés : langage des jeunes, conversation, changement de code, contexte communicatif.

In this research, different conversations among a group of young people from Beasain were analyzed. To this end, discussions within this group were recorded in both peer group

and family contexts. The recordings were then transcribed and analyzed. Through this analysis, we wanted to see what code-switching characteristics are displayed in the daily verbal behavior of these young people from Beasain in their peer group and family contexts. Considering the need to analyze youth language as a phenomenon closely linked to today's communicative context (Lantto 2015), the main objective of this work was to identify differences between one context and another in the use of code-switching. To this end, it focused mainly on the pragmatic, syntactic and lexical aspect of code-switching in youth conversations, analyzing the results obtained on the basis of these aspects of language. The main conclusion of the work was that young people adapt their language significantly to the context and nature of the conversation, even if the contexts are informal.

Keywords: youth language, conversation, code-switching, communicative context.

AIESTARAN IPARRAGIRRE, Maddi (2024). «Youth language in Beasain: the influence of the context on code-switching», *Euskera ikerketa aldizkaria*, 69, 1: 11-47.

1. Sarrera

Gazte-hizkera deitzen zaio bereziki gazteen artean garatzen den hitzezko gertaera komunikatibo-linguistikoen multzo berezituari, zeinetan gazte izate horri lotutako identitateak garrantzi handia duen (Amorrortu 2003). Lan honen helburua, hain zuzen, Beasaingo gazteek eguneroko elkar-trukeetan erabiltzen duten hizkuntza erabilera aztertzea da. Zenbait gazteren eguneroko solasaren inguruko azterketa honen bidez, gazte identitate komun bati lotutako gazte-hizkeraren ezaugarri nagusietako bati erreparatuko zaio, hala nola kode-alternantziari. Izan ere, hainbat lanek frogatu dute euskal hiztun gazteek ahozko diskurtsoan hizkuntza etengabe txandakatzeko joera dutela (Lantto 2015). Helduen eta haurren arteko elkar-trukeek erakutsi dute euskaraz bi kodeak ondo bereizten dituztela eta kode-alternantzia gehienbat osagai pragmatikoez baldintzatzen dutela (Ezeizabarrena eta Aeby 2010). Beharrezkoa dirudi kode-alternantziaren azterketa alderdi diskurtsiboekin eta pragmatikoekin erlazionatzea, hau da, gazteek egiten duten hizkuntza-erabilera testuinguruaren baldintza komunikatiboei lotuta aztertzea.

Ikerketa pilotu gisa gazteen lagunarteko solasetan kode-alternantzia aztertzearekin batera eta konparaketa baliatzeko helburuarekin, gazte horien berorien familiarterako hizkuntza erabilera ere jaso eta aztertuko da. Horrela, konparaketa bitartez, lanaren ikerketa galdera honi heldu nahi zaio: komunikazio parametro zehatzek nolatan eragiten dute gazteen hizketan, eta zehazki, kode-alternantzian? Ba al dago gazte hauen euskararen erabileran interlokutoreen profilararen araberrako egokitzapenik kode-alternantziaren erabileran? Lan honen hipotesi nagusia da gazteek testuinguruko parametro zehatzen arabera, testuinguru informalak izanda ere, komunikatzeko berbazko baliabide berezituak erabiliko dituztela interlokutoreen profilarari egokitzuz, eta ondorioz, gazte-hizkeraren ezaugarri bereizgarriak ageriago jar litezkeela. Uste dugu, besteak beste, kode-alternantzia lagunarteko testuinguru informaletan familiarterakoetan baino gehiago agertuko dela bildutako corpusean. Era berean, ahozko diskurtsoaren bestelako antolamendu mailekin zerikusia izango duela uste da.

Alegriak (2009) aipatzen duenez, muturreko bi ahozko jardun mota bereiztea komeni da. Batetik, ahozko espontaneo edo solas gisako elkar-tru-

ke komunikatiboetanaurkitzen dugun hizkera inprobisatua. Bestetik, “idatzi mintzatua” edo ahoz gauzaturiko idatzizko hizkuntza. Tartean, askotariko mintza-jardunak daude (Garcia-Azkoaga 2015). Halaber, horietako bakoi-tzean ere generoaren arabera bereizketa kontuan izan behar da. Alegriak (2009) euskarazko ahozko askotariko solas-genero espontaneoak aztertzen ditu, eta bere ondorioa da elkar-truke horien izaeraren arabera, solasean erabiltzen diren errepikapen lexikoez ezaugarri batzuk edo beste batzuk hartzen dituztela. Horregatik, lan honetan ere testuinguru informaletako parametro komunikatiboetan eragina izan dezaketen interlokutore profilen arabera elkar-trukeak grabatu eta aztertuko dira. Corpus original bat osatu, grabatu eta transkribatu da azterketa hau egiteko. Zehazki Beasainen jaso da corpusa. Honen gisako lanak modu kokatuan aztertu beharra azpimarratzen dute hainbat autorek (Lasagabaster 2005), izan ere, eremu geografiko eta soziolinguistikoen arabera, gazte-hizkerak eta kode-alternantziak ezaugarri ezberdinak har ditzakete (Lantto 2017).

Azterketaren emaitzek erakusten dute, batetik, oro har kopuruz gehiago direla kode-alternantziaren agerraldiak gazteen arteko solasetan, eta, bestetik, kode-alternantziako kategoria batzuek gazteen hizketa ezaugarritzen dutela; fraseologiak, lexiko berriak eta egitura sintaktikoen txandakatzeak, kasu. Hitz-txanden osaeran ere aldeak dira, hitz kopuruari eta enuntziatuen egiturari dagokienez, eta horrek badu kode-alternantzia eragina. Hortaz, solasaren azterketan elkar-truke mota eta testuinguru komunikatiboaren parametro zehatzak kontuan hartzea nahitaezkoa dela ondorioztatu dugu, gazteen arteko hizketaren eta familian erabiltzen duten hizketaren artean bereizketa ekartzen dutelako.

Esan bezala, euskarazko ahozko jardunaren inguruko ikerketarako baliagarri izan nahi du lan honetan egingo den bilketak eta analisiak; horretarako, gai honen inguruan orain arte egin diren hainbat lanetatik abiatuta, gazte-hizkera definitzen, mugatzen eta ezaugarritzen saiatuko gara lehenik, beronen azterketa gidatuko duen ikuspuntu egoki bat eraikitze asmoz. Jarraian, gauza bera egingo da solasaren inguruan. Ikusiko dugunez, gazte-hizkeraren aztergaiaren artean arreta gehien eskaini zaion alderdia kode-alternantzia da. Bada, kode-alternantziaren barruan, baliabide pragmatikoei, lexikalei eta sintaktikoei ezarriko zaie arreta, eta kategoria horien

arabera sailkatuko dira corpusean bildutako kode-alternantzia kasu guztiak. Era berean, solasaren egituratzearen alderdiak ekarriko dira aztertutako corpusean, kode-alternantziaren fenomeno batzuen eta ahozkoaren diskurtsoaren egituratze alderdiekin harremanetan jartzen ahalegintzeko. Behin atal teorikoa itxita, Beasaingo zenbait gazteren hizkeraren azterketari ekingo zaio, eta bertan azterlan honen helburu eta hipotesi nagusiak, lanaren metodologia, erabiliko den corpusa² eta lanaren aztergai zehatzak zein izan diren azalduko da. Jarraian, corpusaren analisiaren emaitzak aurkeztuko dira. Bukatzeko, lortutako ondorio nagusiak aipatuko dira.

2. Kode-alternantzia gazte-hizkeran

Atal honetan gazte-hizkeraren, solasaren antolamenduaren eta kode-alternantziaren inguruan egin diren azterketek erakutsi digutena oinarri izanik, dagokigun aztergaira hurbiltzeko baliagarri izango den atal teoriko bat aurkeztuko da.

Hasteko, gazte-hizkeraren eta solasaren definizioak eskainiko dira, eta horien ezaugarri nagusiak deskribatuko dira, azterketa lan-esparru zehatz horretan kokatuz. Jarraian, lagunarteko gazte-hizkeraren aztergaiak zein diren azalduko da, eta kode-alternantziaren ildoari ekingo zaio segidan. Kode-alternantziaren barruan, baliabide pragmatikoak, sintaxia eta lexikoa izango dira lan honetan iker-alor nagusiak, eta beraz, alderdi linguistiko horien aurkezpena egingo da atal honetan.

2.1. Zer da gazte-hizkera?

Ibarrak (2011) lagunarteko erregistroaren barnean kokatzen du gazte-hizkera. Autorearen arabera, hizkera horrek ezaugarri propio batzuk ditu, zenbait faktoreri lotuta daudenak, hala nola jatorria, bizilekua, gizarte-maila, sexua, arraza, adina, ideologia eta abar. Bada, faktore horien inertziaz

² Lan honetarako erabilitako corpusa artikulua izen bereko Gradu Amaierako Lanean jasota dago.

sortutako taldeen izaera sendotzeko eta kide bakoitza gazte gisa identifikatzeko, beraiek bakarrik erabiltzen dituzten adierazpen propioak sortzen dituzte gazteek (Ibarra 2011). Darabilten aldaeraren bidez ekintza sozial bat burutzen dute: taldekide eta taldekide ez direnei nolakoak diren eta mundu sozialaren aurrean euren burua nola agertu nahi duten adierazten dute (Amorrortu 2003). Ibarra (2011), gazteek hurbileko bizipen-harremanak, harreman soziala eta beren arteko komunikazio fatikoa indartzeko erabiltzen dute gazte-hizkera.

Gazte-hizkerak arauak sistematikoki ez betetzetik sortzen dira, talde soziala identifikatu eta lotzen dute eta, aldi berean, kideak definitu eta nabarmentzen dituzte, taldea osatzen duten aldetik (Ibarra 2011: 19).

Beraz, hiztunak arauak sistematikoki haustearekin erlazionatzen duen testuinguruarekin lotuta agertuko da gazte-hizkera. Lantok esan bezala (2015), egoera komunikatiboaren arabera, baliabide pragmatiko batzuk edo beste batzuk erabiltzen ditu hiztunak. Izan ere, aniztasun pragmatikoa testuinguru soziolinguistiko bakoitzera moldatu behar da, Tusónen arabera:

La diversidad pragmática se manifiesta en las formas en que todas esas variedades son usadas: quién las usa, cuándo, con qué finalidades, etc., es decir, en las *prácticas sociolingüísticas* que se producen en esa colectividad. [...]. Dentro de una misma comunidad lingüística se pueden encontrar hábitos diferentes así como diferentes grados de competencia comunicativa. (Tusón 2010: 89)

Egoera komunikatiboaren arabera, hiztunak estrategia desberdinak baliatzen ditu komunikazio ekintzan parte hartzeko. Bada, ondorengo lerroetan, testuinguruaren arabera gazteek darabilten hizkeraren ezaugarriak identifikatu eta deskribatzeko ahaleginak egin nahi dira, eta corpuseko ekoizpenen emaitzak jaso nahi dira.

2.2. Testuinguruaren eragina solasaren antolamenduan

Solasa bi pertsonak edo gehiagok hitzez eta modu espontaneoan elkar eragitean datzan komunikazio ekintza da, eta solasaren egituraketarako, funtsezkoa da bertan parte hartuko duten kideek zenbait arau adostea

(Tusón 2010); izan ere, solasa egituratzeko nahitaezkoa da parte-hartzaile guztiak solas ordenatu eta koordinatu bat eraikitzeko hainbat punturekin ados egotea. Horrela aipatzen du Gutierrezek:

Solas bidezko berbazko elkarrekintzen ezaugarri nagusiei dagokienez, Calsamigliak eta Tusónek (2001) hiru nagusi hauek aipatzen dituzte. Lehenengo, aldibereko partehartzea solaskideen artean. Bigarrenik, aldibereko presentzia, hau da, espazio eta denbora partekatzen da. Eta azkenik, pertsonen arteko harremana, izan ere, une oro negoziatzen da hau solasaldian. Bestetik, ezaugarri hauez gain, Tusónek (2002) bat-bateko elkarrekintzen ezaugarriak zerrendatzen ditu. Hauetako zenbait baliagarriak izan daitezke elkarrizketak ulertzeko unean, besteak beste, elkarrizketaren izaera dialogala: normalean ez du solaskide batek baino gehiagok hitz egiten aldi berean; hitz txandak luzera ez da finkoa, solaskideen kopurua alda daiteke; hitz-txandak banatzeko teknikak daude; etab. (Gutierrez 2019: 13)

Gabirondoren arabera (2020), jardun komunikatibo bakoitzaren arau eta baldintza zehatzek testuaren izaera mugatzen dute, eta hartara, komunikazio ekintza bakoitza idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko puntu zehatz batean koka daiteke; hau da, komunikazio ekintza bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu. Honela deskribatzen du Tusónek solasaren inguruko ikuspegi hori:

Una de las características fundamentales de la conversación espontánea es su “indeterminación”. Ni el tema, ni el número de participantes, ni la distribución de los turnos de palabra, ni la duración de cada turno o de la misma conversación en su conjunto se especifican previamente. Es, por lo tanto, un tipo de interacción muy flexible, en la que se pueden producir cambios de tema, de tono, de número de participantes, etc. (Tusón 2010: 69)

Solas espontaneoaz aztertzeko, hainbat alderdiri erreparatzea interesgarria izan daiteke. Baina hainbat autorek diotenez, hitz-txanda da solas espontaneoaren egituraren oinarri nagusia, eta beraz, hitz-txanden sistema da solasaren egitura azaltzeko egin izan den proposamenik ezagunena (Gabirondo 2020). Hitz-txanden eraikuntzarako ere arauak daude, eta arau horien bidez txandakatzen dira hiztunen hitz-hartzeak, eta horien bidez koordina-

tzen dira hitzun guztiak, era ordenatu eta ulergarrian solasteko moduan (Alba-Juez 2009). Hala, hitz-txanden sistemaren arabera, solas espontaneo gainerako ahozko jardunetatik bereizteko, hamalau arau edo hamalau ezaugarri deskribatu izan dira (Sacks eta beste, *apud* Alba-Juez 2009):

1. Hizlari aldaketa gerta daiteke; solasa dialogala da.
2. Aldi bakoitzean hitzun bakar batek hitz egiten du, oro har.
3. Gainjartzeak gertatu ohi dira, baina laburrak izaten dira.
4. Hitz-txanden arteko trantsiziorik ohikoenak gainjartzerik eta tartetik gabekoak dira.
5. Hitz-txanden ordena zehatzik ez dago, baina orekatua izaten da.
6. Hitz-txanden iraupen zehatzik ez dago, baina orekatua izaten da.
7. Solasaren iraupena ez dago zehaztuta.
8. Hizlariak esaten dutena ez dago zehaztuta.
9. Hitz-txanden antolamendurik ez dago zehaztuta.
10. Solasean parte hartzen duten hitzunen kopurua aldatu egin daiteke solasean zehar.
11. Diskurtsoa jarraia edo ez-jarraia izan daiteke.
12. Hitz-txanden antolaketarako teknikak erabiltzen dituzte hitzunek.
13. Unitate formal desberdinak erabiltzen dira hitz-txandak egituratzeko.
14. Hitz-hartzeetako akatsak, transgresioak zuzentzeko mekanismoak erabiltzen dituzte hitzunek.

Tusónen arabera (2010), askotan hitz-txanden antolamendua testuingurutik aparteko fenomenotzat jo izan den arren, hitz-txanden eraikuntza estuki dago lotuta testuinguruaren araberako faktoreekin. Hori horrela, pentsatzekoa da gure corpusean parte hartu duten hitzunen solasetan, hitz-txanden egituraketa desberdinak egingo zirela testuinguru bakoitzean.

2.3. Kode-alternantziari begirako gazte-hizkeraren ezaugarriak

Gazte-hizkera, aurrez aipatu bezala, taldearen nortasunaren ikur den egin-kizunari eusteko tresna bat da (Ibarra 2011). Bada, gehiengoaren normetatik eta boteretik urrundu nahi duen hizketa-molde bat izanik, bere-bereak diren hainbat ezaugarri ditu hizkera horrek. Ibarrak (2011) Iruñerriko gazte-jendea-

ren hizkeraren inguruan egin zuen lanean, bertako gazteen hizkeraren ezau-garriak nabarmendu zituen. Ereku geografiko eta soziolinguistikoa foku jartzen duen lan honetan, hiztun gazteek testuinguru batetik beste testuinguru batera haien hizkera nola aldatzen duten aztertu nahi da. Izan ere, ahozko solas espontaneoaren gaineko azterketa linguistikoa egin nahi da, hiztun gazteen ekoizpenetatik abiatuta. Alegriaren arabera (2009), azken hamarkadetan ahozko diskurtsoaren gauzapean testual desberdinen inguruan egin diren ikerketek argi erakutsi dute ahozko erabilera edo mintza-jardunik informal eta planifikatu gabeena ere –lagunarteko solasa, esaterako– arau edo erregela linguistiko-diskurtsibo jakin batzuen gainean eraikita dagoela.

Ibarrak 2011ko lanean egin zuen nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoaren azterketan, gazte-hizkeraren lau aztergai bereizgarri nabarmendu zituen: lexikoaren erabilera, hizkuntza-ukipenak eragindako kode-aldaketaren transferentzia eta interferentzia, pragmatika eta fonetika. Hídalgo (1993) gazte-hizkeraren inguruan idatzitako artikuluan alderdi linguistiko bertsuak azpimarratu zituen:

El aspecto más llamativo de estos comportamientos jergales en la juventud radica en la formación de códigos particulares “con su fonética, su gramática y su léxico bien diferenciados en muchos puntos” (cfr. Lázaro Carreter 1980: 244). Además, esta “jerga” de edad introduce ciertas peculiaridades morfológicas que intentaremos analizar. En la práctica tales particularidades corresponden a un cierto nº de sufijos y “acortamientos” (en términos de M. Casado Velarde, 1984), o “abreviaciones”. (A. Borrell, *apud* Hídalgo 1993: 1)

Autore horiek eta beste batzuek gazte-hizkeraren, solasaren eta kode-alternantziaren inguruko azterketetan nabarmendutako gako linguistikoak kontuan izanik, eta lan honetan bildu den corpusean oinarriturik, erabaki da kode-alternantzia izango dela lan honen aztergai nagusia.

Kode-alternantzia diskurtso berean bi hizkuntza txandakatzeari deritzo, eta ukipen-egoeran dauden bi hizkuntzen arteko kontaktuaren ondorioz sortzen da (Rodrigo 2020).

Lantok (2015) azaltzen duen bezala, kode-alternantzia euskararen komunitate zabalean gertatzen den fenomeno da; izan ere, hiztun elebidunek

hitzetik hitzera modu inkontzientean aldatu ohi dute hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautua (Gumperz 1982). Ibarrek (2011) ere aipatzen du, perpau baten barnean kode linguistikoa aldatzea oso ohikoa dela elebidunen arteko komunikazio-ekintzetan. Halere, pentsatzekoa da, egokitzen den testuinguruaren arabera, izaera desberdina izango duela kode-alternantziaren fenomenoak. Gumperzek ere testuinguruari lotutako fenomeno bezala ulertzen du kode-alternantzia:

The conversational switching here clearly differs both linguistically and socially from what has been characterized as diglossia in the sociolinguistic literature on bilingualism (Ferguson 1964). In diglossia, code alternation is largely of the situational type. (Blom eta Gumperz 1972) (Gumperz 1982: 60)

Gumperzen arabera (1982), kode-alternantzia fenomeno linguistiko bezain soziala da. Horrek esan nahi du hiztunaren hautu linguistikoetan eragin nabarmena izango dutela faktore sozialek; hau da, testuinguru sozialaren arabera, hiztunak baliabide batzuen edo besteen alde egingo duela. Testuinguruak mugatu ohi du hiztunak duen xede komunikatiboa, eta, beraz, xede horretara moldatzen dira erabiltzen diren baliabide linguistikoak. Hitztun elebidunen kasuan, bi hizkuntza sistemen inguruko jakintza dela eta, erabaki linguistikoak kode-alternantziara bideratzeko aukerak nabarmen ugartzen dira. Elebitasunaren eta kode-alternantziaren arteko erlazioak honela azaltzen ditu Lanttok:

Multilinguals have in their repertoire constructions of many languages and pragmatic knowledge of how they are used. When using their multilingual repertoire to achieve maximum expressiveness, the boundaries of the normatively defined subsystems are violated and trespassed, sometimes consciously to engage in creative language play (Example 3), sometimes for a clear, yet repetitive and partially conventionalized discourse function (Example 4), sometimes for highly automatized conversational routines, such as discourse markers (Example 5). (Lantto 2015: 33)

Lanttoren arabera (2012), kode-alternantziaren rol nagusia mezuarekiko hurbiltasuna edo urruntasuna markatzea da. Bada, rol hori betetzeko, kode-alternantziak hainbat funtzio izan ditzake. Ibarrek dioenez (2011), hiz-

tun elebidunek kodez aldatzeko dituzten arrazoiak komunikazio-funtzioekin bat datoz:

- a) Erreferentzia-funtzioa: hizketagai zehatz bakoitzarekin erreferentziazko hizkuntza bat lotzea: adibidez, “errazagoa da unibertsitate edo eskola arloko berezko adierazpenak euskaraz esatea, ikasketak hizkuntza horretan gauzatu badituzte” (Ibarra 2011).
- b) Funtzio konatiboa: solaskidea konbentzitzeko edo jokaera aldatzeko modua da, normalean enfasiarekin lotuta egoten dena.
- c) Funtzio adierazkorra: mezuari adierazpen-indarra atxikitzeko kodez aldatzeari deritzo.
- d) Funtzio metalinguistikoa eta poetikoa: “zenbait trebetasun linguistiko erakusteko edo hitz-jokoak egiteko balio du” (Ibarra 2011).

Nolanahi ere, komunikazio-ekintza bakoitza une zehatz bateko hitzun multzoaren eta testuinguruaren moldeetara egokitu behar denez, kasu bakoitzean egoeraren formara moldatutako funtzio eta baliabide propioak sortzen dituzte hitzunek. Gumperzek honela azaltzen du:

Depending on such factors as region of origin, local residence, social class and occupational niche, each communicating subgroup tends to establish its own conventions with respect to both borrowing and code switching. (Gumperz 1982: 68)

Kode-alternantziaren erabilerean funtzioez eta helburu linguistikoez haratago, lan honetan corpusean bildutako ekoizpenetan jarri nahi da arreta. Ekoizpen horietan ageri den kode-alternantziaren erabilera aztertzeko, aspektu linguistiko jakin batzuetan zentratzea erabaki da, eta horretarako, lan-ildo horretan diharduten hainbat autoreren sailkapenak hartu dira oinarritzat. Gumperzen arabera (1982), kode-alternantzia fenomeno pragmatiko bat da. Baina kode-alternantziari buruz egindako lanean, alderdi sintaktikoari erreparatzen dio alderdi pragmatikoarekin batera; izan ere, hitz-hartze bakar batean bi hizkuntza sistema txandakatzean, egitura sintaktikoak garrantzi handia du. Gumperzek dioenez, kodez txandatutako edozein egiturak beteko ditu arau sintaktiko jakin batzuk:

Although code switching can cut across many common syntactic relationships, it is nevertheless subject to at least some syntactic constraints. [...] Our data suggest, however, that such syntactic constraints are in turn motivated by underlying factors which depend more on certain aspects of surface form or on pragmatics than on structural or grammatical characteristics as such. (Gumperz 1982: 89-90)

Halaber, Lanttok ere (2015, 2018) alderdi linguistikoko berberak hartzen ditu aintzat, Bilbo Handiko hiztun elebidunek erabilitako kode-alternantzia (2015) eta euskaldun berriek erabilitako kode-alternantzia (2018) aztertzen. Honela aurkezten ditu bi alderdi linguistikoko nagusiak:

Two strong traditions have characterized the CS research. The syntax of language contact has been thoroughly examined, mostly with the focus on its grammatical outcomes, patterns, constraints and tendencies between hundreds of different language pairs. The second question that has provoked the interest of CS scholars is that of the pragmatic functions of CS and other multilingual practices. (Lantto 2015: 23)

Ondorioz, lan honetan nagusiki kode-alternantziaren alderdi pragmatikoari eta sintaktikoari eskainiko zaie arreta. Horrez gain, gazte-hizkeraren ezaugarri azpimarragarria den lexikoa ere aztergai izango da; gazteek hizkera bereizi bat sortzeko egiten dituzten hautuetan, batez ere hiztegian nabarmentzen baitira berrikuntzak (Ibarra 2011).

2.3.1. *Baliabide pragmatikoak*

Ahozko komunikazioa pragmatikarekin hertsiki lotuta dago. Lanttoren (2015) arabera, funtzio pragmatikoak bete behar dituzte elkarrizketa batean mezuarekiko independente agertzen diren partikula komunikatiboek, hots, esaera eta eraikuntza finkoek: solasari balio emozionala gehitzeko, interakzioa arautzeko eta mezuaren gaineko ebaluazio-iruzkinak egiteko balio dute, nagusiki. Lanttok honela azpimarratzen du partikula horien izaera pragmatikoa:

Fixed expressions and constructions are highly semantically specific and, at the same time, structurally independent from the rest of the sentence. They also often have a clear pragmatic function, such as guiding the conversation, signaling closings etc. Items such as connectors and tags often escape speakers' conscious control, as they are employed to regulate the interaction, but are not a part of the core message. [...] They have clear pragmatic functions which are often repeated in a conversation: they provide emotional relief (Dewaele 2004a), and can be also used as side remarks of the conversations to provide evaluative commentary. (Lantto 2015: 32)

Lan honetan “baliabide pragmatiko” deituko zaie funtzio pragmatikoak betetzea helburu duten partikula komunikatiboei. Komunikazio-ekintza bakoitzean hiztunak baliabide pragmatiko propioak erabiltzen ditu funtzio pragmatikoak betetzeko. Ibarak (2011) zazpi baliabide pragmatiko mota bereiziz, ondorengo sailkapena egin zuen, Nafarroan lortutako emaitzetatik abiatuta:

- a) Interferentzia pragmatikoa:
 - Diskurtso-markatzaileak. Interferentzia pragmatikoaren bidez gazteen euskaran sartu diren diskurtso-markatzaileak dira honakoak: *bueno, a ver, yo qué sé, fijo...*
 - Diskurtso errepikatua edo erritualizatua. “Klizeak” edo “enunziatu fraseologikoak”: *ez du inportik, ez du axola...*
 - Hizketa-arauak edo diskurtso errutinak. Hizkuntza batean egoera zehatzetan esaten dena beste hizkuntza baten sistemaren bidez itzulzea, emaitza ulertezinak sortuz: *suposatzen da, perfektu iruditzen zait...*
- b) Agur egiteko eta tratatzeko formulak: *tío, tía, tío, tía, qué pasa, hola, muxus...*
- c) Enunziatuen kateamendua, diskurtso-lokailuak eta markatzaileak. Elementuok elkarrizketa-lotura adierazteko eta horri eusten zaiola egiaztatzeke eginkizuna dute: *hombre, pues, ya, porque, así que, o sea, baina, como, oye, ikusten?, sin más, eta hori, total, que, a ver...*
- d) Interjekzioak: *venga hombre, a ver, bua, a tope, vamos, yo qué sé, para nada, toma ya, berdin da...*

- e) Ukoa adierazteko formak: *qué va, hombre ez, venga, ni hostias, vamos, mesedez...*
- f) Enuntziazioa bukatzeko formulak: *ya está, bale...*
- g) Kolokazioak. Testu batean hitz baten espazio mugatuan bi hitz edo gehiago agertzea: “*esque*”, “*enplan*”, “*comoque*”, “*noseque*”, “*eztakitzer*”...

Lehenago aipatu bezala, Nafarroan bildutako corpusaren gazte-hizkerari dagokion sailkapena da hori. Bada, gure lanean ere, tokian tokiko datuetatik abiatzea komeni da, sailkapen bat egiteko. Lan honetan, aurretiaz eginitako sailkapenak gure corpusera egokitu dira, eta ondoko baliabide pragmatikoetan ezarri da arretagune nagusia: diskurtso lokailuak/markatzaileak, interjekzioak eta formula enfatikoak edo indargarriak.

2.3.2. *Lexikoaren erabilera*

Ibarraren arabera (2011), teorikoki, gazte-hizkeraren ezaugarriak sistema linguistikoaren edozein mailatan agertzen dira: hiztegian, morfologian, sintaxian, fonetikan/fonologian, prosodian, erritmoan, pragmatikan... Halere, hizkerak bere-bereak dituen ezaugarrietan arreta jarritz gero, hiztegi mailan nabarmentzen dira, batez ere, ezaugarri bereziak. Ibarrek dioenez, hiztegi propioaren bitartez saiatzen dira gazteak erregistro propio bat sortzen:

Hiztegi horrek hizkuntzaren arauen kontrako izaera islatzen du, baina horrek ez du esan nahi araurik ez dagoenik, gazteen erregistroak bereak dituela baizik. Gainera, arau horiek erabiltzen ez dituen edo hizkera imitatzen saiatzen dena antzematen da. Gazteek benetan bazterten dutena hauxe da: kortesiazko arauak. Hitz mordo horrek kontrabaliyo batzuk agertzen ditu. (Ibarra 2011: 43)

Ibarrek (2011) Iruñerriko gazteen hizkeraren datuak bildu eta aztertutakoan, kode-alternantziaren barruan koka zitekeen lexikoari zegokion sailkapen bat egin zuen, bost tipotan multzokatuz gazte haiek erabiltzen zituzten hiztegiko elementuak:

- Teknizismoak eta anglizismoak: gaur egungo informazioaren globalizazioak eraginda, ingelesa bezalako hizkuntza globalizatuetatik hitzak edo

esaerak mailegatzearen ondorioz erabiltzen dira. Ibarearen arabera (2011), nazioarteko truke-hizkuntza eta Interneteko hizkuntza nagusia den aldetik, ingelesak komunikazioa bateratzen laguntzen du. Mailegu denotatiboak izan daitezke, objektu edo kontzeptu berri bat izendatzen dutenak eta hutsune lexiko bat betetzeko balio dutenak (*PC, CD, Windows, home zinema, fans...*); edo mailegu konnotatiboak izan daitezke, euskaraz jada lexikalizatutako errealitateak izendatzeko erabiltzen direnak, eta hitz berri horiek jatorrizko hitzaren erabilera ordeztzeko arriskua dutenak (*mensaje, number one, pasta* (dirua), *enrollatua, mobida...*).

- Gaztelaniaren eragin lexikala: gaztelania da Hego Euskal Herriko hizkuntza hegemonikoa, eta jakina da mendeko hizkuntzak, euskarak kasu honetan, eragin nabarmena jasotzen duela hizkuntza horretatik: *soltero, silla, revista, solitario, flesio, kanposantu, juntatu, kulto, total, idolo, tío...*
- Hitzak sortzeko mekanismoak: hiztegia hizkuntzaren materia- eta kontzeptu-unibertsoaren irudia da, eta une oro sentitzen du hiztunak hitz berriak sortzeko beharra: hainbat mekanismoren bidez lortzen da hori: atzizkitzea, laburtzapenak, edo aurrizkitzea izan daitezke horietako batzuk: *flipatua, enrollatua, enpolloi, subidoi, putada, mobida, rollito, morenita, depre, mani, boli, muniña, masoka, mate, tranki, disgustu, super ona...*
- Hitz itsusiak: gazteek hitz itsusiak edo hitz disfemistikoak erabiltzen dituzte hizkuntza estandarrari aurka egiteko eta hori urratzeko eta narriatzeko: *jode, de puta madre, hostias, ni puta idea, a tomar por culo...*
- Fraseologia: esaldi eta eraikuntza finkoak dira gehienak, eta gaztelaniatzko formen kalkoak dira asko eta asko: *la vida es así, de puro milagro, de coña, a una mala, da igual, no te jode...*

Sailkapena, esan bezala, Iruñerriko gazteen hizkeraren azterketa enpirikoan oinarrituta dago. Autoreak berak aipatzen du ez dagoela gazte-hizkera bakar bat: gizarte- eta komunikazio-eremuan hainbat aldaerak osatzen duten fenomeno korapilatsua da gazte-hizkerarena (Ibarra 2011). Beraz, aztertuko den corpusetik lortutako emaitzei erreparatu beharko zaie, Beasaingo gazteek erabiltzen duten lexiko bereziaren inguruko azterketa eta sailkapena egiteko.

Kode-alternantziaren adibide diren forma lexikal berezietan jarriko da arreta. Hain zuzen, lagunarteko gazte-hizkeraren izaera indartzen duten adibideak bilatu dira, eta forma bakoitza gure corpusaren formara egokitu-tako multzokatzean sailkatu da: batzuk fraseologiaren sailean, eta beste batzuk, identitate komun batek sortutako lexiko berriari dagokion sailean.

2.3.3. *Sintaxia*

Lehenago aipatu bezala, kode-alternantzia ikertu duten bi tradizio nagusietako bat da alderdi sintaktikoa (Lantto 2015). Gumperzek (1982) alderdi sintaktikoa ez ezik alderdi pragmatikoa ere landu zuen. Eta Ibarrek (2011) lexikoaren adarra gehitu zion nafar euskaldun gazteei egindako ikerketan. Gumperzen arabera, kode-alternantziaren baitako edozein egiturak baldintza sintaktikoen inguruan jokutzen du beti:

It is evident that, although code switching can cut across many common relationships, it is nevertheless subject to at least some syntactic constraints. This is also confirmed in a recent independent study of Spanish-English code switching. (Timm, *apud* Gumperz 1982: 89)

Ahozko diskurtso orok betetzen ditu arau sintaktiko batzuk. Ukaezina da sintaxiak kode-alternantzian izan dezakeen eragina. Are gehiago, euskara eta gaztelera moduko bi hizkuntzen arteko kode-alternantziaz ari bagara: izan ere, sintaktikoki urrun dauden bi hizkuntza txandakatzean, hiztunak hautu bat egin behar du ekoitziko duen mezuaren izaera sintaktikoa erabakitzeke.

Lanttoren arabera (2015), euskara-gaztelera kode-alternantziak askotan bi hizkuntzen erregela sintaktikoak txandakatzea bidera dezake hiztuna; baina hori ez da beti gertatzen. Izan ere, hainbat gramatika ikerketek diotenez, bi hizkuntza horien kode-alternantzia gertatzen denean, oro har, euskarak oinarri bezala funtzionatzen du, eta gazteleratik elementu berriak atxikitzen eta ezeztatzen dira (Lantto 2015). Euskal hiztun txikiengan erakutsi denez, behinik behin, kodeak ondo bereizten dira (Ezeizabarrena eta Aeby 2010).

Halaber, Alegria-k (2009) arbuiatzen duenez, solasean egindako hizketa sintaxi “berezi, inkoherente eta agramatikal” batekin erlazionatu ohi diren ezaugarri eta fenomenoek agertoki gisakotzat jo izan da. Autorearen iritziz, ordea, bere egituratze ezaugarri bereizgarriak ditu eta honako ezaugarriok errepikatu ohi dira solas-egoeretan ekoiztutako testuen sintaxian:

- Parataxi bidez gauzatutako loturak: intonazioaren bidez koordinazioa lortzeko.
- Monema proposizionalak: hitz bakarreko esaldiak.
- Analokutuak: esaldi edo enuntziatu erdian burututako egitura aldaketak.
- Elipsiak.
- Lexikalki gauzatu gabeko balentziak: gramatikalki amaitu gabekoak.
- Sintaktikoki galdetzaile eta sustantibo alternantziak: galdetzailearekin bat datorren funtzio sintaktikoa falta duten erantzunak.
- Elementu parasitikoak.
- Errepikapen lexikoak.

Lan honetan, kode-alternantziaren eremuan identifikatu diren baliabide sintaktikoen sailkapen berariazkorik egin ez den arren, kontuan izateko alderdia iruditzen zaigu corpusean ager daitezkeen sintaxi mailari lotutako kode-alternantziaren agerraldiak aztertzeko.

3. Beasaingo zenbait gazteren hizkeraren ezaugarriak

Atal honetan, lehenik, lan honen helburuak eta hipotesi nagusiak azalduko dira. Segidan, lanaren metodologiaren berri emango da, eta corpusaren eta parte-hartzaileen inguruko informazioa aurkeztuko da. Gero, lanaren aztergai zehatzak zein diren definituko da, eta azkenik, aztertutako corpusaren analisiaren emaitzak deskribatuko dira.

3.1. Helburuak eta hipotesiak

Lan honen helburu nagusia Beasaingo gazteen eguneroko hizkerari dagozkion ezaugarri esanguratsuenak aztertzea eta deskribatzea da eta, zehaz-

ki, Beasaingo gazteek haien eguneroko ohiko elkar-trukeetan egiten duten kode-alternantziaren erabilera aztertzea. Bestetik, kode-alternantziaren erabilerak elkar-truke motaren arabera parametroen aldakortasunarekin bereganatzen dituen ezaugarri desberdinak identifikatzea eta deskribatzea. Azkenik, diskurtsiboki solasaren antolamenduaren eta kode-alternantziaren artean dauden harremanak jorratuko ditugu, elkar-truke motaren arabera corpusari begira zer-nola aldatzen diren aztertzeko.

Lanaren hipotesi nagusia izan da testuinguru komunikatiboaren eta elkar-truke motaren parametro zehatzen arabera, gazteek komunikatzeko baliabide berezituak erabiliko dituztela; hots, kode-alternantziaren eta solasaren antolamenduaren inguruan hautu desberdinak egingo dituztela. Horregatik, lanaren metodologiaren atalean azalduko den moduan, Beasaingo gazteak lagunarteko eta familiarterako bina testuingurutan grabatu dira. Gazteek lagunartean eta familiarteran betetzen dituzten rol desberdinen ondorioz –simetrikoagoa laguneren artean–, aztertutako elkar-truke mota bakoitzean kode-alternantziaren erabilera eta solasaren antolamenduaren egituraketa desberdinak aurkituko direla aurreikusten da.

3.2. Azterketa metodologia

Corpusean bildu diren ahozko testuen grabaketak egiterakoan erabili den metodo nagusia solas librea izan da (Ibarra 2011). Datu-biltzailearen konfiantzazko zirkulu bat hautatu da grabaketak egiteko, eta gazteen errutinazko elkar-truke batzuk grabatu dira. Horietako bi, asteroko hitzorduak, eta beste bi, ohiko kotxe bidezko desplazamenduak. Solasaldi libreotan ez da gairik edo galdera bideraturik proposatu; alegia, elkar-trukeetan ez da aurrez ezarritako gairik finkatu. Beraz, solaskideen eguneroko bizitzan izandako gertakari berrienei buruzkoak dira hizketagai gehienak.

Datu-biltzailea edo ikerlaria grabatu diren elkar-trukeen parte izan da. Nahiz eta solaskideen jarduna baldintza zezakeen faktorea izan zitekeen, abantaila bat badu: ikerlariak hurbiletik ezagutzen ditu testuinguruak, eta uste da hasierako lotsak eta mesfidantzak gaudituz ondoren (Ibarra 2011), grabatutako elkar-trukeetan hiztunek eguneroko elkar-trukeetan erabili ohi

duen hizkera erabili dutela. Edonola ere, esan bezala, azterketa pilotutzat hartu behar da egindako corpusaren bilketa eta aurrera begirako ikerketetan alderdi metodologikoak berrikusi beharra dago. Edonola ere, parte-hartzaile guztiek baimen idatzia eman dute grabaketa ikerketa helburuetarako erabili dadin.

Egin diren grabaketak ahots bidezkoak izan dira; horrek parte-hartzaileen solasaldia libreagoa izan zedin ahalbidetu duela uste da, nahiz eta komunikazio-eraginkortasuna aztertzeke nahitaezkoa litzatekeen ahozkoak ez diren zeinuak ere kontuan izatea (Cestero 2017). Tusónek dioen bezala, kasurik gehienetan erabiltzen den metodoa ahots grabaketena da:

Dada la importancia que tienen los factores no verbales en la interacción cara a cara, lo ideal sería siempre hacer grabaciones audiovisuales, sin embargo, el vídeo resulta (*¿aún?*) un elemento que condiciona mucho el comportamiento de quienes se sienten grabados, por lo que, en la mayoría de las ocasiones, nos hemos de conformar con grabaciones que sólo recogen los aspectos verbales de la comunicación. (Tusón 2010: 98)

Jasotako grabaketen transkribaketak egiteko, hainbat hautu hartu behar izan dira. Horretarako, Val.Es.Co-ren³ transkripzio irizpideak jarraitu dira. Tusónen arabera, transkribaketetan hartzen diren hautuak analisiaren parte izan daitezke:

La transcripción del material grabado constituye un paso fundamental en el estudio de las interacciones verbales ya que obliga a tomar una serie de decisiones teóricas y metodológicas que condicionan el análisis posterior. De hecho, podríamos decir que con la transcripción empieza el análisis. (Tusón 2010: 99)

Behin transkribaketak eginda, kode-alternantzia kasuak erabili den kategoriaren arabera markatu dira beltzez. Corpusean identifikatutako adibi-deak eztabaidagarriak ere izan daitezke, eta, horregatik, aurrez aipatutako autoreek emandako sailkapenak hartu dira aintzat. Corpora elkar-truke

³ Val.Es.Co-ren transkripzio irizpideak artikulua izen bereko Gradu Amaierako Lanean daude jasota.

mota ezberdinekin osatu da, eta gazteen lagunarteko hizkeraren azterketa izan arren lanaren helburu nagusia, bestelako elkar-truke informaletako emaitzekin konparatu ahal izateak gazte-hizkeraren ezaugarri batzuen bereizgarritasunak aurkitzeko balio du. Horregatik, lagunarteko elkar-trukeetako emaitzak familiarteko elkar-trukeetan lortutako emaitzekin konparatu dira, kode-alternantziari dagozkion eta solasaren antolamenduari dagozkion ezaugarriak mugatzeko xedez. Eraikitako corpusean elkar-truke motaren arabera desberdin gauzatzen diren hautuek eta fenomeno linguistiko eta diskurtsiboek ahalbidetu dute gazte-hizkerari dagozkion ezaugarri bereizgarriak deskribatu ahal izatea. Corpusean, kode-alternantziako agerraldiak jatorrizko hizkuntzaren grafia jarraituz transkribatu dira.

3.3. **Corpusa**

3.3.1. *Aztertutako eremu soziolinguistikoa*

Beasain Gipuzkoa hegoaldeko udalerri bat da. Goierri eskualdeko herri-rik jendetsuena da, 13.863 biztanle zituen 2016. urtean. Datu soziolinguistikoak direla eta, 2021. urtean Soziolinguistika Klusterrak⁴ egindako kaleko erabileraren inguruko inkesten arabera, % 32,8k erabiltzen du ohikotasunez euskara kalean, eta % 61,1 aritzen da gaztelaniaz. Adinari erreparatuta, desberdintasunak ikus daitezke belaunaldi batzuetatik besteetara: 2 urtetik 14 urte bitarteko haurren % 47,1ek erabiltzen du euskara kalean, 15 urtetik 24 urte bitarteko gazteen % 38,5ek, 25 urtetik 44 urte bitarteko heldu gazteen % 37,6k eta 45 urtetik 64 urte bitarteko helduen % 24,4k. Datuok erakusten dute adinean gora egin ahala nabarmen gutxitu ohi dela euskararen kale erabilera herri honetan.

Lan honetarako baliatuko den corpusean parte hartu duten hiztunen adina kontuan izanda, garrantzitsua da aipatzea Beasaingo gazteen % 80k euskaraz aritzeko gaitasuna zuela 2021ean. Beraz, euskaraz aritzeko gai di-

⁴ Lan honetatik eskuratutako datuak: *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Udalerriak* (Soziolinguistika Klusterra, 2021).

renen erdiek baino gutxiagok erabili ohi du euskara bere eguneroko jardunean. Nolanahi ere, Soziolinguistika Klusterrak ateratako ondorioen arabera, “gazteek zertxobait gehiago egiten dute euskaraz euren artean daudenean adin desberdinetako biztanleekin osatutako taldeetan daudenean baino”. Beraz, lagunarteko gazte-hizkerak toki esanguratsua du gazteen eguneroko solasean: gazteak euskaraz batez ere lagunartean aritzen baldin badira, gazteon eguneroko euskarazko solasaren parterik handienean gazte-hizkera baliatuko dute komunikatzeko.

3.3.2. *Corpusaren eta parte-hartzaileen ezaugarriak*

Ikerketa honetarako baliatu den corpusean parte hartu duten hiztunak bi multzotan bana daitezke, parte hartzen duten elkar-trukearen arabera eta elkar-truke horietan lokutore gisa hartzen duten rolaren arabera. Bildu diren elkar-truke guztiak solas erakoak dira; hau da, bat-bateko elkarrekin-tzen ezaugarriak dituzte, solaskideen artean aldibereko parte-hartzea dago, solaskideek espazioa eta denbora partekatzen dute eta parte-hartzaileek haien arteko harremana une oro negoziatzen dute.

Alde batetik, lagunarteko egoera komunikatiboari dagokionez bi solas edo elkar-truke jaso dira: bata 26 minutu eta 18 segundoko luzerakoa, lagunartean kafea hartzeko ohiko hitzorduan, eta bestea, 13 minutu eta 40 segundoko luzerakoa, autoan egindako ohiko bidaiari batean. Bertan parte hartu duten gazteak 21-22 urteko emakume gazteak izan dira, Beasainen bizi direnak, euskara H1 hizkuntza dutenak eta lagunartean oro har euskaraz aritzen direnak. Kuadrilla bereko gazteak dira, haur eskolatik elkarren lagun izandakoak, eta orain arteko ikasketak euskara hutsean egin dituztenak. Alderdi metodologikoak argitze aldera, esan dezagun MA ikertzailea dela, grabaketa egiten diharduen gaztea, eta ondorioz, “Ikerlari” bezala adierazi da haren parte-hartzea transkribaketetan.

1. taula. Lagunarteko bi elkar-trukeetan parte hartu duten hiztunak

Deitura	Adina	Generoa	Jaioterria	Bizitokia	Ohiko hizkuntza
LO	21	Emakumea	Beasain	Beasain	Euskara
IO	21	Emakumea	Beasain	Beasain	Euskara
JA	21	Emakumea	Beasain	Beasain	Euskara
IK	22	Emakumea	Beasain	Beasain-Gasteiz	Euskara
UA	21	Emakumea	Beasain	Beasain-Torrelavega	Euskara

Beste alde batetik, familiartean izandako bi elkar-truke jaso dira corpu-sean; lehenengoa, 24 minutu eta 22 segundoko luzerakoa, bazkalorduko ohiko hitzorduan, eta bigarrena, 10 minutu eta 15 segundoko luzerakoa, autoan egindako ohiko bidaia batean. Bertan, adin-profil desberdineko hiztunek hartu dute parte: aitona-amonek, aita-amek eta hiru bilobek. Lehenengo biek Idiazabalen dute euren bizitokia, eta gainerako bostak Beasainen bizi dira.

2. taula. Familiarteko bi elkar-trukeetan parte hartu duten hiztunak

Deitura	Adina	Generoa	Jaioterria	Bizitokia	Ohiko hizkuntza
Jl	82	Gizona	Idiazabal	Idiazabal	Euskara
AG	78	Emakumea	Amezketeta	Idiazabal	Euskara
BA	55	Gizona	Zaldibia	Beasain	Euskara
AI	48	Emakumea	Idiazabal	Beasain	Euskara
IK	22	Emakumea	Beasain	Beasain-Gasteiz	Euskara
JAI	17	Emakumea	Beasain	Beasain	Euskara
NAI	20	Emakumea	Beasain	Beasain-Gasteiz	Euskara

Corpusaren ezaugarriak, transkribatutako testuen fitxa teknikoak eta transkribaketa irizpideak, transkribatutako elkar-trukeekin batera, artikulua honen izen bereko Gradu Amaierako Lanaren eranskinean daude jasota.

3.4. Kode-alternantzia eta testuingurua: aztergai zehatzak

Lan honetako aztergai nagusia kode-alternantzia izan da: lehenago aipatu da Ibarren (2014) lanean nola azaltzen den ezinezkoa dela fenomeno honen gainean teoria unibertsal bat sortzea; horregatik, Beasaingo testuinguruan bildutako corpusean orain arte egin diren lanetako kode-alternantziarako kategoriak aztergai jarriko ditugu. Kode-alternantziaren barruan, ondoko alderdi linguistikoak jorratuko dira: baliabide pragmatikoak, sintaxia eta lexikoaren erabilera.

Testuinguru eta kultura bakoitzean ezaugarri propioak izan ohi ditu kode-alternantziak (Gumperz 1982; Ibarra 2014; Lantto 2015); beraz, garrantzitsua da gogoan izatea gure corpusean oinarrituta eginiko sailkapena izanik, agian beste testuinguru zenbaitetarako ez litzatekeela izango guztiz aproposa. Oraingoz, osatutako corpusean frogatu nahi da kode-alternantzia gazte-hizkeran aztertzeke sailkapenaren proposamen bat. Kode-alternantziari begira erabilitako baliabideak corpusean askotarikoak dira. Horiek aztertzeke, bildutako adibideen izaerara molda daitekeen sailkapen bat egin da, hainbat autorek eskaintutako sailkapenetatik abiatuta. Honakoa da corpusaren analisirako erabili den sailkapena:

- Diskurtso lokailuak/markatzaileak: *a ver*,⁵ *ya*, *porque*, *así que*, *o sea*, *como...* (Ibarra 2011), *es que*, *en plan*, *claro*, *aunque sea...*
- Interjekzioak: *venga*, *hombre*, *bua*,... (Ibarra 2011), *sin más*, *bueno*, *ya...*
- Formula enfatikoak: *o sea*, *hostia*, *es que*, *a ver*, *joder*, *tía*, *ostra*, *ves*, *qué va...*

⁵ Adibide hau kode-alternantziako kategorien eztabaidagarritasunaren erakusgarri da. Euskaltzaindiak euskarazko hiztatzat (*aber*) onartua duen arren, hemen kode-alternantzia kasutzat jotko da. Aurrera begira, bada zer sakondu alderdiori begira ere.

- Fraseologia: *de coña, no te jode, a una mala, da igual...* (Ibarra 2011), *a esos niveles, lo que sea, qué X, no sé que, a toda hostia, ni de coña, da igual, a lo loco...*
- Lexiko berria: *fans, home cinema, number one, pasta (dirua), enrollatua, mobida...* (Ibarra 2011), *flipatu, ostia (kolpe), super, bomba de humo, petatu, gaupasero, fina (mozkor), kolgatuta, “resacola”...*
- Baliabide sintaktikoak: *de lasai nada, más que mozkorra hasarre, porque xea como la pobrecita, mítico tropezatzezeala eta itendezu saltito.*

Horiez gain, corpusean agertutako eta goiko sailkapenean kokatzeko zailtasunak dituzten “beste” kategoria bat ere sortu dugu. Bertan, bi tipotako baliabideak bereizi ditugu: batetik, gaztelaniadun testuinguru diskurtsibo bat norbere diskurtsora bere horretan ekartzeko erabilia, diskurtsio ekarriaren agerraldi gisakoa (*danak raro beidatzen da ni / que no aguanto, en plan “la niña la niña yo soy la madre subo” no se que ta hola, es que gero rebai jendea tontoa da / en plan / “no le echaba de menos nadie?”...*); eta bestetik, diskurtsio osagai baten indartze estrategia gisa esajerazioa adierazteko erabilitako kode-alternantzia gertaera, errepikapen figurekin lotua ageri dena (*ez ez nere ama en plan no puede ser, no puede ser / ni momentu baten potatzekotan, Zumarrran ya jende pixkat jetxia / baño que no que no que no para, te esta dando e, tu chofer de confianza, es que bueltauta gare ta es un buen...*).

Azken bi adibide hauek ahozkoaren diskurtsuaren eraikuntzako figura sintaktikoekin izan dezakete harremana. Oraingoz, esan bezala, “beste” kategorian sailkatuko ditugu.

3.5. Corpusaren analisiaren emaitzak

Atal honetan Beasaingo testuinguruan bildutako corpusaren analisiaren emaitzak deskribatuko dira. Lehenik, emaitza orokorrak aurkeztuko dira. Gero, kode-alternantziaren ezaugarri bereizgarriak aztertuko eta jorratuko dira. Eta azkenik, hitz-txanden osaeraren inguruko emaitza batzuk azalduko dira.

3.5.1. Lagunarteko eta familiarteko kode-alternantzia: emaitza orokorrak

Aipatu bezala, lan honetan parte-hartzaileek erabilitako kode-alternantziaren erabilerari jarri zaio arreta bereziki, baina lagunartekoak edo familiartekoak diren solasen antolamenduak interakzio mailan dituen helburu, izaera eta ezaugarri bereizgarriek ere izan dezakete zeresana. Ondorioz, kode-alternantziaren eta elkar-truke moten edo generoen arteko erlazioak ere argitu nahi izan dira. Baliabide pragmatiko, sintaktiko eta lexikoak erabiltzerako garaian, corpusean ageri den kode-alternantzia aztertu da hainbat kategoriaren bitartez, eta solaskide gazteek kode-alternantziara elkar-truke motaren arabera zer-nola jotzen duten ere aztertu da.

Zenbait adibideek zalantzak eragin baditzakete ere, bildutako corpora aztergai izanik egin den konparaketa bidezko azterketarako sailkapen hau eraginkorra geratu da. Alderdi kuantitatiboari erreparatu gero, berehala antzeman daiteke hitzunik komunikatzeko baliabideen hautu desberdina egiten dutela lagunarteko testuingurutik familiarteko testuingurura. Ondorengo taulan ikus daiteke testuinguruaren arteko desberdintasun kuantitatiboak zertan datzan.

3. taula. Corpusean bildutako kode-alternantzien kasu-kopurua elkar-truke motaren arabera

Baliabidea	Lagunartean	Familiarartean
Diskurtso lokailuak/markatzaileak	135	60
Interjekzioak	61	39
Formula enfatikoak	101	77
Fraseologia	36	12
Lexiko berria	62	10
Baliabide sintaktikoak	4	0
Besteak	10	0
Guztira	409	198

Errepara daitekeen modura, aldea dago solaskideen baliabide komunikatiboen erabileran: iraupen bertuko bi solas-egoeren artean, bikoitza da lagunarteko testuetan erabili den kode-alternantzia kasuen kopurua. Edonola ere, ez da gauza bera gertatzen kategoria guztietan. Lagunarteko elkar-trukeetan diskurtso lokailuak/markatzaileak dira kopuruz handienak; gazteek hitz-txanda bakoitzean behin baino gehiagotan erabiltzeko joera dute haien artean solasean ari direnean. Familiako helduagoekin daude-nean, aldiz, ez. Ondoko adibideok dira desberdintasun horren erakusgarri:

- (1) **En plan** / ez ez ba MA txoiñ // **En plan** / jun komunea / (L1, 37)
- (2) gelditu giñela danak ola **en plan** ah / **a ver** altxau itezan / **porque** / igual bost aldiz eroi zan (L1, 66)
- (3) **Es que** bea / bea bazkarin eaten eontzan gurasokin / **o sea ya** mozkorra etorri zan guregana e / pispauta etorri zan guregana (L1, 518-519)
- (4) bere kuadriyakok ba **ya** / ezdituztela juergak iten **o sea** beak ezta / **ya** beste etapa baten darella **o sea** / [badakila (L2, 279-280)
- (5) hoi zan nire galdera / **a ver** zenbat atea z / hoi da (F1, 537)
- (6) bai oañ ya praktikak eta bai / **es que** nere k ne kuadriyako iñok eztauke ya klaseik (F1, 380)

Interjekzioen eta formula enfatikoek kasuan, familiarrean eta lagunartean jasotako datuetan ez da diskurtso lokailu/markatzaileetan adinako desberdintasunik ageri; baina horietan ere ia hogeiki forma gehiago erabiltzen dituzte gazteek elkarrekin daudenean. Ondorengo adibideetan interjekzio eta formula enfatiko erabilienetako zenbait bildu dira:

- (7) **Sin más** / jun soziedade zerbait jatea (L1, 394)
- (8) **Ya** baño / **ya** ez bai bai betiketizitaion ikusten (L1, 153)
- (9) **Joder** puto parti (L1, 257)
- (10) **A ver venga** F (L1, 725)
- (11) **Ya** bakit baño hoi normala iruitzezait baño (F1, 264)
- (12) Ama **tía** (F1, 62)

Baliabide lexikalei dagokiena da solas-egoera batetik bestera gehien aldatzen den alderdia. Lagunarteko testuinguruan ia ehun kasutan erabiltzen dute gazteek kode-alternantzia haien arteko solasean; aldiz, familiarterko testuinguruan, hogeita bi kasutan baino ez da ageri kode-alternantzia lexikala. Hona zenbait adibide:

- (13) Ni larunbaten enitzen juerga atea / o sea **a esos niveles** (L1, 33)
- (14) **Qué guay** (L2, 140)
- (15) Baño halare / **da igual** ze Domusa teknikei reaktionau diozu ez beai (L2, 345)
- (16) Ala **qué fuerte** (F1, 382)
- (17) Esantziten NAI **no se qué** ikusiet hor tzarela (F2, 49-50)

Bestalde, baliabide sintaktikoei edo “beste” kategoriako kopuruei erreparatzen badiegu, ikus daiteke kasu bakar bat ere ez dela ageri familiarterko elkar-trukeetan, eta, aldiz, lagunartean hamalau agerpen daudela. Hona-koak dira horietako batzuk:

- (18) **Mítico tropezatzezeala ta itendezu saltito** (L1, 77)
- (19) **De lasai nada** (L1, 166)
- (20) **Porque zea como la pobrecita** (L1, 308)
- (21) **Más que mozkorra hasarre** (L1, 668)
- (22) es que gero rebai jendea tontoa da / en plan / “**no le echaba de menos nadie?**” no se que ta hola (L1, 155-156)
- (23) **Te esta dando eh** (L1, 260)

Kategoria batzuetan besteetan baino alde nabarmenagoa agertu arren, oro har, esan daiteke solaskide gazteek lagunartean, bai kafe-tertulian eta bai autoan jasotako tertulian kode-alternantziaren erabilerarako joera gehiago dutela familiarterko solas-egoeretan baino.

3.5.2. Kode-alternantziaren ezaugarri bereizgarriak gazteen arteko elkar-trukeetan

Erabilera kuantitatibotik haratago, aniztasunean ere aldea ikus daiteke testuinguru batetik bestera: gazteek, oro har, baliabide-aniztasun handiagoa agertzen dute lagunarteko elkar-trukeetan, familiarteko elkar-trukeetan baino. Edonola ere, ez da kategoria denetan berdin gertatzen. Taula honetan ikus daiteke diferentzia hori, kode-alternantzia moten kopuruak ez baitira bi kategoriatan baino bereizten.

4. taula. Kode alternantziako baliabide mota kopurua elkar-truke motaren arabera

Baliabide desberdinak	Lagunartean	Familiartean
Diskurtso lokailuak/markatzaileak	12	10
Interjekzioak	4	2
Formula enfatikoak	14	16
Fraseologia	26	6
Lexiko berria	31	8
Baliabide sintaktikoak	4	0
Beste	10	0
Guztira	101	42

Lagunartean, guztira, kode-alternantziaren azterketan erabili den sailkapenari lotuta, 101 baliabide desberdin zenbatu dira, eta familiartean, berriz, 42. Beraz, baliabideen aniztasunaren aldetik ere, lagunarteko testuinguruetan txandakatze gehiago daudela ikusi da corpusak eskainitako datuetan. Taula honek adierazten du lagunartean eta familiartean diskurtso lokailu/markatzaile, interjekzio eta formula enfatiko antzerakoak erabili dituztela aztertu ditugun solaskideek: diskurtso lokailuen/markatzaileen eta interjekzioen kasuan, bina baliabide gehiago erabili dira lagunartean; eta formula enfatikoaren kasuan, familiartean topatu ditugu agerpen gehiago. Hona hemen bi testuinguruetan errepikatzen diren zenbait adibide:

- (1) Bai / **es que** aitan urtegatik etorria (L1, 352)
- (2) **Es que** nik attekin lana ittenun zuek ez (F2, 138)
- (3) **A ver** mareau barnaizen (L1, 139)
- (4) Atte baño hoi obratan dau e / **a ver** nundik (F2, 325)
- (5) **Ya** bai baño batea igoko gea (L1, 574)
- (6) **Ya** norbaittek esantzon bai (F2, 67)
- (7) **Hombre** ezkondu barkoie (L2, 119)
- (8) **Hombre** hoi eztau buruti jota (F2, 86)

Garrantzitsua da baliabide motaren araberako kopuru desberdintasunari erreparatzea: izan ere, baliabide pragmatikoei dagokienean, oso mota antze-koak agertzen dira bi solas-egoeretan, eta baliabide lexikalei eta sintaktikoei dagokienean, aldea handitzen da. Ondorengoak dira corpusean parte hartutako gazteek lagunartean erabili dituzten eta familiarrean erabili ez dituzten baliabide lexikal eta sintaktikoen zenbait adibide:

- (9) Bestela **ni de coña** ezdeu lortzen e (L1, 584)
- (10) Ni **to chula** juteaiz (L2, 30)
- (11) Eez / baño oañ izangoa Arnedo **dos punto zero** (L2, 152)
- (12) Esandit biziko **petada** zeola (L1, 209)
- (13) Eta osteunen re **finas** jungo zien (L1, 414)
- (14) Eta alleau zala etxea **más que mozkorra hasarre** (L1, 668)

Esan bezala, aztertutako corpusean kode-alternantzia bidez erabilitako baliabide lexikalak eta sintaktikoak gazteen hizketaren ezaugarri azpimarragarri bezala ageri dira bildutako corpusean; ez, ordea, baliabide pragmatikoak. Lagunarteko solasean, kopuruz gehiago agertzen dira baliabide pragmatiko berberak; askoz maizago erabiltzen dira, bestela esanda: hitz-hartze bakar batean gazteek baliabide pragmatiko berberak ugariago erabiltzen dituzte, eta baliabideon errepikapenaren bidez diskurtso egituratze bereizgarri bat erreparatu daiteke. Esate baterako, hurrengo adibide hauetan er-

lazio sintaktiko kausala adierazteko baliabide pragmatiko desberdinak bil-tzen dira enuntziatu berean:

- (15) Gelditu giñela danak ola **en plan** ah / **a ver** altxau itezan / **porque** / igual bost aldiz eroi zan (L1,
- (16) Ni pasatze nintzenero **en plan** ezdakit zeñ dan **porque** enueken gogo /
- (17) **En plan a ver** ez dizut esan behar baño ola señalatzen / **es que** zu / etortzeza ta eztezu beste gauza bat iten eztana / e mozkortu / amonak...

Beste zenbait adibidetan, baliabide pragmatiko berberaren errepikapena baliatzen dute solaskideek hitz-hartze berean, erabilera horren bidez bete nahi den funtzioa azpimarratzeko:

- (18) **Es que es que** hamabost euro balioitu (L1, 401)
- (19) **Es que es que** txaketa morea potoloa da e / (L2, 351)
- (20) **En plan** / ez ez ba MA txoñ // **en plan** jun komunea / neskanen biziko kola mutiyenen ezer ez (L1, 37-38)
- (21) es que zeñek ez ditu pasa? / **o sa** / zeñek ez ditu pasa? / nei egun baten Ordiziti bueltan / lo hartuzin biden / **o sa** berekin (L2, 176-177)

Familiarteko elkar-trukeetan kategoria mota berberak aurkitu arren, askoz agerraldi gutxiago dituzte: hitz-hartze berean oso gutxitan errepikatzen dira kodez txandatutako baliabide pragmatikoak, eta ez dira errepikatzen kode-alternantziaren bidez eraikitako erlazio sintaktikoak. Ondokoak dira gazteek familiarean erabilitako baliabide batzuk:

- (22) MM bai / **o sea es que** AMn iguala da (F1, 370)
- (23) Aa bale / **es que claro** holako gauzak (F1, 601)
- (24) **hombre** hoi eztau buruti jota (F1, 88)

Halaber, lagunarteko elkar-trukeetan familiarteko elkar-trukeetan baino iruzkin gehiago egiten diete solaskideek elkarren enuntziatuei, eta iruzkin horietan kode-alternantziara jotzeko joera azaltzen dute aztertutako gazteek

hizketan. Soziologikoki gazteen hizketaren ezaugarri den erlazio erlaxatu eta simetrikoaren erakusgarria iruditzen zaigu hurren-bikoteen ebaluazio-atalaren osatze hau eta kode-alternantziaren erabilera hau (Tusón 2010). Aurretik azaldutakoarekin batera, gertaera hau gazte-hizkeraren beste ezaugarri diskurtsibo batzuekin jar liteke harremanetan; solasaren antolamendu bereizgarri bat erakusten du, eta erlazio interesgarri bat kode-alternantziaren eta solasaren egituratzearen artean.

- (25) – enaiz eon konstiente oañarte NJn bodan NK baita eongo dala
– **Caroo** (L2, 43)
- (26) – tía ba / ez ba horregatik e / kontajiau indizut / ni biziko kagalera-
kin etxen e
– **ya ya ya** / bai bai bai (L1, 27)
- (27) – gu baño bat txikigoa
– A //
– AB / jo **es que**
– jo **es que** iñorrek eztio seitzen bakarrik NDk ta mega gabe zeon
(...)
– megak gastau iteye oaindio / gaur egun?
– **ya** (L1, 442-449)
- (28) – ezintzan ezta estazioa sartu
– **es que** zero inbidi (L1, 203-204)

Bildutako corpusaren analisiaren emaitzak kontuan izanik, esan dezakegu gazteen hizkuntzaren erabilera aldatu egiten dela lagunarteko testuingurutik familiarreko testuingurura. Gazteek testuinguru bakoitzari dagokion elkar-trukeetan erabilitako hizketak, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki, ezaugarri bereizgarriak dituela erakutsi du. Hala ere, kode-alternantzia elkar-truke mota guztietan erabili dute solaskideek, hau da, aztertutako elkar-truke mota orotan errepikatzen den fenomeno da kode-alternantzia; beraz, antzekotasunak ere topatu dira bi solas-egoeretan.

3.5.3. *Hitz-txanden osaera testuinguru komunikatiboaren arabera: kode-alternantziarekin elkarreraginean*

Aztertutako testuinguru bakoitzeko solasari erreparatzen badiogu, kode-alternantziari dagozkion ezaugarriek enuntziatuen osaerari eta hitz-txanden eta solasaren egituraketari dagozkien ezaugarriekin nolabaiteko erlazioa dutela ondoriozta dezakegu. Izan ere, solasaren egituraketaren bidetik, nahiko hitz-txanda laburrez osatuak badira ere, gazteen arteko elkar-trukeetan hitz-txanda luzeagoak agertzeko joera dago. Ondorengo taulan gure corpusean bildu diren hitz-txanda luzeenei jarri zaie arreta; H1 deitu diogu elkar-truke mota bakoitzean bildu den hitz-txanda luzeenari, hurrengoari H2, eta hurrengoari H3:

5. taula. Hitz-txanda luzeenen enuntziatu kopurua elkar-truke motaren arabera

	Lagunartean	Familiartean
H1	6 enuntziatu	4 enuntziatu
H2	5 enuntziatu	3 enuntziatu
H3	5 enuntziatu	3 enuntziatu

Ikus daitekeen moduan, gazteek lagunarteko solasaren testuinguruan hitz-txanda luzeagoak osatzen dituzte hiztunek familiarterako solasean baino. Gainera, lagunarteko elkar-trukeetan 5. taulan aipatutakoak baino hitz-txanda gehiago daude bost enuntziatu inguru dituztenak; baina familiarterako elkar-trukeetan, enuntziatu bat edo bi enuntziatu biltzen dituzten hitz-txandak dira nagusi. Honek ere, gazteen arteko elkar-trukeetan harremanak nola ezartzen diren eta garatzen diren erakuts dezake, berdinetik berdinerari eta familia-egiturak ahalbidetzen duena baino erlazio simetrikoa-goetan.

4. Ondorioak

Gure azterketaren helburu nagusia Beasaingo gazteen hizkerari dagozkion ezaugarri esanguratsuenak aztertzea eta deskribatzea izan da. Horretarako, Beasaingo gazte batzuen eguneroko elkar-trukeetan bildutako lau testu izan dira aztergai. Lagunarteko bi solas-egoerari lotuak eta beste bi familiarterko solas-egoerari lotuak; lau elkar-truke horietan ekoiztutako testuek osatu dute lanerako erabili dugun corpusa.

Corpusaren gaineko analisisa egin aurretik, erreferentziazko azterketetik eta lanetatik abiatuta, bildutako testuetako gazte-hizkeran kode-alternantzia aztertu dugu, betiere, aintzat hartuz solasaren antolamenduaren gertakari diskurtsiboa, hein batean, gazte-hizkera gauzatzen den testuingurueta-ko ezaugarri soziologikoen zordun dela eta testuinguruko parametroek eragina izan dezaketela.

Atal praktikoan, corpusean bildutako kode-alternantzia kasuak identifikatu eta zenbatu dira. Behin analisirako sailkapena eginda, corpusean bildutako lau testuen azterketa egin da bereizketa nagusi bat aintzat hartuz: lagunarteko solas-egoeretan eta familiarterko solas-egoeretan bildutako datuak erkatu dira eta testuinguruaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatu dira. Emaitza nagusiek baieztatu dute lanaren hasieran aurkeztutako hipotesia: lagunarteko solas-egoeretan kode-alternantzia kasu gehiago ageri dira familiarterko solas-egoeretan baino, eta solasaren antolamenduan ere aldeak daudela ikusi da testuinguru batetik bestera. Hala ere, analisiak azaleratu duen emaitza nagusietakoa hau da: baliabide lexikal eta sintaktiko gehiago erabiltzen dituzte gazteek lagunarteko solas-egoeretan familiarterkoetan baino. Baliabide pragmatikoei dagokienez, kualitatiboki baliabide bertsuak erabiltzen dituzte gazte-hiztunek lagunartean zein familiarteran daudenean; aitzitik, baliabide horien agerpena eta konfigurazioa desberdin azaltzen da aztertutako testuetan, testuinguruaren parametroek eraginda. Izan ere, aztertutako testu guztiak elkar-truke mota informalekoak izanda ere, hots, gazteen arteko solas erakoak, testuinguru komunikatibo bakoitzean hautu desberdinak egiten dituzte gazte-hiztunek. Ondorioz, lanaren hasieran aurkeztutako iker-galderari helduz, honakoa esan liteke: gazte-hizkera testuinguruari estuki lotuta dago, eta komunikazio-parametro

zehatzek nabarmen eragiten dute gazteen hizketan. Are, interlokutoreen profilararen arabera, kode-alternantziaren erabilera desberdina egiten da testuinguru komunikatibo bakoitzean.

Azterketa honetan bildu den corpusak eta egin den analisiak ekarpen bat izan nahi dute ikerketarako, euskararen gazte-hizkeraren ezaugarritzeari eta solasaren antolamenduari lotuta. Testuinguru komunikatiboa aintzat hartzen duten solas erako testu genero mota gehiago aztertzea eta corpus zabalagoa biltzea izan liteke lehen lan bat. Horrez gain, aurrez aipaturiko kategorien afera eztabaidagai jartzea ere garrantzitsua dela dirudi, lan honetan egin den azterketak orain arteko kategorizazioetan sartzeko mugak topatu baititu, analisi diskurtsiboago bat egin nahi izan denez. Bukatzeko, kode-alternantziaren azterketan ahozkoaren dimentsio testual eta diskurtsiboa sakontzeak ere merezi duelakoan gaude. Aztertutako alderdiak azterketa pilotu baten barnean ulertuta, lan honek euskarazko ahozko jardunaren ikerketarako baliagarri izan nahi du.

Bibliografia

AIESTARAN IPARRAGIRRE, M. (2023). *Beasaingo gazte-hizkera aztergai: kode-alternantziaren eragina testuinguruaren arabera*. [Gradu Amaierako Lana]. UPV/EHU.

ALBA-JUEZ, L. (2009). *Perspectives on discourse analysis: theory and practice*. Cambridge Scholars Publishing.

ALEGRIA, A. (2009). «Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai». *Euskera* 54 (2): 771-809.

AMORRORTU, E. (2003). «Hizkuntza aldakortasuna eta identitatea», in Mendebalde Kultura Alkartea (ed.), *Ahozko bideak* (157-165). Mendebalde Kultura Alkartea.

CESTERO MANCERA, A. M. (2018). «Recursos no verbales en comunicación persuasiva: gestos», *Zer: Revista de Estudios de comunicación = Komunikazio Ikasketen Aldizkaria* 23 (44): 69-92.

EZEIZABARRENA, M. J. eta AÉBY, S. (2010), «Les phénomènes de code-switching dans les conversations adulte-enfant(s) en Basque-Espagnol: une approche syntaxique», in Olivieri (ed.). *La Syntaxe de Corpus*. *Corpus* 9: 53-80.

GABIRONDO ZELAIA, M. (2020). Hitz txanden alternantzia euskarazko komunikabideetako hiru saiotan: Herri people, Azpimarra eta Dida saioen azterketa. [Gradu Amaierako Lana]. UPV/EHU. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/48503/GrAL_Gabirondo.pdf?sequence=3&isAllowed=y.

GARCÍA-AZKOAGA, I. M. (2015). "Ahozko euskara, ikerketarako unibertsoa". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 96 (3): 11-28.

GUMPERZ, J. J. (1982). *Discourse strategies*. Cambridge: Cambridge University Press.

HIDALGO NAVARRO, A. (1993). «El habla juvenil: una propuesta metodológica para la extracción de un corpus oral representativo», in R.J. Di Pietro, in memoriam (ed.), *Jornadas Internacionales de lingüística aplicada*: 66-75. Universidad-Instituto de Ciencias de la Educación.

IBARRA, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Universidad Pública de Navarra.

——— (2014). «Tipología y pragmática del code-switching vasco-castellano en el habla informal de jóvenes bilingües», *Lapurdum* 18 (8): 23-40.

——— (2019). «Las conversaciones de jóvenes vasco-parlantes por whatsapp y cara a cara: el cambio de código vasco-castellano». *Círculo de Lingüística Aplicada a la Comunicación* 79: 277-296.

LANTTO, H. (2012). «Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Great Bilbao», *International Journal of Bilingualism* (18) 6: 1-16.

——— (2015). Code-switching in greater Bilbao, a bilingual variety of colloquial basque. [Doktorego-tesia]. University of Helsinki. https://helda.helsinki.fi/bitstream/handle/10138/154646/CODE_SWI.pdf.

——— (2016). «Conversations about code-switching: contrasting ideologies of purity and authenticity in Basque bilinguals' reactions to bilingual speech», *Multilingua* 35 (2): 137-161.

——— (2017). «New basques and code-switching: purist tendencies, social pressures», in *New speakers of minority languages*, C. Smith, N. Christmas, P. O. Murchadha, M. Hornsby eta M. Moriarty (ed.). Palgrave Macmillan: 165-187.

LASAGABASTER, O. (2005-12-02). «Gazte-hizkera lantzen», *Gaztezulo aldizkaria*. <https://www.gaztezulo.eus/albisteak/gazte-hizkera-lantzen> (2023ko martxoaren 22an kontsultatua).

RODRIGO LORENZO, I. (2020). *Euskara-gaztelania elebidumen kode-alternantzia: gazteentzako euskal irratsaio baten analisia*. [Gradu Amaierako Lana]. UPV/EHU. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/48420/GrAL_Rodrigo.pdf.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2021). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Udalerrriak, 2021*. <https://soziolinguiстика.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-udalerrriak-2021/>.

TUSÓN, A. (2010). *Análisis de la conversación*. Barcelona: Ariel Practicum.

Ahozko hizkera informalerako gaitasuna eta harreman-sare informaletako hizkuntza-erabilera: azterketa kuantitatibo bat unibertsitateko gazteen testuinguruan¹

La competencia del lenguaje oral en el contexto informal y el uso del lenguaje en los círculos de la familia y los amigos: un estudio cuantitativo en el contexto de jóvenes universitarios

La compétence linguistique orale dans le contexte informel et l'usage de la langue dans les cercles familiaux et amicaux : une étude quantitative dans le contexte de jeunes universitaires

Oral language competence in the informal context and the use of language among family and friends: a quantitative study in the university context of young college students

ARTETXE SARASOLA, Miren

Lanketa teorikoa, diseinu metodologikoa, datu-bilketa eta datuen analisisa

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila

miren.artetxe@ehu.eus

<https://orcid.org//0000-0002-7067-0179>

¹ Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza (IT-1438-22) eta Euskaltzaindiaren laguntza jaso ditu, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordearen oniritzi burutu da.

BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe

Lanketa teorikoa, diseinu metodologikoa, datu-bilketa eta datuen analisia

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila

garbine.bereziartua@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0003-4987-3315>

BURRESO PARDO, Naroa

Datuen analisia

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saila

naroa.burreso@ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.274>

Noiz jasoa: 2023-12-30

Noiz onartua: 2024-03-06

Euskararen erabilera ezagutza bezainbeste igo ez izanak arreta berezia jarri die eremu informaleko hizkuntza ohiturei. Eremu informalean euskaraz aritzeko gaitasunarekin lotutako alderdiak aztertu dira ikerketa honetan. Zehazki, gaitasun horrekin zenbaterainoko erlazioa daukaten familiakoekin eta lagunekin hitz egiteko erabiltzen den hizkuntzak, unibertsitateko testuinguruan kokatzen diren gazteen artean. Horretarako, UPV/EHUko Donostiako campusean Lehen Hezkuntza ikasten ari diren 292 ikasleren erantzunak jaso dira galdetegi bidez. Emaitzetan ikusi denez, besteak beste, lagun eragina handiagoa da familiarena baino. Ondorioz, erabileran ez ezik gaitasunean ere eragina izateko gune aproposa izan daitekeela unibertsitatea proposatzen da.

Gako-hitzak: eremu informala, ahazko gaitasuna, hizkuntza erabilera, euskara, gazteak, unibertsitatea.

El hecho de que el uso del euskera no haya aumentado tanto como el conocimiento, ha puesto el foco en los hábitos lingüísticos en el ámbito informal. En este estudio se ha analizado la competencia para hablar en euskera en el ámbito informal de jóvenes universitarios; en concreto, el grado de relación que tiene esta competencia con las lenguas que se utilizan para hablar con familiares y amigos. Para ello, se han recibido mediante cuestionario las respuestas de 292 alumnos que cursan Educación Primaria en el campus de Donostia/San Sebastián de la UPV/EHU. Los resultados muestran, entre otras cosas, que la influencia de las amistades es mayor que la de la familia. En consecuencia, se propone que la universidad

puede ser un espacio idóneo para incidir no sólo en el uso, sino también en la competencia lingüística.

Palabras clave: ámbito informal, competencia oral, uso de la lengua, euskera, jóvenes, universidad.

Le fait que l'usage de la langue basque n'ait pas augmenté autant que la connaissance de la langue basque a attiré l'attention sur les habitudes linguistiques dans le domaine informel. Cette étude a analysé la compétence en langue basque dans le domaine informel ; en particulier, le degré de relation entre cette compétence et la langue utilisée pour parler en famille et avec les amis, parmi des jeunes qui évoluent dans le contexte universitaire. À cette fin, les réponses de 292 étudiants d'Enseignement Primaire sur le campus de Donostia/Saint-Sébastien de l'UPV/EHU (Université du Pays Basque) ont été reçues à travers un questionnaire. Les résultats montrent, entre autres, que l'influence des amis est plus grande que celle de la famille. Par conséquent, il est proposé que l'université peut être un espace idéal pour influencer non seulement l'usage, mais aussi la compétence linguistique.

Mots-clés : domaine informel, compétence orale, usage de la langue, basque, jeunes, université.

The fact that the use of the Basque language has not increased as much as knowledge of the language has attracted particular attention to linguistic habits in the informal sphere. In this study, oral competence in Basque in the informal environment was analyzed. Specifically, the extent to which the language used to speak to family and friends is related to this competence, among young people in a university context. To this end, responses from 292 students studying Primary Education at the Donostia/San Sebastián campus of the UPV/EHU were collected using a questionnaire. The results show, among other things, that the influence of friends is greater than that of family. Consequently, it is proposed that the university may be an ideal place to influence not only use, but also language competence.

Keywords: informal sphere, oral competence, use of language, Basque, young people, university.

ARTETXE SARASOLA, Miren, BEREZIARTUA ETXEBARRIA, Garbiñe eta BURRESO PARDO, Naroa (2024). «Oral language competence in the informal context and the use of language among family and friends: a quantitative study in the university context of the Basque Country», *Euskera ikerketa aldizkaria*, 69, 1: 49-78.

1. Sarrera

Aski ezaguna da euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala. Testuinguru horretan arreta berezia jartzen da gazteengan: eremu formalean euskararen ezagutza eskuratzen dute, baina eremu informalean ez dute maila berean erabiltzen. Eremu informalean euskaraz aritzeko baliabide edo gaitasun faltak hankamotz uzten dituela ikusi da (Artetxe eta Bereziartua 2023). Ekuazio horretan elementu berri bat sartu da ikerketa honetan: gazteak aztertu dira, baina ez edozein gazte, luze baino lehen Lehen Hezkuntzako irakasle izango diren gazteak dira ikerketa honetako protagonista. Gutxi barru gazte horiek izango direlako hainbat gaztetxoren erreferentzia edo eredu.

Ikerketa honetan aztertu da unibertsitateko ikasleen eremu informaleko ahozko hizkuntza gaitasunak zer nolako lotura duen familiako nahiz lagunarteko hizkuntza ohiturekin. Hala, ikerketa honek bi bereizgarri ditu: bata, ikerketa unibertsitate esparruan garatzea; bestea, eremu informalean hitz egiteko gaitasunean jartzea begirada. Izan ere, UPV/EHUko Donostiako campuseko Lehen Hezkuntzako graduko irakaslegaiak dira ikerketa honetan parte hartu duten gazteak, eta haien jardun profesionalerako ezinbestekoa dute euskaraz ahoz eta modu informalean hitz egiteko gaitasuna.

Hainbat ikerketa kualitatibok erakutsi du nerabezeroan aurrera egin ahal, kideen erreferentzialtasuna indartu eta familiarena ahuldu egiten dela eta horrek eragina daukala gazteen hizkuntza erabileran (Berrio-Otxoa, Hernández eta Martínez 2003; Hernández 2005; Soziolinguistika Klusterra 2011; Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa 2009). Fenomeno hori aintzat harturik, eta begirada gazteen hizkuntza gaitasunean paratuz, ikerketa honetan ikusi nahi izan dugu nolako lotura dagoen, hain zuzen, lagunarteko zein familiako hizkuntza erabileren eta gazteen eremu informalerako ahozko gaitasunaren artean. Eta tresna kuantitatiboak erabiliz aztertu nahi izan dugu horixe.

Orriotako edukiaren antolaketari dagokionez, lehenengo eta behin ikerketa hau zedarritzeko erabili diren oinarri teorikoak azaltzen dira. Jarraian, ikerketa egiteko jarraitutako metodologia deskribatzen da. Ondoren ikerketako emaitzak aurkeztu eta ondorioak mahaigaineratzen dira.

2. Oinarri teorikoa: gazteen hizkuntza erabilera, ezagutza eta harreman-sareak

2.1. Hizkuntza gaitasuna, ahozko informala eta gazte-hizkera

1980ko hamarkadako hizkuntza politikei esker hezkuntza erakundeen bidez euskararen ezagutza nabarmen hedatuta, gaur egungo gazteek euskarra gehiago erabiltzea zen orduko helburua eta aurreikuspena. Izan ere, jakina da hizkuntzaren ezagutzak hizkuntzaren erabilerarekin daukala harremana; alde batetik, gaitasuna ezinbesteko baldintza delako erabilerarako, eta, bestetik, gutxieneko gaitasuna izanez gero, korrelazioa dagoelako gaitasunaren eta erabileraren artean:

Zenbat eta gehiago erabili hizkuntza bat, orduan eta hobeto, erosoago eta aberatsago hitz egiteko gai izango dira hiztunak. Eta zenbat eta gutxiago erabili, kamustu-herdoildu egingo da hiztunaren ezpainetan hizkuntza hori, eta gaitasuna ahuldu. (Iurrebaso 2016: 83)

Uste zenarekiko kontraesanean, ordea, «urteetan metatutako [...] datu kuantitatiboek eta Euskal Herriko etxe, kale eta bestelako espazio publikoetan hautematen diren hizkuntza-praktikek argi utzi dute *ezagutza = erabilera ekuazioa* ez dela irudikatzen zen bezain automatikoa, ezta zuzena ere» (Altuna 2023: 250). Gazteen hizkuntza erabilera kezka iturri izan da eta da gaur egun ere, euskal soziolinguistika garaikidean.

Gaur egungo hizkuntza ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala azaltzeko funtsezko aldagai gisa hizkuntzen ezagutza erlatiboa erabili izan da hainbat azterketatan (Aizpurua 2018; Coyos 2005; Martínez de Luna 2004). Izan ere, Iñaki Iurrebasok adierazten duen gisan, hizkuntza baten jabekuntza prozesua prozesu soziala da, eta, beraz, gaitasun dinamikoa eta aldakorra izateaz gain, dimentsio asko ditu (Iurrebaso 2021).

Norbere erreperatorioko hizkuntza gaitasun erlatiboak ezberdinak izan daitezkeen gisan, hizkuntza baten baitan ere, testuinguru jakinetarako erregistroak ere ez dira maila berean menperatzen. Hala, gazteen euskararen erabilera ulertzeko gero eta gehiago aipatzen da euskarazko gazte-hizkerarik edo kaleko hizkerarik eza gazte askoren euskarazko erreperitorioan. Hain

zuzen ere, ahozko hizketa informala baita, eguneroko bizitzan, gazteek zein helduok, oro har, gehien erabiltzen dugun hizketa modua, hizkuntza batean ala bestean hitz egin.

Soziolinguistika Klusterrak *Gazteen hizkuntza-erabilera, perspektiba eta prospektiba* proiektuan erabileran eragiten zuten faktoreen artean beren hizkuntza errepertorioan gazte-hizkera edukitzea eta gazte-hizkeraren ezaugarriak berak pisuzko aldagai gisa aurkeztu zituen, esaterako (Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa 2009).

Halaxe esaten da *Soziolinguistika* eskuliburuan gazte-hizkeraz, edo zehazkiago, gazte hizkerez:

Gazteek, janzkera eta orrazkerarekin bezala, hizkerarekin ere euren pentsamoldeak eta jarrerak adierazten dituzte; gainera, horrela, euren arteko harremana estutu egiten dute; beraz, euren soziolektoan hitz egiten dute. [...] Aurreko eta ondorengo adin-taldean daudenengandik bereizteko joerak esamolde, hiztegi eta diskurtso bereziak izatea ekartzen du. (Zarraga eta beste 2010: 107)

Gazte-hizkeraren bidez, beraz, gazteek haien adinkideekiko pertenezia azpimarratzeaz batera autoritate figura diren helduekiko ezberdintasuna markatzen dute. Helduek egokituz jotzen dituzten hizketa formez aldentzeko darabiltzate, hain zuzen ere, gazte-hizkeraren ezaugarriak, esaterako, hizkuntzak nahastuz, laburdurak erabiliz, eta euskara jasotik aldentuz (Balda 2022: 9).

Hizketa informalean euskaraz jarduteko zailtasunak zailtasun, ugariak dira euskarazko gazte hizkeren inguruko ikerketak (Zarraga eta beste 2010), bai gazte-hizkeraren fenomenoaz diharduten lanak, oro har (Amonarriz 2005, 2008, 2009; Amorrortu 2005; Esnaola 1997; Rodriguez eta Esnaola 1996), bai lekuan lekuko gazte hizkeren deskribapen linguistikoak (Aranuren 2012; Bedaxagar 2021; Etxabe 2005; Etxeberria 2013; Iñigo 2007; Lauzurika 2014; Lujanbio 2012; Ormaetxea 2008; Unamuno 2010), bai gazte-hizkeraren ezaugarri espezifikoei dagozkienak (kode-alternantziari buruzkoak, esaterako, ikus Ibarra 2008, 2011, 2013, 2014; Lantto 2014, 2015a, 2015b, 2016; Muñoz 1997), ikuspegi didaktikotik egindakoak (Balda 2022 eta Legarra 2019, esaterako) eta baita bestelakoak ere (gazte-hizkeraren eta

hitanoaren arteko harremanaz, Dorai 2018 eta Ozaita 2014; edo gazte-hizkera idatziaz, Bereziartua 2013; eta Internet bidezko gazte-hizkera idatziaz Pérez Gaztelu 2022; Pérez Gaztelu eta Zulaika 2016, esaterako).

Edonola ere, egoeraren irakurketa aho batekoa da: salbuespenak salbuespen, gazteen artean, helduen artean bezalaxe, erdararako joera nabarmena da, ahozko hizkera informalarari dagokionez.

Gazteen hizkeran, Hego Euskal Herrian, gaztelaniaren presentzia gero eta zabalagoa da [...]. Dena dela, ez da harritzekoa interferentzia eta *code-switching* kasuak gero eta gehiago izatea, komunitate berean bizi diren hizkuntza guztietan gauza bera gertatzen baita. Gazte euskaldunen kasuan, ordea, baliteke euskararen estrukturetan baino erdarazkoetan aurkitzea adierazkortasun maila handiagoa. Edonola ere, joera hori gazteengan ez ezik nagusiengan ere ematen da; beraz, ezin esan haien soziolektoaren bereizgarria denik. (Zarraga eta beste 2010: 108)

2.2. Gazte-kulturak eta harreman-sare informalak

Ugariak dira Euskal Herrian gazteen hizkuntza erabilera edota haien erabilerari buruzko diskurtsoak aztertzen dituzten ikerlanak.² Horien artean hainbat ikerketak erakutsi du gazteen hizkuntza erabilera ulertzeko gazteen praktika sozialak modu zabalagoan ulertzeko beharra, eta zehazki, hizkuntza erabilera gazte kulturen prismetik aztertzearen pertinentzia (Al-

² Lan aitzindari gisa aipa litezke Iñaki Martínez de Luna eta Kontxesi Berrio-Otxoaren, Jone Miren Hernándezen edo Axier Huegun, Pello Jauregi eta Diego Egizabalenak, esaterako (Egizabal, Huegun eta Jauregi 2004; Hernández 2005; Martínez de Luna eta Berrio-Otxoa 2000). Aipagarriak dira, halaber, gazteen hizkuntza erabileraren ulermenean sakontzeko egindako hainbat lan etnografiko (Altuna 2015, 2017; Eusko Jaurlaritza 2016; Hernández eta Altuna 2017; Hernández, Altuna eta Iñarra 2020; Hernández eta Santamaria 2021), eta baita eremu espezifikoetan egindako hainbat ikerketa kualitatibo ere (Artetxe 2023; Iraola 1992 eta Jauregi 2003, 2013 Lasarte-Orian; Soziolinguistika Klusterra 2012, Gasteizen; Soziolinguistika Klusterra 2013, Bergaran; Zabala 2013 eta Zabala eta Ayerza 2011, Tolosan; Quintanilla 2014, Sorluzen; edo Artola 2013, Arrasaten). Ezin aipatu gabe utzi hiztun berri gazteei buruzko ikerketak ere (Amorrortu, Ortega eta Goirigolzarri 2017; Goirigolzarri, Amorrortu eta Ortega 2019; Ortega eta beste 2013, 2015, 2016, besteak beste). Edonola ere, gazteen euskararen erabileraz eginiko ikerketa lanei buruzko errebisio bibliografiko sakon eta zehatz baterako, Jaime Altunaren doktorego-tesira jo besterik ez dago (Altuna 2023).

tuna 2023; Artetxe 2020). Izan ere, nekez ulertu daitezke gazteen hizkuntza praktikak gazte gisa dituzten bestelako praktikak eta gazte kulturak ulertu gabe. Gazte kulturek izan dezakete estetika markatu bat, begi bistara antzemateko modukoa, ala itxuraz detektagaitzagoak diren elementuek definitu ditzakete, baina, gazte kultura guztiek dute helduleku material zein immaterialak barnean biltzen dituen estilo jakin bat. Eta estilo hori praktika kulturalen bidez sortzen eta garatzen da; tartean, hizkuntza praktiken bidez (Feixa 1999).

Carles Feixa eta Jordi Nofreren ikuspegitik, gazte kulturak hiru ardatzen inguruan artikulatzen dira (Feixa eta Nofre 2012). Alde batetik, gurasoen kultura legoke: klase sozial edo giro bereko helduek eta gazteek balio eta baliabide batzuk konpartitzen dituztelako. Bestetik, kultura hegemonikoa legoke: kultura nagusiaren gizarte eta heziketa dispositiboen bidezko kontrol sozialaren eraginpean daude gazteak, hein batean ala bestean. Eta azkenik, berdinaren arteko taldean ere garatzen dira gazte kulturak: gazteen arteko praktika komunitateetan sortzen dituzte haien identitate kolektiboaren adierazle izango diren balioak, eta munduarekiko ideiak eta usteak (Eckert 2006). Hiru ardatz horien jiran garatuko dituzte, beraz, gazteek, haien hizkuntza gaitasunak eta hizkuntza ohiturak ere.

Izan ere, hizkuntza sozializazioaren ikuspegitik, hizkuntza ezin da praktika sozialetatik banatu, horixe baita hizkuntza sozializazioa: «socialization through the use of language and socialization to use language» (Schieffelin eta Ochs 1986: 163). Azken batean, hizkuntza sozializazioa pertsonen hiztun komunitate espezifikoaren baitan modu egokian parte hartzea ahalbidetzen duten ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko, erreproduzitzeko eta eraldatzeko prozesua da (Lee eta Bucholtz 2015).

Hala, beraz, etxeko sozializazioak eta familia giroko praktikek eragin nabaria izango dute hiztunen hizkuntza gaitasunean ez ezik baita hizkuntza erabiltzeko joeran ere. Nerabezarotik aurrera, ordea, gurasoei bezala eskola eremuko helduei ere eragiteko gaitasuna apaltzen zaie eta gaztetxoaren artean kideen erreferentzialtasuna igotzen da: adinkideak bihurtzen dira gazteen eta mundu zabalaren arteko mediazio gune, gizartera egokitzeko espazio (Le Breton 2014). Paula Kasaresek dioen gisan, «haurtzarotik goiti batik bat

neska-mutilen hizkuntza portaeretan harreman eszentrikoak [adinkideen artekoak] uste baino erabakigarriagoak dira» (Kasares 2012: 26). Kideak, maiz, heziketa dispositiboen bidezko kontrol sozialaren eraginpean dauden guneetan ere aurkitzen dituzte, besteak beste, unibertsitatea bezalako hezkuntza esparruetan.³

Euskal Herriko testuinguruan hainbat dira metodologia kualitatiboak erabiliz gazteen erabilera ikertu eta harreman-sare eragina azpimarratu duten ikerketak. Nabarmendutako harreman sare nagusiak, familia edo etxe-ko harremanak, kideen arteko harremanak eta ikasketa prozesua edo jarduera profesionalarekin lotutako erlazioak dira (Soziolinguistika Klusterra 2011; Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa 2009).

Ikerketa kualitatiboek sakon aztertu duten gazteen hizkuntza erabileraren eta kideen arteko harremanen lotura berretsi da, halaber, ikerketa kuantitatiboan argitara ere. Azken inkesta soziolinguistikoari begiratzen badiogu (Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa 2023), datuek erakusten dute harreman estua dagoela euskararen erabileraren, erraztasunaren eta harreman-sareen artean:

Egindako korrelazioen analisiaren arabera, erraztasuna eta harreman-sarea dira euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak. [...] Bi faktore horiek ez dute euskararen erabilera erabat bermatzen. Beste aldagai batzuek ere eragiten dute euskararen erabileran (jarrerak eta interesak, esaterako). Baina harreman-sarea bermatzen denean eta euskaraz hitz egiteko erraztasuna nahikoa denean, euskararen erabilerak gora egiten du. (Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa 2023: 11)

Azken inkesta soziolinguistikoan, alabaina, erabilerarekiko lotura ageri da harreman-sareekin ez ezik, baita erraztasunarekin ere. Bigarren hizkuntzaren ikasketa ikergai duten hainbat ikerketak erakutsi dute, bestalde, eremu formaleko hizkuntza irakaskuntzak hizkuntza gaitasun jakin batzuetan

³ Lan honetan gai horri helduko ez diogun arren, zenbait ikerketak erakutsi du unibertsitatea gune aproposa izan daitekeela muda linguistikoak gertatzeko (Pujolar, González eta Martínez 2010).

eragin dezakeen bezalaxe, eremu informaleko erabilerak ere eragiten duela hiztunen hizkuntza gaitasunean (Krashen 1976). Pentsa liteke, beraz, aldagaiok, harreman-sareak, erabilera eta gaitasuna, elkarrekiko loturan ulertu behar direla. Horixe da ikerketa honetan egin duguna, hain zuzen, harreman-sareetako hizkuntza erabileren eta hizkuntza gaitasunaren arteko lotura azertu.

3. Metodologia

3.1. Helburua eta ikerketa-galderak

Ikerketa honekin ikusi nahi da eremu informaleko ahozko hizkuntza gaitasunari dagokionean, zenbateraino eragiten duten familiako nahiz lagunarteko hizkuntza ohiturek, baina testuinguru zehatz batean: unibertsitatean. Hori horrela, hiru dira ikerketa honekin egin nahi diren ekarpenak. Batetik, gazteen hizkuntza erabilera zabal azertu den gaia izanik ere, unibertsitatearen testuinguruan gertatzen dena ezagutzea. Bestetik, eremu informaletako hizkuntza erabilerak gazte horien ahozko gaitasun informalekin daukan lotura aztertzea. Azkenik, gazteon hizkuntza erabilera eta gaitasuna zein horien arteko lotura-teknika kuantitatiboak erabiliz aztertzea.

Azterketa egiteko, bi ikerketa-galdera planteatu dira:

1. Zein dira UPV/EHUren Donostiako campuseko irakaslegaien hizkuntza gaitasuna eta ohiturak?
2. Zer lotura daukate UPV/EHUren Donostiako campuseko irakasle-gaiek euskaraz ahoz eta modu informalean jarduteko daukaten gaitasunak eta irakaslegai horien familiako nahiz lagunarteko hizkuntza ohiturek?

3.2. Parte-hartzaileen profilak

Esan bezala, ikerlan honek unibertsitateko ikasleengan jartzen du arreta, zehazki, UPV/EHUren Donostiako campusean Lehen Hezkuntza Gradua

ikasten ari diren ikasleengan. Guztira 292 lagun izan dira ikerketa honetan parte hartu dutenak (parte hartzaileen unibertsoa 643 lagunekoa izanik, % 95eko konfiantza tartearekin eta % 4,24ko errore-tartearekin).

Parte hartzaileen % 63,7 emakumezkoak izan dira eta % 36,3 gizonezkoak; generoaren banaketa bitarrarekin identifikatzen ez direnen proportzioa % 1 baino gutxiago izan da. Parte hartzaileen % 44,5ek euskara bakarrik jaso dute etxean; % 28,4k etxean gaztelania bakarrik eta % 24,7k euskara eta gaztelania.

Parte hartzaile gehienek (% 92,8) ikasketak D ereduan egin dituzte, gune soziolinguistiko batekoak zein bestekoak izan. Dena dela, ikasle gehienak 2. eta 3. gune soziolinguistikoetakoak dira (% 43,15 eta % 39,04, hurrenez hurren).

3.3. Parte hartzaileen testuinguru soziolinguistikoa

Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako campusean ikasten dute gure ikerketako subjektuek, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, hain zuzen. Lehen Hezkuntzako Gradua ikasten ari dira, gerora Lehen Hezkuntzako irakasle izateko.

Ikasleok, ez dira, noski, denak donostiarrak. Alta, unibertsitate publikoei dagokienez, Lehen Hezkuntzako Gradua Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburutan zein Nafarroako Foru Komunitateko hiriburuan eskaintzen da; eta Lehen Hezkuntza Donostian ikasten dutenak, oro har, Gipuzkoa inguruko ikasleak izan ohi dira, salbuespenak salbuespen.⁴

⁴ Unibertsitate publikoei dagokienez, EHUK berak eskaintzen du Lehen Hezkuntzako Gradua Leioan eta Gasteizen, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere bai, Iruñean. Unibertsitate pribatuei dagokienez, Donostian bertan Deustuko Unibertsitateak eta Eskoriatzan Mondragon Unibertsitateak ere gradu bera eskaintzen dute. Ipar Euskal Herrian Lehen Hezkuntzako irakasle izateko ikasketa-ibilbidea desberdina da, ez baita Lehen Hezkuntzako Gradua litzatekeenaren baliokiderik (master mailan espezializatzen dira irakaslegaiak). Unibertsitate-aurreko urteetan Ipar Euskal Herrian ikasitakoek Hego Euskal Herrian ikasteko zailtasunak askotarikoak dira, eta Ipar Euskal Herriko Donostiara Lehen Hezkuntzako ikasketak egitera etorritakoek kopurua oso txikia izan ohi da.

Ikerketa honetako subjektuen profila testuinguruan kokatzeko, VII. Inkesta Soziolinguistikotik eta Soziolinguistika Klusterrak euskararen kaleko erabilera neurtzeko egindako ikerketetatik ateratako zenbait datu aurkeztuko ditugu.

VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa 2023), EAEn, biztanleen hiru laurdenak (% 75,1), erdara soilik jaso du etxean. Lehen hizkuntza erdara dutenak dira nagusi lurralde eta adin talde guztietan. Adinari begiratuta, 16-24 urte bitarteko gazteek dituzte euskara soilik eta euskara erdararekin batera jaso dutenen ehunekorik handienak (% 24,1 eta % 13,8, hurrenez hurren). Hala, 16-24 urte bitarteko euskaldunen ia erdiek erdara baino ez dute jaso etxean (% 49,2), eta pentsa liteke, beraz, gazteon erdiek baino gehiagok egiten dutela eskuarki erdaraz etxean.

Gipuzkoako biztanleen hizkuntza gaitasunari begira jarrita, Gipuzkoako 16 urte edo gehiagoko biztanleen erdiak baino gehiago euskaldunak dira (% 51,8), heren bat erdalduna da (% 30,5) eta gainerakoak euskaldun hartzaileak dira (% 17,7). Eta euskaraz egiteko erraztasun handiagoa daukaten edo erdaraz besteko erraztasuna daukaten EAeko euskaldun gehienak ere Gipuzkoan bizi dira. Gipuzkoarren arteko % 38,7 moldatzen da euskaraz errazago, herena euskaraz zein erdaraz berdin, eta beste heren bat erdaraz hobeki.

Soziolinguistika Klusterrak (2022a) euskararen kaleko erabilera neurtzeko egindako ikerketak dioenez ere, Gipuzkoa da Euskal Herrian euskaraz gehien hitz egiten den lurraldea. Baina Gipuzkoan ere erdara da nagusi, 10 elkarrizketetatik 6 pasatxo baitira gaztelaniaz. Gipuzkoako hiriburuari dagokionez, Donostia bertako euskararen kaleko erabilera % 15,3koa da, eta 10 elkarrizketetatik 8 egiten dira gaztelaniaz.

Erabilera orokorraz gain adinaren araberako erabilera kontuan hartzen badugu, Euskal Herri mailan bezalaxe Gipuzkoan ere kaleko erabilera handiena haurrena da, eta gazteek euskara helduagoek baino gehiago erabiltzen dute: haurrek (2-14 urte) % 45,8tan; gazteek (15-24 urte) % 31,7tan; heldu gazteek (25-44 urte) % 34,9tan; heldu nagusiek (45-64 urte) % 23,5etan; eta adinekoek (64 urtetik gorakoak) % 19,4tan (Soziolinguistika Klusterra 2022b).

Ikerketa honetako subjektuen hurbileneko testuingurura etorrira, unibertsitateko eremuan kokatuko gara. UPV/EHUko Lehen Hezkuntzako Gradua Gipuzkoako campuseko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean ikasten da. Fakultate hau zehazki, bi eraikinetan banatzen da (HEFA-I eta HEFA-II deiturikoetan). Lehen Hezkuntzako Gradua HEFA-II eraikinean kokatzen da eta hori fisikoki Arkitektura Goi eskola Teknikoarekin eta Enpresa eta Ekonomia Fakultatearekin batera dago kokatua, Oñati plazan. Soziolinguistika Klusterrari esker baditugu Gipuzkoako campuseko kaleko erabilerari buruzko datuak (2018, 2022c, d. g.), eta datu horiek erakusten digute, EHUko euskararen kale erabilerari begiratuta, Araba eta Bizkaiko fakultateekin alderatuz Gipuzkoako fakultateetan jaso diren emaitzak hobeak direla (Soziolinguistika Klusterra 2022c).

Emaitza horien arabera, Gipuzkoako campusean euskararen erabilerarik altuena Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean eta Kimika Fakultatean behatu da: Kimika Fakultatean % 46,8koa eta % 42koa HEFAn (Soziolinguistika Klusterra 2022c).

Hala ere, HEFAko kaleko erabilera datuak altuagoak dira Gipuzkoako gazteen kaleko erabilera datuak baino (eta, noski, baita Euskal Herriko gazteen kaleko erabilera datuak baino, edo Gipuzkoako zein Donostiako kaleko erabilera orokorra baino): Euskal Herriko gazteen erabilera % 12,5koa da; Donostiako kaleko erabilera, oro har, % 15,3koa; Gipuzkoako kaleko erabilera, oro har, % 30,6koa; Gipuzkoako gazteen kaleko erabilera % 31,7koa; eta HEFAko gazteen kaleko erabilera % 42koa.

Fakultatearen beraren barneko eremuei begiratuta, ikerketek erakusten dute Lehen Hezkuntzako ikasleek ikasten duten eraikinean (HEFA-II) jaso direla erabilera daturik altuenak (Soziolinguistika Klusterra 2022c). Hala, Lehen Hezkuntzako ikasleek ikasten duten eraikinean jaso diren hizketaldietatik % 51 izan dira euskarazkoak. HEFA-II eraikineko datuekin alderatuta 9,7 puntuz egiten du behera taberna inguruko euskarazko hizketaldien proportzioak, eta 13,8 puntuz HEFA-I eraikineko euskarazko hizketaldien proportzioak.

Hala ere, ikerketa hau hiru urtetan egin da, eta datuek ikusarazten dute euskararen erabilerak behera egin duela azken 5 urteotan, bai oro har

(% 58,2tik % 42ra), eta baita Lehen Hezkuntzako ikasleek ikasten duten eraikinean ere (% 57,9tik % 51era) (Soziolinguistika Klusterra d. g.).

3.4. Datu-bilketa: tresnak eta azterketa

Orriotan aurkezten dugun azterketa egiteko bide kuantitatiboak erabili dira. Galdetegi bat erabili da datuak jasotzeko eta bilketa 2022-2023 ikasturtean egin da. Dena dela, hemen aurkezten duguna ikerketa zabalago baten zati bat da eta galdetegi horren zati bat erabili da ikerketa honetarako.

Galdetegian hiru motatako itemak erabili dira: erantzun anitzekoak, puntuazio-eskalako galderak eta eskala semantiko diferentzialeko galderak. Eta 33 itemek osatu dute galdetegia, honako azpiataletan banatuta: datu pertsonalak, hizkuntza gaitasuna, hizkuntza erabilera, hizkuntza adierazkortasuna eta hizkuntzei buruzko usteak nahiz iritziak.

Jasotako datuekin analisi estatistikoak egin dira. Batetik, galdetegiko aldagai guztien frekuentzia orokorrak atera dira; eta aldagai guztiak mailaren eta generoaren arabera klasifikatu dira kontingentzia taulen bidez. Bestetik, aldagaien arteko eraginak aztertu dira. Orriotan aurkezten dugun lanean aldagai kualitatibo ordinalak analizatu dira eta, horretarako, Spearmanen korrelazio koefizientea kalkulatu da. Honela zehaztu da aldagai horien arteko erlazioaren indarra:


Spearmanen koefizientearen balio absolutua	Aldagaien arteko erlazioaren indarra
$r < 0.25$	Erlaziorik ez
$0.25 < r < 0.5$	Erlazio ahula
$0.5 < r < 0.75$	Erlazio neurritsua
$r > 0.75$	Erlazio sendoa

4. Emaitzak

4.1. Zein dira UPV/EHUREN Donostiako campuseko irakaslegaien hizkuntza gaitasuna eta ohiturak?


Hizkuntza gaitasun erlatiboaz galdetutakoan, hamarretik lauk erantzuten du euskara dela gehien menperatzen duen hizkuntza, hamarretik hiruk euskara eta gaztelania hein berean menperatzen dituela eta hamarretik beste ia hiruk gaztelaniaz hobeto moldatzen dela (% 1ek erantzuten du, bestalde, gaztelania eta beste hizkuntza bat menperatzen dituela hein berean). Datuok 1. irudian ikus ditzakegu:

1. irudia. Zein da gehien menperatzen duzun hizkuntza, orokorrean? (%)



Lan honen interesa unibertsitateko gazteen eremu informaleko ahozko komunikazioa izaki, berariaz testuinguru horretan gertatzen dena ezagutu nahi izan dugu. Ahozko hizketa informalarari dagokionez, beraz, parte hartzaileen hamarretik lauk pasatxok erantzun du euskara dela gehien menperatzen duen hizkuntza, hamarretik ia lau dira gaztelania menperatzen dutela esan dutenak eta bi hizkuntzetan gaitasun berdintsua dutela dio hamarretik ia bik. 2. irudian ikus daitezke datuok:


2. irudia. Zein da gehien menperatzen duzun hizkuntza, eremu informalean hitz egiteko? (%)



Erabilera datuei begiratzen badiegu, egoera nahiko parekoa dela dirudi, euskararen eta gaztelaniaren artean, hizkuntza erabilera orokorrari buruz galdetuta. Oro har, hamarretik lauk nagusiki euskaraz jarduten duela dio (beti euskaraz hitz egiten dutenak % 18,6 dira eta euskaraz erdaraz⁵ baino gehiago egiten dutenak, % 25,4), hamarretik beste lauk nagusiki erdaraz egiten duela (% 28,2k euskaraz erdaraz baino gutxiago, eta %11k beti erdaraz edo euskaraz oso gutxi), eta % 16,8k euskaraz erdaraz bezainbeste egiten duela esaten du. Halaxe ikus daiteke 3. irudian:


⁵ Testu honetan zehar, hemendik aurrera, “erdara” ageri denean gaztelaniari egingo diogu erreferentzia.

3. irudia. Euskaraz zenbat hitz egiten duzu? (%)



Euskaraz non eta norekin egiten duten aztertuz gero, datuetan ikusten dugu ez dagoela alde handirik familiarreko eta lagunarteko esparruen artean, 4. irudiak erakusten duen bezala:

4. irudia. Zenbat hitz egiten duzu euskaraz? (%)



Hala, lagun minekin dena edo ia dena euskaraz egiten dutenak % 41,9 dira, kuadrillan dena edo ia dena euskaraz egiten dutenak % 38,8, eta familian dena edo ia dena euskaraz egiten dutenak, berriz, % 41,6.

Unibertsitateko euskararen erabileraz galdetuz gero, aldiz, ikus daiteke euskara familian eta ohiko lagunartean baino gehiago erabiltzen dutela

gehienek. Oro har, gutxiago dira dena edo ia dena gaztelaniaz egiten dutela erantzuten dutenak (% 5); aldiz, gehiago dira euskaraz egiten dutela diotenak (hitz egiten dutenen erdiak (% 18,5) edo erdia baino gehiago (% 14,8)). Alta, dena edo ia dena euskaraz egiten dutela erantzuten dutenen proportzioa ez da aldatzen.

UPV/EHUREN Donostiako campuseko irakaslegaien hizkuntza gaitasuna eta hizkuntza erabilera aztertu ditugu lanaren atal honetan. Gaitasunari buruz jasotako erantzunek adierazi dutenez, datuak ez dira gehiegi aldatzen gaitasun erlatibo orokorretik eremu informalerako gaitasunera, baina eremu informalerako gaztelania gehiago menperatzen dutenen kopurua pixka bat igo egiten da.

Hizkuntza erabilerari dagokionez, ia parte-hartzaileen erdiek (% 44) jarduten dute nagusiki euskaraz. Erabilera orokorraren proportzioak mantendu egiten dira, bai familian eta bai lagunartean eta, ikusten denez, unibertsitateko eremuan euskaraz gehixeago egiteko joera dago.


4.2. Zer lotura daukate UPV/EHUREN Donostiako campuseko irakasleak euskaraz ahoz eta modu informalean jarduteko daukaten gaitasunak eta irakaslegai horien familiako nahiz lagunarteko hizkuntza ohiturek?

Oro har, datuek erakutsi dute ahozko egoera informaletan eroso sentitzeak lotura daukala hitzunen gertuko harreman-sareetako hizkuntza ohiturekin, izan erlazio hori neurritsua edo sendoa. Zehazkiago, ikerketa honetan ikusi ahal izan dugu familiako kideekin hitz egiteko erabiltzen den hizkuntzak baino lotura estuagoa duela lagunartean erabiltzen den hizkuntzak, gazteon ahozko informalerako gaitasunarekin.

Parte-hartzaileen eremu informaleko ahozko gaitasun aitortuak erlazio neurritsua (Spearmanen koefizientea: 0,718) daukala ikusi ahal izan dugu familiako kideekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzarekin. Eta erlazio sendoa daukala kuadrillakoekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzarekin eta lagun minenekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzarekin (Spearmanen koefizienteak: -0,783 eta -0,798, hurrenez hurren).

Erlazio sendo hori modu grafikoan ikus daiteke 5. irudian:

5. irudia. Gehien menperatu informalean ahoz / Euskaraz kuadrillakoekin eta lagun minenekin (%)



5. irudian ikus dezakegunez, eremu informalean hitz egiteko euskara menperatzen dutenek erantzun dute kuadrillan eta lagun minenekin dena edo kasik dena euskaraz egiten dutela. Eta, alderantziz, eremu informalean hitz egiteko gaztelania menperatzen dutenek euskara ez dute edo ia ez dute erabiltzen kuadrillan eta lagun minenekin.

Beraz, datuek erakusten digutenez, bai familiako eta bai lagunarteko hizkuntza ohiturek eragiten diete UPV/EHUren Donostiako campuseko irakasle gaiei beren ahozko gaitasun informalean. Baina lagunartearen eragina sendoagoa da familiarena baino.

5. Eztabaida

UPV/EHUren Donostiako campuseko irakaslegaien hizkuntza ohiturak aztertu ondoren, honakoa ikusi ahal izan dugu: hizkuntza erabilerari dagokionez, hamar ikasletik lauk egiten duela euskaraz erdaraz baino gehiago, eta beste hainbestek erdaraz euskaraz baino gehiago (hamarretik ia bik era-

biltzen ditu bi hizkuntzak neurri bertsuan). Halaber, patroï berberak behatu dira etxeko zein lagunarteko erabileran ere.

Erabilera datuok hizkuntza gaitasunari buruzkoekin erkatuz gero, azpimarratu liteke erabilera datuen patroïak bat egiten duela eremu informalerako ahozko gaitasun aitortuarekin (eta ez, ordea, hizkuntza gaitasun orokorrari buruz emandako datuekin). Datu horrek bat egiten du hizkuntza gaitasunaren dimentsio anitzeko ikuspegiarekin: hots, hizkuntza gaitasuna ez da bat eta bakarra, eta eremu espezifikotarako gaitasun ezberdinak ditugu hiztunok. Ikuspegi horretatik, zentzuzkoa da pentsatzea ahozko erabilera informalean eragina duen gaitasunaren dimentsioa eremu informalerako ahozko gaitasuna izatea.

Horrez gain, gazteen sozializazio eremuetako hizkuntza erabilera eta gazteen hizkuntza eremu informalerako hizkuntza gaitasuna erkatuz gero, datuek erakusten dute gazteen hizkuntza gaitasunak lotura handia daukala familiarteko hizkuntza-erabilerarekin ez ezik, baita lagun minen arteko eta kuadrillako hizkuntza-erabilerarekin ere. Hizkuntza gaitasuna modu dinamikoan ulerturik, hizkuntza baten erabilerak lotura estua du hizkuntza gaitasunarekin, eta, beraz, datuok erakusten dutena aurreikus zitekeen: lagunekin eta familiarean euskara erabiltzen duenak hobeto eta erosoago erabiliko du euskara lagunartean zein familiako kideekin erabiltzen ez duenak baino.

Hortik haratago ikusten uzten digute datuek, ordea. Aurrez ikerketa kualitatiboek erakutsi badute kideen arteko sozializazioak eragina daukala gazteen euskararen erabileran, ikerketa honetako datuen argitara esan dezakegu kideen arteko hizkuntza erabilerak erlazioa daukala gazteen eremu informalerako ahozko gaitasunarekin. Are, gazteon kasuan, eremu informalerako gaitasunak lotura handiagoa du kideekin erabiltzen duten hizkuntzarekin, familiarean erabiltzen duten hizkuntzarekin baino. Kideen arteko harremanak gako dira, beraz, hizkuntza gaitasunari dagokionez ere.

Jakinik unibertsitate eremua sozializazio eremu gisa, kide berriak ezagutzeko eta lagun talde berriak osatzeko gunea dela, lagunarteko konfigurazio berri hauek eragina izan dezakete gazteon hizkuntza ohituretan. Hainbat ikerketak erakutsi du dagoeneko unibertsitatea hizkuntza mudantzen ger-

taleku dela (Moralejo eta Ramallo 2019; Ortega eta beste 2016; Puidgevall eta beste 2018).

Gure kasuan, unibertsitateko erabilera datuek erakusten dute, oro har, eremu horretan euskararen erabilerak gora egiten duela, lagunarteko eta familiarreko hizkuntza-erabilerarekin alderatuta. Pentsa liteke haien egunerokoan euskara gutxi erabiltzen dutenetako batzuek, bederen, euskara gehiago erabiltzen dutela fakultatean. Unibertsitatea, beraz, ikasle askorentzat haien ohiko euskara erabilera areagotzeko gune aproposa izan daiteke, eta, ondorioz, baita eremu informalerako haien ahazko gaitasuna areagotzeko ere.

Ikusitakoak ikusita, unibertsitatea ikerketa-ekintzarako esparru egoki gisa aurkezten zaigu hizkuntza ohituren aldaketan eragiteko ez ezik, baita ikerlan honen muina den ahazko informalerako gaitasunaren garapenean eragiteko ere. Izan ere, etorkizunean irakasle izango direnen profil profesionalak nahitaez eskatzen du haurrekin, lankideekin, gurasoekin zein hezkuntza komunitateko bestelako partaideekin bai modu formalean eta bai modu informalean komunikatzeko gaitasuna (Garay eta Etxebarria 2010), ahaz, batik bat.

Ikerketa honek bistaratu du, bestalde, ikerketa kuantitatiboek gazteen hizkuntza erabilera zein gaitasuna aztertzeke izan dezaketean baliagarritasuna. Izan ere, euskal soziolinguistika garaikidean, gazteen hizkuntza erabilerari ikertu zuten lanen lehen olatua erabat datu kuantitatiboetan oinarritutako ikerketek osatu bazuten ere (Altuna 2023) –edo hala egin zutelako– bigarren olatuak gazteen hizkuntza erabilera aztertzeke metodologia kualitatibo eta etnografikoak erabili eta aldarrikatu izan ditu. Izan ere, inkesta bidez lortutako datuek unean uneko argazki bat egiteke balio badute ere, ez dute inkesta batetik bestera gertatutakoa ulertzeke balio. Ane Ortegak, Jone Goirigolzarrik eta Estibaliz Amorrortuk azaltzen duten gisan, «as a result, studies using qualitative methodology and focusing on specific subject-profiles started to be more common from the turn of the century onwards» (Ortega, Goirigolzarri eta Amorrortu 2022: 56). Azken hamarkadetan, beraz, hainbat ikerketa kualitatibo burutu dira hiztunen –eta bereziki, gazteen– hizkuntzari loturiko bizipenak, hizkuntza ideologiak eta jarre-

rak edota hizkuntza ohiturak ulertzeko. Jakin badakigu, ordea –lan hau horren erakusgarri– ikerketa kuantitatiboek ez dutela soilik balio unean uneko argazki bat ateratzeko, eta balio dezaketela ikerketa kualitatiboetan behatutako fenomenoak berresteko, edota etorkizuneko ikerketa kualitatiboetan modu sakonago batean aztertu daitezkeen zenbait arrasto, aztarna edo zantzu identifikatzeko ere.

Bibliografia

AIZPURUA, Jon (2018). «Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106 (2018): 29-45.

ALTUNA, Jaime (2015). «Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 97 (2015): 39-65.

——— (2017). «Genero identitatearen hizkuntza jokoak. Hurbiltze etnografikoa nerabean hizkuntza-praktiketara», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 104 (2017): 139-157.

——— (2023). Hizkuntzaren funanbulistak. Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta [Doktorego-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea, 2023. <https://addi.ehu.es/handle/10810/62640>.

AMONARRIZ, Kike (2005). «Gazte-hizkeraren egungo egoera eta garrantzia», in *Gazte-hizkera. Jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak*. Donostia: Urtxintxa: 11-19.

——— (2008). «Gazte hizkerak-hizkera gazteak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 68 (3) (2008): 167-183.

——— (2009). «XXI. mendeko euskaldunak: Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada», in *Transmisinoa eta Erabilerea. XIII. Jardunaldiak*. Bilbo: Mendebalde: 113-142.

AMORRORTU, Estibaliz (2005). «Gazte-hizkeraren bila? Soziolinguistikatik hausnarketa pare bat», in *Gazt_e hizkera: jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak*. Donostia : Urtxintxa: 35-43.

AMORRORTU, Estibaliz, ORTEGA, Ane, GOIRIGOLZARRI, Jone (2017). «Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 104 (3) (2017): 11-49. https://soziolinguistika.eus/files/amorrotu_et_al_104.pdf.

ARANGUREN, Maddi (2012). «Azpeitiko gazteak eta euskara» Sakontze egitasmoa, HIZNET: Hizkuntza Plangintza Graduondokoa, 2012. <https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/Azpeitia.pdf>.

ARTETXE, Miren (2020). Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak [Doktorego-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea, 2020. <https://addi.ehu.es/handle/10810/45422>.

——— (2023). *Euskara eta gazteak Lasarte-Oria (IV)*. 30 urte eta gero, zer? Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala. <https://www.lasarte-oria.eus/documents/298010/3706031/Euskara+eta+gazteak+IV.pdf/2699f19f-5020-8da7-bf0b-e4128945dc59>.

ARTETXE, Miren eta BEREZIARTUA, Garbiñe (2023). *Gaztelania eta frantsesarekiko desoreka euskal gazteen eguneroko hizkerarako adierazkortasunean: faktore horien eragina Donostia eta Baionako unibertsitate-ikasleen hizkuntza-hautuan*. Euskaltzaindia-Mintzola (txosten argitaratu gabea).

ARTOLA, Itxaro (2013). «Euskararen ainguralekuak Arrasateko gazteen hizkuntza-portaeran: zergatik eta non hitz egiten duten euskaraz», *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 89 (2013): 61-83.

BALDA, Oier (2022). Gazteen hizkeraren ezaugarriak: Euskaraz “gaizki” hitz egiten ikasten [Master Amaierako Lana] (Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan), Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2022. https://academica-e.unavarra.es/xmlui/bitstream/handle/2454/43436/balda.117741-euskara_MUPES_2122.pdf?sequence=1&isAllowed=y.

BEDAXAGAR, Mainer (2021). «Euskaldun bat, bi euskara: zuberera eta batua zuberotar gazteen ahotan gaur egun», in *Arantzazutik mundu zabalera: euskararen normatibizazioa, 1968-2018*. Bilbo: Euskaltzaindia: 177-193.

BEREZIARTUA, Garbiñe (2013). «Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 89 (2013): 25-42.

BERRIO-OTXOA, Kontxesi, HERNÁNDEZ, Jone Miren eta MARTÍNEZ, Zesar (2003). *Gaztetxoak eta aisialdia: etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_etorkizuna20012002/eu_etorkizu/adjuntos/etorkizuna20012002.pdf.

COYOS, Jean-Baptiste (2005). «Écart entre connaissance et usage d'une langue minoritaire: modèles théoriques et cas de la langue basque», in *Variable territoriale et promotion des langues minoritaires*. Pessac: Maison des Sciences de l'Homme d'Aquitaine: 411-427.

DORAI, Olatz (2018). Hitanoa: Ikasleen ahozkoari adierazkortasuna emateko bide [Master Amaierako Lana] (Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan), Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2018. <https://academica-e.unavarr.es/xmlui/bitstream/handle/2454/31011/Olatz%20Dorai%20MB.pdf?sequence=1&isAllowed=y>.

ECKERT, Penelope (2006). «Communities of Practice», in *Encyclopedia of Language and Linguistics*. Elsevier: 683-685.

EGIZABAL, Diego, HUEGUN, Axier, JAUREGI, Pello, (2004). «Kuadrillategi egitasmoa», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 53 (2004): 103-111.

ESNAOLA, Imanol (1997). «Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain zertan den ulertzeko zenbait argibide», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 24 (1997): 63-75.

ETXABE, Amets (2005). «Kode-alternantzia lagun arteko gazte-hizkeran» Sakontze egitasmoa, HIZNET: Hizkuntza Plangintza Graduondokoa, 2005. <https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/AmetsEtxabe.pdf>.

ETXEBERRIA, Lierni (2013). «Ibarrako gazte-hizkera: kode-alternantzia» Sakontze egitasmoa, HIZNET: Hizkuntza Plangintza Graduondokoa, 2013. https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/Ibarra_Lierni.pdf.

EUSKO JAURLARITZA (2016). *Gu gazteok. 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunero-kotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8239/Gu_gazteok.pdf?1465393066.

———, NAFARROAKO GOBERNUA ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (2023). VII. *Inketa Soziolinguistikoa 2021. Euskal Autonomia Erkidegoa. Laburpen-txostena*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def_adjuntos/VII.-INKESTA-SOZIOLINGUISTIKOA_laburpena.pdf.

FEIXA, Carles (1999). *De jóvenes bandas y tribus. Antropología de la juventud*. Barcelona: Ariel.

FEIXA, Carles eta NOFRE, Jordi (2012). «Culturas Juveniles», *Sociopedia.isa* (2012). doi: 10.1177/205684601291.

GARAY, Urtza eta ETXEBARRIA, Aintzane (2010). «Irakasleen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia», *UZTARO Giza eta Gizarte Zientzien Aldizkaria* 73 (2007): 39-48.

GOIRIGOLZARRI, Jone, AMORRORTU, Estibaliz eta ORTEGA, Ane (2019). «Activación lingüística de jóvenes neohablantes de euskera en la universidad», in *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid: Iberoamericana Vervuert: 23-46.

HERNÁNDEZ, Jone Miren (2005). *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

HERNÁNDEZ, Jone eta ALTUNA, Jaime (2017). «Gazteak euskararen jolastokian», in *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea: 53-70.

HERNÁNDEZ, Jone Miren, ALTUNA, Jaime eta IÑARRA, Maialen (2020). *Euskara Kirolkide. Lanqueta teoriko-kontzeptuala*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/09/EuskaraKirolkide_2020_TXOSTENA_OinarriTeorikoa.pdf.

HERNÁNDEZ, Jone Miren eta SANTAMARIA, Ainara (2021). «Do It Yourselfetik planifikaziora: Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak», *Fontes Linguae Vasconum* 132 (2021): 349-374.

IBARRA, Orreaga (2008). «Apuntes sobre interferencia castellano-vasca en el lenguaje juvenil actual: léxico, calcos y transferencia lingüística», *Oihenart* 23 (2008): 219-240.

——— (2011). «Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código», *Oihenart* 26 (2011): 277-298.

——— (2013). «El code switching *vasco-castellano* en oraciones atributivas de hablantes jóvenes», *Oihenart* 28 (2013): 115-130.

——— (2014). «Tipología y pragmática del code-switching *vasco-castellano* en el habla informal de jóvenes bilingües», *LAPURDUM Euskal Ikerketen Aldizkaria* 18 (2014): 23-40.

IÑIGO, Patxi (2007). «Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan», *Euskera* 1 (52) (2007): 291-318.

IRAOLA, Joxemari (1992). *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian. Hizkuntz jokaerak*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala. <https://www.lasarte-oria.eus/documents/298010/23017914/Gazteak+eta+Euskara+1992.pdf/5e034b8c-b0ca-6025-5a05-190c2830ff22>.

IURREBASO, Iñaki (2016). «Hainbat gogoeta hizkuntza-gaitasunaren inguruan», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 99 (2016): 81-95.

——— (2021). «Euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: zer dago indartsuen?, zer ahulen?», *HERMES Pentsamendu eta Historia Aldizkaria* 69 (2021): 24-39.

JAUREGI, Pello (2003). *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II). Hizkuntzazko jokaerak*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala. <https://www.lasarte-oria.eus/documents/298010/3706031/Euskara+eta+Gazteak+II/dbe52f3c-8a6a-9535-a009-36a1ffcbe0b6>.

——— (2013). *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (III). 20 urteko bilakaera*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala. <https://www.lasarte-oria.eus/documents/298010/3706031/Euskara+gazteak+2013/e5b14357-fcac-ef65-156d-d43685c86383>.

KASARES, Paula (2012). «Euskararen belaez belaezko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 82 (2012): 15-52.

KRASHEN, Stephen (1976). «Formal and Informal Linguistic Environments in Language Acquisition and Language Learning», *TESOL Quarterly* 10 (2) (1976): 157-178. <https://doi.org/10.2307/3585637>.

LANTTO, Hanna (2014). «Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao», *International Journal of Bilingualism* 18 (6) (2014): 633-648.

——— (2015a). Code-switching in greater Bilbao. A bilingual variety of colloquial basque [Doktorego Tesia], Helsinkiko Unibertsitatea. <https://helda.helsinki.fi/items/17177fa1-284e-4f6e-9b08-20925929c5be>.

——— (2015b). «Conventionalized code-switching: Entrenched semantic-pragmatic patterns of a bilingual Basque-Spanish speech style», *International Journal of Bilingualism* 19(6) (2015b): 753-768.

——— (2016). «Conversations about code-switching: contrasting ideologies of purity and authenticity in Basque bilinguals' reactions to bilingual speech», *Multilingua* 35(2) (2016): 137-161. <https://doi.org/10.1515/multi-2015-0040>.

LAUZIRIKA, June (2014). Lekeitioko gazteak eta euskara. Bermeoko egoerarekin alderaketa [Gradu Amaierako Lana], HIZNET: Hizkuntza Plangintza Graduondokoa, 2014. https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/HIZNET_June-Lauzirika.pdf.

LE BRETON, David (2014). *Una breve historia de la adolescencia*. Buenos Aires: Nueva Visión.

LEE, Jin Sook eta BUCHOLTZ, Mary (2015). «Language Socialization Across Learning Spaces», in *The handbook of classroom discourse and interaction*. Malden-Oxford-West Sussex: Wiley-Blackwell: 319-336.

LEGARRA, Endika (2019). Lagunekin euskaraz. Gazteen lagunarteko hizkera lantzeko proposamen didaktikoa [Master Amaierako Lana] (Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan), Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2019. <https://academica-e.unavarra.es/xmlui/bitstream/handle/2454/33669/Endika%20Legarra%20MBL%20-%20Lagunekin%20euskaraz.pdf?sequence=1&isAllowed=y>.

LUJANBIO, Oihana (2012). «Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskararen», *UZTARO Giza eta Gizarte Zientzien Aldizkaria* 80 (2012): 77-97.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki (2004). «Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintza», in *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran. VIII. Jardunaldiak*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea: 11-38.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki eta BERRIO-OTXOA, Kontxesi (2000). *Etorkizuna aurrerikusten* 99. *Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskal Kultur Erakundea eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

MORALEJO, Rubén eta RAMALLO, Fernando (2019). «Las condiciones del (pre) falantismo y el proceso de conversión lingüística en Galicia», in *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madril: Iberoamericana-Vervuert.

MUÑO, Inma (1997). «Pragmatic functions of code-switching among Basque-Spanish bilinguals», in *Actas do I Simposio Internacional sobre o Bilingüismo*. Vigo: Universidad de Vigo: 528-541.

ORMAETXEA, José Luis (2008). «Otxandioko hizkera: adinaren araberrako barietateak», *Fontes Linguae Vasconum* 108 (2008): 249-262.

ORTEGA, Ane, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone; URLA, Jacqueline eta URANGA, Belen (2013). «Hiztun berrien hizkuntza identitatea: “nolako euskalduna naiz?”», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88 (2013): 151-170.

ORTEGA, Ane, URLA, Jacqueline, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone eta URANGA, Belen (2015). «Linguistic identity among new speakers of Basque», *International Journal of the Sociology of Language* 231 (2015): 85-105.

ORTEGA, Ane, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone eta URLA, Jacqueline (2016). *Los nuevos hablantes de euskera. Experiencias, actitudes e identidades*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

ORTEGA, Ane, GOIRIGOLZARRI, Jone eta AMORRORTU, Estibaliz (2022). «Participatory action research to promote linguistic mudas among new speakers of Basque: design and benefits», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 43 (1) (2022): 55-67.

OZAITA, Josu (2014). «Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 91 (2014): 83-103.

PEREZ GAZTELU, Elixabete (2022). «Euskara batua gazteen lagunarteko ziberkomunikazio pribatua», in *Arantzazutik mundu zabalera: euskararen normatibizazioa, 1968-2018*. Bilbo: Euskaltzaindia: 471-484.

PEREZ GAZTELU, Elixabete eta ZULAIKA, Esther (2016). «Estrategias comunicativas en las conversaciones “escribladas” de chat: el contacto lingüístico», in *Antes y después de los mass media. Actores y estrategias comunicativas*. Madril: Dyckinson: 358-376.

PUGDEVALL, Maite, WALSH, John, AMORRORTU, Estibaliz eta ORTEGA, Ane (2018). «‘I’ll be one of them’: linguistic mudes and new speakers in three minority language contexts», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 39 (5) (2018): 445-457. <https://doi.org/10.1080/01434632.2018.1429453>.

PUJOLAR, Joan, GONZÁLEZ, Isaac eta MARTINEZ, Roger (2010). «Les mudes lingüístiques dels joves catalans», *LLENGUA I ÛS Revista Tècnica de Política Lingüística* 48 (2010).

QUINTANILLA, Maite (2014). «Gazteak, hizkuntza eta hegemonia: lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Sorluzen», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 92-93 (2014): 87-120.

RODRIGUEZ, Fito eta ESNAOLA, Imanol (1996). «Idatzizko euskara batua eta ahozko euskararen arteko kontraesanak: Euskal Herriaren nortasun kolektiboaren eraikuntzan (gazte-hizkeraren kasua)», *Tantak* 16 (1996): 67-78.

SCHIEFFELIN, Bambi, B., OCHS eta Elinor (1986). «Language socialization», *Annual review of anthropology* 15 (1986): 163-191.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, TOPAGUNEA, URTXINTXA (2009). *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua. Emaitzen txostena*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/03/a-gazteenhizkuntzaerabileraneragitendutenfaktoreenazterketai.pdf>.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011). *Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida. Erabileraren GPSa*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2020/05/erabileraren_gpsa-liburuxka-z2.pdf.

——— (2012). *Gazteak eta euskara Gasteizen*. Gasteiz: Gasteizko Udala. <https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/03/Gazteak-eta-Euskara-Gasteizen-TXOSTENA.pdf>.

——— (2013). *Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formala eta informala*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

——— (2018). *UPV/EHUko zenbait fakultatetan hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2018. Emaitzen txostena*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. [Argitaratu gabea].

——— (2022a). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/>.

——— (2022b). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Gipuzkoa, 2021*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://infogram.com/gipuzkoa-aurkezpena-1hnq410m8gmlk23>.

——— (2022c). *UPV/EHUko zenbait fakultatetan hizkuntzen erabileraren neurketa. 2021-2022 ikasturtea*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/06/EHU-Hizkuntzen-erabileraren-neurketa-Txostena-2020.pdf>.

——— (d. g.). *UPV/EHUko fakultateetako esparru ez-formaletan hizkuntzen erabilera. Gipuzkoako Campusa. Ikerketaren emaitza nagusiak*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. [Argitaratu gabea].

UNAMUNO, Lorea (2010). «Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran», *Euskalingua* 16 (2010): 41-48.

ZABALA, Josune (2013). «Ahozko hizkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Esku hartzea eta ikasleen garapena Tolosako esperientzian», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88 (2013): 127-148.

ZABALA, Josune eta AYERZA, Maitane (2011). «Tolosa: gazteen ahazkotasunaren laborategi (I)», *Euskera*, 55 (2) (2011): 671-693.

ZARRAGA, Arkaitz, COYOS, Jean-Baptiste, HERNÁNDEZ, Jone Miren, JOLY, Lionel, LARREA, Imanol, MARTÍNEZ, Loren, URANGA, Belen eta BILBAO, Paul (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Adierazkortasuna euskaraz lantzeko proposamen didaktikoa: imitazio-jolasak

Propuesta didáctica para trabajar la expresividad en euskera: juegos de imitación

Proposition didactique pour travailler l'expressivité en basque : jeux d'imitation

A teaching proposal for expressiveness in Basque: imitation games

BASAURI ALBERDI, Jon
Elgoibar Ikastola
Euskara- eta gaztelania-irakaslea
jbasauri@elgoibarikastola.eus

OTAEGI ETXEZARRETA, Iñigo
Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
iotaegi@mondragon.edu

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.275>

Noiz jaso: 2024-01-22

Noiz onartua: 2024-03-14

Gazteei euskarak ez die balio funtzio premiazkoak asetzeko, gaztelania behar dute haserretzeko, pozteko, harritzeko; nor izateko, alegia. Hezkuntzan, oro har, ahozko jarduna ez da lantzen, ondorioz, orriotan euskaraz ahozko adierazkortasuna lantzeko sekuentzia didaktikoa proposatzen da. Ikasleek kaleko hiztunen hizketaldiak imitatzea da lanaren muina, helburua baita ahoskera eta gorputz-adierazpena erregulatzen ikastea eta askotariko baliabide linguistikoak ezagutzea eta erabiltzea.

Gako-hitzak: euskara, ahozkotasuna, adierazkortasuna, imitazioa, ahoskera, gorputz-adierazpena.

A los jóvenes el euskera no les sirve para satisfacer funciones apremiantes, necesitan el castellano para enfadarse, para alegrarse, para sorprenderse; para ser alguien. En la educación, en general, no se cultiva la práctica oral, por lo que en estas páginas se propone una secuencia didáctica para trabajar la expresividad oral y en euskera. El trabajo se centra en que el alumnado imite las conversaciones de los hablantes comunes, ya que su objetivo es aprender a regular la pronunciación y la expresión corporal y conocer y utilizar recursos lingüísticos diversos.

Palabras clave: euskara, oralidad, expresividad, imitación, pronunciación, expresión corporal.

La langue basque ne satisfait pas les besoins des jeunes, ils ont besoin de l'espagnol pour s'énerver, se réjouir, s'étonner. Dans l'éducation en général, l'activité orale n'est pas abordée, c'est pourquoi une séquence didactique est proposée pour travailler l'expressivité orale et en basque. Le travail se concentre sur l'imitation par les élèves des conversations des locuteurs dans la rue, dans le but d'apprendre à réguler la prononciation et l'expression corporelle, ainsi que la connaissance et l'utilisation de ressources linguistiques diverses.

Mots-clés : langue basque, oralité, expressivité, imitation, prononciation, expression corporelle.

Young people need Spanish to be angry, to be happy, to be surprised, to be themselves. In education in general, oral practice is not addressed, and therefore a teaching sequence is proposed to work on oral expressiveness in Basque. The core of the work is for students to imitate the conversations of speakers in the street, to learn how to regulate pronunciation and bodily expression, and to be aware of and use a wide variety of linguistic resources.

Keywords: Euskera, orality, expressiveness, imitation, pronunciation, bodily expression.

BASAURI ALBERDI, Jon and OTAEGI ETXEZARRETA, Iñigo (2024). «A teaching proposal for expressiveness in Basque: imitation games», *Euskera ikerketa aldizkaria*, 69, 1: 79-115.

1. Sarrera

Gaur egungo gazteak ez dira gai beren barruak euskaraz husteko, ez dezakete esaldia euskaraz bukatu gaztelaniarik erabili gabe. Testuinguru formaletan moldatzen dira nolabait, baina handia da mehatxatzeko, iraintzeko edota zirtoan aritzeko ezintasuna (Garzia 2008; Sarasua 2023). Alderdi formala eta idatzizko moldea gailendu dira hezkuntzan, eta apenas erreparatu zaie alderdi informalarik eta ahozko moldeari. Aipatzen da zama ezin zaiola eskolari bakarrik egotzi, baina adituak bat datoz: ikasgelek izan behar dute adierazkortasuna lantzeko espazio (Garzia 2001). Eskolatik hasi behar da, hortaz, iraultze-lana; horretarako, ezinbestean behar dira euskaraz ahozko adierazkortasuna berariaz landuko duten baliabide didaktikoak (Zabala 2013; García-Azkoaga *et al.* 2010).

Egin izan dira ahozko komunikazioa hobetzeko proposamen gutxi batzuk, Josune Zabalarenak (2018) eta Joxerra Garziarenak (2008), kasurako; Master Bukaerako Lan (MBL) honek ere noranzko berean egin nahi du ekarpena, baina erregistro informalarik bete-bete helduz eta bestelako planteamendu baten bidez; izan ere, esku-hartzearen muina imitazio-jolasak dira. Hitz gutxitan, ikasleek kaleko hizlariak imitatuz ikasiko dute euskaraz adierazkor aritzen, eta, horretarako, audioak eta bideoak erabiliko dituzte. Bi tailer-alditan banatzen da: ahoskera-tailerra eta gorputz-adierazpena lantzeko tailerra. Azken ekoizpena bidean, imitazio-ariketak sarri-sarri egingo dituzte, eta azken zeregina izango dute ahotsa eta gorputza uztartuz ahalik eta egokien imitatzea.

MBL hau Gipuzkoako Tolosatik eta Tolosarako pentsatu da, baina transferi daiteke Euskal Herriko beste edozein ikastetxetara, betiere tokian tokiko egokitzapenak eginda, ikasleen ezaugarriak eta herriko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, ez baitira bertsuak izango Tolosako (Gipuzkoa), Kanpezuko (Araba) eta Bankako (Nafarroa Beherea) abiaburuak, helburu-mailak eta lanerako gaia.

2. Lanaren justifikazioa

Soziolinguistika Klusterrak (2022) argitaratutako azken datuen arabera, Tolosa gero eta euskaldunagoa da; ezagutzari dagokionez, % 70 pasatxo dira euskaldunak, eta % 15 ia euskaldunak; erabilera-datuak aintzat hartuta, etxean % 36k darabil euskara, eta % 20 pasatxok biak darabiltzate, euskara eta gaztelania; kalean, biztanleen erdiak baino gehiago ari dira euskaraz (% 52). Horien artean, haurrak dira euskaraz gehien egiten dutenak (% 76), gazteak gutxixeago ari dira haurren aldean (% 67), eta, adinean gora egin ahala, erabilera apaldu egiten da (helduek % 50, eta adinekoek % 30).

Edonola ere, ikerketaren lagina kalera mugatzen da, ez ditu ikastetxeak kontuan hartzen. Praktiketari lau hilabete eman ditugu ikasgeletan, korridoreetan, jolastokian... belarriak adi; egiazki, aldea sumatzen da erabilera-datu ofizialen eta ikasleek eskola-giroan dituzten ohituren artean. Lagunarteko elkarriketetan bederen, etengabeko kode-alternantzia dabilta, espainolezko esapideak txertatuz: «Iepa! ¿Qué pasa?»; «Bai zea, no me jodas!»; «Si nik ez dizut ezer in, gilipollas!». Ez da hizkuntza gaitasuna adin-taldea neurtzen duen tokiko ikerketarik, baina esamolde horiek badira erdararako joeraren seinale. Ez da Tolosako kontua soilik, Euskal Herri zabalean ere hala dela frogatzen dute Bereziartuak, Guiradok eta Alonsok (2023) eta Altunak (2023); haiek ikertutakoaren arabera, laugarren mailako gaztetxoek erabiltzen dituzten esamoldeen % 65,55 erdarazkoak dira, euskarazkoak % 29,9, eta hizkuntza biak nahasita erabilitakoak % 5,26. Irain eta biraoen kasuan, nabarmenagoa da aldea: erdaraz % 78,08 jaso dira, eta euskaraz % 21,92. Kontuan hartzekoa da % 63,97k etxeko hizkuntza euskara dutela, edo euskara eta erdara.

Adierazkortasunean dagoen kamustasuna identifikatu genuenez gero, masterreko praktikaldian diseinatu beharreko sekuentzia didaktikoa horixe lantzeko baliatu genuen, eta MBL hau haren segida naturala da. Sekuentzia didaktiko hartan gehiegi eskatu zitzaizen gauza onerako: egoera bat abiaburu izanda, hiru-lau laguneko taldeetan lagunarteko elkarriketa labur bat idatzi eta ahotsez eta gorputzez antzeztea. Ez gaude hori eskatzeko puntuan, hainbat arrazoiengatik –oinarri teorikoan aletuko dira aurreraxeago–. La-

nerako behar beste baliabide eta patxada eman gabe ere, testuetako batzuk txukun samar taxutu zituzten; hona hemen, adibide bat:

1. taula. Ikasleek ahoz antzezteko idatzitako elkarrizketa (gerok egina)

Testuingurua:

Bi lagun autoz zoazte herritik zehar, eta zebra-bidean geratu egin zarete oinezko bat pasa dadin; hasi da pasatzen baldar antzean, eta eskuetan zeramatzan poltsak erori zaizkio.

Antzezak:

- Markel (kopilotua)
- Lander (gidaria)
- Alex (oinezkoa, erosketekin doana)

Elkarrizketa:

MARKEL: Joan hadi azkarrago, ez gattuk-eta iritsiko!

LANDER: Ez al dek ikusten ezin detela?

(...)

MARKEL: Ai ama! Erosketa guztiak erori zaizkiok!

ALEX: Kaka zaharra!

MARKEL: Hi, kendu hadi paretik!

ALEX: Zer kristo? Joan hadi pikutara, lotsagabea!

LANDER: Baldarra gizona gero...

MARKEL: Horri windowsa esaten zaiok gure etxean.

«Windows» eta «zer kristo?» egokiro txertatuta daude, beste kontu bat da horiek zer doinutan, nolako aurpegieraz esaten diren. Horretan aritu ziren eskasen, eta balio izan zien sekuentzia honek herrena sentitzeko. Hala moduz eta presaka egin zen sekuentzia didaktikoa, ez zen nahikoa tarte hartu ahotsak eta gorputzak erregulatzeko, baina, denbora izanda ere, irakasleok ez ginatkeen gai izango orientabide egokiak emateko, ez baikenuen formakuntzarik.

Sekuentzia ixte aldera, eskatu zitzaaien idatz zitzaten saio-sortaren indarguneak eta ahulguneak; iruzkinek adierazten dute, oro har, entretenitzeaz

gain, esateko beste modu batzuk ikasi zituztela, baina denbora-tarte labur-
regia izan zutela eskatutakoa fundamentuz egiteko.

2. taula. Sekuentzia ebaluatzeko galdetegiko erantzunak (gerok egina)

Euskaraz hobeto adierazteko esaldiak ikasi ditut eta ondo pasa dut.
Oso ondo dago hau praktikatzea, dibertigarria da, oso arraroa izan da niretzako.
Kosta egin zait lagunen aurrean imitatzea.
Zerbait oso berria izan da.
Lotsa kentzeko ondo egon da.
Teoria aspergarria egin zait.
Denbora oso gutxi izan dugu.
Gehiago entseatu behar da.
Oholtzan egin beharko litzateke.

Haiek idatzitako testuak antzeztu zituzten oroz gain, baina, bidean, tar-
teka eta oso labur izan bazen ere, pantailan erakutsi zitzaizkien esketxak
imitatu zituzten, testua paperean transkribatuta emanda; zenbait esalditan,
gerturatu ziren jatorrizko hiztunaren jardunera. Segituan irudikatu genuen
MBLaren funtsa: hiztun eredugarriak pantailan, eta nerabeak haiek imita-
tzen.

Hala, eskualdeko hainbat lagun grabatu genituen askotariko testuingu-
ruetan mintzo zirela: batzuk haserre zuketan, beste batzuk txantxa-giroan
hiketan, eta abar. Kalera jo genuen langai bila motibo askorengatik, baina,
batik bat, praktikaldiko sekuentzian erabilitako esketxak –ETBko saioetatik
eta euskarazko pelikuletatik hartuak– ez zirelako kaleko hizkera biziaren
adibide; ez da gauza bera, esaterako, «ostia» eta «kontxo» esatea. Ezin zaiz-
kie irakatsi gerok kalean erabiliko ez genituzkeenak.

Imitazioan ardaztuko dugu, hortaz, gure proposamen didaktikoa. Balia-
bide honen azterketa ez da oraingo kontua eta hizkuntzalari askok azpima-
rratu dute hizkuntzaren jabekuntzan daukan garrantzia. García Ángelesek

(2007) imitazioak eta behaketak gazteleraren ahoskera hobetzen laguntzen duela defendatzen du bere artikuluan, eta argudioen artean Piageten imitazioaren kontzeptua jasotzen du: «Imitazioa umeak errealitatea ulertzeko eta munduarekin harremanak izateko darabilen saiakeren espresibidea da» (Ginsburg eta Oppen 1977: 38). Ezin dugu ahaztu, inola ere, ikasleentzat imitatzea ez dela kontu arrotza, ume-umetatik giten baitakite.

Nazioartean *speaking drilling* delakoa hainbatetan aplikatu izan da, eta, besteak beste, onurok dakartza: inplikazioa handitzea, konfiantza handitzea, ikaskideekin harreman gehiago izatea, kontzientzia handitzea, lexikoa ikastea eta ahoskera hobetzea (Mauliyana 2021). MBL honek alderdi horietan eragin nahi du, Sarasuak (2013) dioen bezala, metodologian iraultze-lana eginez, bestelako lan-dinamika batzuk proposatuz, elkarreraginean eta ikasleak sortzaile roletik arituz.

3. Hurbilpen teorikoa

3.1. Euskararen diagnosis

Etorkizuneko sekuentziak diseinatu aurretik, euskara eta euskal komunitatea galgatzen duten arrazoiez ari behar da. Askotariko metaforak erabili dira euskararen larriaz gogoetatzeko: *impasse* egoera eta bidegurutzea (Amonarriz 2019), Urbiako lainopea (Sarasua 2013), edalontzia –betea, erdi-betea, hutsa; nondik eta nola begiratzen den–, minbizia (Sarasua 2023) eta eskailera mekanikoa (Iurrebaso 2023). Arantzazutik Urbiarainoko bideak euskalgintzaren bilakaera islatzen du, azken hamarkadetan eginiko behetik gorakoa; Sarasuaren (2023) iritziz, behin Urbian egonik, bi aukera ditugu: «Urbian goxo-goxo geratu, txorizo-pintxo bat jan eta Arantzazura jaitsi, edo Aizkorrira abiatu».

Urbiara bidean lorpenak hamaika izan dira –euskara batua, kasurako–, baina, hobekuntzen garaian, paradoxikoki, hobetzekoak bistaratu ziren; Sarasuaren (2023) ustetan, hutsunerik handienetako bat honakoa da: «Ez gara gai izan motibazioa, ezagutza eta erabilera elkar elikatuz orekatzen dituen garapen bat sortzeko». Euskara diglosia-egoeran dago beste bi hizkun-

tzekin elkarbizitzan, eta Iurrebasoren (Arbelaitz eta Arruti 2023) ustetan, erdara horiek izan dira olioztatze horren baldintzatzaile nagusiak: «Euskara ez izateak beharrezkoa ia ezertarako, lan munduak, hedabideen esparruak, marko juridikoak, handik eta hemendik *de facto* erdararen alde egiten den diskriminazio positiboak..., ia denak baldintzatzen du euskararen subordinazio egoera iraunkortzera eta areagotzera».

D ereduari esker, euskararen ezagutza nabarmen hazi da, baina dakitenak askoz gehiago dira erabiltzen dutenak baino (Sarasua 2013; Amonarriz 2019; Diaz de Gereñu 2017). Aditu gehienek diote euskara gutxi darabilgula –zortzi herritarretik batek (Soziolinguistika Klusterra 2022)–, baina Iurrebasok diskurtso orokortuaren ikuspegia iraultzen du honako ondorio honen bidez: kontuan hartuta zeintzuk diren euskara erabiltzeko ditugun aukerak, euskararen erabilera altua da. Izan ere, erabilera balioztatzeko, Iurrebasoren (2023) hitzetan, ikusi behar da gaitasunean non gauden. Ikerketan frogatu duenaren arabera, euskaraz erraz egiten dutenen kopurua ez da hazi, eta egilearen ustetan, euskararen biziberritze-prozesuan lehentasunetako bat izan behar du.

Sarasuak (2013) bat egiten du Iurrebasorekin, eta aipatzen du gaur egungo euskaldunak beharrezko dituela corpusezko eta espresiozko baliabideak, baina baita baliabide arrazoibidezkoak, psikologikoak, jakintzazkoak eta emozionalak ere. Fokua lehen bietan jarrita, Iurrebasok (Arbelaitz eta Arruti 2023) honako galdera egiten du: «Zer tresna eman ahal zaizkigu euskara hain erraz erabiltzen ez dugun euskaldunoi, gure euskara zorrozteko eta horrekin batera bizitza errazago eta euskaldunagoa egiteko?».

Sarasuak (2023) ere kezka bertsuak ditu aipagai, eta bi multzotan sailkatzten ditu aurrerantzean egin beharrekoak: pausoak eta jauziak. Esaterako, corpusaren alorrean pausoak ematea dagokigu: «Adierazkortasun falta handia dago, kolorea falta zaigu. Potentzia espresiborik ez badago, erabilerarik ez» (Sarasua 2023). Horrexeri lotuta, pausoa bainoago, hezkuntzan jauzia eman behar delakoan dago Sarasua (2023): «D ereduak ez du lortzen XXI. mendean hitzun osoak izango diren belaunaldiak sortzea [...] D eredu birpentsatu behar da».

Corpusa eta hezkuntza, adierazkortasuna eta eskola. Horietan jarriko da arreta datozen ataletan. Hezkuntzak zer funtzio bete behar du corpusaren alorrean? Nola ekoitzi gaur egungo munduan euskaraz bizitzeko gai diren hiztun osoak? Zer egitea dagokio eskolari? Eskolak zer tresna eman beharko lizkioke hiztunari?

3.2. Ahozko komunikazioaren lanketa hezkuntzan

Ahoz egoki eta zuzen jarduteko beharra gero eta gehiago aipatzen bada ere, orain arte, gazteei ez zaie hala aritzeko aukerarik eman: «Eskola-sistemak ahaztu egin ohi ditu ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak [...] Oinarrizkoak dira ikasgai guztietan jakintza eraikitzeke behar diren gaitasun kognitibo-linguistikoak garatzeko» (Eusko Jaurlaritzza 2016: 283). Beste hitz batzuk erabilia, antzekoa dio Egañak: «Eskolak mutu hezten gaitu [...] Nor da ikasle ona? Isilik dagoena [...] Eskolak beste urrats bat eman beharko luke gaztetxoak ahoz trebatzeko» (Euskal Kultur Erakundea 2018).

Arrazoi ugari daude ahozkotasuna lantzearen atzean: irakasleen prestakuntza eza (Perez 2014); kontzeptuaren beraren esanahi lausoa (García-Azkoaga *et al.* 2010); metodologiak pentsatzeko, ebaluatzeke eta helburuak zehazteke zailtasunak, alegia, lanaren beraren sistematizatzea (Dolz eta Schneuwly 1997; Perrenoud 1991). Garziaren (2008) irudike, ordea, kontu zailak begitantzen zaizkigu ausartzea falta zaigulako; ildo bertsutik, Oñederak (2019) dio ahozkotasun kontuak ez direla erosoak.

Zabalak (2013) testuliburuen inguruan eginike azterketak berretsi egiten du askoz ere gehiago direla idatzizkoa lantzen duten materialak, ahozkoa lantzen dutenak baino; are, ahozkoa lantzen den apurretan, jatorrizko lan-gaiak testu idatziak izaten dira. Perrenouden (1988; Garcia-Azkoaga *et al.* 2010) iritiz, ezinbestekoa da ikerketak martxan jartzea ahozkotasuna inguratzten duena xeheke ezagutzeko, eta, horren ondotik, baliabide didaktike egokiak sortzeko. Gaur-gaurkoz, ordea, gutxi lantzen da, eta bideari ekiteke gogotsu dauden irakasleak bide-orririk gabe sentitzen dira (Perez, Azpeitia *et al.* 2015).

3.3. Ahozko komunikazioaren ezaugarriak

3.3.1. Egokitasuna eta adierazkortasuna

Ahozko komunikazioak bere kode propioak ditu (Garzia 2008) eta harreman baten gisan ulertzen da: «Orainaldikoa eta bizia, esatari-norentzako(ar)en arteko *feedback*» (Perez; Azpeitia 2014: 45); lastertasun horretan, ohikoak dira egiturarik eza, bat-batekotasuna, gramatika-arauetara ez murtzea edota ezaugarri fonetiko eta prosodikoak. Hala ere, eskolaren jomuga –ahozkoan ere– zuzentasuna izan da (Mielgo eta Ocio 2021), baina Garziak (2008: 33) dio egokitasunari eman behar zaiola lehentasuna: «Eskolaren xedea da akatsik gabe idaztea edo hitz egitea; hiztunok, ordea, bestelako xedeak lortzeko dantzatzen dugu ia beti mingaina edo luma: gure burua lasaitzeko, inor txunditu, uxatu, liluratu, kontsolatu edo mintzeko». Are, Sarasolaren ustez (2002: 142), egoki jarduteko garaian, zuzentasuna oztopoa da: «Ez dugu ahaztu behar norma eta hizkuntza bizia etsai direla»; Oñederra eta Jauregi (Oihaneder Euskararen Etxea 2021), gehiegizko zuzentasuna eskatzen delakoan daude, eta hala diote: «Umezurtz konplexua dugu [...] Ez ditugu arauak behar, gidak baizik, mapak».

Kalitatezko ekoizpena izateko, egoki jarduteaz gain, zuzen eta jator ere jardun behar da. Hori da Garziak, Egañak eta Amonarrizek (2004: 24) ateratako ondorioa, Sarasolak 1997an eginikoa aintzat hartu eta moldatu ostean. Haien hitzetan, euskara zuzena da «Euskaltzaindiaren arauen arabera-ko euskara»; euskara jatorrari buruz, ostera, honakoa diote: «Euskararen senaren edo usadioaren arabera-ko euskara [...] “Entrenatzailea zirkunstantzia aurpegiarekin atera zen aldageletatik” euskara zuzena izan liteke akaso, baina ez da jatorra [...] “Entrenadoriak hala moduzko aurpegiaz urten zeban bestuarixotik”, aldiz, jatorra da»; eta, hirugarrenik, euskara egokia da «bere xederako egokia dena» (Garzia *et al.* 2004: 24). Hitztunaren talaiara etorruta, «aldian aldiko egoeran hartarakoxe egokia den hizkera erabiltzen jakin eta asmatzea» da hitzun egokiaren eginbeharra (Garzia *et al.* 2004: 24).

Garzia (2008: 32) Mitxelenarekin akordatzen da, batik bat hark hizkuntzaren eta aizkoraren artean egindako metaforarekin: «Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da,

beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona aizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta aizkora kamutsa, berriz, txarra». Aditu gehienen ustez, gazteek euskara kamutsa daukate, ez dakite nola esan gauzak bitxi (Garzia 2008; Egañak Euskal Kultur Erakundearen 2018); Zalbideren (2002) hitzetan, ez dira moldatzen testuinguru informaletan eta intimoetan. Horixe da kezkarik handienetakoa Garziaren, Egañaren eta Amonarrizen ustetan (2004: 29): «Adierazpide indartsuen bila beti erdarara jotzeko joera».

Egañak (Euskal Kultur Erakundea 2018) adibide batekin azaltzen du hiztunon adierazkortasunaren eskatea: «Guk lehen “vertebra” esaten genuen, eta orain denok dakigu “orno” dela, ados; baina guk bagenekien esaten, “hi ekar ezak lapitza, bestela bigarrena paretak emango dik” [...] Orain ez dute mehatxatzeko gaitasunik mingainaren puntan». Eta ez badute adierazkor izateko moduko euskara zorrotzik, Garziak dio hiztunak gal litezkeela: «Axola dioten gauzetarako balio badio, erabiliko du hiztunak hizkuntza; balio ez badio, batera egingo dizkio kaixo eta adio» (Garzia 2008: 34). Horrenbestez, euskara biziko bada, Sarasuak (2013) dio eskolak eskura jarri behar dituela eroso bizitzeko baliabideak, euskarazko hitz eta esamolde askotarikoak.

3.3.2. *Ahoskera eta gorputz-adierazpena*

Aurreratu da ahozkotasuna lantzeko eragozpenak asko direla –esanahia- ren lausotasuna, lanaren sistematizatzea, eta abar–; ahoskerara etorrira, Marinek (2015), antzeratsu, azaltzen du ez dagoela lanketarako oinarririk. Geure mugetatik harago ere hala da, Hendersonek (*et al.* 2012) ondorioztatzen baitu ahoskera irakasteko arreta falta handia dagoela hezkuntza-testuinguru ia guztietan, eta Tergujeffek (2012) beharrezkotzat jotzen du lehenbailehen ahoskera-estrategietan pentsatzea.

Marinen (2015) ustez, ahoskera lantzeko lehen pausoa da deszifratzea nola hitz egiten dugun, sinesgarritasuna erdieste aldera. Oñederrak (2021) dio, bide beretik, hitz egiteko maneretan arakatu behar dela: «Euskara ikas-

ten dutenek edo, euskalki batetik abiatuta, batua ikasten dugunok ikasi behar dugu lehendik ez geneukan partitura baten arabera kantatzen, antzetzen, gauzatzen hizketa». Marinentzat (2015) prosodia horixe da, testua partitura baten moduan ulertzea, eta ahots gora irakurri behar denean, hitz bakoitzak eskatzen duen doinua ematea; azkenean, testua bera irakurri ez, kantatu egin behar omen da, eta ez hizka, ezpada esaldika.

Oñederrak (2021), era berean, azaltzen du euskarak ez duela ahoskerasistemarik, azpisistemak bai, euskalkien fonologia, hain zuzen ere; sistemarik ez izate horrek, besteak beste, ekarri du hegoaldean azentua gaztelanierena hartzea, eta iparraldean frantsesarena. Marinek (2015) dio, adibide bat aipatzearen, euskarazko agurrak erdal-doinuan ahoskatzen ditugula. Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txiki* zenak ere esan zuen erdaraz ariko gabela euskaraz ari garelakoan (Mujika 2023).

Ahoskera zaintzen hasteko garaia dela iruditzen zaio Oñederrari (2021): «“a” organikoa edo ergatiboa ahanzea baino askoz errazago onartzen zaio hizlari bati “eZDakit”, “eZDut” esatea sistematikoki edo *jarrai*, *teologia*, *gaztelaniazko* “j” bezalakoaz egitea hitzaldi batean ere». Beste adibide bat aipatzekotan, Iñaki Gurrutxaga (2023) bertso-irakasleak, esaterako, urtero egiten du aproba Urola Kostako ikasleekin “il” ahoskatzen, horretan ere espainolezko “y” ahoskatzeko joera hartu baita, betikoa “l” bustixeagoa ahoskatu beharrean; gaur egun, Urola Kostako hamar gaztetxotatik bakar batek ahoskatzen du ondo. Sistema baten premia aldarrikatzen du Oñederrak (2021), zeinetan batua eta euskalkiak uztartuko diren, bakoitza hizkeramaila baterako baliatuz, baina biak ere doinu eta ahoskera bertsuz, euskalkien fonologian oinarrituz.

Ahotsez ez ezik, gorputzez ere egokitzen gara testuingurura, begiraden, keinuen eta abarren bidez; gorputza eta hitzak koordinatu egiten ditugu, eta biekin komunikatzen dugu (Garzia 2008). Are, Iresek eta Turrek (2016) adierazten dute gorputz adierazpenaren komunikaziorako indarra: «Gorputz-jarrerek gure gogo-aldarteak salatzen dituzte; gorputza komunikazio-eta proiektzio-eragilea da; irudiak hitzek baino lehenago proiektatzen du. Ikaslea horretaz “konturatzen” den unetik bigarren aldiz jaiotzen da, eta praktikarekin bere abstrakzio-gaitasuna handitzen du» (Ires *et al.* 2016: 34).

Zabalak (2013) berretsi egiten du psikologoaren ikuspegia aintzat hartuta; diotenez, komunikazioan hitzak % 7ko garrantzia du, ahotsak % 38koa eta gorputzak % 55ekoa. Marinek (Euskal Idazleen Elkarte, 2011) dio ahotsa bezalaxe, gorputza eta emozioak ezin direla ahaztu hizkuntza irakasteko garaian, eta proposatzen du papera eta hitza binomiotik atera, eta komunikazioa hiru dimentsiotan ulertzea: papera, ahotsa eta gorputza (Marin 2015).

3.3.3. *Euskalkiak eta hitanoa*

Hiztun osoak ekoizteko bidean, Sarasuaren (Euskaltzaindia 2023) uste-tan, aurrera begirako pausoetako bat da euskalkiekin eta hitanoarekin zer egin pentsatzea; hizkera funtzionalak izateaz gain, Sarasuak (2023) dio euskalkiek edo hitanoak ase lezaketela motibazioaren alderdia: «Euskara motel xamar batek nekez betetzen du funtzio motibatzailea, euskalkietan nor-ago sentitzen dira gazteak». Halere, gaurko gazteek urruneko sentitzen dute irakasten zaien batua, (Martínez Bermúdez 2010); Amurizak (Conferencias y trabajos diversos 2013) dioen gisan, «ez zaio ikusten komunikazio naturalerako baliorik».

Batua eta euskalkiak ez dira elkarren osagarritzat hartzen, bada, hain justu, Marinentzat (Euskal Idazleen Elkarte 2011) batak bestea elika dezake: «Batuaren oso ikuspuntu xelebrea daukagu, euskalkiak alde batera uzten dituen euskara batu bakar eta zozo samar bat egiten dugu, baina haie-tatik asko hartu dezakegu euskara batua eginda ere». Iritzi bertsukoa da Juan Luis Zabala (2020), eta batua kolokial baten alde egiten du: «Uste dut hobe dela euskara batuari forma kolokialak ematea, euskara batuari kolokiala izateko aukera ukatzea baino [...] Batu zikina ere batua da». Formala-go edo kolokialago aritu: horretan dago gakoa Jauregi eta Oñederraren (Oihaneder Euskararen Etxea 2021) arabera, hautematea zer den egokiago testuingurua eta hartzailea kontuan hartuta. Amurizaren (Conferencias y trabajos diversos 2013) ustetan, kamustuta daukagu bisio hori, ez dakigu hizkera egokitzen tabernatik hitzaldira.

Hiketa apenas egiten da gazteen artean, eta Alberdiren (1996) ustetan, horren motibo nagusiak dira genero-banaketa eta adina –nagusiagoari, oro

har ez baitzaio hika egiten—, baina, aldi berean, Alberdik dio aldagai horietan ez izan litezkeela erabileraren onerako, hizlarien artean berdintasuna egotekotan. Elkartasunaren, etxekotasunaren eta lagunartekotasunaren mintzaira dela dio Alberdik (1996), egoera informaletan erabiltzeko erregistro egokia; halaber, gazteek adiskidetasunarekin lotzen dute hitanoa (Alberdi 1996). Ozaitari (2014) begitantzen zaio hikako moldea —euskalkiak bezalaxe— gazte-hizkera bizietan sakontzeko aukera bikaina izan daitekeela.

3.4. Ahozko komunikazioa nola landu

Ahazkotasuna eta aurrez aipatutako ezaugarri horiek guztiak ez dira lantzen, ez dago horretarako materialik (Zabala 2013), baina badira salbuespenak, Garziari (2014) iruditzen zaio Iparraldeko gazteekin ahazkotasuna beste era batera lantzen dutela eta, ondorioz, jendaurrean aritzeko beldur txikiagoa dutela. Dena den, Zabalak (2016) dio egoera soziolinguistikoa hartu behar dela aintzat ezer kopiatu edo diseinatu aurretik, eta erabaki didaktikoak paisaia horren arabera hartu behar direla.

Zabalak berak sortu ditu ahazkotasuna lantzeko sekuentziak, eta ondorioztatzen du beharrezkoa dela ahazkotasuna lantzea eredu errealetatik gertu egongo diren testuekin, ahazkotasunaren ezaugarriak dituztenekin, eta ez idatzizko moldetik egokitutako testuekin (Zabala 2016). Dolzek eta Scheneuwlyk (1998) generoa jartzen dute erdigunean, haien aburuz, hizketan egoki aritzen ikasteko beharrezkoa baita testu-genero batetik abiatzea, egoera komunikatibo errealetatik. Aspaldion, joera hori nagusitzen ari da hizkuntzen irakaskuntzan, esaterako, HABEren HEOC Curriculumean (2020: 29) halaxe definitzen da lan-ildoak: «Elkarreragin sozio-diskurtsiboan ardatzua, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarritua, ekintza komunikatibotik definitua, eta euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikora egokitua».

Atal honen galderari zehatz erantzuten dio Cuenca Villarínek (2019), eta bere ustez gakoak da adierazkortasuna eta ahoskera zehar-lerro bilaketzea; funtsean, une oro gabiltza ahoskatzen, eta Villarínek dio ikasgelan sortzen diren elkarrizketa oro baliatu behar dela adierazkortasuna erregula-

tzeko. Zeharkako eta berariazko lanketa dela-eta, Amonarriek, Arrutik eta Osak (2004), Payak (EHB Jardunaldiak 2020) eta Barandiaranek (Perez 2020) esperientziaren ideia eransten dute; beraien ustez, ikaskuntza sakona izateko, beharrezkoa da ikasleak sortzaile izatea, egiten aritzea, egiten duguna oroitzen baitugu, kontatzen digutena bainoago (Payak esana, EHB Jardunaldiak 2020). Sarasuak (2013), era berean, aipatzen du esperentziaren bitartez, ikaslea senti daitekeela komunitate baten parte, eta Garziak (2007) bertsolaritzaren adibidea egokitzen dauka, talde-ariketa bat izaten delako gehienetan, ahozkoitasuna lantzen delako, diskurtsoak eratzen dituztelako hizkuntzaren zirrikitu linguistikoetan arakaturaz, eta abar.

3.5. Imitazioa

Bertsolaritza bezalatsu, antzerkia ere bide egokia da ahozko adierazkortasuna lantzeko (Marin 2015). Dramatizazioaren bitartez, ez da antzerki zuzendaririk, eszenograforik edo aktorerik formatu nahi Motosen (Martínez Lirola 2021) arabera, ezpada ikasleak euren ahalarren kontzientzia har dezaten. Zabalak (2018) ere antzerkigintza gakotzat dauka, eta uste du euskal hitzunik lortzeko bidean tresna emankorra dela.

Teknika dramatiko sail zabalaren parte dira imitazioak (Martínez Lirola 2021). Beste herrialde batzuetan aplikatzen da imitazioaren teknika, *speaking drilling* deituraz da ezagun, eta batik bat ingelesa irakasteko erabili ohi da. *Drill* hitzak, beste adiera batzuen artean, *simulakro* esan nahi du, eta, funtsean, ariketaren zentzua da entzundako eredu bat entzun eta errepikatzea (Aini *et al.* 2020). *Drillingari* buruzko hainbat ikerketak frogatzen dute teknika aplikatzeak onura mordoa dakartzala, halere, arreta izan behar da zenbait alderditan: ereduaren ulergarritasun-falta, errepikapen mekanikoan ez erortzea, eta jendaurrean aritzeko eta epaitua izateko beldurra (Aini *et al.* 2020).

Onuren artean, osteraz, hauexek dira azpimarragarrienak: ahozko jariora hobetzea, ahoskera hobetzea, baliabide linguistikoak eskuratzea eta aplikatzea, segurtasun handiagoz mintzatzea eta ikasleek aktiboki parte hartzea (Anderson, 2015; Özbekek 2014 eta Jurinoviček 2016 [Martínez Lirolaren

lanean (2021)). *Speaking drilling* estrategian oinarritutako sekuentzia didaktiko bat aplikatu zuten Ainik, Khoyimahk eta Santosok (2020), eta sekuentzia hasieran zehaztutako helburuak –paragrafo honen hasierakoak– bete egin zituzten ikasleen erdiek baino gehiagok; ahoskeran aritu ziren ondoen (Maullyana 2021).

Imitatzea, era berean, Zabalaren (2018) aburuz, ez da berria ikasleentzat, txikitatik ikasten baitugu ikusi eta entzundakoa imitatuz: «Sekula erreparatu diozu hizketan oraindik hasi ez, baina telefono elkarrizketa baten plantak egiten ari den haurrari? Telefonoa hartzen du, doinuan eta erritmoan aldaketak egiten ditu, aurpegi eta gorputzarekin keinuak, isiltzen da entzuten ariko balitz bezala, eta gero berriz hasten da hizketan. Komunikazio ekintza hau ezaguna zaio etxean edo bere gertuan dituztenengan ikusi duelako, eta helduek egiten duten hori imitatzen ari da» (Zabala 2018: 25-26).

Marinek (2015) ere antzetzearen onurak zerrendatzen ditu euskalduntze bidean: «Zero mailatik abiatu den ikasleak testuak buruz ikasi eta antzetzearen poderioz, hitzak doinuan txertatuta barneratzen ditu, emozio jakin batekin lotuta, gorputzean grabatzen zaizkio. Eta gutxien espero duzunean, tabernan gaudela esaterako, zapla botako dizu, natural-natural, esaldi oso bat egoerara primeran datorrena. Aktore mordoxka bat ezagutzen dut horrela euskaldundu direnak. Ikasketa guztiak D ereduan egin eta hitz bat esateko gai ez zela iritsi zenarentzat (ez pentsa gutxi direnik horrelakoak), aukera paregabea da sentitzeko euskarak ere balio duela komunikatu eta dibertitzeko» (Marin 2015: 469-470).

4. Metodologia

Hurbilpen teorikoan bistaratu dira zenbait hutsune, eta datozen orriotan, horiei erantzuteko ahalegina egingo da sekuentzia didaktikoa aletuta. Lehenik, ordea, metodologiaren alderdirik garrantzitsuenak nabarmenduko dira:

3. taula. Sekuentzia didaktikoaren metodologia (gerok egina)

Estrategia metodologikoa	Sekuentzia didaktikoa.
Non	Tolosako Herrikide ikastetxean, DBHko 3. mailako ikasleekin.
Ikasgaia	Euskara eta Literatura.
Saio-kopurua	10 saio. Hala ere, normala izan liteke zenbait dinamika –batez ere tailerrei dagozkienak– lantzeko denbora gehixeago behar izatea, eta ez litzateke seinale txarra izango; elkarreraginezko prozesua izanik, eztabaidak edota koebaluzioak luza litezke, eta garrantzitsua da horiei bide ematea. Gutxi gorabeherakoa da, beraz, saio-kopurua.
Irakaslearen rola	Gidari-lanak egingo ditu, baina ez du irakatsiko, horretarako daude hizlariak, imitazio-ereduak, alegia. Irakasleak testuingurua emango die ariketei, aurrezagutzak aktibatu, galdera irekiak egin, ikasleak aktibatu, zirikatu, motibatu... Irakastea bainoago, norabide bat proposatzea da irakaslearen zeregina, eta norabide horri eustea, sekuentzia didaktikoaren garrantzia hasieratik azpimarratzea, ikasleen inplikazioan eragitea.
Espazioa	Ikasgela, etxea eta aretoa. Ikasgelan egingo dira saioak, baina sekuentzia honek eskatuko die ikasleei etxean lanean jardutea, bakarlanean, haien imitaziorik onenaren bila. Klaseko dinamikak bakarka zein taldeka egingo dira, baina elkarreragina eta parte-hartzea direnez ardatzetako bi, ikasle-taldea U forman jarriko da, denek denak elkar ikusteko, eta imitatu behar deno, U-aren erdian jarriko dira. Azken ekoizpenari dagokionez, hizketaldi luze samar bat imitatu beharko dute ahotsez eta gorputzez. Plana izango da etxean entseatutako hori, ikasgelan egin ordez, areto batean jendaurrean imitatzea.

Baliabideak	<p>Ikasgelan:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Espazio zabala – Aulkiak eta mahaiak – Wifia – Entxufeak, argindarra... – Pantaila eta proiektagailua – Irakasleak bere ordenagailua – Ikasle bakoitzak ordenagailu bana – Ahots-grabagailua – Bideo-grabagailua – Ikasle bakoitzak ispilu bana <p>Etxean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ispilua – Ahots-grabagailua – Bideo-grabagailua <p>Aretoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Oholtza – Aulkiak – Proiektagailua – Bideo-grabagailua
Materiala eta ariketak	<p>Imitazio-ereduak: Tolosaldeko herritarrak agertzen diren ikus-entzunezko euskarriak izango dira, audioak zein bideoak, gerok grabatuak. Bestalde, sareko edukiak ere erabiliko ditugu:</p> <p>Ahotsak.eus</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Herri Txiki Infernu Handi</i> saioa – Youtube. EITB. <p>Bestalde, Joxerra Garziak (2008: 361), Josune Zabalak (2018) eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak (d. g.: 10) proposatutako hainbat ariketa baliatuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Dikzio-ariketa – Arnasketa-ariketak – <i>Bala-bala</i> – Ispiluari keinuka


<p>Ebaluazioa</p>	<p>Ahazkotasuna ebaluatzeko zailtasunak ditugu (Dolz eta Schneuwly 1997; Perrenoud 1991), baina ez da proposamen honen kasua. Imitazio-ariketak dira sekuentziaren ardatz, eta imitazio bat egoki egin den edo ez epaitzea ez da ariketa zaila, jatorrizko ereduak eskura daukagulako une oro alderatzeko. Dena den, sekuentziak hiru ebaluatzeko modu izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Autoebaluazioa – Koebaluazioa – Ebaluazio sumatiboa <p><i>Autoebaluazioa</i> egingo da lehen saiotik azkenera arte. Zenbaki bidez erantzun beharko dituzte hainbat galdera, hausnartu beharko dute oholtza gaineko sentipenez edota merezi duten notaz. Horretarako, fitxa bana emango zaie galdera-sorta batekin. Ez dute intuizio soil ez erantzungo, hasiera-hasieratik komunikatuko zaie, esaterako, azken ekoizpena nola ebaluatuko den, zer errubrika erabiliko den; beraz, irizpide horiek izango dituzte helduleku beren buruak ebaluatzeko.</p> <p><i>Koebaluazioa</i> ere funtsezkoa izango da proposamen honetan, ikaskideek elkarreraginean lan egiteaz gain, ebaluatu ere halaxe egingo baitute, uneoro elkarri gomendatuz zer eta nola hobetu; irakasleak bideratu egin beharko du, beharko balitz. Ebaluatzeko modu hau ahozkoa eta etengabekoa izango da, dinamika bakoitzaren ostean, tarte bat horretarako hartuko da. Ariketak, gainera, grabatu egingo dira, eta amaierako koebaluaziorako lagungarri izango zaizkie eboluzioa ikusteko. Egiteak soilik ez du balio ikaskuntza-prozesuaz gogoetetzen ez bada.</p> <p><i>Sumatiboa</i>, ebaluatzeko hirugarren eta azken modua, eta irakasleak egin beharrekoa. Irakasleak, bere partetik, ez ditu ebaluatuko ariketa guzti-guztiak, baina bai bi tailerretan egindako imitazio-ariketa batzuk, eta pisurik handiena azken ekoizpenak izango du. Errubrikak erabiliko ditu ebaluatzeko, eta horren arabera feedback-ak emango dizkie ikasleei, idatziz zein ahoz.</p> <p>Bukatzeko, eskatuko zaie sekuentzia didaktikoa bera ebaluatzeko, galde-erantzunen bitartez.</p>
--------------------------	---

5. Proposamen didaktikoa

5.1. Hezurdura

Sekuentzia didaktikoaren eskema erabiliko denez, Dolzek eta Gagnonek (2008) dioten moduan, aurretestua edo hasierako ekoizpena eta ondotestua edo azken ekoizpena egingo dira, eta, tartean, azken ekoizpen horri begirako tailerrak, bost orotara: hiru ahoskerari lotuak, eta bi gorputz-adierazpenari lotuak. Honatx eskema orokorra:

1 irudia. Sekuentzia didaktikoaren hezurdura (gerok egina)



4. taula. Sekuentzia didaktikoaren hezurdura (gerok egina)

Aurretestua: hasierako ekoizpena	Fase honen helburua da ikasleek beren adierazkortasun-falta sentitzea. Egoera komunikatibo bat proposatuko zaie, eta aurrez batere tresnarik eman gabe, senez eta boteprontoan, aho-tsez eta gorputzez erreakzionatu egin beharko dute. Teoria-zantzu batzuk ere landuko dira zenbait adibideren bitartez, hurbilpen teorikoan aipatutako hainbat ezaugarriren kontzientzia hartzeko. Sekuentzia didaktikoaren zentzua identifikatu eta erronkatzat ulertzeko ezinbesteko abiaburua izango da.
Tailerrak: ahoskera	Ahotsaren askotariko alderdiak martxan jartzea da asmoa. Lehenik, dikzio-ariketa batzuk proposatuko zaizkie, mingainak aktibatzeko, ahotsaren garrantziaz jabetzeko. Dena den, bertzeko ariketa orokor horiek bainoago, presentzia imitazio-ariketek hartuko dute, eta audio bidez jarriko dizkiegun hizketaldi eredu-garriak imitatu beharko dituzte, doinuaz, intonazioz, esan-indarrez... Hiru saio eskainiko zaizkio ahotsari.

Tailerrak: gorputza	Gorputzaren alderdia lantzeko dinamikak ere imitazio bidez egin beharrekoak izango dira, gorputzarekin, keinuekin, aurpegiko jestuekin <i>esateko</i> ariketak proposatuko dizkiegu, eta zenbait kasutan, ahotsa eta gorputza batera sinkronizatzen saiatuko dira; adibidez, <i>Bala-bala</i> ariketan, kontakizun neutro bat askotariko emozioetatik kontatuko dute, bai ahotsez, bai gorputzez. Bi saio eskainiko zaizkio gorputzari.
Ondotestua: azken ekoizpena	Azken ekoizpenerako imitatzen ohituta egongo dira, zenbait testuingurutan zer doinu eta zer jestu erabili ikasita izango dute; azken ekoizpenean, eskualdeko herritarren bideoak jarriko zaizkie, analizatu egin beharko dituzte ahoskera eta gorputz-adierazpena, eta bakarkako lanean, ispiluaren aurrean entseatzuz, gero eta bertsio hobearen bila aritu beharko dute, azkenik, oholtza gainean eta ikaskideen aurrean, ahalik eta ondoen imitatzeko. Lehiaketa egingo da eta imitatzaille onena aukeratu dute elkarrekin.

5.2. Lagina

Sekuentziaren lagin bat erakuste aldera, saio esanahitsuetako hiru xehe aletuko dira hurrenez hurren: ahoskera-tailerrari dagokion lehen saioa; gorputz-adierazpena lantzeko tailer-aldiko lehena; eta azken ekoizpenaren aurreko saioa, zortzigarrena.

5. taula. Sekuentzia didaktikoaren 3. saioa, ahoskera-tailerra (gerok egina)

Ikerketa-lana taldean partekatu	10 min	Ikasleei aurreko saioan eskatu zitzaizen, etxean, lagunartean, gertukoen artean –euskaraz adierazkor diren artean– galdetzea zer esaten duten haserretzen, poztan, edota harritzen direnean. Galdeketa-lanetik bildutako esaldi eta hitz adierazkorrak helarazi beharko dituzte ikasleek, U-ren erdian jarrita. Irakasleak galdetuko die noiz erabiliko lituzketen, eta saiatuko dira testuinguruan kokatzen. Bildutakoen artean adie-
--	--------	--

		razkorrak direnekin zerrenda partekatu bat osatuko dute Drive bidez, gerora ere eskura izan dezaten kontsultarako.
Dikzio-ariketa (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila d. g.: 10)	20 min	<p>Dikzioa hobetzeko, gimnasia-ariketak egin behar dira mihiaz, ahoko gihar hori sendotzeak asko laguntzen baitigu hitzak hobeto ahoskatzen. Ikasleak bikoteka jarriko dira eta ariketa hauek egingo dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Mihia atera eta gorde, ahalik eta arinen. – Mihia atera eta gogor eta zorrotz jarri. – Mihia nasai utzi, hots, bigun eta lasai. – Mihia ahoaren eskuineko eta ezkerreko aldetik atera. – Mihia zeharo atera eta, hori egin ondoren, ahoaren mutur batetik bestera higitu, ezpainak zabal-zabalik. – Ezpainak itxita, mihia ateratzen ahalegindu. – Mihia sudurrerantz eta kokotserantz eraman. – Boligrafoari mihiaren eta goiko ezpainaren artean oratu. – Boligrafoari haginekin oratuz, edozein testu ahots goraz irakurri.
Bala-bala ariketa	20 min	<p>Testuinguru batzuk emango zaizkie ikasleei, gertu senti ditzaketenak: pozetik eta harriduratik. «Bala-bala» ahoskatu beharko dute, baina emozio jakin batera egokituta. Lehen saioko adibide berberak erabil daitezke, asmoa da haien ahotsa erregulatzeko kontzientzia hartzea, ohartzea egoera bat edo bestean ezberdin jardun behar dutela:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Lehen adibidea (bi lagun): Patioan futboleak jokatzen ari zarete, partida berdinduta dago, eta azken minutuan gol erabakigarria sartu duzue. Nola ospatuko zenukete? – Bigarren adibidea (bi lagun): Irakasleak esan dizue datorren ostiralean egun-pasa joango zaretela, eta, ondorioz, ez dela eskolarik emango.

Imitazio- ariketa	35 min	Bi audio (ikus A eta B eranskinak) emango zaizkie aukeran, batean noka darabilte, bestean toka. Bost-sei laguneko taldeetan elkartuko dira, hautatu dutenaren arabera, eta imitazio-jolasak elkarrekin egingo dituzte, taldean, aparteko geletan. Ikasleei eskatuko zaie aurreko adibideetan ikusitako hitz eta esapide adierazkorrak txertatzea, betiere tes-tuinguru horretan egokia bada. Audioak grabatu egingo dira.
Transkripzioak	<p>– Lehen audioa: <i>Esan zian: “Aizan, hi, nik hiri ezer in al dinat?”; ta nik: “Ez”; “Ta, ze esaten ai haiz?”; “Ni?”; “Bai, hi, hi, hi”; “Nik ezit ezer esan”; “Bai, pentsatu ondo”.</i></p> <p>– Bigarren audioa: <i>Osaba Inazio korrikalari ona al dan? Hue baino gizon azkarra-goik ez zeok eguzki azpin motel!</i></p>	

6. taula. Sekuentzia didaktikoaren 6. saioa, gorputz adierazpena lantzeko tailerra (gerok egina)

6. saioa (gorputz-tailerra)		
Imitazioak	15 min	Aurreko saioan emandako (ikus C eta D eranskinak) txistearen eta tanto-kontaktaren imitazioak egingo dituzte banan-banan ikaskideen aurrean. Koebalua-zioan nola hobetu proposatuko diote elkarri. Komeni da imitazio-saio hauetan guztietan ondo egiten dutenean saritzea, ikasleen motibazioaren mesedetan. Audioak grabatu egingo dira.
Ahotsetik gorputzera		
Arnasketa- ariketak (Zabala 2018)	15 min	Ikasleak borobilean jarriko dira. Begiak itxiko dituzte eta arnasketa-erritmoen kontzientzia hartzeko ariketak egin: arnasketa bizkorrak, lasaiak... Asmoa da adieraztea nola dauden, zer sentitzen duten, nabaritzea emozioaren arabera arnasketa-erritmoa nola aldatzen den.

		<p>Egoera komunikatiboak proposatzea da intentzioa, horren arabera arnasketa egin dezaten. Ariketa egin ondoren, jardueran zehar izan dituzten sentipenak partekatuko dituzte.</p> <p>Ondoren, arnasketa jakinak lotuko dituzte gorputzeko atalekin, arnasa gorputz atal jakinetara mugituz: burura, bular aldera, besoetara... Horretara gerturatzea da asmoa.</p>
Bala-bala ariketa: emozioak asmatzen	15 min	<p>Irakasleak azalduko die gorputzean jarriko dutela fokua, baina ahoskeran egindako lanketak ez ahazteko, helburua baita pixkanaka-pixkanaka biak sinkronizatzen hastea, proposatzen zaizkien testuinguru jakin horietan behintzat.</p> <p>Ahoskera-tailerretan egindako ariketa berbera egingo dute, baina ahotsez ez ezik, orain gorputzez ahal duten moduan adierazi beharko dute, beste behin ere, hutsunea identifikatuz. Gorputzean duten blokeoaz jabetzea da asmoa.</p> <p>Testuinguruak emango zaizkie ikasleei, gertu senti ditzaketenak. «Bala-bala» ahoskatu ez ezik, gorputzez adierazi beharko dute, baina emozio jakin batera egokituta. Lehen saioko adibide berberak erabil daitezke, asmoa da haien gorputza erregulatzeko kontzientzia hartzea; helburua da egoera batean edo bestean ezberdin jardun behar dutela ohartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Lehen adibidea (bi lagun): Patioan futboleak jokatzen ari zarete, partida berdinduta dago, eta azken minutuan gol erabakigarria sartu duzue. Nola ospatuko zenukete? – Bigarren adibidea (bi lagun): Ikasgelan zaudete, eta zue-tako batek besteari estutxea edo kutxatila lurrera bota dio, mendeku gisa. Nola erreakzionatuko zenukete? – Hirugarren adibidea (bi lagun): Irakasleak esan dizue datorren ostiralean egun-pasa joango zaretela, eta, ondorioz, ez dela eskolarik emango.

		<p>– Laugarren adibidea (bi lagun): Irakaslea nahastu egin da eta errieta zuri egin dizu, zure ikaskideari egin beharrean. Nola erreakzionatuko zenukete?</p> <p>Ariketa txandaka egitea komeni da, eta testuinguruaren berri antzetzuko duten ikasle horiek bakarrik jakitea, horrela, gainerako ikaskideek asmatu beharko dute –irizpide bakarra gorputz-adierazpena izanik– zein emoziotatik ari diren, gorputzarekin zer esan nahian dabilizan.</p>
Imitazio-ereduak	15 min	<p>Ahoskera tailerrean entzundako audio gehientsuenak gogoraziko dituzte taldean, eta horietan gorputzez mezua nola adieraziko luketen pentsatuko dute. Konparatze aldera, audio horiek bideo formatuan (ikus E eta F eranskinak) ikusiko dituzte, jakin dezaten kaleko hizkera bizia darabiltenek gorputzez zer-nola ariko lirartekeen egoera erreal batean.</p> <p>Horietako bat aukeran hartuko dute, eta etxean entseatu beharko dute, hurrengo klasean, denen aurrean antzetzeko, gorputzez bakarrik.</p>
Transkripzioak		<p>– Lehen audioa: <i>Esan zian: “Aizan, hi, nik hiri ezer in al dinat?”; ta nik: “Ez”;</i> <i>“Ta, ze esaten ai haiz?”; “Ni?”; “Bai, hi, hi, hi”;</i> <i>“Nik extit ezer esan”;</i> <i>“Bai, pentsatu ondo”.</i></p> <p>– Bigarren audioa: <i>Osaba Inazio korrikalari ona al dan? Hue baino gizon azkarra- goik ez zeok eguzki azpin moteil!</i></p>

7. taula. Sekuentzia didaktikoaren 8. saioa, azken ekoizpenera bidean (gerok egina)

Azken ekoizpenari sarrera	10 min	<p>Irakasleak azalduko die aurreko saio guztietan ikasiak azken ekoizpenean erakutsi behar dituztela. Ikus-entzunezko bideoak jarriko zaizkie imitatzeke, ikasgelan analizatuko dira, etxean entseatu, eta, azkenik, ekoizpena bera ikasgelan ez, aretoan antzetzeko beharko dute,</p>
----------------------------------	--------	--

		<p>oholtzan. Bideoz grabatuko da, eta koebaluazioan imitaziorik onena nork egin duen erabakiko da, alegia, lehiaketa bat egingo da, eta imitazio onena zein izan den erabakiko da.</p> <p>Bestalde, irakasleak gogoraraziko die ebaluatzeko errubrika zein izango den, eta eskura banatuko die.</p>
Ereduak analizatu	40 min	<p>Bi eredu emango zaizkie (ikus H eta I eranskinak).</p> <p>Biak ikusiko dituzte taldean, eta ikasleei hitz egiten utziko zaie. Irakasleak galdera irekiak egingo dizkie: Zer iruditzen zaizkizue? Zein gustatu zaizue gehien? Ahoskeraren eta gorputzaren erabilera naturalak iruditu al zaizkizue? Aurreko klaseetan aipatutako ezaugarriak ba al dituzte? Zeintzuk?</p> <p>Ikasle bakoitzak nahi duena aukeratuko du, baina irakasleak saiatu behar du animatzen denek berbera egin ez dezaten. Azken antzezenari begira, egokia litzateke azpialdeak osatzea, eta koebaluazioan egitea bertsio onenera iristeko bidea.</p> <p>OHARRAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bideoen bat ulertzea kostatuz gero, testua transkribatuta emango zaie. – Bideoa osorik imitatzea zailegia irudituz gero, zatirik argiena hartu eta berau imitatuko da.
Taldeak osatu eta lehen saiakera egin	10 min	<p>Ikasleek imitatu nahi duten ereduak aukeratuko dute.</p> <p>Segidan, lehen entsegu gisa, talde bakoitzeko ikasle batek, bideoa berriz ikusi gabe, imitatzeko lehen saiakera egingo du. Koebaluazioan ondorio batzuk aterako dituzte, eta horiek aplikatzen saiatuko dira azken bertsioan. Azken ekoizpena garrantzikoa dela sentitu behar dute, gogorazi behar zaie zergatik ari diren sekuentzia didaktikoa egiten, baita nota jokoan dagoela ere.</p>

<p>Transkripzioak</p>	<p>– Lehen bideoa:</p> <p><i>Hi, oain hurruna, jun gattuk Brasilea bakaziotan ta, han batetik Rio de Janeiro, bestetik Sao Paulo, etzekit ze ta... Halako baten behintzat esan genin: “Hi gar, gar fruta jan behaiu, Brasilen sekulako fruta zeok, ta gar fruta jan behaiu, beste otorduik eztiu in behar, fruta. Jun nitxoan perie zala ta ez zala, ta han saltzaille bat bazeoan kiston borondatekin, geo jakin genin zeatik zeuken halako borondatea. Ta hasi huan, bateko mahatsa etzekit nolakoa, besteko etzekit nolako fruta... Danak atea zizkin, ta kao, han beste txanpon bat zeok, etzekit reala o zer dan, ta gu arten euron kambioa re oso ondo in gabe, ta hak eskautakoa patu gintxoan, ta atea giñenen hasi gintxoan “zenbat euro oteie o ze ote da” ta. Hi, ba, 60 euro frutatan, ta lau pieza txar erosi genizkin. 60 euro! Sekula frutatan gastatu deuna baino gehio Brasilen gastatu genin.</i></p> <p>– Bigarren bideoa:</p> <p><i>Gue etxen gehien xaxatze zianak gue anai hoi ta ahizpa hoi. Ta hola, parranda in ta astelehenetan ez bazan jaikitzen... Aizu, gue ahizpak’e, kuartoko atia zabalik e... Eta hoi hortik honea lotan, ta zu hemendik horrea. Ta gue anayak eruana earki itte zun ba, lotan baleo bezela. “Attu al dek? Amak jaikitzeke”. Ama orduako dettuta igual. (Muzin egiten du, “onomatopeia” bidez). Handik jun zan berriz ta: “Dios, eztek ba jaikitzen”. Xaxatzea gusatze zitzaion hari: “Aitze al dek? Jaikitzeke!”. Bi-hiru aldiz igual, ta gure anaiak amorratze ziyon... Ta kao, gue ahizpak ze itte ziyon, hola, hanka hola e, hola jarrita ta atia zabalik. Manta atzetikan hola, hankatatikan, ta pixkat atzeaka, hola itte zunian, jesus martxa. “Oaindik ez al haiz etorri?”. Jun zan berriz ta, halako batian, da!, gehio tira ta, saltatze zitzaionian... Zea, anaia. Hua belozidadia. Ai ama, ai ama! Oañe zer dezue? Harritzekoa oañe, alkarrekin juntatzen... Eske jarriko nizueke bat Kaifasen etxen, ta bestia Nasen etxen, ta biyoi bina masaileko emanda gainea.</i></p>
------------------------------	---

6. Eztabaida eta ondorioak

Atal honetan, sekuentziaren alderdi azpimarragarrienak eztabaidatu, ondorio esanguratsuenak aipatu, eta, azkenik, aurrera begirako asmoa azalduko da. Lehenik, sekuentzia aplikatu egin beharko litzateke ondorio argigarriak atera eta hobekuntzak proposatzeko, dena den, hasierako sekuentzia hura aplikatzeak ematen du gerta litekeenaren irudi argixeagoa.

Imitazio-jolasei abantailak darizkie, baina baita mugak ere. Ikasleak eredu baten bidez ikasten du ahoskera eta gorputz-adierazpena nola erregulatu, eta horrek ezin dakartza, esaterako, ikasitakoak beste testuinguru batzuetan erabili ezina. Hori baino arazo handiagoa da ahoskera-sistema arauturik ez izatea, horregatik proposatzen da imitatzea, ez baikara gai paperean transkribatutako esaldi-sortak nola kantatu deszifratzeko, partitura idazteko. Proposamen hau, dena den, euskal hiztun adierazkorrek lortzeko lehen bitartekoa da, gauzak ondo bidean ikasiko baitituzte haserrea adierazteko hitzak, ikasiko baitute txiste bat nola kontatu, adarra nola jo euskaraz, eta abar.

Hizkera egokian pentsatu eta nahi gabe, adinez nagusiak datozkigu akordura, haiek direlako gazteen aldean askoz ere hiztun hobeak; baina, ikasleei ezin zaizkie nagusien ereduak soilik erakutsi, ikus dezatela euskara adierazkorra ez dela zaharren kontua bakarrik. Ezinbestekoa da profil gazteengana jotzea, noketan ari direnengana, adibidez. *Speaking drilling* aplikatzerakoan, aipatu da lehentxeago kontuan izan behar dela ulergarritasuna; hizlarietako bat berdinek gabea da, hizkera orokortuaren kontrako sendabelar, eta hain justu horrexegatik ez zaio horren erraz ulertzen, ezohiko hitzak darabiltzako erritmo bizi-bizian. Ez da erabaki ona, gure ustez, hizkera egokitzea ulergarritasunaren mesedetan; bestela, helburu den adierazkortasuna bera kolokan jarriko litzateke, horrela kamusten dira mingainak. Ikasleek lan handiak balituzte ulertzeko, zilegi litzateke zatikako lanketa egitea, transkripzioen laguntzaz.

Tailerrei dagokienez, ahotsa eta gorputza bereizita lantzeko hautua egin da, alderdi bien kontzientzia hartzeko lanketa espezializatua eginez. Halere, tarteka, eredu berberak imitaraztea erabaki da, ahoz nola esaten den ikasi

duten eduki bera gorputzez ere nola adierazten den ikasteko, biak naturalki nola uztartzen diren ikasteko; funtsean, haiek ere gauza bera egin beharko baitute azken ekoizpenean.

Segidan aipatuko diren ondorioak balizkoak dira, baina, lehen sekuentziaren esperientzia eta ikasle-taldea ezagututa, gertagarriak dira denak ere:

- Ikasleei euskaraz adierazkor izateko tresnak eman ematea.
- Ikasleak beren adierazkortasun-faltaz jabetzea.
- Ahoskeraren eta gorputz-adierazpenaren garrantziaz jabetzea.
- Imitazioaren bidez, ikasi dute, testuinguru jakinetan behintzat, aurretik zirena baino adierazkorrago izaten, bai ahotsez, bai gorputzez.
- Imitazioaren bitartez barneratutako esamoldeak antzeko egoeretan erabiltzea.
- Tolosako eta Tolosa inguruko euskalkia, hitanoa eta adierazkor izateko beste hainbat baliabide eta tresna aplikatzea.
- Ikasleek adierazkortasuna emozioetatik lantzea.
- Ikasleek jendaurrean aritzeko blokeoa askatzea lortzea.
- Ikasleek ereduaren bidez ez ezik, elkarreraginean ere ikastea.
- Galbidean den hizkera-ondarea transmititzea, eta ohartzea, oro har, egoera diglosikoaren larritasunaz.

Ikasle guztiek ez dute izango inplikazio- eta engaiamendu-maila bera, baina, hobetu denek hobetuko dute, elkarrekin ikasiko dute, lehiaketa- eta jolas-giroan, inoiz aurre egin gabekoei –jendaurrean aritzeko lotsak, esaterako– heldu beharko diete, emozioak landuko dituzte; bene-benetako erronka izango da ikasle guztientzat, aulkian eserita isilik egotetik, zutik eta isildu ere egin gabe aritzera igaroko dira. Hasieran galtzak bete lan izango badute ere, dinamikan laster murgilduko dira, ohiko bilakatuko da imitatzea, eta positiboki balioztatuko dute sekuentzia bera, praktikaldiko sekuentzian egin zuten bezala. Eta zenbat eta lotura positibo gehiago izan, orduan eta aukera gehiago imitatzen ikasiak kalean esateko.

Etorkizun hurbilari begira, asmoa da sekuentzia Tolosaldeko ikastetxeetan probatzea, emaitzak jaso eta beharrezko egokitzapenak egitea, eta katean-katean, gero eta proposamen egokiagoak diseinatu eta ikasleekin aplikatzea. Emaitzak onak balira, Euskal Herriko beste eskualde batzuetan

aplikatze aldera, diseinu-lanei ekin beharko litzaieke, tokian tokiko kideekin elkarlanean. Garrantzitsua da sekuentzia ohikoa izatea hezkuntzako programazioetan, bestela nekez zorrotzuko dira aizkorak.

Horren eskutik, ahozkotasuna berariaz lantzeko, irakasleek ahozko komunikazioan aditu izan behar dute. Irakasleak gutxitan jartzen dira ikasleek egiten dituztenak egiten, imita dezatela haiiek ere Adunako Bibiana haserre bizian noketan. Baina hezkuntzatik harago jarri behar da begia, eta eskolatik harago ere aplikatu egin beharko litzateke, esaterako, guraso eta kultura elkarteetan; finean, gazteei espazioak eta aliatuak ere eskaini behar zaizkie adierazkor aritzeko, eskolan, eta eskolatik kanpo.

Azkenik, argi utzi nahi da sekuentzia garai honi dagokion estrategia bat dela, imitazioa ez dela inolaz ere azken xedea, helburu idealera gerturatzeko bitarteko eraginkorra baizik. Izan dadila hau soka luzea ekarriko duen ekinaldia.

Bibliografia

AHOTSAK (d. g.). *Tolosaldekoa (Hizkera)*. Ahotsak.eus. <https://ahotsak.eus/euskalkiak/erdialdekoa-gipuzkera/erdigunekoak-g/tolosaldekoa/> (2023ko ekainaren 20an kontsultatua).

AINI, N., KHOYIMAH, N. eta SANTOSO, I. (2020). *Improving students speaking ability through repetition drill*. Project (Professional Journal of English Education).

ALBERDI LARIZGOITIA, J. (1994). «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen», *Euskera* 39 (3): 983-993.

——— (1996). *Euskararen tratamenduak. Erabilera*. Iker bilduma, 9. zenbakia. Bilbo: Euskaltzaindia: 163-297.

ALTUNA, J. (2023). Hizkuntzaren funanbulistak. Hizkuntza-sozializazioa kirol-eremuan adin eta generoan ardaztuta. [Doktorego-tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ALTUNA, J., eta HERNÁNDEZ, J. M. (2018). «% 2,7a: euskara, generoaz mintzo?», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 106, 2018 (1): 115-144.

——— (2018). *Hitza eta ekintzak. Chihiroren bidaia euskal hiztun nerabeen bila*. Eskola Hiztun Bila Jardunaldiak, 2018-10-10.

ALTZA, J. (2021). «Lurdes Oñederra: “Euskaltzaindia ez da matxista, baina bada euskaltzain matxistarik oraindik ere”». *Argia*. <https://www.argia.eus/albiste/euskaltzaindia-ez-da-matxista-baina-bada-euskaltzain-matxistarik-oraindik-ere> (2023ko apirilaren 15ean kontsultatua).

AMONARRIZ, E., OSA, E. eta ARRUTI, I. (2004). «Ahozkortasuna eremu ez-kurrikularrean hizkuntz proiektuaren markoan», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 51: 137-158.

AMONARRIZ, E. (2015). «Ahozkortasuna soziolinguistikaren behatokitik», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 96: 103-127.

——— (2019). *Kike Amonarrizen hitzaldia osorik* [Bideoa]. Soraluze. <https://plaentxia.eus/soraluze/1575458799745-kike-amonarrizen-hitzaldia-osorik-bideoan> (2023ko apirilaren 14an kontsultatua).

ARBELAITZ, L. eta ARRUTI, A. (2023/03/26). «Euskara: atzera ala aurrera goaz?», Iñaki Iurrebaso soziologoarekin elkarrizketa. *Larrun* (283). https://www.argia.eus/astekaria/docs/2818/pdf/Larrun_283.pdf (2023ko apirilaren 14an kontsultatua).

ARYANI, R. eta RIZKIYANI, F. (2017). «Video Educative Learning to Improve Listening and Speaking Skills of English by Imitate the Native Speaker», in *English Language and Literature International Conference (ELLiC) Proceedings* (1): 206-210.

BARRIOS, M., OSA E., MUÑO A I., ELORZA, I. eta BOAN, K. (2008). *Zenbait orientatibide erregistroen trataeraz*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.

CONFERENCIAS Y TRABAJOS DIVERSOS (2013-05-26). *Xabier Amuriza. Euskara batua zertarako nahi dugu? Hizkume* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=8Un2TEkgYFA> (2023ko apirilaren 21ean kontsultatua).

CUENCA VILLARÍN, M. H. (2019). «¿Se puede enseñar la pronunciación?», *Euskera* 64: 2, 2: 959-976.

DIAZ DE GEREÑU, L. (2017). «Eskola bidezko euskararen biziberritzea: arrakastarako baldintzak aztergai», *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Udako Euskal Unibertsitatea: 101-126.

DOLZ, J. eta GAGNON, R. (2008). «Le genre du texte, un outil didactique pour développer la langage oral et écrit», *Pratiques* 137/138: 179-198.

DOLZ, J. eta SCHNEUWLY, B. (1997). «Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona», *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura* 11: 77-98.

——— (1998). *Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux genres formels à l'école*. Paris: ESF Éditeurs.

EHB JARDUNALDIAK (2020). *Xabier Paya: ikasle, ikusle, ekoizle...* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=2xzf3GQAyIM> (2023ko martxoaren 22an kontsultatua).

EITB. (2021). *Pilota: 4 1/2ko finala (2021): Altuna III - Laso* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=J37LC9I6vUA&t=3641s> (2023ko ekainaren 20an kontsultatua).

——— (2021). *Zezen batek Martzelino harrapatu zuen eta bere Suzuki Vitarak bizitza salbatu zion* [Bideoa]. Eitb.eus. <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/herri-txiki-infernu-handi-ibarra/bideoak/osoak/8329902/zezen-batek-martzelino-harrapatu-zuen-eta-bere-suzuki-vitarak-bizitza-salbatu-zion/> (2023ko ekainaren 20an kontsultatua).

ESNAOLA, I. (2000). «Euskara nerabezaroan, gazteen hizkera eta motibazioa», *Hik Hasi*. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20000601/euskara-nerabezaroan-gazteen-hizkera-eta-motibazioa> (2023ko maiatzaren 25ean kontsultatua).

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA (2011). «Antzerkia eta ahozkotasuna», *Uberan.eus*. <https://old.uberan.eus/?gatzetan-gordeak/erreportajeak/item/antzerkia-eta-ahozkotasuna> (2023ko apirilaren 4an kontsultatua).

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA (2018). «Andoni Egaña: ahozkotasuna gaur egun». [Bideoa]. *Argia*. <https://www.argia.eus/multimedia/solasaldiak/ahozkotasuna-egun> (2023ko maiatzaren 30ean kontsultatua).

EUSKALTZAINDIA (2023). *Etorbizun-ikuspegia: aurkezpena osorik* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=PrBnj0ShxTQ> (2023ko martxoaren 16an kontsultatua).

EUSKO JAURLARITZA (d. g.). *Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Material didaktikoa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/esatari_trebeak2DBH.pdf (2023ko apirilaren 18an kontsultatua).

——— (2016). *Heziberri 2020, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum*. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Saila.

GALTAUNDI EUSKARA TALDEA (2022). «Tolosako kaleetako euskara-erabilera %52,5ekoa da». <https://www.galtzaundi.eus/tolosako-kaleetako-euskara-erabilera-r5ekoa-da/> (2023ko martxoaren 5ean kontsultatua).

GARCÍA ÁNGELES, S. (2007). «La imitación, la observación y el autoanálisis como recursos prácticos en la enseñanza de la pronunciación del español», in *Las destrezas orales en la enseñanza del español L2-LE: XVII Congreso Internacional de la Asociación del Español como lengua extranjera (ASELE)*. Logroño, 27-30 de septiembre de 2006: 1151-1162. Universidad de La Rioja.

GARCÍA-AZKOAGA, I. M., DIAZ DE GEREÑU LASAGA, L., IMAZ GAZTELURRUTIA, A. eta ALEGRIA SUSPERREGUI, A. (2010). *Ahozkotasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan*. TANTAK *Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria* 22 (1). <https://doi.org/10.1387/tantak.2187>.

GARZIA, J. (2004). «Euskara komunikatiboa», *Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua*. <https://www.argia.eus/kazetaritza2004/joxerragarzia.pdf>.

GARZIA, J., EGAÑA, A. eta AMONARRIZ, K. (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila.

GARZIA, J. (2007). «History of Improvised Bertsolaritza: A Proposal», *Oral Tradition*, 22/2:77-115. https://journal.oraltradition.org/wp-content/uploads/files/articles/22ii/8_garzia3.pdf (2023ko apirilaren 10ean kontsultatua).

——— (2008). *Jendaurrean hizlari. (Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*. Irun: Alberdania.

GINSBURG, H. eta OPPER, S. (1977). *Piaget y la teoría del desarrollo intelectual*, México: Prentice Hall Hispanoamericana.

HABE (2020). *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum* (2. argitaraldia). HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.

HENDERSON, A., FROST, D., TERGUJEFF, E., KAUTSZCH, A., MURPHY, D., KIRKOVA-NASKOVA, A. eta CURNICK, L. (2012). *English pronunciation teaching in Europe survey: Selected results. Research in language*. https://www.researchgate.net/publication/270262770_The_English_Pronunciation_Teaching_in_Europe_Survey_Selected_Results.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EUSKO JAURLARITZA (2010). 97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa, *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den dekretua aldatzen duena*. EHAA.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA (2020). *Elkarrekintza - Karmele Perez Lizarralde* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=Gn8so69T8WE> (2023ko apirilaren 13an kontsultatua).

HİK HASI (2001). «Motiboezaguerabilpenaren zioak», *Hik Hasi* 61. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20011001/motiboezaguerabilpenaren-zioak> (2023ko apirilaren 10ean kontsultatua).

IRES, W. eta TUR, G. (2016). «La reeducación del cuerpo y la oralidad: dos caras de la misma moneda», *Revista Oralidad-es* 2 (3): 33-37.

IRAOLA, A. (2023). «Euskarak irabazteko auziak. “Egoera dena kontuan hartuta, egun dagoen erabilera maila altua da”». *Berria* egunkaria. https://www.berria.eus/udako_serieak2023/08/01/euskarak-irabazteko-auziak/inaki-iurrebasoren-tesia.htm (2023ko maiatzaren 2an kontsultatua).

IURREBASO, I. (2023). Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberitzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. *Euskal Herriako aplikazio praktikoa* [Doktorego-tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.

MARIN, J. (2015). «Esatearen ederra: agertokitik ikasgelara», *Euskera* 60, 2: 451-476. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80509.pdf> (2023ko martxoaren 22an kontsultatua).

MARTÍNEZ BERMÚDEZ, L. V. (2010). «Hizkuntzaren aldakortasuna». *Soziolinguistika Eskuliburua*: 85-130. *Soziolinguistika Klusterra*.

MARTÍNEZ LIROLA, M. (2021). «Role Play y desarrollo de competencias sociales: ejemplos en una clase de lengua inglesa role play and development of social competences: examples in an english language classroom», *ENCUENTRO Revista de Investigación Educativa* 29: 76-89.

MAULYANA, I. (2021). *The Students' Engagement of Drill Technique in Speaking Class*. University of Lampung. <https://www.iostjournals.org/iosr-jrme/papers/Vol-11%20Issue-1/Ser-6/D1101062023.pdf> (2023ko ekainaren 11n kontsultatua).

MIELGO MERINO, R. eta OCIO ENDAYA, B. (2021). *Hizkuntzen didaktika eta irakasleen formakuntza: ibiliak eta ibiltzekoak*. *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu*,

201. https://www.researchgate.net/publication/356144459_Hizkuntzen_didaktika_eta_irakasleen_formakuntza_ibiliak_eta_ibiltzekoak.

MUJICA, A. (2023). «Euskainola», *Naiz* ataria. <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20230325/euskainola&sa=D&source=docs&ust=1692552508310647&usg=AOvVaw2QhMJgqPS-58afENm-BAHc> (2023ko ekainaren 16an kontsultatua).

OÑEDERRA, L. (2019). «Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz», *Euskera* 64, 2: 939-957.

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA (2021). *Ahoskera laborategia - Lurdes Oñederra eta Oroitz Jauregi* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=0gPODSwBPtQ&t=1465s> (2023ko martxoaren 28an kontsultatua).

OZAETA ELORZA, A. eta GARRO LARRAÑAGA, E. (2010). «Nola bihurtu ahozkoa irakasgarri? generoetan oinarritutako proposamen baterantz», *Hik Hasi* 25. monografikoa: *Ahozko hizkuntza lantzen: haur hezkuntzan hasi eta unibertsitateraino*: 23-31. Lasarte: Xangorin.

OZAITA, J. (2014). «Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 2 (91): 83-103.

PAYA, X. (2013). *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia*. Euskal Antologiak saila. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.

PEREZ, A. (2020). «Alberto Barandiaran: Esperientziarena da euskal kulturak irabazteko duen bataila», *Argia*. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2700/alberto-barandiaran-kultur-transmisioa-hezkuntzan> (2023ko apirilaren 10ean kontsultatua).

PEREZ, E. eta AZPEITIA, A. (2014) «Ahozkotasunaren printzak Koldo Mitxelena-ren enuntziatu parentetikoetan», *Eguno Zenbait Ikerlerro* 29: 45.

PEREZ, K. (2014). Irakasleen prestakuntza ahozko hizkuntzaren lanketa eskolan sustatzeko. Praktika gogoetatsuan oinarritutako prozesu baten azterketa. [Doktorego-tesia]. Mondragon Unibertsitatea.

———, AZPEITIA, A. eta ALONSO, I. (2015). «Unibertsitatea eta eskola elkarrekin ahozko hizkuntzaren didaktika lantzen: egunkarien erabilera etengabeko prestakuntzan», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 96: 29-43.

PERRENOUD, P. (1991). «Bouche cousue ou langue bien pendue? L'école entre deux pédagogies de l'oral». Wirthner, M. et al. (eds.), *Parole étouffée, parole libérée: fondements et limites d'une pédagogie de l'oral* (15-40). Geneva: Delachaux & Niestle.

SARASUA, J. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasumaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. UEMAKo udalerrria eta Tolosaldea, 2021*. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-uemako-udalerrriak-eta-tolosaldea-2021/> (2023ko apirilaren 13an kontsultatua).

TERGUJEFF, E. (2012). «English pronunciation teaching: Four case studies from Finland», *Journal of Language Teaching and Research* 3 (4): 599-607.

ZABALA, J. L. [@JuanLuisZabala] (2020-12-10). «Niri ondo iruditzen zait aukera hori egitea, eta ulertzen dut batuari errezeloa. Baina uste dut hobe dela euskara batuari forma kolokialak ematea, euskara batuari kolokiala izateko aukera ukatzea baino». Twitter. <https://twitter.com/JuanLuisZabala/status/1336963043197149184> (2023ko irailaren 8an kontsultatua).

ZABALA ALBERDI, J. (2012). «Ahozko konpetentziak derrigorrezko bigarren hezkuntzan: Sekuentzia Didaktikoak Tolosako laborategian», *Ikastaria* 18: 179-193.

——— (2013). «Ahozko hizkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Esku hartzea eta ikasleen garapena Tolosako esperientzian», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88: 127-148.

——— (2016). «Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 101: 107-125.

——— (2018). *Ahozko komunikazioa irakastea. Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ZALBIDE, M. (2002). «Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?», in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak, 2002*.

Eranskinak

A eranskina: Audioa. Bibiana haserre.

B eranskina: Audioa. Ander eguzki azpian.

C eranskina: Txistea. Esparadrappua.

D eranskina: Txistea. Tanto-kontaketa.

E eranskina: Bideoa. Bibiana haserre.

F eranskina: Bideoa. Ander eguzki azpian.

G eranskina: Errubrika.

H eranskina: Bideoa. Brasil.

I eranskina: Bideoa. Anai-arrebak.

Adinaren araberako bariazio lexikoa Imozko hizkeran: inkesta linguistikoak¹

Variación léxica según la edad en el euskera de Imotz:
encuestas lingüísticas

Variation lexicale en fonction de l'âge en basque
d'Imotz : enquêtes linguistiques

Lexical variation according to age the Basque spoken
in Imotz: linguistic surveys

FERNANDEZ DE MUNIAIN, Alazne
Euskal Herrriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Letren Fakultatea
alaznetto@gmail.com
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.276>

Noiz jaso: 2024-02-03

Noiz onartua: 2024-03-22

Lan honek hiru belaunaldiren artean dagoen hizkuntza-aldakortasuna erakusten du. Adina faktore soziolinguistikoaren arabera, Imozko (Nafarroa) euskararen lexikoaren lagin bat aztertu dut. 60ko eta 80ko hamarkadetan egindako hainbat inkesta linguistikotatik abiatu naiz (Etxaide 1989, Pagola 1992 eta Huarte 2003) eta, gisa berean, zortzi hiztuni neronek doitutako galdeketa egin diet. Baike, Imozko euskara etengabe aldatzen ari da, baina bereziki bizia izan da aldaketa azken mende erdion. Euskara batuaren eraginak aipamen berezia merezi du. Emaitzek ondoko ideia nagusi hauek dakartzate, besteak beste: (i) erdialdeko euskararen formek indarra hartu dute, nafarrerazko formen kaltetan; (ii) dialektoen berdintzera jo da eta tokian tokiko aldaki markatuak desagertzen ari dira, estandarraren alde eginez; eta (iii) zenbat eta lekukoa gazteago, hainbat eta hizkera hibridoago. Nolanahi ere den, elkarrizketaturiko gazteek, orokorki, bertako formei eusten diete.

Gako-hitzak: dialektologia, soziolinguistika, hizkuntza-aldakortasuna, lexikoa, adina, Imotz.

¹ Lan hau Euskaltzaindiaren Mintzola Ikerketa Sarien 2023ko deialdian saritua izan da.

Este trabajo muestra la variación lingüística que existe entre tres generaciones. Teniendo en cuenta la edad como factor sociolingüístico, analizo una muestra del léxico del euskera de Imotz (Navarra). He partido de varias encuestas lingüísticas realizadas en las décadas de 1960 y de 1980 (Etxaide 1989, Pagola 1992 y Huarte 2003), y del mismo modo, he realizado mi propia encuesta a ocho hablantes. El euskera de Imotz, naturalmente, está cambiando constantemente, pero el cambio ha sido especialmente significativo en este último medio siglo. Mención especial merece la influencia del euskera unificado. Los resultados muestran que: (i) las formas del euskera central han tomado fuerza, en detrimento de las formas del dialecto navarro; (ii) se está dando el fenómeno de nivelación lingüística, desapareciendo así variedades locales en favor del estándar; y (iii) cuanto más joven es el hablante, más híbrida es su lengua. Aun así, los jóvenes entrevistados, en general, mantienen las formas locales.

Palabras clave: dialectología, sociolingüística, variación lingüística, léxico, edad, Imotz.

Cet travail présente montre la variation linguistique qui existe entre trois générations. En tenant compte de l'âge comme facteur sociolinguistique, on analyse un échantillon du lexique en basque d'Imotz (Navarre). En m'appuyant sur plusieurs enquêtes linguistiques réalisées dans les décennies entre 1960 et 1980 (Etxaide 1989, Pagola 1992 et Huarte 2003), j'ai mené ma propre enquête auprès de huit personnes. La langue basque d'Imotz est, bien sûr, en constante évolution, mais le changement a été particulièrement significatif au cours de ce dernier demi-siècle. L'influence de la langue basque unifiée mérite une mention particulière. Les résultats montrent que : (i) les formes du basque central se sont renforcées, au détriment des formes du dialecte navarrais ; (ii) le phénomène de nivellement linguistique se produit, faisant ainsi disparaître les variétés locales au profit du standard ; et (iii) plus le sujet parlant est jeune, plus sa langue est hybride. Cependant, les jeunes interrogés entretiennent, en général, des formes locales.

Mot-clés : dialectologie, sociolinguistique, variation linguistique, lexicque, âge, Imotz.

This paper shows the linguistic variation that exists between three generations. Taking into account age as a sociolinguistic factor, it considers a sample of the lexicon of the Basque spoken in Imotz (Navarra). Several linguistic surveys carried out in the 1960s and 1980s (Etxaide 1989, Pagola 1992 and Huarte 2003) were taken as a basis to conduct a new questionnaire with eight speakers. The Basque spoken in Imotz is of course constantly changing, but this change has been especially significant over the last half century. The influence of the unified Basque language deserves special mention. The results show that: (i) the forms of central Basque have gained strength, at the expense of the forms of the Navarrese dialect; (ii) dialect leveling is taking place, with local varieties being replaced by the standard; and

(ii) the younger the speaker, the more hybrid their language. Even so, the young people interviewed generally stick to local forms.

Keywords: dialectology, sociolinguistics, language variation, lexical, age, Imotz.

FERNANDEZ DE MUNIAIN, Alazne (2024). «Lexical variation according to age the Basque spoken in Imotz: linguistic surveys», *Euskera ikerketa aldizkaria*, 69, 1: 117-160.

1. Atarikoak

Hizkuntzak aldatuz doaz aldi oro —hil direnak izan ezik, noski—, ez dira betierekoak. Hizkuntza aldatzea bizitzako gertaera bat baino ez da; ez daiteke saihestu, eta ez da berez ona edo txarra (Campbell 2004: 3-4). Hizkuntza ez da monolitikoa, berezkoa du aldakortasuna; ekintza da hizkuntza, ez emaitza bukatua (Camino 2009: 32). Horregatik, bada, arrunt inportantea da hizkerak beren aldakortasunean aztertzea. Ikerlan hau testuinguru horretan kokatua da.

Imotz ibarreko euskara/euskarak zertan den/diren ikusi nahi izan dut. Zabal ulertutako Dialektologiaren barnean, ikerlana Soziolinguistikaren magalean datza: konkretuki, soziolinguistika bariazionistan. William Labov hizkuntzalari estatubatuarrak garaturiko diziplina dugu, eta haren doktrinetako bat da, hain zuzen ere, aldakortasuna hizkuntzaren egiturari datzekio. Argi gera bedi: hizkuntza-bariazioa mintzo eta maila linguistiko guzietan gertatzen den bilakaera natural eta saihetsezina da.

Aztergai nagusia adinaren araberako bariazio lexikoa da, ikuspegi bariazionistatik. Imozko euskarak mende erditsuan izandako zenbait aldaketa identifikatu eta bildu ditut. Ikerketaren helburua bariazioa baieztatzea da; egiaztatzea eta agerian jartzea Imozko mintzaira/mintzairak aldatu eta une oro aldatzen ari dela/direla, hainbat faktoreren eraginez —eskolako euskara batua, aldaera estandarra, gaztelania...—.

Tokiko euskara dialektala galbidean dago, orain arte ezagutzen genuen moldean: urtetik urtera gero eta bertako dialektodun hiztun gutxiago dago. Aurreikus daiteke pixkaka-pixkaka Imozko euskalkidunen komunitatea txikituz joanen dela; kasurik onenean, gero eta euskara estandarizatuago baterantz.

Hizkuntza-bariazioa ikerketa-eremu emankorra da azken garaiotan, eta horren ondorioz, ugarituz doaz euskal hizkeren aldakortasuna ikertzen duten lanak. Esparru horri interesgarri deritzonari lan hau ere erakargarri gerta dakiok. Ariketaren balioa aitortzearekin batera, argi utzi nahi dut, bestalde, ez ditzakegula hartu eskuratutako datuak egia unibertsaltzat: txostenak dakarrena datuen estimazioa da.

2. Marko teorikoa

2.1. Aldakortasuna

Labov da soziolinguistika bariasionistaren ikur nagusia: berak ezarri zituen oinarri teorikoak, teknikak eta, azken finean, lan-metodoa. Lengoaia ezin aztertu da gizarte-testuingurutik eta hiztunengandik berezita: horixe dugu Laboven ekarpen handienetako bat, soziolinguistika bariasionistaren funtsa. Bariasionistek hainbat aldaeraren atzean motibazio soziala dagoela erakusten dute. Hiztunek ihardukitzean erabiltzen dituzten aldaeretan eragina duten aldagai sozialen sistematikotasuna aldarrikatzen dute.

Hizkuntza-bariazioa Soziolinguistikaren ikerketa-eremu eta -xedeetako bat da. Euskaraz, XXI. mendean finkatu da bariasionismoa zenbait ikertzaileren ikergai nagusi gisa —ikus Camino (2005)—: beste hitzez, soziolinguistika bariasionista euskararen esparruan berantiarra izan da, oso.

2.2. Hizkuntza-aldaketa

Aldaketa linguistikoa, hizkuntzek, beren historian zehar, maila guzietako unitateetan izaten duten eraldaketa oro da. Horiek ez dira hizkuntzan izaten den aldakortasunarekin nahasi behar, zeren eta hor gertatzen baitira aldaketak: aldaketa diakroniko guziak aldakortasun sinkroniko gisa hasten dira (Camino 2009: 36). Bariazioa sinkronikoa da, unean unekoa. Aldaketa linguistikoa, berriz, diakronian gertatzen dira. Aldaketa, orduan, aldakortasunak eragiten du. Ideia arrunt inportantea da hori Soziolinguistikan, bera etorri arte bariazioaren kontzeptua azaldu gabe utzi ohi zelako.

Labovek hizkuntza aldaketa abiarazten duten faktoreak daudela aldarrikatu zuen, hizkuntzaren barnekoak nahiz kanpokoak. Hizkuntzaren barnekoak edo intralinguistikoak analogia bezalako joera naturalak dira eta, estralinguistikoa edo soziala, aldiz —hau da, hizkuntzaren kanpokoak—, mailegua dugu. Kanpo-eragileen ondorioz, aldaketa linguistikoa arlo fonetikoan, morfosintaktikoan eta lexikoan mamitzen da. Aldaketa linguistikoa gertatzen denean, tradizioko ezaugarri bat, berarekin lehiatzen

hasi den beste ezaugarri berri batek, mailaka-mailaka, ordezkatur da (Camino 2009: 37).

2.3. Sinkronia eta diakronia

Dialektologiak azterketa diakronikoan zein sinkronikoan tradizio handia du. Bi garaitako hizkera alderatzea azterketa diakronikoa —denbora erreala— egitea da: hizkuntzaren garapena denboran zehar aztertzea, aldaketa gertatu den edo ez ikustea. Denbora-puntu jakin bat, edo unean unekoa, miatuz gero, berriz, azterketa sinkronikoa —itxurazko denbora— egitea da: bidean dauden aldaketak antzematea eta aurreikuspenak egitea hizkuntza-azterketa sinkronikoaren zereginetako bat da. Dakigunez, bariaziotik sortzen da aldaketa; beraz, sinkroniatik sortzen da diakronia.

Lan honetan, bi garaitako hitzunen hizkera aztertu eta alderatu dut, azterketa diakronikoa eginez —alde batetik, duela mende erdi eginiko inkestetan jasotako hizkera, eta bestetik, gaur egungo hizkera—, baita unean unekoa edo sinkronikoa eginez ere —hau da, gazteen mintzaira batetik, eta adinekoena, beste alde batetik—. Aldagarritasunaren teorian, ez dago sinkroniaren eta diakroniaren arteko muga zorrotzik. Teorikoki, denbora errealean oinarrituriko azterketa konparatiboek hizkuntza-hedapena deskribatzeko oinarria ematen digute (Chambers eta Trudgill 1994: 209), baina hizkuntza-aldaketa ikuspegi sinkronikotik ere azter daiteke² (Martínez 2010: 123).

2.4. Aldakortasunean eragina duten aldagaiak

Aldagaia askotariko emaitzak eman ditzakeen balioa da, eta linguistikoa edo estralinguistikoa (soziala) izan daiteke: adina, adibidez, gizarte-aldagaia da, baita sexua, maila soziala eta jatorria ere. Hizkuntza-aldagaiak parametro sozialekin korrelazioan jartzen dira.

² Horren gaineko argibide gehiago *Adinaren araberako bariazio lexikoa Imozko hizkeran. Inkesta linguistikoak* (Fernandez de Muniain, 2023: § 2.1.5. atala).

Aldagai linguistikoak hizkuntza-maila guziak barne hartzen ditu. Humberto López Morales soziolinguistaren hitzetan, belaunaldien arteko desberdintasunik adierazgarrienak lexikoan eta fraseologian gertatzen dira (1989: 117-118).

Aldagai estralinguistikoei dagokienez, adinak garrantzi berezia hartu du hizkuntzen aldaeran (Zarraga 2010: 58) eta ni neroni ere horri begira jarri naiz ikerlan honetan: hiru belaunaldi, eta horietarik bi sinkronikoak.

Ikus ditzagun duela mende erditsuko parte-hartzaileen datuak:³

XX. mendea		
Etxaleku ⁴	Goldaratz	Muskitz
1966: Agustin Beloki, 63 urte (Etxaide, 1989) 1980, g. g. b.: Agustin Beloki (Huarte, 2003)	1984-1988: Miguel Olaetxea Azpiroz, 68 urte (Pagola, 1992)	1966: Joakin Oraien, 84 urte (Etxaide, 1989)

Egungo hiztun garaikideei bagagozkie, bi hiztun-talde bereizi ditut: gazteak (18-35 urte bitartekoak) eta adinekoak (60-85 urte bitartekoak). Zortzi lagun, lanaren xedeei eta ikertzailearen denbora eta kemenari egokitze-ko neurriko lagina. Hiru etxalekuarrak familia berekoak dira, eta gauza bera Goldarazko lekuko kasuan. Eztabaidagarria izan liteke etxe berekoak izatea onuragarria ote den, baina kasuistikari erreparatuz, egoki iritzi diot. Muskiztarrari dagokionez, XX. mendean elkarriketatuen biloba da.

³ Hilik daude denak.

⁴ Gizon bera da Etxaideren (1989) eta Huarteren (2003) lanetan ageri dena.

XXI. mendea (2022)		
Etxaleku	Goldaratz	Muskitz
♂ 68 urte	♂ 70 urte	♂ 80 urte
♀ 52 urte	♀ 61 urte	
♂ 20 urte	♂ 34 urte	
	♂ 33 urte	

2.5. Prestigioa

Euskalkiak gainerako euskaldunekin mintzatzeko aukera ematen du eta, aldi berean, beste hizkera-erkidegoetatik bereizten gaitu, hots, zeregin demarkatiboa du (Camino 2005: 158). Sentimendu horrek, batzuetan, ondorio positiboak ditu hiztun-komunitatean —nortasuna, prestigioa...— baina, beste batzuetan, ordea, efektu negatiboak ere izan ditzake —gutxiagotasun-konplexua, norbere buruarekiko segurtasun falta...—.

Prestigioaren afera ez da kontu hutsala; aldakortasunaren eragile estralinguistikoko ezin atzendumena da, izan ere. Garrantzi handia du hiztunen artean aldaketa linguistikoko bat gerta dadin.

Euskalkien artean aldaketak eta eraginak izaten dira, eta hizkera batzuk besteak baino prestigiotsuagoak dira, omen, euskaldunen pertzepzioan.⁵ Imotzen, oso aspaldiko kontua da gipuzkeraren⁶ ospea. Caminok dio nabarmena dela «ez-mugikor» ez diren Nafarroako hainbat eta hainbat gizon euskaldunek bertakoa ez den euskaldun baten aitzinean Gipuzkoako mintzora duten joera (2005: 174). Ikus, halaber:

Nafarroa barrualderago ere iritsi da euskara giputzaren ospea eta, giputzaren ospearekin batera, baita eurenganakoaren gaitzespena ere. Ultzamaldeko euskara aztertu du aspaldi ez dela Orreaga Ibarrek

⁵ Oharmenezko dialektotlogiaz gehiago jakiteko, ikus Preston (1999a, 1999b).

⁶ Ikus *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, s. v. *gipuzkera*. Argitze aldera, gipuzkera aipatzen dudalarik, erdialdeko euskalkiaz ari naiz.

Ultzamako hizkera liburuan (1995), eta Oskotz herriko ultzamar⁷ bat harritu egin omen zen norbaitek beraren hizkera ezagutu eta ikertu nahi zuela jakitean. Hauxe izan omen zen haren ateraldia: *Zuk in barko ziñuke yoan Tolosaa ta artu Tolosakoa, du azentu'at oso politte ta entenditzen du mundu guziek.* (Zuazo 2000: 58)

Aspaldixkotik euskaldun aunitzen gogoan Tolosako mintzairak du prestigio gehien: Imotzen berean, adineko imoztar frankok halaxe uste du oraindik ere.

Kanpokoari ederresteko eta etxekoa zokoratzeko eta gutxiesteko joera ez dugu oraingoa halere, lehen ere ongi irakatsi ziguten euskararik hoberena Tolosakoa zela. Gure euskara kaxkarra zela eta zenbatetan ez ote dugu Etxalekun, *det* erabili kanpotarren aurrean, gure arteko *dut* erabili ordez, baita batuan *dut* onartu eta gero ere. *Ondo* eta *hobeto* bikotea *ongi* eta *hobekiri* gain hartzen ari da. Ez da inor *jostatzen*, orain, denak, *jolastu* egiten dira.⁸ [...] Zuzentasunaren izenean eta euskara batuaren aitzakian, batuan horrela izan gabe gainera askotan, nonahi egiten dira aldaketa hauek, eta euskararen indarra galtzen ari den herrietan errazago. (Aleman 2008: 11-12).

Emaizten atalari aurrea hartuko diet eta joan den mendeko adibide batzuk ekarriko ditut. Aditzaren morfologiari erreparatuz gero, hauxe dago jasota: (160) *ateako gera*, (203) *barkaxioa eskatu det*, (161) *etorko gera*, (34) *ník éuskeáz itzítten dét* edo (128) *ník undásun ásko dét*. Hortxe dugu, nire irudiko, prestigioaren auzia, euskara dotorea erakutsi nahia. Bada, *izan* aditzaren erroa Imozko hizkera orotan *-a-* da (Apalauza 2008: 116), oraingo berriemaileek erakutsi duten bezala: (160) *ateako ga*, (161) *bueltatuko ga / etorko ga...* **Edun* aditzaren erroari dagokionez, berriz, *-u-* da eremu osoan —zenbait kasutan *-o-* bihurtu da, Goldaratzen kasurako—. Horixe erabiltzen da, hain zuzen, Nafarroa Garai gehienean (Apalauza 2010: 361), eta goi-nafarreraz idatzitako lehen testuetatik hasita, *-u-* erroa adizkiak ditugu (Reguero 2017: 598).

⁷ Herritarra Oskozkoa baldin bada, oskoztarra dugu eta, beraz, imoztarra; ez ultzamarra.

⁸ Alderdi honetan, *jolas egitea* 'solas egitea' da (ikus EHHAn, s. v. *solas egin*).

2.6. Hizkeren berdintzea

Bizimoduaren homogeneizazioarekin batera, prozesu naturala da hizkeren berdinkaritzea edo ingelesez *dialect levelling*⁹ izendapenez ezaguna den fenomeno (Camino 2005: 161).

Euskal herri-hizkerak «urtzen» eta «koloregabetzen» ari dira, kutsu lokala duten bereizgarriak galtzen, eta ezaugarri hedatuenak nagusitzen (Camino 2005: 160). Hainbat eragilek etxeko hizkeraren ahultzea, transmisioaren etena edo jauzia —hibridaziorantz, homogeneizaziorantz, euskara batuarantz, erdararantz...— ekarri dute. Eredu estandarren zabaltzeak, esaterako, dialekto markatuen beheraldi ikaragarria eragin du azken urteotan. Euskarazko irakaskuntzak, alfabetatzeak eta arauarekiko hartu-emanak aldaketa linguistikoa ekarri dute, eta gazteak euskara batuko lexikorantz lerratzea, batez ere.

Eredu estandarrek hizkera guzietan eragiten die. Bi mintzaira elkarrekin harremanetan egotean —batua eta herriko hizkera—, eragin diglosikoa eta desoreka dago: batek estatus handiagoa izan ohi du eta, ondorioz, bestea, aldaera gutxitua, arriskuan geratzen da (Zarraga 2010: 44-45). Herri-hizkera komunitate batean ahul badago, galera are eta handiagoa izanen da.


2.7. Imotz ibarra eta hizkerak

Imotz Nafarroako mendialdean dago, ipar-mendebaldean. Zortzi herrik osaturik dago: Eraso, Etxaleku (ibar-burua), Goldaratz, Latasa, Muskitz, Oskotz, Urritza eta Zarrantz herriek. Iruñetik hurbil dira denak. Imotzek 43,2 km²-ko eremua du, eta 428 biztanle.¹⁰

⁹ Ikus Trudgill (1986: 98).

¹⁰ 2022ko abenduaren 23an Imozko Udalak ahalbidetutako datua.

1. irudia. Imotz ibarraren kokapena (Apalauza 2008: 17)



Gaur egun, Imozko euskara tradizionalak oinaze handia du. XIX. mende erdialdetik hona, etengabeko despopulatzea izan da, nahiz eta azken hamar-kadotan biztanle-kopuruari eusten ari zaion. Herrien hustea, hain zuzen ere, hertsiki lotuta dago Imozko euskararen osasun-egoera zaugarriarekin. XX. mendean Imozko herriak nabarmen erdaldundu ziren eskola zela kausa, baina baita immigrazioak¹¹ eta faktore psikologikoez eraginda ere (Sánchez Carrión 1972: 199-201). Gaztelania etxe guzietara sartu da nola edo hala, lehenago edo geroago. Horri loturik, joan den mendetik gaurdaino, hizkuntza-transmisioaren eten garrantzitsua dugu Imotzen. Hala, euskararen eza-gutzaren eta erabileraren kopuruek ez dute bat egiten: bertako jende gehienak badaki euskaraz, baina kopuru handi batek ez du erabiltzen. Gaur egun, gainera, euskara batuaren eragina ere badugu, zeina oharkabean sartzen den herritarren —bereziki gazteen— mintzoan, herriko euskararen kaltetan. Nabaria da Imozko adinekoen eta gazteen hizkeren artean dagoen aldea.

¹¹ 2001. urtean, imoztarren % 62,5 ibarretik kanpo jaiokoak ziren (Apalauza 2008: 28).

Egun, imoztar gazte gehienek darabilten euskara ez da beren herrikoa, baik eta euskara batua edo hara lerraturikoa. Oro har, bertako hizkera dutenek etxekoekin eta oso hurbilekoekin egiteko gordetzen dute (Apalauza 2008: 27).

Imozko euskarari begiratzuz gero, iragan hurbileko lekukotasunek gure herrialdeko mapan askotariko korrante dialektalak daudela erakuste digute. Orokorrean esanda, erdialdeko euskararen eta nafarreraren ezaugarrien nahasketa dugu Imotzen. Maiz, bien arteko lehia sumatzen da eta, gehienetan, helduek nafarreraren¹² ezaugarriak islatzen dituzte eta gazteek, berriz, erdialdeko euskararenak.

Imotzek euskalki-eremuaren muga marrazten du (ikus 2. irudia), Biaizpe haitzartetik hegoaldera tokiko euskara dialektala galdu baitzen. Nafarroako euskararen izaera ulertzeko, gertakari bat kontuan hartu beharra dago:

Iruñea aspaldi erdaldundu zela eta, hura alde batera utzita, ez dela beste hirigune euskaldun hazirik. Barruko indar bateratzaile ezaren ondorioz, bazterretako eskualdeak kanpora begira ibili dira joan den aspaldi luzean: Ipar Euskal Herrira begira herrialdearen iparraldekoak; Gipuzkoara begira ipar-mendebalekoak; Arabara begira hego-mendebalekoak [...]. Hiru gune berritzaile horietatik bakarra dago gaur egun indarrean: Gipuzkoakoa. Handik etortzen dira elikagairik gehienak Nafarroara. (Zuazo 2014: 127)

Gure ibarreko azken garaietako mintzoa definitzeko, Imotz Iruñea-Tolosa-itsasaldea bide zaharrean dagoela gogoan hartu behar da: bide horretako fluxuaren eragina nabarmena izan da, eta zeharkatzen dituen Imotz-Basaburua, Larraun eta Araizko mintzairetan —hurrenkera horretan— gipuzkeraren ukituak *in crescendo* doaz.

Imozko euskara *tarteko*¹³ hizkera da, zubi-hizkera. Koldo Zuazo hizkuntzalariak erdialdeko euskalkiaren partetzat jo zuen Imotz, eta *sortaldeko azpieuskalkia* deiturikoan multzokatu zuen: erdialdeko euskalkiaren eta eus-

¹² Ikus *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, s. v. *nafarrera*.

¹³ Zuazok *tarteko hizkerak* terminoa proposatu zuen (2003) eta, horrela, euskalki eta azpieuskalkien sailkapena fiabartu zuen. Imozko euskara *tarteko* hizkeratzat dauka.

kara nafarraren arteko lotura egiten duen tarteko hizkera da (2003: 137), trantsizio-hizkera. Muskitz herria, aldiz, euskara nafarraren barne sartu zuen (2003: 103).

Interesgarria da esatea muga dialektala edo isoglosa hau [esan/erran] hemendik pasatzen dela, eta hartaz, Ultzama, Atetz [+ Muskitz], Anue eta Lantz herriak hurbiltzen direla gehiago Nafarroa ekialdera (Esteribar, Erroibar), aldiz, Basaburuak gipuzkerari hurbiltzeko joera handiagoa erakusten du. Imotzek trantsizioa egingo luke. (Ibarra 1997: 65)

2. irudia. Euskalkien mapa (Zuazo 2003), www.euskalkiak.eus webgunetik hartua



Halaber, hiru eremu bereiz daitezke Imotzen (Apalauza 2008: 145): ertz batean Muskitz dago, argi eta garbi ekialderagoko hizkerei begira —Atetz eta Ultzama—, ez lexikoari dagokiolarik bakarrik, baita azentuazio-kontue-

tan ere¹⁴; beste muturrean Goldaratz dago, Larrauni loturik —erdialdeko euskalkira gehiago lerratzen dena—; eta tartean gainerako herriak daude. Nolanahi ere, Muskitz ekialdeko ibarretara begira egon arren, horrek ez du esan nahi beste herriak erdialdera begira daudenik (Apalauza 2008: 167).

3. Hipotesiak

Lan honen premisa da Imozko euskara etengabe aldatzen ari dela, eta aurreikuspen nagusia, aldaketa hori azken mende erdi honetan bereziki nabarmena dela. Hizkuntza-bariazioa nagusiki adinaren arabera gertatzen dela pentsatzen dut; izan ere, belaunaldi bakoitzak euskararekin izandako harremanak askotarikoak izan dira. Hain zuzen, elkarrizketaturiko adinekoetatik gazteetara bidean, ingurune aski euskalduna ezagutu duen jendartetik giro gaztelaniatua ezagutu duen gizartera pasatu gara, non euskara batu estandarrrak gero eta presentzia handiagoa duen.

Hori dela eta, hipotesiak ondoko hauek dira:

- 1) Gaur egungo hitzun guzien lexikoak joan den mendekoenak baino eragipen handiagoa du, gaztelaniara eta euskara batu estandarrentz lerraturik. Zenbat eta hitzuna gazteagoa, hainbat eta hibridoagoa bere hizkera. Uste dut, adinekoek ezaugarri dialektalei hobeki eusten dietela, hortaz, XX. mendeko hitzunen euskara «dialektalagoa» zen oraingoena baino.
- 2) *Hegoaldeko*¹⁵ euskara batuaren eragina nabarmenagoa da gazteen kasuan; handia eta lasterra izango dela uste dut. Berdintze-joera bizia aurreikusten dut, bada, estandarrentz.
- 3) Biziera aldatu baita, joan den mendeko hainbat kontzeptu zaharkitu dira eta gaugerero ez dira baliagarri, galzorian daude. Susma daiteke,

¹⁴ Imozko azentuez gehiago jakiteko, ikus Apalauza (2008): IZENAREN MORFOLOGIA ataleko «Singularra eta plurala bereiztea» azpiatala.

¹⁵ Gizartean erdialdeko euskara —lexikoa nagusiki— gailendu da, lan honetan *Hegoaldeko batua* izendatua dena, alegia, eta estandarizazioaren argitan azaltzen dena.

hortaz, gazteek galdetegiko hitz askoren euskal baliokiderik ez ezagutzea, ez direlako hitz horiek sekula beren errealitatearen parte izan.

Lexikoaz aparte, hauxe erantsi nahi diot idiolektoen gaineko planteamenduari:

- 4) Hiztunak ezaugarri propioak ditu, eta aldakortasuna maila indibidual horretan ere izanen delakoan nago. Horrez gain, erabakitzeko gaitasunaz baliatzen da eta hautu kontzienteak egiten ditu.

4. Metodologia

Nire eginbideak lau garai izan ditu. Ikerketa ez daiteke erabat kuantitatibotzat har, ehunekoak ez baitituz kasu guzietan eman, lan-karga handiegia zelakoan oraingo zereginerako. Besterik da, ikerketa kualitatiboa eta kuantitatiboa tartekatuta ditudala esatea.

4.1. XX. mendeko corpora aztertzea

Lehendabizi, segidan zerrendatuko ditudan lanak miatu ditut, eta interesatu zaizkidan datuak erauzi: lexikoari dagozkionak, hain zuzen ere.

- a) *El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, Ana María Etxaide Itarterena (1989). 1966an bi imoztarri egindako inkestaren erantzunak ditugu: Etxalekuko Agustin Belokirenak (63 urte) eta Muskizko Joakin Oraienenak (84 urte).
- b) *Euskal fonetika Nafarroan*, I. eta II. liburukiak, Rosa Miren Pagolarenak (1992). 1984. eta 1988. urteen bitartean Goldarazko Miguel Olaetxeari (68 urte) eginiko galdeketa emaitzak dakartza. Aipatzeak da, erantzun asko ez datozela bat Goldarazko hizkeraren ezaugarri orokorrekin.¹⁶

¹⁶ Goldarazko XX. mendeko lekukoaren datuak ez dira beti fidagarriak... Ikus Fernandez de Muniain (2023) laneko ERANSKINAK ataleko galdetegia, eta konpara bitez haiek Goldarazko hizkuntza-ezaugarriekin (Apalauza 2008: 147).

- c) *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*, José Vicente Huarte Lergarena (2003). Ez dakigu, zehazki, galdeketak zein urtetan eginak izan ziren. Berriz ere, Agustin Beloki etxalekuarraren lekukotasunak ditugu; gizon hura 1996. urtean zendu baitzen, lehenagokoa behar du galdeketak... Etxalekuko oraingo herritarren ariora, 80. hamarkadan eginiko inkesta dateke.

4.2. Galdetegia eratzea

Inkesta, orokorrean, berriemaileendako ezagunak diren hitzez osaturik dago, bizimoduari eta etnografiako atal arruntenei dagozkien hitzez, gehienbat. Hona hemen gaiok: etxea, etxeko lanak, eguneroko ekintzak, lanabesak, denbora, urtaroak, jatekoak, naturako izakiak, gorputza, zenbaki zenbait... Guzira, 250 bat item daude.

4.3. Inkestaren aldia

Hirugarren fasean, alor-lanera jo dut. Ezagunak ditudan zortzi imoztarri 255 erdal hitz eta esapide ekoitzarazi dizkiet.¹⁷ Haien bizilekuetara joan naiz, informatzailearen etxea dialektoaren ingurunerik jatorrizkoena delakoan (Camino 2009: 300).

Inkesta *galde-erantzun* motakoa izan da, batzuetan hitzak bere horretan proposatuz, eta beste batzuetan esaldi barnean txertatuz, esan nahi baita testuinguruan jarritz.

Aspaldi erabili ez, baina ezaguna duten hitzen batez galdeginik, hotz-hotzean, blokeaturik, zer erantzun ez dakitela, gelditu izan dira parte-hartzaile guziak behin edo beste. Horixe da hizketa librean ez aritzeak duen eragozpenetako bat. Halakoetan, denbora gehixeago eskainiz edo argibideren bat emanik, gogoratzeko gauza izan dira. Bestalde, ustekabeko forma supralokalen bat entzutean, ahal bezain naturalki berriz esan zezaten eskatu

¹⁷ 2022ko izotzilean eginak.

diet: *Ziur zaude horrela esanen zeniokeela etxeko bati?* edo *Nola esanen zenuke agudoago?* Maiz, akuilatze beharrik ere ez dut izan, haiek berak ohartu baitira, edo ondokoaren *bai zea!* batek hitza birformulatzerara eraman dituelako. Beste batzuetan, dagokion forma dialektala proposatu diet eta elkarriketatuak baieztatu garbia eman du, eta aurreko erantzuna aldatu. Horrelako kasuetan, bi formak jaso ditut.

Inkestak jokaera hertsia du baina, orokorrean, lexikoaren aldakortasuna aztertze beharrezko informazioa eskuratzeko modurik eraginkorrena da, eta ongi frogatua da emaitzak, izan, badituela (Martínez 2010: 98). Hala ere, hainbat arrisku edo muga ditu: estilo formalegirik ez izaten ahaleginduta ere, sekula ez da egoera erabat naturala. Inkestak eta inkestagileak «mugatu» egiten dute, berez, Soziolinguistikaren helburu gorena: hizkuntza bere testuinguruan aztertzea; hots, hizketa naturala biltzea. Horra *behatzailearen paradoxa*,¹⁸ Labovek izendatu zuenez.

Grabagailurik ez dut erabili eta, ondorioz, erdietsiriko emaitzak zalantzarriagoak izateko aukera handiagoa da; baina berriemailearen nahia errespetatu beharra dago (Apalauza 2010: 112) eta, lasai egon zitezen uko egin nien grabatzeko tresnei.

4.4. Datuak prozesatzea

Zirriborroan hartutako oharrek digitalizatzea izan da hurrengo lana: word-orri batera transkribatu eta itemak zerrendatu ditut, adinez eta herri-ka¹⁹ ordenaturik. Erantzunak aditu bezala transkribatu ditut: <ll>, <y>, <j>, <ñ>, <tt>, hasperenik ez... Bestalde, zenbait hitzi azentua paratu diet, jatorrizko galdetegian ikus daitekeen bezala.

¹⁸ *Behatzailearen paradoxa* eragindako egoerez gehiago jakiteko, jo Fernandez de Muniain (2023) lanera, § 3.2.3. atalera.

¹⁹ Galdetegi osoa Fernandez de Muniain (2023) lanean ikusgai dago, ERANSKINAK atalean.

4.5. Datuak aztertzea

Azken urratsean, dokumentatua nuen material guziaz aztertu, erkatu eta ondorioztatu dut. Emaitzak duela mende erdikoekin alderatu ditut —konparazio diakronikoa— eta, hein berean, konparazio garaikidea —edo sinkronikoa— egin dut, elkarrizketaturiko gazteen eta adinekoen artean. Bi kasuetan konparazio bertikala edo kronologikoa egin dut, hots, aurreko eta ondoko egoera linguistikoen artekoa.

Aritze horretan, Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EEHH) kontsultatu dut, hainbat datu dialektal «tradiziozko» egiaztatzeko.

5. Emaitzak

Jarraian, emaitza nagusiak ekarriko ditut.²⁰ Adibideek galdetegiko zenbakia dakarte, bai eta laburduraren bat ere, dagokionean:

Etx.: Etxaleku	Im.: Imotz
Gazt.: Gaztelaniaz(ko)	I: Ipar Euskal Herrikoa
GN: Goi-nafarrera	M: Mendebaldekoa
Gol.: Goldaratz	Mus.: Muskitz
H: Hego Euskal Herrikoa	XX: XX. mendea
Herr.: Herri-mailakoa	XXI: XXI. mendea

Adibideak desberdin sailkatu ditut, HITZAK edo ALDAERAK kontsideraturik. HITZAK etimologia ezberdina duten formak dira —(29) *ganbaa* eta *sabaie*, adibidez—, edo hala iruditu zaizkidanak. Bestalde, uler bedi ALDAERA, konparaturiko formak jatorri komun berekoak direla begi-bistakoa denean, hau da, lexema-aldaketarik ez dagoenean, bai ordea, bilakabide fonologiko desberdina —hala nola, (240) *ameka* eta *amika*—. Tauletan, halaber, euskara batuko oinarria gehitu diet.

²⁰ Jatorrizko lanean lexikoari buruzko argibideak eta justifikazioak daude, oin-oharretan, item bakoitzari loturik.

5.1. Imotz barneko ezberdintasunak

Hiztegi ezberdina erabiltzen dute, behin edo beste, ertz bateko eta beste-ko imoztarrek. Ibarreko bi muturrek aparteko ezaugarri lexikalak dituzte: orokorki esanda, Goldaratz Larraun aldera hurbiltzen da maiz eta Muskitz, aldiz, Ultzamaldeko hizkeretara (Apalauza 2008: 145).

1. taula. Imotz barneko hainbat ezberdintasun lexikal

Hitzak			
Euskara batua	Goldaratz	Imotz	Muskitz
Akordatzen (H) (herr.), oroitzen		(221) <i>akordatzen</i>	(221) <i>oroitzen</i>
Hanka-hutsik, oinutsik		(215) <i>ankutsik</i>	(215) <i>uñutsik / oñutxik (xx)</i>
Ganibet, labana		(42) <i>kanabite</i>	(42) <i>labana</i>
Labana, ganibet		(42) <i>labana</i>	(42) <i>kanaita / kanebite (xx)</i>
Behitegi, ukuilu	(25) <i>ikullu</i>	(25) <i>beitegie / beittie</i>	
Erori	(15) <i>eroi</i>	(15) <i>bota</i>	
Oihan, baso (M)	(138) <i>mendi</i>	(138) <i>oian</i>	
Sabai, ganbara (H)	(29) <i>ganbaa</i>	(29) <i>sabaie</i>	
Soro (I), euntze (GN)	(166) <i>iuntzi</i>	(166) <i>soro</i>	
Tximista, oinaztura (GN)	(130) <i>oñazture</i>	(130) <i>tximiste</i>	

Emaitzek baieztatu dute, Goldaratz, arinki, gehiago aldentzen dela gaine-rako Imoztik, Muskitz baino. Hala ere, azken bi itemei erreparatuz, ohiz kanpoko banaketa dugula dio Amaia Apalauza hizkuntzalariak: «Ez da ohi-koa Goldaratz ez beste Imozko herriak ekialdetik bereiz agertzea, eta Gol-

daratz, aldiz, ekialdeari lotuta agertzea; izan ere, Goldaratz bereizi ohi da eskuarki ekialdetik, eta ez alderantziz» (2010: 434). Gaur egun Goldaratzek erakusten du *oinaxtura* taldekoen azken arrastoa, aspaldi gabe eskualde osoan nagusi zatekeena.

Aldaeretan ere banaketa opatu dut:

2. taula. Imotz barneko hainbat aldaera

Aldaerak			
Euskara batua	Goldaratz	Imotz	Muskitz
Hamaika		(240) <i>amika</i>	(240) <i>ameka</i>
Arrautza		(70) <i>arroltze</i>	(70) <i>arraultze</i>
Bederatzi		(239) <i>beatzi</i>	(239) <i>bedratzi</i>
Esan, erran (GN, I)		(255) <i>esan</i>	(255) <i>erran / esan</i>
Gau		(68) <i>gabe</i>	(68) <i>gau</i>
Iratzarri		(41) <i>iatzarri</i>	(41) <i>etzarri</i>
Igitai		(71) <i>itaye</i>	(71) <i>eitegie</i>
Igeri egin		(220) <i>ira in</i>	(220) <i>ingeri in / ingiri in (xx)</i>
Matela (GN, I), masail		(175) <i>matalle</i>	(175) <i>matela</i>
Onddo		(85) <i>ontto</i>	(85) <i>onyo</i>
Pago		(162) <i>pago</i>	(162) <i>bago / pago</i>
Aiztur, guraize		(193) <i>puxik</i>	(193) <i>piruxeak</i>
Zilbor, xilko (I)		(177) <i>txilbor</i>	(177) <i>txilko</i>

Aldaerak			
Euskara batua	Goldaratz	Imotz	Muskitz
Udazken		(158) <i>udazken</i>	(158) <i>udondo</i>
Armiarma	(171) <i>armiarma</i> / <i>ermearma</i>	(171) <i>irmiarmoa</i> / <i>irmiarmua</i>	(171) <i>argima(g)oa</i> / <i>armimaue</i> (xx)
Baina, baino	(254) <i>baño</i>	(254) <i>biño</i>	
Hetsi (GN, I), itxi	(38) <i>itxi</i>	(38) <i>ertsi</i>	
Martutz (GN, I), masusta	(163) <i>matuste</i>	(163) <i>matxutxe</i>	

Beraz, lexiko gehiena berdintsua dute Imozko herriek, baina maizenik ekialderagoko hizkeren eitea hartzen du Muskitzek —lexikoaz gain, hitzak «osokiago» ahoskatzen dituzte Muskitzen—. Sumatzen da, dena den, nafarrerazko aldaerak indargabetuz joan direla azkenaldion, erdialdeko euskarazko aldaeren alde. Horren adierazle dira (162) eta (255) adibideak.

Aintzat hartzekoa da, Imozko berezko lexikoa Basaburu Nagusikoa ere badela (Apalauza 2008: 140-141). Eskualde horretakotzat har daitezke, besteak beste, (137) *jainkoam paxa*, (135) *kalma*, *malkor*, *pa(r)atu*, (193) *piruxeak* / *puxik* eta *tripota* hitzak, baita (101) *altzurre*, (254) *biño*, *bulkatu* / *bulketu*, *konten*, (197) *koopilloa*, *maingi*, (164) *malubi*, (208) *neskatxe* eta (131) *ortotsa* aldaerak ere (*Ibidem*).

5.2. Gipuzkeraren zantzuak gurean

Imozko euskarak aspaldixkotik ditu erdialdeko euskara gogora ekartzen diguten ziliportak, bereziki, lexikoari dagokionez (Apalauza 2008: 134-135).

3. taula. Erdialdeko euskararekin bat egiten duten Imozko hainbat tradizio-hitza

Hitzak	Aldaerak
(207) <i>asko</i>	(43) <i>burni</i> 'burdina'
(216) <i>atze</i>	(232, 255) <i>esan</i>
(29) <i>ganbaa</i> 'ganbara'	(51) <i>gutxi</i>
(115) <i>ĩnare</i> 'ainara, enara'	(13) <i>iiki</i> 'ireki'
(172) <i>kattagorri</i> 'katagorri'	(122) <i>illoa</i> 'iloba'
(42) <i>labana</i>	(226) <i>jantzi</i>
(130) <i>tximiste</i> 'tximista'	(209) <i>neskame</i>
(170) <i>xa(g)uxar</i> 'saguzar'	<i>txabola</i>

Imozko euskarak taulako forma horiek guztiak ditu eta, beraz, erdialdeko-tzat eta bertakotzat har daitezke. Hala ere, zehaztu beharra dago egungo hiztunek, 3. taulako hitzez gain, beste zenbait alditan erdialdeko euskararen forma eman digutela, XX. mendeko inkestetan ez bezala:

4. taula. Erdialdeko euskalkiaren adibide garaikideak

Hitzak	Aldaerak
Erori (15) <i>ero(r)i</i> vs <i>bota</i> (Mus.)	Azazkal (110) <i>azkazal</i> vs <i>azazkal</i> (Etx.)
Hodei (135) <i>laño</i> vs <i>kalma</i> (Mus.)	Esan, (232, 255) <i>esan</i> vs <i>erran</i> (Mus.)
Oihan (138) <i>mendi</i> vs <i>oian</i> (Etx.)	Hetsi, itxi (38) <i>itxi</i> vs <i>ertsi</i> (Etx.)
Barre/Irri egin (223) <i>parre egin</i> vs <i>irri in</i> (Mus.)	Korapilo (197) <i>ko(rr)apillo</i> vs <i>koopillo</i> (Etx., Mus.)
Tximista, oinaztura (130) <i>tximiste</i> vs <i>oñaztura</i> (Gol.)	Masail, (175) <i>masalle</i> vs <i>matalle</i> (Etx., Gol.)
Behitegi, ukuilu (25) <i>ukullu</i> vs <i>beitegie</i> (Mus.)	Pago (162) <i>pago</i> vs <i>bago</i> (Mus.)
Arteka, zirrikitu (13) <i>lertue</i> vs <i>erte(ka)</i> , <i>zirriku</i> (Etx.)	

Beste behin, haranaren ekialdeak —Muskitzek bereziki— eragipen handiagoa jasotzen duela sumatu dut: bestela esanda, erdialdeko formak nafarrak menderatuz doaz pixkanaka. Goldaratz behin edo bitan baino ez zaigu

arestiko taulan azaldu: izan ere, Goldarazko euskara da erdialdeko hizkerekin gehien bat egiten duena, eta horrexegatik, bada, ez da gainerako herriak bezainbat besteratu.

5.3. Erdialdeko euskararen eta nafarreraren ezaugarrien arteko lehia

Euskara nafarrari esleitzen zaizkion hitz eta aldaera batzuk identifikatu ditut emaitzetan,²¹ gehienetan adinekoen ahoetatik bilduak: esaterako, (47) *itxe* ‘etxe’ (Reguero 2017: 652) eta (13) *erte* (Mus.) ‘arte’ (Reguero 2017: 648). Bien baturak (17) *itxekerte* sortzen du. Horiezaz landara, goi-nafarrera arkaiko eta zaharrea dokumentaturik dauden beste hainbat forma ditugu, Reguero (2017) lanari jarraituz:

5. taula. Goi-nafarreran ohikoak diren hainbat hitz eta aldaera Imozko euskaran

Hitzak	Aldaerak
(222) <i>atzendu</i> (2017: 644)	(57) <i>ago</i> ‘aho’ (2017: 641)
(226) <i>beztitu</i> ‘beztitu’ (GN, I) (2017: 376)	(240) <i>ameka</i> ‘hamaika’ (2017: 650)
(238) <i>deus</i> (2017: 646)	(232) <i>apez</i> ‘apaiz’ (2017: 549)
(229) <i>erdetxi</i> ‘erdietsi’ (I) (2017: 647)	(2) <i>atari</i> ‘ate’ (2017: 644)
(145) <i>izotzil</i> (xx) (GN) (2017: 652)	(203) <i>barkazio</i> ‘barkamen’ (2017: 557)
(154) <i>lastail</i> (xx) (GN) (2017: 653)	(69) <i>baru(r)ik</i> ‘baraurik’ (2017: 644)
(130) <i>oinazture</i> ‘oinaztura’ (2017: 654)	(93) <i>goatze</i> ‘ohatze’ (GN, I) (2017: 654)
(138) <i>oian</i> ‘oihan’ (2017: 654)	(112) <i>guzi</i> ‘guzti’
(176) <i>urrin</i> (I) (2017: 657)	(226) <i>jauntzi</i> ‘jantzi’ (2017: 652)
	(175) <i>matela</i> (2017: 654)
	(131) <i>ortots</i> (2017: 655)

Zenbakiak emateko molde hau ere zaharra omen da nafarreraz: (243) *iruetanogei*, (244) *lauetanogei* (Reguero 2017: 667).

²¹ Baten bat ez da esklusiboki nafarrera, hala nola *apez*, *beztitu*, *deus*, *guzi* eta *jauntzi*, Ipar Euskal Herrian ere badira eta. *Atzendu* aditza Gipuzkoan ere aditua da. Bestalde, zerrendako hilabeteak, xx. mendeko datuei dagozkie —(xx) marka daramatenak—.

Imozko euskararen izaera ulertzeko, aintzat har dezagun, nafarra duela ibar horretako hizkerak geruza zaharra eta giputza, berria (Zuazo 2006: 114). Maiz erdialdeko euskararen eta nafarreraren ezaugarrien arteko tentsioa nabaritu egiten da, baina azkenaldion oreka hausten ari da... Hurrengo ataletik aurrera azeleratze horren eragileetan sakonduko dut.

Bien bitartean, gaur egun bete-beteko lehia sumatu ditudan formak zerrendatuko ditut:

6. taula. Gaur egun lehia dauden formak

Hitzak	Aldaerak
(222) <i>atzendu</i> → <i>a(a)ztu</i> ‘ahaztu’	(36) <i>bezin</i> → <i>bezain</i>
(120) <i>azal</i> → <i>larru</i>	(140) <i>erleju</i> ‘erloju’ → <i>erloju</i>
(19, 22, 25) <i>beittie</i> ‘behitegi’ → <i>ukullu</i>	(38) <i>ertsi</i> ‘hetsi’ → <i>itxi</i>
‘ukuilu’	(115) <i>iñare</i> ‘ainara, enara’ → <i>enara</i>
(15) <i>bota</i> → <i>ero(r)i</i>	(197) <i>koopillo</i> ‘korapilo’ → <i>koapillo</i>
(188) <i>erde</i> ‘lerde’ → <i>aþar, baba</i>	‘korapilo’
(127) <i>gaitz</i> → <i>gaixotasun</i>	(175) <i>matalle</i> ‘matela’ → <i>masalle</i>
(212) <i>gaizki</i> → <i>gaixo</i>	‘masail’
(187) <i>germu</i> → <i>pixe</i> ‘pixa’	
(219) <i>go(r)atu</i> → <i>altxa, jaso</i>	
(223) <i>irri in</i> ‘irri egin’ → <i>þarra/e (eg)in</i>	
‘barre egin’	
(135) <i>kalma</i> → <i>odeye, laño</i> ‘hodei, laino’	
(217) <i>makurrao/u</i> ‘makurrago’ →	
<i>okerrau</i> ‘okerrago’	
(138) <i>oian</i> ‘oihan’ → <i>mendi</i>	
(130) <i>oñazture</i> ‘oinaztura’ → <i>tximiste</i>	
‘tximista’	
(215) <i>oñutsik</i> ‘oinutsik’ → <i>ankutsik</i>	
‘hanka-hutsik’	
(80) (<i>matxa</i>) <i>þorka</i> → <i>arrazimo</i> ‘mordo,	
mulko’	
(176) <i>urriñ</i> ‘urrin’ → <i>usai</i> ‘usain’	
(78) <i>zango</i> → <i>gemelo, þantorrille</i> ‘zangar’	

Elkarren lehian detektatu ditudan —eta gainbehera doazen— horien % 80 hitzak dira, eta kopuru txiki bat aldaerak: hau da, badirudi lexikoa, hitzak, errazago ordezten ari direla imoztarrak. Zerrendakoez gain, gazteenak (203) *barkamen*, (160) *egunsenti*, (56) *errementari* eta (33) *igeltsero* erantzunak ere eman ditu; hau da, belaunaldi gazteengan biziagoa da bilakabidea. Hurrengo atalean xehatuko dut puntu hori.

5.4. Eredu estandarraren eragina

Aurrerantzean, azken mende erditsuan izandako bilakaeraz mintzatuko naiz, eta eskolako euskararen eragina aipatuko dut lehenbizi.

Gazteengan eredu estandarraren eragin handiagoa ikusi dut: desberdintasuna ikusten den aldi gehienetan, adindunek tokiko formak darabiltzate eta gazteek, aldiz, «erdialderagokoak» —euskal gizartean gailendutakoak—, eskolako euskara *Hegoaldeko batua*z elikatzen baita gehienik. Izan ere, *Hegoaldeko* euskara batua estandarizazioaren eta horren sarbide izandako hezkuntza-sistemaren argitan esplikatzen da. Erdialdeko hizkeren eragina gazteengan gehiagotan agertzea euskarazko alfabetatzearekin loturik dago, hertsiki. Euskara batua gipuzkeran, nagusiki, oinarritu dela (Zuazo, 2010: 37) ontzat hartuz gero, ez da harritzekoa gazteek emandako forma gehienak gipuzkerazko formekin batera etortzea —salbu taulako (105), (168) eta (241) aldaerak—.

7. taula. Ereduestandarra islatzen duten gazteen erantzunak

Hitzak	Aldaerak
(219) <i>altxa vs go(r)atu</i>	(105) <i>aiz vs yaiz</i> 'haiz' (Im.)
(253) <i>askotan vs maiz</i> (Etx.)	(241) <i>amairu vs amiru</i> 'hamairu' (Gol.)
(188) <i>aparra vs erdii</i> 'lerde' (Gol.)	(168) <i>amurraie vs amorraie</i> 'amuarrain'
(61) <i>egueldi</i> 'eguraldi' vs <i>dembo(ra)</i>	(Etx.)
'denbora' (Gol.)	(203) <i>barkamen vs barkazio</i> 'barkamen'
(56) <i>errementari vs a(r)otz</i> (Etx.)	(Etx.)
(182) <i>legamie</i> 'legamia' vs <i>orantza</i> (Etx.) (xx)	
(12) <i>hur vs zola / zolu</i> 'zoru' (Im.)	
(209) <i>morroi / mutil</i> (Im.)	
(167) <i>soro landatue</i> 'soro landatua' vs <i>alorra</i>	
(Etx.)	
(157) <i>udaberri vs primabera</i> 'udaberri,	
primadera' (Im.)	

Estandarraren eragina jende helduarengan ere sumatu dut, maiz «imozteraz» egokiturik egonik ere. Ez daiteke kasu guzietan orokortu, baina hona hemen konparaketa diakronikoa, non gazteez gain adinekoak ere hartara lerratzen direla ikus daitekeen, nahiz eta helduen kolektiboan beti baden tokiko aldakia emanez erantzun duena:

8. taula. Ereduestandarraren eragina egungo imoztarren mintzoan

Hitzak	Aldaerak
(233) <i>guraso vs attama</i> 'aita-ama' (xx)	(247) <i>azkena, azkenekoa vs atzena</i> (xx)
(183) <i>mamia vs gatzambera</i> 'gazanbera'	(140) <i>erloju vs erleju</i> 'erloju' (xx)
(xx)	(127) <i>gaixotasun vs gaitz</i> (xx)
(49) <i>mikatza / garratza vs kiratsa</i> (xx)	(38) <i>itxi vs ertsi</i> 'hetsi' (xx)
(217) <i>oker vs makur</i> (xx)	(244) <i>larogei</i> 'laurogei' vs <i>lauetanogei</i>
(223) <i>parra in</i> 'barre egin' vs <i>irri in</i> 'irri	'lauretan hogei' (GN, I) (xx)
egin' (xx)	(141) <i>osteun</i> 'ostegun' vs <i>orzeun</i> 'ortzegun'
(130) <i>tximiste</i> 'tximista' vs <i>oñazture</i>	(GN) (xx)
'oinaztura' (xx)	(142) <i>ostiela</i> 'ostiral' vs <i>orzillera</i> 'ortzirale'
	(GN) (xx)

Muskitza joz, ikus ditzagun ondorengo etsenpluok: (222) *aaxtu* | *atzendu* (xx), (232) *apaiz / apez* (Im.), (161) *bueltatu* | *itzuli* (xx), (238) *ezer* | *deus / dius*

(Im.) eta (224) *lapurtu* | *ebasi* (Im.). Muskiztarra parte-hartzailerik adinekoe-na da baina, halakoetan, ez du kontserbadurismoz jokatu; aitzitik, *Hegoaldeko batuan* nagusi den ereduari segika ihardetsi du. Hortaz, zahartzaroa ez da nahitaez eta beti kontserbadurismoaren adierazle. Haatik, behin edo berriz gainontzekoek erantzuten jakin ez duten arrapostuak eman ditu naturalki, lehengo mintzoaren erakusgarri: (9) *giltza*, (220) *ingeriitten*, (7) *txirrimiste*...

5.4.1. *Gazteek agerturiko estandarrenazko joera ez-zorrotza*

Ezagun da gazteak nabarmenago desbideratzen ari direla herriko aldaeratik arauzko eredurantz. Hala eta guziz ere, espero izandako aukera guzietan ez dute egun —gizartean— indarrean den erantzun «moderno» eman. Item-kopuru adierazgarri batek erakutsi du, anitz alditan tokiko moldeak baliatzen dituztela edo, behinik behin, ezagunak dituztela.

Gazteek eraldatzeko aukera zuten hainbat forma, «kaltebera» gisa sailkatu nituen aurrez: zehatz-mehatz, bereziki aldatzeko posibilitate handiko 25 hitz eta aldaera aurreikusi nituen. Hauexek dira, hain zuzen:

9. taula. Hitzun gazteendako «kalteberak» iritzitako hitz eta aldaerak

Hitzak	Aldaerak
(54) <i>a(a)te</i> ‘ahate’	(240) <i>amaika</i> ‘hamaika’
(78) <i>anka</i> ‘hanka’	(241) <i>amairu</i> ‘hamairu’
(120) <i>azal</i>	(148) <i>apiril</i>
(160) <i>eunsenti</i> ‘egunsenti’	(75) <i>arratoi</i>
(41) <i>esnatu</i>	(4) <i>ate</i>
(238) <i>ezer</i>	(218) <i>barru(a)n</i>
(127) <i>gaixotasun</i>	(36) <i>bezain</i>
(33) <i>igeltsero</i>	(115) <i>enara</i>
(231) <i>jolastu</i>	(220) <i>i(g)eri e(g)in</i>
(224) <i>lapurtu</i>	(164) <i>marrubi</i>
(12) <i>hur</i>	(175) <i>masalle</i> ‘masail’
(131) <i>trumoi</i>	(163) <i>masuste</i> ‘masusta’
	(113) <i>na(a)stu</i> ‘nahasi’

25 hitz «kalteberatzat» jo ditut gazteek eraldatzeko aukera handia eskaintzen dutenak. Horietarik 15 ez dituzte aldatu; hots, % 60. Hori dela eta, ezin esan da elkarriketaturiko gazteek estandarreranzko berdintze-joera lasterra erakutsi dutenik, erdibidekoa baizik.

Hala, gazteen taldean ere bada aldea belaunaldi batetik bestera. Esan bezala, zenbat eta hitzuna gazteagoa izan, hainbat eta handiagoa euskara estandarraren eragina haren hizkeran. Izan ere, 25 forma «kaltebera» horietatik, gazteenak 10etan (% 40) ez digu bertako hitzik edo aldaerarik eman: (12) *lurre*, (36) *bezain*, (78) *anka*, (120) *azala*, (175) *masalle*, (33) *igeltseroa*, (115) *enara*, (160) *eunsentia*, (163) eta (164) *marrubie*. Hamar urtez nagusiagoak diren gazteek, ordea, zerrenda horren lehen erdia ez dute tokiko moldean eman (% 20), baina bigarren erdia bai: (33) *kisuskilli / kisuskiyi*, (115) *txirriñe*, (160) *argixtin*, (163) *matuste* eta (164) *malubi*.

5.5. Gaztelaniaren eragina

Gaztelaniatik hartutako mailegu afranko ditu Imozko euskarak, eta lehenagoko zein oraingo hiztunek naturalki erabiltzen dituzte: (221) *akordatzen*, (185) *desayunoa*, (40) *ja(b)ona*, (173) *karakola*, (214) *karga*, (28) *kuartoa | abitezioa*, (186) *be(e)ndatu / be(e)ndu*, (207) *pariente*, (157) *primabera*, (73) *seko / sekatuik*, (219) *tapa*, (15) *undittu* eta abar.

Gaztelaniaren eragina, nolana ere, desberdin azaltzen da gazte eta adinekoengan gaur egun. Gazteei dagokienez, maiz erabiltzen ez duten hiztegia dela iruditzen zait, edo gaztelaniazko forma eman baitiet, halaxe eman dute haiek ere: (188) *baba* (Etx.), (58) *bajille* (Gol.), (91) *kapaz* (Etx.), (211) *karpintero* (Etx.), (55) *mareatuik* eta (78) *pantorille* (Gol.), tokiko doinu bereizgarrian eta zenbait ezaugarri dialektalez egokiturik badaude ere.

Aldiz, jende nagusiaren kasuan, gaztelaniaz eman dituzten hitz asko ohikotasunez erabilitakoak dira, txikitatik gaztelaniaz barneratu dituztenak —eta halaxe transmitituak ondorengoei ere—. Horren adibide dira honako hauek: (44) *anilloa*, (73) *arbola | flore | planta*, (137) *arkoiris*, (156) *diziembre*, (145) *eneroa*, (146) *febreroa*, (20) *entra(a)*, (151) *julio*, (150) *junio(a)*, (183) *kuajada*, (198) *kune*, (182) *lebadure*, (196) *leja*, (202) *monagilloa*,

(155) *nobiembre*, (99) *palillo*, (207) *pariente*, (169) *peska(d)u*, (153) *setiembre* eta (154) *o(k)tubre*, baita Goldarazko (56) *errero* eta Muskizko (155) *golondrina* ere. Hurrengo honetan, gisa berean, inongo dudarik egin gabe gaztelaniaz eman dute den-denek: (54) *pato*.

Joan den mendeko lekukotasunek, ordea, euskal formak dakartzate. Ikus ditzagun: (156) *abendue*, (207) *aide*, (169) *arrai*, (155) *azaroa*, (44) *eaztune*, (20) *eskaratza*, (150) *ga(rag)artzaroa*, (183) *gaztambera*, (145) *izotzille*, (137) *jainkoam / jangoikuam paxa*, (151) *garille | uzta*, (154) *lastalle*, (196) *lix(u)ondoa*, (202) *meza lagun(t)zalea*, (182) *orantza*, (146) *otsa:lle / otxaille*, (198) *seaska* eta (153) *urrie*. Argitu beharretan naiz, zenbait adibidetan erdal forma ere ageri zaigula XX. mendeko inkestetan ere —euskal formekin batera—: konkretuki, (44), (198) eta (207) itemetan. Orduantxe hasia zen gaztelania toki gehixeago hartzen Imotz aldeko herrixketako gizarte txikietan.

Orain arte azaldutakoa frankismoaren abaroan esplikatzen ahal da. Aintzat har dezagun, adineko elkarrizketatuak frankismoko urteetan sortuak direla, eta José María Sánchez Carrión *Txepetx* (1972) hizkuntzalariak deituriko *castellanización*²² prozesua areagotu zuela diktadurak. Frankismoak euskararen prestigio-eza zorrotzu zuen, eta euskara bera debekatu. Honatx Nafarroako euskal hizkuntza-komunitatearen bilakaeraren datuak: 1863. urtean % 30, 1935. urtean % 17 eta 1991. urtean % 10 (Erize 1997: 268). Elizaren eta Eskolaren eskuak berebiziko garrantzia izan zuen erdalduntze-prozesu horretan. Nolanahi ere, jakin, badakigu gure hiru herrietan mezak euskaraz esaten mantendu zirela Espainiako Gerra Zibila aitzin (Dronda 2007: 291), nahiz eta, katiximaren irakaskuntzari dagokionez, ohikoagoa dirudien gaztelaniaren presentzia, predikuan baino; beharbada eskolaren eraginez, non beti gaztelaniaz irakasten zen katixima (Dronda 2007: 295). Eskualde honetan eskolak ahalmen eztabaidaezina izan zuen haurren erdalduntzean.²³

²² «*Castellanización* significa introducción del castellano, no pérdida del vasco. Cuando aquella ocasiona ésta, la castellanización es entonces también deseuserización» (Sánchez Carrión 1972: 25).

²³ Frankismoaren ondorioez gehiago jakiteko, ikus Fernandez de Muniain, 2023: § 4.6. atala.

Guziarekin ere, Imozko etxeetan gero eta ezagunagoa duten euskara estandarri esker, eta, nola ez, euskal alfabetatzeari esker, aurreko mendean —eta mendez mende— erdaldundutako euskal hitz batzuk bueltatzen ari direla dirudi: (169) *arraye*, (44) *e(r)aztun*, (226) *jantzi*, (198) *seaska*...; bai eta hilabete batzuen izena ere, hala nola (156) *abendue*, (155) *azaroa*, (146) *otsaille* / *otsaye* eta (151) *uztaille*.

5.6. Termino zaharkituak

Nabarmena da, duela mende erdiko lexiko franko ez dela dagoeneko erabiltzen, edo termino berriagoez ordezkatuak izan direla, aurreko ataletan frogatu den bezala. Aldagai lexikalari begiratu diogu eta horixe da, hain zuzen ere, arinen eta bizien berdintzen hasten dena. Elkarrizketatutako jende nagusia izen zaharrez oroitzen da, gehienetan; gazteendako, aldiz, sekula aditu gabeak dira horietako batzuk. Ikerketa honek, berebat, berretsi egiten du orokorrean adinduak kontserbatzaileagoak diren ideia.

Hona hemen gazteek ezagutzen ez dituzten edo barneraturik ez dituzten zenbait hitz: (56) *a(r)otza*, (188) *erdea*, (13) *erte* | *lertu*, (201) *eskuazpie*, (150) *garagarzaroa*, (151) *garille*, (183) *gaztambera*, (187) *gernu*, (145) *izotzille*, (194) *ke(d)arra*, (49) *ki(r)etsa*, (154) *lastalle*, (195) *lixu*, (111) *makarrak*, (175) *matalle*, (182) *orantza*, (30) *txapitela*, (7) *txirrimiste*, (184) *urriñe*, (153) *urrie* ('iraila'), (176) *urriñe* eta (12) *zola* / *zolue*. Horietako askok lehengo bizimodu edo betebeharrekin lotura dute, eta batzuk zeharo ezezagunak zaizkie; beste batzuk, berriz, aditutakoan gogorarazi dituzte. Hilabeteen izenez denaz bezainbatean, maiz helduek berek ere ez dituzte ezagutzen. Berriz ere, gazteen arteko aldea aipatu beharra da: izan ere, 30 urte eta koska dituzten gazteek izendatu dituzte, besteak beste, (167) *alorra*, (124) *ansarona*, (24) *aska* | *aspille*, (69) *baru(r)ik*, (26) *bixitze*, (43) *burnie*, (20, 21) *eżkaatza* / | *kalzada*, (9) *giltze*, (88) *kolkoan*, (118) *larra*, (164) *matxutxe*, (202) *meza launtzalea*, (87) *ollanda*, (63) *ooldi(g)oa*, (9) *soliboak*, (10) *zure* eta (211) *zurgine*, —ez, ordea, 18 urteko gazteak—. Goldarazko gazte bati, berriz, (58) *untzik* okurritu ez eta, gaztelaniara jo du kasu horretan.

Hori hala izanik ere, lañoki gehitu beharra dut, oso kontuan hartu behar ditugula unean unekoa izatearen mugak: hizketa axologabeen naturalki botatako adierazpideak baliteke presiopeko momentu batean ez okurritzea.

Begira diezaiegun, azkenik, kasik galdurik dauden hitz eta aldaera batzuei, eta galdutzat har ditzakegun beste batzuei. Dirudienez, hitzak aisekia-go ordezkatu dituzte imoztarrek, baina aldaera-kopurua ere ez da makala. Muskitzek hasi du, argi eta garbi, ahanzturara kondnaturikoen zerrenda: forma hauen % 77 inguru Muskizko orain arteko euskarari zegokion.

10. taula. Bateko, forma zaharkituak eta, besteko, dagoeneko galdurikoak

Zaharkiturik gelditzen ari diren formak		Galduak dauden formak	
Hitzak	Aldaerak	Hitzak	Aldaerak
(161) <i>arratsean</i>	(247) <i>atzena</i> /	(197) <i>asporie</i>	(254) <i>beño</i> 'baina'
(226) <i>bezittu</i>	<i>atzenekoa</i>	'begizta'	(208) <i>neskako</i>
'bezitu'	(162) <i>bago</i> 'pago'	(145) <i>izotzille</i>	'neskatxa'
(20, 21) <i>ezkaatza</i>	(227) <i>biluxi</i> 'biluzi'	'izotzil, urtarril'	(209) <i>neskato</i> (GN,
'ezkaratz'	(232) <i>erran</i>	(150) <i>(g)aartzaroa</i> /	I)
(21) <i>galtzada</i> /	(220) <i>ingeriitten</i> /	<i>gara(g)arzaroa</i>	(141) <i>orzeune</i>
<i>kalzada</i>	<i>ingiritzen</i> 'igeri	'garagarril, ekain'	'ortzegun'
(183) <i>gaztambera</i>	<i>egiten</i> '	(151) <i>garille</i> 'garil,	(142) <i>orzillera</i>
'gaztanbera'	(243) <i>iruetanogei</i>	<i>uztail</i> '	'ortzilrale'
(9) <i>giltze</i>	'hiruretan hogeï'	(154) <i>lastalle</i> 'lastail,	
(137) <i>jainkoam</i> /	(226) <i>jauntzi</i> 'jantzi'	<i>urri</i> ' (GN)	
<i>jangoinkoaren paxa</i>	(244) <i>lauetanogei</i>		
'ortzadar'	'lauretan hogeï'		
(42) <i>kanaïta</i> /	(163) <i>mastutxe</i>		
<i>kanebite</i> 'ganibet'	'martutz, masusta'		
(49) <i>kietsa</i> / <i>kiratsa</i>	(158) <i>udondo</i>		
(221) <i>o(ro)itzen</i>	'udazken'		
(30) <i>txapitela</i>	(105) <i>yaiz</i> 'haiz'		
(7) <i>txirrimiste</i>			
(55) <i>txoratuik</i>			
'zorabiatuik'			
(184) <i>urïne</i> 'urin'			
(GN, I)			
(153) <i>urrie</i> 'irail'			

5.7. Unean unekoaren mugak eta idiolektoa

Oso presente izan behar dugu, inkestatuari une jakin horretan okurritutako emaitzak bildu ditudala: hau da, baliteke behin baino gehiagotan elkarriketatuak zernahi erantzun eman izana, zehatz-mehatz galdetzen zitzaionera bere burua mugatu gabe; edo, bestela, buru-argialdirik gabeko momentu batean suerta daiteke berriemailea eta batere erantzunik ez eman, nahiz eta normalean delako hitz hori erabili. Horrexegatik, ez ditzakegu eskuratutako datuak guzizko egiaztat har, ez eta orokortu ere: momentu zehatz bateko burutapenak dira.

Horrez gain, pertsona orok idiolektoa du, ezaugarri bereziak eta aparte-koak, mintzatzeko norik bere estilo propioa, inkontzientea betiere. Alde horretatik, gizabanako bakoitzak berezko aldaerak ditu.

Aldakortasuna, maila indibidualean ere sumatu dut nik, beraz. Begira diezaiegun (6), (18), (22) eta (33) adibideei; Goldarazko bi gazteen kasuan (6) *manille / maniyera*, (18) *pillari / piyari*, (22) *ikullu / ikuyu* eta (33) *kisuski-lli / kisuskiyi* ditugu —senide dira eta yeismorik gabeko eredia jaso dute aita-amengandik—. Bi hitz /ll/ fonemaz: adinekoen elean bizirik dirauen hotsa da, baina gainbehera ikus daiteke gazteen hizkeran yeismoa dela eta, hau da, /y/ hotsaren nagusitasunaren ondorioz: *atorriyune* (114), *ikuyu* (22), *iru paliyo* (99), *iyen da* (89), *iyuntzeako* (161), (8) *l(e)atiye, miye* (245), *oyoak* (87), *aniyoa* (44), *koapiyoa* (197) eta abar. Imozko adibidea ez da kasu isolatua: oro har eremu zabalagoan hedatzen ari den ordezkatzeta da: gazteak albokari palatala ahoskatzeko gaitasuna galtzen ari dira —gatzelaniaren eraginez, hizkuntza horretan neutralizazio prozesua lehenagokoa baita—, eta gehienetan belarriz hautematekoa ere bai.

Besterik da hautu kontzienteen auzia. Hiztuna erabakitzeko gaitasunaz baliatzen da eta hautaketa kontzienteak egiten ditu. Gertatu izan da, bi erantzun ageri diren itemetan, hiztunak horietako bat bertako forman ematea, ezaguna duelako, baina egiaz bestea erabiltzea, hots, «kanpokoa». Bere burua zuzentze horren erakusgarri dira, besteak beste, gazte etxalekuarraren (72) *artzañe / artzaye*, (212) *gaixotue | gaizki*, (38) *itxi | ertsizazu*, (135) *odeye | kalma* eta (169) *arraye | peskadue*; eta goldaraztar gazte baten (222)

aztu | *atzendu*, (224) *ebastu* / *ebatsi*, (233) *gurasoai* | *attetaamai* eta (139) *tximiste* | *oñazture* adibideok. Orobat, gazte guziek holaxe jokatu dute (140) itemean: *erloju* / *erleju*. Gazteriaren adibideak ekarri ditut baina jokamolde hori adinekoek ere agertu dute behin edo beste.

5.8. Hitz bat, hainbat adiera

Zenbaitetan, hitz berak eremu geografikoaren araberako esanahia hartzen du: hurbila baina ezberdina. Kilometro gutxian, beraz, hitz berberak adiera ezberdina izan dezake, nahiz eta eremu semantiko berekoak diren gehienetan. Honako bitxikeria dugu gaztelaniazko CUCHILLO eta NAVAJA (42) galderan, adibidez: muskiztarrarendako lehena *kanaita* da —eta hala zen bere aitatzirendako ere—, eta bigarrena *labana*; aldiz, etxalekuar baten ikuspuntutik, alderantziz da. Apalauzak ere nahaste horren berri eman zuen, *kanebita* / *laban* bereizketari dagokionez, eta zera dio, hitzun guziak ez datozela bat hitzaren esanahia azaltzeko orduan (2010: 423).

Joan den mendeko etxalekuarrendako gaztelaniazko ENTRADA (20), *eskaratza* zen; aldiz, goldaraztar batek hori bera ihardetsi du SUELO EMPREDRADO (21) galderan (*ezkaatza*). Aztertu beharko genuke nola eman zen enunztiatua joan den mendean, apika bi informatzaileek kontzeptu berberari erreferentzia egin ziotelako, baina inkestagileek desberdin hauteman.²⁴

Ildo beretik, (112) *atzaparra* hitzak gazt. ‘manazas’ zentzua du, hots, zentzu zakarra, baina muskiztarrarendako *beatx guziek* dira, eta goldaraztar baten ustez, berriz, animaliena izendatzeko balio du. Etxalekun (114) *nararra* adjektiboa esanez gero, ‘ilun samarra edo zikintzeko erraza’ ulertzen dute eta Goldaratzan, alderantziz, gaztelaniazko ‘estampado’. Kasu horretan, hitz berak aurkako esanahia du. Bestalde, Muskitzen (176) *urriñ* hitzak ‘usain

²⁴ EHHAK honelaxe planteatu zuen, gutxi gorabehera: ‘ate inguruko lekua, sartu eta jarraian dagoena: gaztainak, su-egurra, gurdia eta baserriko hainbat tresna uzteko lekua, baita garia ere’ (ikus EHHAn, s. v. *ezkaratz*). Hori esanda, eskualdean *ezka(r)atza* ageri da nagusiki, baina oharretan ikus dezakegunez, etxalekuarrak *etxe kaltzada* erantzun zuen. Ematen duenez, (20) eta (21) itemak hurbil samarrak dira hitzunen ikuskeran.

goxoa' zein 'zikina' adierazten du, eta Goldaratz ez besteko Imozko herrietan, ordea, 'usain goxoa' da *urrñi* eta 'zikina', berriz, *usai* (Apalauza 2010: 426). Goldaratz denak dira *usai* (*Ibidem*).

Nahas-mahas ederra dago, adibidez, (115) *iñarea* / *txirriñe* erantzunean. EHHAREN arabera, gazt. 'golondrina' eta 'vencejo' hitzen artean nahasketa handia dago: «Gertatzen da, galdera honetako hegazia eta ondoko galderakoa 'vencejo / martinet' ez dituztela ongi bereizten lekuko guztiek». Ibarak ere horixe bera dio: «... askotan, hurbil dauden bi terminoren arteko bereizketa falta gertatzen da, batzuetan ezagutzen ez delako izan daiteke. Esaterako, *txirriñe* erabiltzen da hiru izen hauek bereizteko 'vencejo', 'golondrina' eta 'avión' (1997: 127)». Apalauzak erantsi dio: «Oskotzen eta Muskitzen, hala ere, esan digute ez direla gauza bera *golondrina* eta *txirriñe*; *golondrina* zuri-beltza izaten da, eta *txirriñe*, berriz, beltz-beltza» (2010: 445). *Elhuyar Hiztegi*an 'vencejo' hitzarendako *txirrin* dugu. Hartara, badirudi ez dela atzo goizekoa gazt. 'golondrina' eta 'vencejo' hitzen arteko nahastea. Gure lanean, herritarren ikuskera aldatu egiten da alde batetik bestera, eta norbanako batetik bestera ere bai, eta beste batzuek duda egin dute.

Ukullu eta *behitegi* hitzen arteko zalantza-dantza ere nabaritu dut. Jo dezagun (19), (22) eta (25) itemetara: gazt. 'planta baja', 'cuadra' eta 'cuadra de vacas', hurrenez hurren. Etxalekuarrek denari *beittie*²⁵ deitzen diote, berriemaile muskiztarrak denari *ukullu*, eta goldaraztarrek bereizi egiten dute: lehenari *beittii* oro har, eta bigarrenari eta hirugarrenari *ikullu*.

Orobat (120) itemean, XX. mendeko berriemaileek *larru* erantzun zuten, eta gaur egun *azal* eta *larru* bildu dut Etxalekun: lehena gorputzekoa dela diote eta bigarrena, gazt. 'cuero (animal)'. Halakorik ez dute pentsatzen gainerako adindunek. Antzeko ezadostasuna sumatu dut (228) galderan: gazt. 'encontrar' galdegin eta batzuek *aurkittu* | *opatu* / *upatu* ihardetsi dute, eta beste batzuek, *billatu* / *billetu*. XX. mendeko erantzunetan ere gauza bera dugu, bietarik, alegia.

Aurreko puntuan zehaztu dudan gisan, azaldu berri dudana ere ohiko gertakaria da edozein hizkuntza-erkidegotan.

²⁵ *Behitegi* nahiz *beheiti* izan daitekeena, bidenabar esateko.

6. Ondorioak

Azterturiko hizkuntza-aldagaia lexikoa izan da, adina aldagai sozialaren arabera: alegia, lan bariazionista honetan, belaunaldien arteko aldaera lexikalei erreparatu diet. Izan ere, aldaketa linguistikoaz ohartzeko, egoki da lekuko zaharrak eta gazteak baliatzea, hizkuntza nora mugitzen ari den ikusteko (Camino 2009: 302).

Imozko euskarak —«euskarek»— mende erditsuan izandako zenbait aldaketa bildu ditut. Kasu honetan, faktore estralinguistikoek hizkuntzaren aldakortasunean eragin zuzen-zuzena izan dutela baiets dezaket: dokumentaturiko aldaketak, askotan, faktore soziokulturalekin lotzen dira, bai eta eragile psikologikoekin ere, halako hizkeraren ustezko prestigioak eragin handia baitu hizkuntza-aldaketetan. Izan ere, kontuan har dezagun, hiztunek egiten dituzten balorazioak hizkuntza-aldaketaren oinarrian daudela.

Azken mende erdion nabarmenki aldatu da Imozko errealitate soziolinguistikoa: joan den mendeko lexiko franko ez dela gaurgero erabiltzen erakutsi dute emaitzek; hitz asko praktikoak ez, edo imoztarren egunerokoaren parte ez dira. Hiru belaunaldi aski dira, hizkuntza-sistema batetik guziz bestelakoa den beste batera jauzi gaitza egiteko (Camino 2009: 73). Horrenbestez, 3. hipotesia ontzat ematen dut. Baiezta daiteke, halaber, batasunaren oihartzunak eta gatzelaniaren nagusitasunak dutela indar gehien Imozko oraingo hiztunengan, gazteengan batez ere. Belaunaldi zaharrenak —hots, XX. mendeko berriemaileek— ezaugarri dialektalei hobeki eusten die; beraz, 1. hipotesia ere bete da.

Berrikuntza bat hizkuntza-aldaketa bilaka dadin, gizarteratu beharra da (Camino 2009: 33). Berrikuntzatat dauzkat azken urteotan pulunpatu diren adierak, besteak beste, (120) *azala* eta (12) *lurre*, gazt. ‘piel’ eta ‘suelo’, hurrenez hurren. Aldaketatzat, berriz, (182) *lebadura* / *lebadure* | *legamia* eta (183) *kuajada* | *mamia* har daitezke, osoki gizarteratu direnak.

Emaitzetara joz, mutur bateko eta besteko imoztarrek zenbait lexiko desberdin erabiltzen dutela erakutsi dut lehenik. Imozko euskara, bere txikian ere, ez da uniforme; aitzitik, hainbat barne-banaketa eta joera daude. Haatik, 1. taulan paratu ditudan adibideek berdintzera jotzen dute pixkaka-pix-

kaka, baina bildu izanak balio handia du, erakusten baitu, gutxienez XXI. mendearen lehen erdiraino, hola edo hala kasuan-kasuan, imoztarren ahotan bizirik iraun dutela.

Bigarrenik, Imozko euskarak aspaldixkotik Erdialdeko hizkeren ukituak dituela baieztatu dut. Dena dela, ikusi dugu, egungo hiztunen lexikoa gipuzkeratuz joan dela, eta aldaketa are nabarmenagoa dela ibarraren ekialdean (Muskitz). Argi dakusat bilakaera hori *Hegoaldeko* euskara batuak —gizartean gailendu den eredu estandarrak— eragin duela, ahantzi gabe gipuzkerak alderdi honetako herritarrengan zuen —eta duen— prestigioa, mendez mende transmititu dena.

Hirugarrenik, hizkerak uste baino eraginerrazagoak direla ohartu naiz: lehen, gizartea eskualdearen barnean mugitzen zen eta orain, ordea, bizimodu aldaturik, joan-etorriak, eskualdetik kanpo, ugariak dira. Horretara, beste euskalkietako hiztunekiko harreman-kopurua handitu da (Martínez 2010: 130), eta ukipen horrek aldaketak izateko aukerak ere gehiagotzen ditu (Martínez 2010: 122). Bizimoduaren homogeneizazioarekin batera, gainera, hizkerak berdintzea prozesu naturala da (Camino 2005: 161). *Dialect levelling* fenomenoaren baitan gaude bete-betean, dialektoen arteko homogeneizazio-prozesuan: aldaki markatuak orokorrenen mende daude eta murriztuz doaz, askotan ezerezeraino. Lehenak minoritarioak dira eta bigarrenak, aldiz, nagusiak geosozialki.

Imotzen aspaldikoa da Erdialdeko euskararen eta nafarreraren ezaugarrien arteko lehia. Azken urteotan, berriz, tentsioa Erdialdeko formen alde zorrotzen ari da. Eragile nagusi bati egotz dakiok: euskara batuak gipuzkeratik edan izana gehienbat, lexikoari dagokionez, behinik behin. Zuazok dioenez, XVIII. mendean gero, handituz joan da giputz euskararen ospea eta indarra eta, euskara batua euskalki horretan oinarritu denetik, askoz nabarmenagoa da haren eragina.²⁶ Hori dela eta, inguruko hizkerek, mendebaldekoek eta nafarrek batez ere, hari hurbiltzeko eta bat egiteko joera izan dute (Zuazo 2010: 37).

Eredu estandarra hartuko dut ahotan, laugarrenik: Imotza aldakortasuna ekarri duen faktore nagusia. Gaur egungo hiztunek hainbat izen zahar ter-

²⁶ Ikus euskalkiak.eus/eu/ezaugarriak.php (ERDIALDEKO EUSKARA atala).

mino berriez ordezkatu dituzte, eta euskaraz aritzean aldaera estandarreko aukera lehenesten dute, beren hizkeraren hitzen gainetik: gailendu den *Hegoaldeko batua*, alegia, estandarizazioaren bilakaera-prozesuaren argitan euskal gizarteak bidezkotu duena. Ukaezina da euskarazko irakaskuntzak, alfabetatzeak eta arauarekiko hartu-emanak aldaketa linguistikoa ekarri dutela. «Eskolako euskara»ren eragina gazteengan biziagoa da: erdialdeko hizkeren eragina gazteengan gehiagotan agertzea euskarazko alfabetatzearekin loturik dago hertsiki, eskolako euskara hori *Hegoaldeko batuaz* gorpuzten baita gehienik.

Gazteek estandarizazio-tasa adierazgarriena erakutsi badute ere, tokiko hainbat ezaugarriren galera helduengan hasia da. Eredu estandarren eragina jende nagusiarengan ere sumatu dut, maiz «imotzeraz» egokiturik egonik ere. Izan ere, adineko hiztunak ere ohituta eta harremanetan daude aldaera estandarrekin (komunikabideak, paisaia linguistikoa eta abar).

Gazteak herriko aldaeratik arauzko eredurantz nabarmenago desbideratzen ari diren arren, ezin esan dut estandarrenzko berdintze-joera lasterra dutenik, erdibidekoa baizik. 2. hipotesia neurri batean deuseztaturik geratu da. Deigarria da, hori bai, 20 urtekoaren eta 30 urte ingurukoaren arteko aldea: zenbat eta berriemailea gazteagoa, hainbat eta handiagoa nagusi den euskara estandarren eragina haren hizkeran.

Bestalde, ikerketak berretsi egiten du orokorrean adinduak kontserbatzaileagoak eta gazteak berritzaileak diren ideia. Normalean bertako aldaerak belaunaldi zaharretan hobeki gordetzen dira (Camino 2009: 73), baina zahartzaroak ez dakar ezinbestean gordetzailerik izatea, bereziki dialektoaren eta mintzo estandarren arteko lehia dagoen kasuetan (Camino 2009: 71).

Bosgarrenik, gaztelania dugu euskararen antzaldatze trinkoaren bigarren eragilea. Gazteak gizarte gaztelaniatuagoan hazi dira eta emaitzek horixe jarri dute agerian. Aldiz, jende nagusiaren kasuan, txikitik barneraturiko lexikoa dugu, frankismoak erdaldundu zuena, bereziki eskola frankistak, «hizkuntza nazional bat eta bakarra» baitzuen xede. Izan ere, XX. mendeko lekukotasunek euskal formak dakartzate egungo erdarazkoen ordez.

Seigarrenik, galbidean dauden hainbat formaren berri eman dut. Dirudienez, hitzak aisekiago ordezkatu dituzte imoztarrek, baina aldaera-kopu-

rua ere ez da ahuntzaren gauerdiko eztula... Nabarmentzekoa da, gainera, 11. taulan identifikaturiko formen % 77 inguru Muskizko orain arteko euskarari zegokiola. Berriz ere, errepika bera dakart: erdialdeko formak indar hartuz doaz, nafarrerazko formen kaltetan.

Azkenik, hitzunaren ezaugarri propioen ideia ere sendotu nahi izan dut: hautuak, lehentasunak, egokitzapenak, hizkuntza-jarrerak, ahoaren morfologia, aurrekoengandik hartutako eredu... Horiek guzietan gizabanakoaren hizkera berdingabea egiten dute, eta maila indibidual horretan ere aldakortasuna detektatu dut. Horretan, 4. hipotesia bete da.

Esanak esan, helburu gorena osoki erdietsi da: lexiko-lagin bat aztertuz, bariazioa baieztatu dut. Berretsi eta dokumentatu dut, aldakortasuna mendetik mendek, herriz herri, ekialdetik mendebaldera, belaunez belaun eta parekoz pareko gertatzen dela.

Bibliografia

ALEMAN, Sagrario eta Patxi SALABERRI ZARATIEGI (2008). *Sagrario Aleman Astitz euskaltzainaren sarrera-hitzaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

APALAUZA, Amaia (2005). *Hizkuntza-aldaketa Goldarazko hiztun-erkidegoan*. Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria lortzeko Lana (UPV/EHU). (Argitaragabea).

——— (2008). *Imozko euskara*. Nafarroako Gobernuak: Iruñea.

——— (2010). *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Gasteiz: UPV/EHU.

——— (2012). *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Iruñea: Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernuak.

ARIZTIMUÑO, Borja (2010). «Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak», *Uztaro* 72: 79-96.

ARTZELUS, Alexander (2019). «Garaziko hizkuntza-aldakortasuna geografian, adinaren eta generoaren arabera» *FLV* 127: 153-188.

——— (2020a). «Garaziko euskararen azterketa diafasikoa», in *Fontes Linguae Vasconum 50 urte*, E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga eta B. Ariztimuño (ed.). Iruñea: Nafarroako Gobernuak: 63-79.

——— (2020b). «Garaziko gazteen hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera», in *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*. Koldo Zuazori gorazarre, I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde eta K. Ulibarri (ed.). Bilbo: UPV/EHU: 89-113.

——— (2021). *Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna*. Gasteiz: UPV/EHU.

AURREKOETXEA, Gotzon (1992). «Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa», *Uztaro* 5: 59-109.

——— (2004). «Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak: ikuspuntu teorikotik begirada bat», *Uztaro* 50: 45-57.

——— (2008). «Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskararen», *Euskalingua* 12: 17-26.

——— (2021). «Hizkuntza-aldagaien aldakortasuna: lehen hurbilketa», *Uztaro* 118: 95-114.

CAMINO, Iñaki (2004). «Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian», *Euskera* 49 (1): 67-102.

——— (2005). «Euskal soziolinguistikaren atarian», in *Nerekin yaió nun. Txillardegiri omenaldia*, P. Etxeberria eta H. Knörr (ed.), Iker bilduma, 17. zenbakia. Bilbo: UPV/EHU eta Euskaltzaindia: 157-187.

——— (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

CAMPBELL, Lyle ([1998] 2004). *Historical Linguistics. An Introduction*. Press Cambridge, MA: MIT Press. (1. edizioa: 1998, Edinburgo: Edinburgh University).

CHAMBERS, Jack eta Peter TRUDGILL ([1980] 1994). *La dialectología*. Madrid: Visor.

CHOMSKY, Noam (1957). *Syntactic structures*. Paris: The Hague.

CONDE SILVESTRE, Juan Camilo (2007). *Sociolingüística histórica*. Madril: Gredos.

——— eta Juan Manuel HERNÁNDEZ CAMPOY (ed.) (2012). *The handbook of historical sociolinguistics*. Malden, MA: John Wiley & Sons.

COSERIU, Eugenio (1973). *Sincronía, diacronía e historia. El problema del cambio lingüístico*. Madril: Gredos.

COYOS, Jean-Baptiste (2019). «Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: pertzepziozko dialektologian oinarritua den inkestaren bigarren zatia», *Euskera* 64: 255-290.

DAVANT, Jean Louis (2021). «Iparraldeko batua?», *Argia*. (Argitalpen digitala). Eskuragarri: [<https://www.argia.eus/albiste/Iparraldeko-batua2>].

DRONDA, Francisco Javier (2007). «El clero navarro ante el euskera en los años de entreguerras», *FLV* 105: 271-298.

EGUSKIZA, Naia (2019). *Hizkuntza-aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian*. Leioa: UPV/EHU.

ENSUNZA, Ariane (2014). «Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait», *ASJU* 46 (2): 177-244.

——— (2015). *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. Gasteiz: UPV/EHU.

——— (2020). «Busturialdeko euskararen aldakortasuna: “zait”», in *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*, I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde eta K. Ulibarri (ed.). Bilbo: UPV/EHU: 197-209.

ERIZE, Xabier (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

ETCHEBEST, Xantiana (2017). *Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa [Doktorego-tesia]*. Paue: UPPA eta UPV/EHU. (Argitalpen digitala). Eskuragarri: [<https://univ-pau.hal.science/tel-02867090/document>].

ETXEBARRIA AROSTEGI, Maitena (2000). *Variación sociolingüística en una comunidad bilingüe*. Bilbo: UPV/EHU.

——— (2002). «Sobre variación lingüística», in *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, X. Artiagoitia, P. Goenaga eta J. A. Lakarra (ed.), *ASJUren Gehigarriak bilduma*, 44. zenbakia. Bilbo: UPV/EHU: 199-230.

ETXAIDE, Ana María (1989). *El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas (1965-1967)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

EUSKALTZAINDIA (1998). «Euskara batuaren ahoskera zaindua», *Euskera* 43: 485-490.

——— (2005-2020). *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. (Argitalpen digitala). Eskuragarri: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=565&Itemid=466&lang=eu].

FERNANDEZ DE MUNIAIN, Alazne (2023). *Adinaren araberako bariazio lexikoa Imozko hizkeran*. Inkesta linguistikoak [Master Amaierako Lana]. (UPV/EHU).

FRANCIS, Winthrop Nelson (1983). *Dialectology. An Introduction*. London eta New York: Longman.

GARCÍA-PALOMINO, Azler (2021). «Dialekto-berdintzeari Lezamatik begira: adinaren, generoaren eta hizkuntz jarrerren garrantziaz», *FLV* 131: 113-145.

GARMENDIA MUNDUATE, Larraitz (2008). «Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskararen: ikuspegi soziolinguistikoa», in *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. bilzarra. Hizkuntza gaiak, Iker bilduma*, 19. zenbakia. Bilbo: Euskaltzaindia: 101-111.

GEZURAGA, Alots (2010). «Burla, exclusión y persecución del euskera en España», *Nabarralde*. (Argitalpen digitala). Eskuragarri: [<https://nabarralde.eus/burla-exclusion-y-persecucion-del-euskera-en-espana/>].

HERNÁNDEZ CAMPOY, Juan Manuel (1993). «Dialectología tradicional, sociolingüística laboviana y geolingüística trudgilliana: tres aproximaciones al estudio de la variación», *Estudios de Lingüística* 9: 151-181.

——— (2016). *Sociolinguistic styles*. Malden: Wiley-Blackwell.

HYMES, Dell Hathaway (1972). «On Communicative Competence», in *Sociolinguistics: Selected Readings*, J. B. Pride eta J. Holmes (ed.). Harmondsworth: Penguin: 269-293.

HUARTE LERGA, José Vicente (2003). *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

IBARRA, Orreaga (1994). *Ultzamako euskararen azterketa*. Gasteiz: UPV/EHU.

——— (1995). *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

——— (1997). *Ultzamako hizkera. Ultzama, Anue, Atetz, Basaburu Nagusia, Imotz, Odieta eta Lantz*. Lekunberri: Plazaola Partzuergo Turistikoa.

——— (2014a). «Hizkuntza-aldakortasuna: euskara baturanzko joera elkarrizketen bidez azterturik», in *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro*, I. Aduariz eta R. Urizar (ed.). Eibar: UEU: 213-229.

——— (2014b). «Egungo gazte-mintzairaren hainbat ezaugarri», in *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, I. Epelde (arg.). Donostia: UPV/EHU eta GFA: 65-85.

——— (2018). *El euskera de ayer y hoy: Variación y contacto*. Iruñea: Pamiela.

JIMENO JURIO, Jose Maria (1998). *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza. Basaburua-Imotz*, XLIV. liburukia. Nafarroako Gobernua: Argitalpen Funtsa.

KASARES, Paula (1999). «“Aunitz dakit, bizitzen badakit”. Baztan (Nafarroa), hizkuntzaren antropologiatik aztertua: hizkuntzen kategorizazioa komunitate elebidun batean», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 30: 79-94.

LABOV, William ([1972] 1983). *Sociolinguistic Patterns*. Philadelphia: U. Pennsylvania Press. (Itzulpena: *Modelos sociolingüísticos*. Madril: Cátedra).

LÓPEZ MORALES, Humberto (1989). *Sociolingüística*. Madril: Gredos.

LUJANBIO, Oihana (2008). «Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskarán», *Uztaro* 80: 77-97.

——— (2014). «Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskarán: emaitza gehiago», in *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro*, I. Aduriz eta R. Urizar (ed.). Eibar: UEU: 231-255.

——— (2016). *Hizkuntza-aldakortasuna euskarán. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa*. Gasteiz: UPV/EHU.

MARTÍNEZ, Loren V. (2010). «Hizkuntzaren aldakortasuna», in *Soziolinguistikaren eskuliburua*, A. Zarraga, J.-B. Coyos, J. M. Hernández, L. Joly, I. Larrea, L. V. Martínez, B. Uranga eta P. Bilbao (ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren eta Soziolinguistika Klusterra: 85-131.

MITXELENA, Koldo ([1977] 2011). «La lengua vasca», in *Luis Michelena. Obras Completas*, J. A. Lakarra eta I. Ruiz Arzalluz (ed.), IV. liburukia. Donostia eta Gasteiz: UPV/EHU: 13-66.

——— (1981). «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU* 15: 289-313. (Orain: in *Luis Michelena. Obras Completas*, J. A. Lakarra eta I. Ruiz Arzalluz (ed.), VII. liburukia. Donostia eta Gasteiz: UPV/EHU: 517-543).

MONTGOMERY, Chris eta Joan BEAL (2011). «Perceptual dialectology», in *Analyzing variation in English*, W. Maguire eta April McMahon (ed.). Cambridge: Cambridge University Press: 121-150.

MORENO FERNÁNDEZ, Francisco (2009). *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*. Barcelona: Ariel.

ORMAETXEA, Jose Luis (2008). «Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa», *FLV* 108: 249-262.

PAGOLA, Rosa Miren (1992). *Euskal fonetika Nafarroan*, I. eta II. liburukiak. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

PRESTON, Dennis (1999a). «Introduction», in *Handbook of Perceptual Dialectology*, D. R. Preston (ed.), I. liburukia. Amsterdam: John Benjamins.

——— (1999b). «Introduction», in *Handbook of Perceptual Dialectology*, D. R. Preston (ed.), II. liburukia. Amsterdam: John Benjamins.

REGUERO, Urtzi (2016). «Goi-nafarrera arkaiko eta zaharraren azterketan sakonduz: periodizazio saiorako langaiak», *ASJU* 50 (1, 2): 1-17.

——— (2017). *Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak*. Gasteiz: UPV/EHU.

——— (2019). «Aportaciones a la lexicografía dialectal del alto-navarro», *La investigación en lexicografía hoy*, II. liburukia (*Diccionarios bilingües, lingüística y uso del diccionario*). Valentzia: UV: 537-552.

SÁNCHEZ CARRIÓN, José María (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Iruñea: Viako Printzea Erakundea eta Nafarroako Foru Aldundia.

——— (1991). «La herencia de Koldo Mitxelena», in *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, ASJUren Gehigarriak bilduma, 14. zenbakia. Bilbo: UPV/EHU: 1317-1334.

SANKOFF, Gillian (2002). «Cross-Sectional and Longitudinal Studies in Sociolinguistics». (Argitalpen digitala). Eskuragarri: [<https://www.ling.upenn.edu/~gillian/LongitStudies.html>].

SANTAZILIA, Ekaitz (2009). «Luzaideko hizkuntza bariazioa», *FLV* 111: 219-248.

TRASK, Robert Lawrence (1996). *Historical Linguistics*. Londres: Arnold.

TRUDGILL, Peter (1986). *Dialects in contact*. Oxford: Blackwell.

UNAMUNO, Lorea (2010). «Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran», *Euskalingua* 16: 41-48.

——— (2016). «Adinaren araberako bariazio sintaktikoa euskaran», in *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, G. Aurrekoetxea, J. M. Makazaga eta P. Salaberri (ed.). Bilbo: UPV/EHU: 279-288.

URGELL, Blanca (2018). «Lehen Euskara Modernoa», in *Euskararen historia*, J. Gorrotxategi, I. Igartua eta J. A. Lakarra (ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: 543-657.

YRIZAR, Pedro de (1981). *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 1. liburukia. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

ZARRAGA, Arkaitz (2010). «Soziolinguistikari sarrera», in *Soziolinguistikaren eskuliburua*, A. Zarraga, J.-B. Coyos, J. M. Hernández, L. Joly, I. Larrea, L. V. Martínez, B. Uranga eta P. Bilbao (ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra: 21-81.

ZUAZO, Koldo (1998). «Nafarroako euskal hizkerak», in *Nafarroako hizkerak: Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak (1997, Iruñea)*, I. Camino (ed.). Bilbo: UEU: 1-22.

——— (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.

——— (2003). *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.

——— (2006). *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Oñati: Badihardugu Euskara Elkartea.

——— (2010). *El euskera y sus dialectos*. Irun: Alberdania.

——— (2014). *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

——— (2015). *Euskalkiak*. (Argitalpen digitala). Eskuragarri: [<http://www.euskalkiak.eus>].

Hizkuntza Garapeneko Nahasmenduaren adierazle bila euskal hiztunen ahotan: izen-eta aditz-morfologiaren erabilera

En busca de marcadores del Trastorno del Desarrollo del Lenguaje en vascoparlantes: morfología nominal y verbal

À la recherche de marqueurs Trouble du Développement du Langage en basque: morphologie nominale et verbale

Looking for Developmental Language Disorder indicators in Basque : nominal and verbal morphology

LEYARISTI OÑEDERRA, Ainhoa
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), ELEBILAB
ainhoa.leyaristi@ehu.eus
<https://orcid.org/0009-0003-0754-8239>
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.277>

Noiz jaso: 2023-12-29
Noiz onartua: 2024-03-04

Hizkuntza Garapeneko Nahasmendua (HGN) 30 ikasletatik bik duen hizkuntza-arazoa da (Norbury eta beste 2016), baina sarri oharkabean igarotzen da arazoarekiko ezjakintasuna eta diagnostikorako erronkak direla medio. Lan honek HGNaren euskarazko adierazleak identifikatu nahi izan ditu, berariaz lan honetarako diseinaturiko zein estandarizatzet-bidean dauden tresnak baliatuz. Emaitzek erakutsi dute, *-ela* eta *-en* konplementatzaile-markekin loturiko hutsak HGNaren balizko adierazleak direla. Gainera, hizkuntza-nahasmendurik ez duten nerabe euskaldunek ere adizki forma okerrak ekoizten dituzte.

Gako-hitzak: Hizkuntza Garapeneko Nahasmendua (HGN), euskarazko adierazleak, konplementatzailea eta adizkia.

El Trastorno del Desarrollo del Lenguaje (TDL) es una patología lingüística que afecta a dos de cada 30 niños (Norbury *et al.* 2016), pero generalmente pasa desapercibido a causa del desconocimiento y de las dificultades para el diagnóstico. Este proyecto ha tratado de identificar algunos marcadores del TDL en el euskera, mediante instrumentos diseñados *ad hoc* para esta investigación, así como otros en vías de estandarización. Los resultados sugieren que los errores relacionados con los complementadores *-ela* y *-en* son posibles indicadores del TDL, y que los jóvenes vascoparlantes sin TDL también cometen fallos en la morfología verbal.

Palabras clave: Trastorno del Desarrollo del Lenguaje (TDL), indicadores en el euskera, complementadores y morfología verbal.

Le trouble du développemental du langage (TDL) est une pathologie linguistique qui touche deux élèves sur 30 (Norbury *et al.* 2016), mais passe généralement inaperçu en raison de l'ignorance et des difficultés liées au diagnostic. Ce projet tente d'identifier quelques indicateurs de TDL en basque. Pour cela, on a utilisé du matériel conçu pour cette expérience ainsi que des instruments en cours de normalisation. Au vu des résultats, les erreurs liées aux complémentateurs *-ela* et *-en* sont des indicateurs potentiels du TDL en basque. De même, les jeunes Basques sans trouble du développement produisent également des formes verbales erronées.

Mots-clés : trouble développemental du langage (TDL), indicateurs en basque, marque du complément et morphologie verbale.


Developmental Language Disorder (DLD) affects two out of every 30 students (Norbury *et al.* 2016), but generally goes unnoticed due to lack of awareness and difficulties in diagnosis. This project has attempted to identify some indicators of DLD in Basque by using tools designed for this experiment as well as others in the process of being standardized. In light of the results, errors related to the *-ela* and *-en* complementizers may be potential indicators of DLD in Basque, though young Basque speakers without DLD also make mistakes with verbal forms.

Keywords: Developmental Language Disorder (DLD), indicators in Basque, complementizers and verbal morphology.

LEYARISTI OÑEDERRA, Ainhoa (2024). «Looking for Developmental Language Disorder indicators in Basque: nominal and verbal morphology», *Euskera ikerketa aldizkaria*, 69, 1: 161-205.

1. HGN: zer da eta nola antzeman?

Hizkuntza Garapeneko Nahasmendua (aurrerantzean HGN) hizkuntzazko jarduera orotan (irakurketa, idazketa, ahozko ekoizpen nahiz ulermenean) ager daitekeen hizkuntza-arazoa da (Bishop eta beste 2017). HGNak, ordea, berezkoa du aldeaniztasuna; hau da, adierazleak zein horien adierazkortasun-maila hizkuntzatik hizkuntzara alda daitezke eta, gainera, hizkuntza bera darabilten hiztunen artean ere ezberdintasunak daude. Beraz, hainbat dira HGNaren ezaugarritzat jo direnak, baina horien denon irudi orokor eta argigarria eskaintzeko, lau esparrutan multzokaturik aurkeztuko ditut 1. irudian.



Hasteko, adierazle biografikotzat sailkatu ditut hizkuntza-jabekuntzaren prozesua, sexua eta familiako aurrekariak. HGN duten haurren % 25 hiztun berantiarrak dira eta zenbateko handi batek (% 18-48) familia barruan hizkuntza-arazoen aurrekariak ditu (Sanz-Torrent; Andreu 2021). Gainera, mutilek neskek baino 1.73ko probabilitate handiagoa dute hizkuntza-arazo horrekin diagnostikatuak izateko (Flax eta beste 2003; Leonard 1998).

Ezaugarrioi adierazle kognitiboei lotutakoak erantsi behar zaizkie. Izan ere, HGNa dutenek prozesamendu- eta epe laburreko memoria-arazoak erakusten dituzte maiz (Bishop 1994; Jakubowicz eta Nash 2001; Ahufinger eta beste 2021).

Hizkuntzarekin lotuta, hizkuntzaren erabilera-modalitateetan aurkituriko ezaugarriak eta bereizgarri morfosintaktikoak daude. Hizkuntzaren erabilera-modalitateen barruan, irakurketa- zein ulermen-gaitasuna eta ahoz nahiz idatziz eginiko ekoizpen-jarduerak sailkatu ditut. Irakurketa-gaitasunetan behaturiko gabeziak HGNa adierazle izan daitezkeela aztertu da azken urteetan; izan ere, HGNa duten haurren % 80-91k irakurketan atzerapena erakusten dute adinkideekin alderatuta (McArthur eta beste 2000; Naidoo 1972). Are gehiago, irakurketa-zailtasunak dituzten haurren gehiengo batek idazmen-arazoak ere erakusten ditu (Bishop; Snowling 2004). Ondorioz, oro har, HGNa duten haurrak adinkideak baino bi urte atzerago kokatzen dira hizkuntzaren erabilera-modalitate ezberdinetan (Jackson-Maldonado; Maldonado 2017b). 1. taulan dituzue hizkuntzaren erabilera-modalitateetan HGNa zantzutat hartu diren ezaugarriak.

1. taula. Hizkuntzaren erabilera-modalitateak eta HGNa zantzutak

Hizkuntzaren erabilera-modalitatea	HGN-Zantzutak	Ikerketa
Irakurmena	– Elementu grafikoen beharra testua ulertzeko.	(Wong eta beste 2022)
	– Hitzen identifikazioan zailtasunak. – Etenak eta hasiera faltuak.	(Bishop; Snowling 2004)

Hizkuntzaren erabilera-modalitatea	HGN-Zantzuak	Ikerketa
Idazmena	<ul style="list-style-type: none"> – 5-10 urtetik gorako haurrek lokailuen erabilera sofistikatua dute, mota desberdinetakoak tartekatuz. HGNa dutenek, berriaz, juntagailu sinpleak (<i>eta, baina</i>, adibidez) soilik erabiltzen dituzte. – Ekintza eta ideiak zerrenda moduan aurkezten dituzte. 	(Jackson-Maldonado; Maldonado 2017a)
	<ul style="list-style-type: none"> – Testuaren hartzailearentzat erreferentea ez dago beti argi. 	(Shapiro; Hudson 1991, 1997)
Ahozko jarduna	<ul style="list-style-type: none"> – Hiztegi apal eta errepikakorra. 	(Bishop; Snowling 2004)
	<ul style="list-style-type: none"> – Hitzez oroitzeko beren adinkideek baino denbora gehiago behar dute. 	(Leonard 1998; Buiza-Navarrete eta beste 2004; Spanoudis eta beste 2018; Gathercole eta Baddeley 1990)
	<ul style="list-style-type: none"> – Adierazpen-zailtasunak. 	(Ahufinger eta beste 2021)

Arlo morfosintaktikoan, kasu-markari edota aditz-morfologiari (argumentu-komuntadura, denbora-komuntadura edota numero-komuntadura) dagokionean, sarri ekoizten dituzte forma okerrak (Bishop 1994, Jakubowicz eta Nash 2001; Paradis 2007, beste batzuen artean). Okerrok nabarmenak dira hizkuntza-arazodun haurrak adinkideekin alderatzean eta, horregatik, HGNa adierazletzat hartu izan dira horiek ere.

Hurrengo atalari hasiera eman aurretik, ordea, erabili berri dudana «forma okerra» terminoaren gaineko argibide bat eman nahi dut. Hizkuntza-jabe-

kuntzaren arloan, ingelesez (*non*)-*target* terminoa erabili ohi da haurren ekoizpenak sailkatzeko. Euskarazko itzulpen zuzenak, ostera, (*ez*)-*helburuzko* izendapenak alegia, irakurketa bat baino gehiagorako bide ematen du eta, beraz, bera ekidin nahiago izan da.¹ Hala eta guztiz ere, erabiliko ditudan *zuzen/oker* terminoak ez dira gramatika preskriptibora guztiz lerratzen. Hots, haurren testuinguru soziolinguistikoa aditzen diren egiturak eta dialektoaren berezitasunak aintzat hartuak izan dira; adibidez, (1) esaldiko egitura zuzentzat jo da, nahiz eta Euskaltzaindiaren (1997) argibideek okertzat eman:

(1) Mikelek Mireni/Mireneri ikusi dio.

1.1. Diagnostikoa

Arestion aipagai izandako adierazleei jarraituz, diagnostikoa aisa gauzatzeko modukoa dela pentsa daiteke; errealitatea, baina, oso bestelakoa da. Bishop eta Snowling (2004) ohartu ziren, beren ikerketako parte-hartzaile denek HGN-zantzuak erakusten bazituzten ere, % 71 diagnostikatu gabe zeudela. Diagnostikoari antzematea zailtzen duten faktoreak hainbat izan daitezkeen arren, bi dira literaturan gehien aipatzen direnak: adierazlearen aldakortasuna eta beste patologiekiko (dislexia, adibidez) antzekotasuna.

HGNaren mota ezberdinetako adierazleak daude (hiztegiari, morfosintaxiari lotuak, beste askoren artean) eta hizkuntzatik hizkuntzara adierazleak aldakorak dira, lehen esandako moduan. Nahasmenduari atxikitako ikerketak egin diren hizkuntza gehienetan, ordea, nagusiki bi parametro morfosintaktiko ikertu izan dira: kasu-marka eta aditzaren morfologia. Jarraian, 2. taulan, labur-labur esanda dago, kasu-marka eta aditzaren morfologia HGNaren adierazleak diren edo ez, ingeles, frantses eta gaztelania hizkuntzak ardatz hartuta.

¹ Leyaristi (2023) lanean, ordea, *helburuzko* terminoa erabili da *zuzen* beharrean, eta *ez-helburuzko*, berriz, *oker* terminoaren ordean ingelesezko terminologiari jarraituz.

2. taula. HGNaren adierazleak ingelesean, frantsesean eta gaztelanian

	Ingelesa	Frantsesa	Gaztelania
<i>Kasu-marka</i>	✓	–	–
<i>Aditzaren morfologia</i>	✓	✗	✗
Ikerketa	(Rice eta Wexler 1996; Wexler eta beste 1998; Bishop 1994)	(Jakubowicz eta beste 1999; Jakubowicz eta Nash 2001; Paradis 2007)	(Jackson-Maldonado eta Maldonado 2017b; Bedore eta Leonard 2005)

2. taulako egiaztapen markek ezkerreko parametro morfosintaktikoa HGNaren adierazle garbi kontsideratzen dela adierazten dute eta gurutzeek, berriz, zalantza edo ezekoa azaltzen dute. Marratxoa ageri denean, ikerketa honetarako, esparru horrekiko bibliografia sakonik ez dela landu adierazi nahi da. Beraz, aditz-morfologia, ingelesean, HGNaren adierazle garbia bada ere, ez da gauza bera gertatzen aurkezturiko bi hizkuntza erromanikoetan. Horrek ez du esan nahi, frantsesez edota gaztelaniaz mintzatzen diren eta hizkuntza-nahasmendua duten haurrek adizkiari loturiko okerrrik egiten ez dutenik. Hau da, akatsak egiten badituzte ere, hizkuntza-garapen tipiko eta atipikoa duten horien artean ez da beti alde nabarmenik sumatu.

Adierazleak identifikatzeko zailtasunari beste oztopo bat gehitu behar zaio: hizkuntza-arazoen ezaugarriak eta sailkapenak zehazteko eragozpenak. Alegia, dislexiak eta HGNa dituzten ezaugarrietatik % 15-75 amankomunean daukate (Catts eta beste 2005; Newbury eta beste 2011). Gainera, bi hizkuntza-arazoen zantzuak une bertsuan azaleratzen dira, Lehen Hezkuntzan zehar, hain zuzen ere (Harding eta beste 2023; Archibald 2021). Ondorioz, arazo bakoitzaren muga definitu eta zehaztea konplexua da. Horren erakusgarri dugu McArthurren eta besteren (2000) ikerketa. Alde batetik, HGNa diagnostikaturik zuten haurrak izan zituzten ikergai eta, bestetik, dislexia zutenak. Parte-hartzaileek hizkuntza-arazo bakarraren diagnostikoa zuten eta, hala ere, HGN gisa sailkatu zirenen % 51k dislexiaren zantzu garbiak zituztela eta dislexiadunen taldeko % 55 HGNdun haurtzat jo zitezkeela behatu zuten.

Ondorioz, HGNaren diagnostikoa ikuspegi ezberdinetatik da korapilatsua. Orain arte, ordea, hizkuntza hegemonikoetan mintzatzen direnen komunitateetan identifikatu izan diren zailtasunak baino ez ditut hitzgai izan; zer erronka daude, ordea, hizkuntza gutxituen kasuan? Alde batetik, goian aipaturiko arazoak daude eta, bestetik, hizkuntza gutxitua izateak berekin dakartzan beste zenbait auzi. Euskararen kasuan bi oztopo nabarmen identifikatzen dira: hizkuntzen arteko ukipen-egoeraren albo-ondorio linguistikoak eta diagnostikorako tresneria falta. Hizkuntza gutxituarekiko hartu-eman (*amount of exposure*) urriak, hizkuntza horretan norbanakoak izango duen garapenari nabarmen eragiten dio (Gathercole; Thomas 2009). Beraz, ez da beti erraza euskaraz ari diren haurren ahotan entzundako forma okerrak hizkuntza arazo baten adierazgarria edo *input* urri eta desegoki baten emaitza diren zehazten. Bestetik, egun, gure komunitatean ez dago diagnostikorako behin betiko tresna estandarizatu eta baliozkoturik. Laburbilduz esango dut: adierazleak identifikatzeko zailtasunak, hizkuntza-arazoen arteko muga lausoek, tresneria faltak eta hizkuntza-arazorik gabeko haurrengan ere orokortu diren forma okerrekin HGNaren antzematea zailtzen dute. Ondorioz, hizkuntza-arazo hau haurren % 7,4k badu ere (Tomblin eta beste 1997), horietatik gutxiengo bat baino ez da diagnostikatua eta esku-hartze goiztiarraren bitartez lagundua izango.

Haur bat ezohiko hizkuntza-jabekuntza eta -garapena izaten ari dela baieztatzeko, ostera, ezinbestean ezagutu eta definitu behar da: *a)* zeintzuk diren hizkuntzaren ezaugarri tipologiko eta bestelakoak eta *b)* zertan datzan garapen tipikoa. 2. atalean zeregin horiei helduko zaie.

2. Euskal gramatikaren jabekuntza

Euskara, gaztelania eta frantsesaren antzera, aditz-morfologia aberatseko hizkuntza dugu (de Rijk 2008). Hala eta guziz ere, zenbait alde tipologiko nabarmen ditu hizkuntza erromaniko horiekiko. Beraz, hizkuntza-jabekuntzaren prozesuaren nondik norakoetan barneratu aurretik, euskal aditz-morfologiaren nolakotasun orokor batzuk azalduko ditut.

Adizkian diren flexio-morfemek informazio ezberdina eskaintzen dute: numeroa, pertsona, kasu-marka, denbora, modua, aspektua edota perpaus

nagusi/mendekoaren aztarna, azken hau konplementatzailearen marka bidez. Dena den, beste hizkuntza batzuetan bideratutako esperimentuak oinarri harturik eta nire ikerketa honen interesak lehenetsiz, alde batera utziko ditut denbora, modua eta aspektua.

Euskal adizkian, forma bakarrak hainbat ezaugarriren berri emateko gaitasuna du (Manandise 1987). Adibidez, *dizkizut* aditz-laguntzaileko amaierako *-t* hizkiak, kasu honetan, egilea lehenengo pertsona singularreko hiztuna dela adierazten digu:

(2)	<i>d-</i>	<i>i-</i>	<i>zki-</i>	<i>o-</i>	<i>t</i>
	3. sg.	erroa	pl.	3. sg.	1. sg.
	ABS		ABS	DAT	ERG
	(orainaldia)				

(oinarria EGLU II: 1997)

(2) adibideak erakusten duen bezala, euskal aditzak argumentu denekin –subjektu, osagarri zuzen eta zehar osagarriekin– komunztadura sortzen du eta, beraz, argumentu bakoitza zer pertsonari, zer numerori eta perpausaren barneko zer funtziori dagokion adierazten du. Ildo beretik, aditzaren argumentu den izen-sintagma bakoitzak kasu-marka bat du, aditzak deskribatuzko ekintzan edo egoeran betetzen duen funtzioaren baitan: ergatiboa (*-k*), datiboa (*-ri*) edo absolutiboa (*-ø*).

Mendeko perpausaz ari garenean, ordea, orain arte aipaturiko flexio-morfemaz gain, beste bat izan behar dugu kontuan: konplementatzailearen morfema. Konplementatzailearen marka mendeko perpausetako aditz jokatuei eransten zaie eta euskaraz, inguruko hizkuntza erromaniko edota germanikoetan ez bezala, morfema lotua da. Euskalkiz euskalki joanez gero, konplementatzaileen artean aldakortasuna dagoela jabetuko gara, baina ohikoenak hauexek dira: *-ela*, *-enik*, *-ena* eta *bait-* (Artiagoitia; Elordieta 2016). Ikerketa mugatze aldera, dialekto guztietan ageri diren bi konplementatzaile izango ditut aztergai: *-ela* eta *-en*, hain justu ere.

Beraz, euskal adizkia hainbat morfemaz osatzen da eta molde askotariko informazioa eskaintzen du. Dena den, morfema eta ezaugarri morfologiko ho-

rien jabekuntza ez da aldiberekoa (Barreña 1993, 1995; Zubiri 1997; Ezeizabarrena 1995; Larrañaga 1994, besteak beste); hots, nolakotasun morfosintaktiko guztiak ez dira une berean azaltzen eta egonkortzen. Irudi argigarria izateko, 3. taulan, hizkuntza-jabekuntzaren aro eta ezaugarri orokorrak labur jasota daude, Barreñak bildutako ekoizpen-datuak (1993, 1995)² ardatz direla:

3. taula. Euskararen jabekuntza-aroak eta -ezaugarriak, ekoizpen-datuak oinarri

Aroak	Ezaugarriak
1. aroa: aro auresintaktikoa.	Ez dago kategoria funtzionalik (kasu-marka edo aditz-laguntzailerik, besteak beste).
2. aroa: aditzaren lehen gramatika-ezaugarrien erabilerak mugatutako aroa.	Izen-sintagman kasu-marka agertzen da, baina oraindik ez dago aditz-argumentuarekiko komunztadurarik. Hau da, aditz-molde bera ageri da pertsona eta numero guztientzat.
3. aroa: inflexio (INFL) kategoria erabiltzen hasteak mugaturiko aroa.	Aditz-argumentuarekiko komunztadura ageri da eta izen-sintagmako kasu-markaren erabilera finkatzen doa. Aditz-denbora eta aditz-modua ere ageri dira.
4. aroa: komplementatzaile (KONP) funtzio-buruaren lehen erabilerak mugaturiko aroa.	Izen-sintagmako kasu-markaren erabilera gero eta sendoagoa bilakatzen da, aditz-argumentuarekiko komunztadura egonkortzen doa eta komplementatzailearen marka ageri da.


1.1. atalean aipatu da, HGNa duten hurrek aditz-morfologiarekin zailtasunak izaten dituztela, eta, 3. taulako deskribapena oinarri dudala, hizkuntza-jabekuntzaren aurreneko etapetan, garapen tipikoa duten hurrei zenbait aditz-egitura beste batzuk baino errazago egiten zaizkiela ondorioztatzen da. Honela, adizkien marka batzuen jabekuntza (komplementatzaile-

² Artikulu honetan ageri diren 3. taulak eta 5.etik 13.erainokoek, eta 3., 4. eta 5. irudiek Leyaristi (2023) lanean dute jatorria.

learen marka, adibidez) beste batzuen baino (subjektuarekiko komunztadura, esaterako) konplexuagoa da ekoizpen-datuon argitan.

Jarraian erantsitako kronogramak, 3. taulako jabekuntza-aroen eta aditz-argumentuarekiko komunztaduran behaturiko bilakaeraren irudi grafikoa eskaintzen digu. Adibideak Barreña (1995: 93, 168, 172, 184, 188 eta 192) lanetik hartuak dira eta Mikel (M) izeneko haur bati dagozkio.

2. irudia. Aditz-morfologiaren jabekuntza (Mikel mutikoarengan)



Hasieran, haurrak flexio-morfemarik gabeko adizkiak sortzen ditu (*root infinitive stage*) (Ezeizabarrena 2002) eta, ondoren, poliki-poliki subjektu, osagarri zuzen eta zehar osagarriekiko komunztadura adierazten duten morfemak agertzen dira (Barreña 1993; Ezeizabarrena 1995). Aditzak duen argumentu-kopurua, ordea, ez da jabekuntza-prozesuan eragina duen faktore bakarra. Zenbait ikerlarik morfemen gardentasunaren auziari buruz ere eztabaidatu izan dute (Manandise 1987; Trask 1981; Ezeizabarrena 1995). Esaterako, hirugarren pertsona zenbait markarekin lotzen da –zero morfema (\emptyset), *-o*, *-a*, beste batzuen artean–, eta aniztasun horrek komunztadura sortzeko egokia den alomorfoa identifikatzeko prozesuan eragina izan dezake eta, ondorioz, haurrak akatsa egin. Hipotesiak hipotesi, garbi ikusten da, ezaugarri morfologikoen jabekuntza prozesua mailakatua dela.

Euskal adizkia deskribatzean, baina, komunztadura-morfemekin batera, bigarren ikergai bat ere aipatu dut: konplementatzailearen marka, hartan ere. 3. taulako irizpideei jarraituz, haurrek 4. aroan ekiten diote konplementatzailearen marka ekoizteari.

4. taulan, lehentxoago ezagutu dugun Mikel haurraren *-en* eta *-ela* konplementatzaileen lehen ekoizpen-uneak laburbilduta daude (Barreña 2000: 25):

4. taula. *-ela* eta *-en* konplementatzaileen lehen ekoizpen-adina (Mikel mutikoarengan)

Konplementatzailea	Adina
<i>-ela</i> (perpaus konpletiboetan)	2;04
<i>-en</i> (zehar-galderetan)	2;03
<i>-en</i> (erlatibozko perpausetan)	3;00

Lehen ekoizpen-uneak alderatuz gero, *-ela* konplementatzailearen marka eta zehar-galderetan ageri den *-en* marka oso bateratsu datozela ikus daiteke. Honenbestez, alde nabarmena dago erlatibozko perpausetan ageri den *-en* morfemarekin, azken hau beste biak baino sei eta zazpi hilabete beranduago azaltzen baita, hurrenez hurren. Dena den, lehenago agertzeak ez du beti lehenago egonkortuko dela bermatzen; hots, ez du esan nahi haurrak modu sistematikoan eta zuzen erabiliko duenik (Barreña 1993, 1995). Orain arte esandako guztiak adierazten du, jabekuntza mailakatua ez dela soilik ezaugarri morfosintaktiko desberdinen artean (argumentu-komunztadura, konplementatzailearen marka, besteak beste) nabari, baita ezaugarri berari lotutako formen artean ere (*-ela* eta *-en* konplementatzaileak kasu). Konplexutasuna, beraz, bi mailatan beha daiteke.

3. Hipotesiak eta aurreikuspenak

Haur euskaldunen jabekuntza-prozesua deskribatzean, «konplexu» hitza agertu da eta honelaxe definitu dugu: agerpen-une berantiarra duten for-

mak zein oker ugari loturikoak. Nola definitu, baina, «konplexutasuna» HGNa-ren testuinguruan?

Artikulu honetan, HGNa-ren bi adierazle-mota izango ditut jomugan: hizkuntza-adierazleak eta adierazle kognitiboak. Aurrenekoak arlo morfosintaktikora lerratzen dira, bigarrenak, prozesamendu- eta epe laburreko memoria-arazoekin lotuta daude. Beraz, adierazle-mota bakoitzaren ezau-garriak eta abiapuntua ezberdinak izanik, «konplexutasuna» definitzeko unean ere aldeak daude. Horregatik bada, bereizi egingo ditut, hizkuntza-adierazleak eta adierazle kognitiboak behatzean oinarri hartutako proposamenak eta «konplexutasuna» ikertzeko irizpideak.

Hizkuntza-adierazleei dagokienean, zenbait izan dira –arlo morfosintaktikoa ardatz– eginiko proposamenak (*Vulnerable Markers Hypothesis*, Bishop 1994; *Computing Agreement Problem Hypothesis*, van der Lely 1994). Nik, ordea, Jakobowickz eta Nash-en (2001) *Computational Complexity Hypothesis* izango dut oinarri. Proposamen horren arabera, kategoria funtzionalak konplexuak dira, baldin eta esaldi batzuetan soilik ageri badira. Aldiz, esaldi orotan ageri diren kategoria funtzionalak ez dira konplexuak. Jakobowickz eta Nash-ek (2001) hizkuntza-nahasmendua zuten haur frantsesekin ikerketak egin ostean, parte-hartzaileok iraganaldiko adizkiarekin erakusten zituzten okerrak hipotesi horren baitan azaldu zituzten.

Bestalde, azken hamarkadotan hamaikatxo izan dira alderdi kognitiboko adierazleak HGNa-ren diagnostiko goiztiarrera bideratu dituzten ikerlariak (Sanz-Torrent eta Andreu 2021; Paradis 2007; Ahufinger eta beste 2021). Hau da, HGNa dutenek prozesamendu- eta epe laburreko memoria-arazoak dituztela behatzeko, esaldi zein sasi-hitzen errepikapenean oinarritzen diren ariketak (SR eta NWR, hurrenez hurren) erabili dira. HGNdun eta hainbako adinkideen artean, SR zein NWR ariketetan, aldeak daudela erakutsi dute ikerketok; hau da, hizkuntza-arazodunak oker gehiago egiten du. Jar-duera horiek arrakastaz burutzeko, memoriak gain, haurrak esaldia sintaktikoki zein semantikoki ongi ulertzea ezinbestekoa da (Vinther 2002; Friezelle eta Fletcher 2014). Hori dela eta, zenbait ikerlarik (Leonard 1998; Stokes eta beste 2006; Archibald eta Gathercole 2007) berretsi dute, HGNa dutenek epe laburreko memoria eta prozesamendu-mailako mugak dituztela eta, beraz, aipaturiko errepikapen-ariketak konplexu egiten zaizkiela.

Behin adierazle-mota bakoitzaren kasuan konplexutasuna zertan datzan zehaztu ostean, adierazleoi aurreikuspen bana atxikituko diet.

3.1. Hizkuntza-adierazleak: aurreikuspena

Hizkuntza-adierazleei lotuta, adizkia izango dut artikulu honetan mintzagai, arestion esandako moduan, zehazki, mendeko perpausoko *-ela* eta *-en* konplementatzaileen markak. Konplementatzailearen marka ahoskatzea eragiketa konplexua da *Computational Complexity Hypothesis* (Jakubowicz; Nash 2001) ideiarene baitan. Izan ere, konplementatzailearen kategoria funtzionala mendeko perpaus jokatueta baino ez da ahoskatzen. Hizkuntza-arazorik gabeko haurren jabekuntza-prozesua deskribatzen ere (ikus 2. atala), horrako hori eragiketa konplexua dela azaldu da. Ondorioz, ildo honi jarraituz, ondorengo aurreikuspen hau egin dut:

- i) Mendeko perpausetan diren adizkietan, beren baliokide diren perpaus nagusikoetan baino, oker gehiago egingo du HGN-zantzuak dituen haurrak.

Dena den, HGNaren adierazleak adizkian behatu dituzten ikerketa ezberdinak oinarri (Rice eta Wexler 1996; Bishop 1994; Jakubowicz eta Nash 2001, esaterako) izanda, konplementatzailearen morfema ez direnekin ere forma okerrak espero dira. Hau da, adizkian diren morfema pluralgileekin edota argumentu-komuntadura eratzen dutenekin ere arazoak izan ditzake haurrak. Artikulu honetan adizkiaren alderdi horiek landuko ez badira ere, Leyaristi (2023) lanean eurok zein izen-sintagmari atxikitako kasu-markari buruzko azterketak daude jasota.

3.2. Adierazle kognitiboak: aurreikuspena

Alderdi kognitiboa aztertzeke erabili diren sasi-hitz eta esaldien erreplikapena hizkuntza hegemonikoetan nahasmenduaren identifikazioa bideratzeko aproposak direla behatu ostean, beste zalantza bat sortu da: testuinguru diglosikoetan ere baliagarri al dira? Tullerrek eta bestek (2018) Frantzian zein Alemanian bizi ziren eta HGNa diagnostikaturik zeukaten

turkiar, arabiar eta portugez familietako haurrekin LITMUS (*Language Impairment Testing in Multilingual Settings*) proba erabili zuten. Probak esaldinahiz hitz-errepikapenaren ariketa (LITMUS-SR eta LITMUS-WR, hurrenez hurren) eta galdetegi linguistiko bat biltzen ditu, eta emaitzek erakutsi zutenez, hizkuntza-arazodun eta hizkuntza-arazorik gabekoen artean bereizketak egiteko aproposa da.

Azken ikerketa horren datuak aintzat hartuta, gure komunitatean egun estandarizazio-fasean dagoen LITMUS-SR ariketa-tresna (Etxeberria eta beste 2021, argitaragabea) erabiltzea pentsatu da. Honela, batetik, HGNa-ren gaian gehiago sakontzea lortuko da, datuak bestelako ariketa baten bidez bilduz; eta bestetik, Etxeberriaren eta besteren (2021, argitaragabea) LITMUS-SR materiala osatzeko datu gehiago bilduko da; izan ere, lehenago, haur txikiekin baino ez da probatu. Tullerren eta besteren (2018) ikerketan bildutako informazioaren harira, ondorengo aurreikuspen hau egin dut euskararentzat:

- ii) HGNa duen haurrak hizkuntza-arazorik ez duten adinkideek baino esaldi oker gehiago ekoitziko du, epe laburreko memoria eta prozesamendu-mailako mugak medio.

4. Metodologia

Atal honetan, aurkeztu berri ditudan aurreikuspenak betetzen diren edo ez behatzeko diseinatu dudan prozeduraren nondik norakoak zehaztuko ditut.

4.1. Parte-hartzaileak

Lehen Hezkuntzako 6. mailan diren 11-12 urteko hiru gelakidek parte hartu zuten: bi mutilek eta neska batek. Batek HGN-zantzuak³ erakusten

³ Probak hastean haurrak ez zuen diagnostikorik eta, horregatik, «HGN-zantzuak» gisa aurkeztuko ditut.

ditu (aurrerantzean HGN1) eta beste biek hizkuntza-garapen arrunta izan dute (aurrerantzean GT1, mutila, eta GT2, neska).

Parte-hartzaileok HGNdunak diren edo ez sailkatzeko, honako aldagai hauek kontrolatu ziren: adina, hizkuntza-arazoa, hezkuntza-eredua, ikastetxea, herria, ama-hizkuntza eta elebitasun-maila. Aldagai horietariko batzuk adierazle kognitibo eta biografikoetara lerratzen dira –1. ataleko adierazleen multzokatze-irizpideak oinarri direla–, eta beste batzuk, berriz, elebitasun-mailarekin. Adierazleekin uztarturiko datuak biltzeko, HEGA⁴ (Haur Elebidunen Gurasoentzako Galdetegia) galdetegi linguistikoa (Pourquié eta beste, argitaragabea eta berrikusten ari direna) baliatu nuen. Gaztetxoek gurasoek jarraian zerrendatu diren esparruetako informazioa eman ez bete zuten galdetegia: informazio orokorra, eskola, haurraren historia goiztiarra, hizkuntza-trebetasunak, hizkuntzen erabilera, hizkuntza-aktibitateak, gurasoei buruzko informazioa, eta zailtasunak.

Euskaraz ez dago HGNaren diagnosi zehatzerako tresnarik eta, horregatik, ikerketarako hautagai aproposak nituela ziurtatzeko asmoz, HGNaren adierazle biografiko eta kognitiboak biltzen dituen irizpide-zerrenda osatu nuen:

- a. Ikastetxeko adituak haurraren hizkuntza-arazoaren jabe duden dira (ekoizpenean edo ulermenean) eta bere adinkideekin alderatuz, bi urteko⁵ atzerapen nabarmena hautematen dute.
- b. Haurrak erakusten duen hizkuntza-arazoak ez du atzerapen kognitiboarekin edota haurtzaroan pairaturiko inongo gaixotasunekin (otitisa, esaterako) zerikusirik. Haurtzaroan jasandako gaixotasun batzuek hizkuntzaren jabe-kuntza-prozesuan eragina dute (Bishop; Snowling 2004).

⁴ EDELAB: *Evaluation du Développement du Langage Basque et Bilingue*.

⁵ HGNa duten hurrekin egin diren ikerketa gehienetan ondorioztatu da, nahasmendu hori duten eta hainbako adinkideen artean bi urteko aldea egon ohi dela hizkuntza-gaitasunei dagokienean (ikus Jackson-Maldonado eta Maldonado 2017b; Frizelle eta Fletcher 2014, beste batzuen artean). Dena den, izan da irizpidetat alde txikiagoekin lan egin duen ikerlariirik (Conti-Ramsden eta beste 1997).

- c. Probak egiten hasteko unean, Berritzegune haurraren arazoaren jabe-dun da. Haurra Berritzeguneren B mapan egotea hobetsiko da eta diagnostikoaren gabezia *Norbanako Plan* bat izatea.
- d. Haurraren lehen mailako familia kideek (guraso edota anai-arrebek) hizkuntza-arazoa dute.
- e. Adinkideak baino beranduago hasi zen lehen hitzak zein esaldiak ahoskatzen.

5. taulan, *a-e* ataletan lantzen diren adierazle biografiko eta kognitiboak aztertzeko, HEGA galdetegiak (Pourquoié eta beste, argitaragabea eta berri-kusten ari direna) zein ikastetxeko zuzendaritza taldeak emandako informazioa jasotzen da:

5. taula. Parte-hartzaileen profila

	HGN1	GT1	GT2
Adina	11;08	11;08	11;04
Sexua	M	M	N
Hizkuntza-arazoa	Bai	Ez	Ez
Atzerapen kognitiboa	Ez	Ez	Ez
Otitisa edo antzekorik izan al du?	Ez	Ez	Ez
Berritzeguneren B mapan	Bai	Ez	Ez
Hizkuntza-arazoan aurrekariak familian	Bai	Ez	Ez
Lehen hitzak	16-24. hilabeteen artean	15 hilabete edo gutxiagorekin	15 hilabete edo gutxiagorekin
Lehen esaldiak	25-30. hilabeteen artean	24 hilabete edo gutxiagorekin	24 hilabete edo gutxiagorekin

Goiko taulak erakusten duenez, HGN1 parte-hartzaileak baino ez du nahasmenduarekin bateragarri den profila. Ikastetxeko adituak ez ezik, Berriategune ere hizkuntza-arazoaren jakitun da. Gaztetxoaren irakasleek, bereziki irakurketa-gaitasunetan, adinkideak baino bi maila atzerago kokatu ohi dute haurra, eta iritzi berekoak izan dira zentrokoak ez diren psikologoak eta Lehen Hezkuntzako beste irakasle bat, gaztetxoaren ahozko eta idatzizko ekoizpenaren zenbait eredu aztertu ostean.

Bestalde, hiztegi-, ahozko-, idatzizko- zein irakurketa-gaitasunak modu kualitatiboan behatzean, haurrak irakurketaz gainera, hizkuntzaren beste-lako erabilera-modalitateetan ere zailtasunak zituela egiaztatu nuen, HGNa ikertua duten nazioarteko lanetan hauteman izan den bezala (Bishop eta Snowling 2004; Shapiro eta Hudson 1991; Cain eta beste 2005, beste batzuen artean). Azterketa honetarako, ez bakarrik 4.2. atalean deskribatu diren proba-motak, idatzizko jarduerak ere egin zituzten parte-hartzaileek. Hau da, gaztetxoek aurkezpen-gutun bat eta 3 minutuko *sketchak* laburtzen zituzten testuak idatzi zituzten. Bildutako informazioa aztertzeko, Lasarteren (2019) irizpideak eta Eusko Jaurlaritzaren (2015, 2017) Ebaluaziorako Diagnostiko Txostena baliatu nituen, nire ikergaiaren eta jardueraren beharrietara behin moldatuta. Horrako bi material horiek ahozko jarduna edota idatzizko gaitasunak behatzeko nahiz ebaluatzerakoan kontuan izan beharreko zenbait zehaztapen eskaintzen dituzte.

Aipaturiko irakurketari, idazmenari, ahozko jardunari edota hiztegiaren erabilerari loturiko behaketak 6. taulan jasota daude; Leyaristiren (2023) laneko analisisen laburpena da.

6. taula. HGN1 eta hizkuntza-modalitateak (irakurketa, idazmena, ahozko jarduna eta hiztegia)

Irakurketa eta ahozko jarduna	Komunikatzailea behatzean	<i>Bokalizazioa: hitzen ebakera</i>	<ul style="list-style-type: none"> – Irakurketa silabikoa (<i>a-te-a</i> vs <i>atea</i>): testuak irakurtzean, hitzak silabez banatzen ditu etenak eginez. – Hasiera faltsuak ohikoak dira. – Bat-bateko jardunean ez du beti garbi artikulatzen.
		<i>Erritmoa, geldiuuek eta abiadura</i>	<ul style="list-style-type: none"> – Hitz simple batzuk (<i>leihatila, buelta, etab.</i>) identifikatzeko zailtasuna. – Irakurtzean abiadura modu jarraituan mantentzea kostatzen zaio. – Geldiuuek. – Bat-bateko jardunean ekintzen ordena egituratzea kostatzen zaio.
	Hizketa edo mezua behatzean	<i>Gaitasun soziolinguistiko/diskurtsiboa</i>	– Bat-bateko jardunean lagun arteko erregistroa menderatzen du.
		<i>Gaitasun estrategikoa</i>	– Testuko irudi grafikoak darabiltza irakurritakoa ulertzeko.
Idatziko gaitasuna	Komunikazio-egoerara egokitzea	<i>Testuaren helburuarekiko/gaiarekiko lotura</i>	<ul style="list-style-type: none"> – Narrazio huts eta sinpleak: edukiaren kantitate eta kalitate aldetik, oso testu apalak. – Ekintzak zerrenda gisa kontatzen dira. – Erreferentea ez dago beti argi.
		<i>Hizkuntza-erregistroa</i>	– Lagun arteko diskurtsua.

Idatziko gaitasuna	Koherentzia eta kohesioa	<i>Informazioaren progresioa eta koherentzia</i>	– Ez dago kohesio-mekanismorik eta puntuazio-ikurrik. – Oso testu motzak.
		<i>Testuaren egitura</i>	– Ez dago egiturarik: paragrafo bakarra.
Hiztegia	Ahozko jarduna oinarri	– Hiztegi urria. – Hitza oroitzeko/esateko zailtasuna.	
	Idatziko jarduna oinarri	– Errepikapenak zein hitz orokorrak (adib. <i>gauza</i>) oso ohikoa. – <i>eta</i> eta <i>baina</i> lokailuak bakarrik daude eta ez dago denbora-antolatzailerik.	

Iturria: Lasarte 2019 (moldatua); Eusko Jaurlaritz 2015, 2017 (moldatua).

Ildo beretik, HEGA galdetegian baieztatu zitzaidan HGN1ek hizkuntza-arazoan aurrekariak dituela familian; izan ere, aitak eta arrebak logopedaren zerbitzua jaso dute. Bestalde, esaldi zein hitzen lehen ekoizpen-uneak alderatuz gero, adinkideak baino hitzun berantiarragoa dugu bera. Biribilduz esan dezagun, bada, hitzgai dugun parte-hartzaile horrek 1. atalean HGNa-ren zantzutat aurkezturiko zenbait ezaugarrirekiko bateragarritasuna erakusten duela.

Elebitasunaren berri izateko, Birdsongen eta besteren (2012) Likert eskalako inkesta moldatua baliatu nuen. Gaztetxoek praktika eta gaitasunei loturiko galderak erantzun zituzten. Lehenengo galdera-sortan, zenbait testuinguru aipatu eta gaztetxoek euskara eta gaztelania zenbateraino erabiltzen zuten erantzun zuten, 10 kutxatilan banaturiko ehuneko eskala erabiliz. Bigarren galdera-sortan, hizkuntza-erabileraren modalitateak aurkeztu eta 0-6 Likert eskalan euskaraz eta gaztelaniaz beren buruak ebaluatu zituzten (0 = ez oso ondo; 6 = oso ondo). Gurasoek, berriz, haurra lehenengoz hizkuntza bakoitzarekin noiz jarri zen harremanetan zehaztu zuten.

Galdetegiko datuek erakusten dutenez, hiru gaztetxoek betidanik D erduan ikasi dute eta etxetik euskaldunak dira (H1 euskara). Egunerokotasunean haur bakoitzaren hizkuntza hautuak behatzean aldeak suma badaitez-

ke ere, oro har, euskara, gaztelania bestean edo gehiagotan darabilte zerrendaturiko lau esparruotan.

7. taula. Euskararen erabilera vs erabilera-eremua

Euskara	HGN1	GT1	GT2
<i>Lagunekin</i>	% 50	% 50	% 50
<i>Familian</i>	% 50	% 80	% 50
<i>Ikastetxean</i>	% 80	% 70	% 100
<i>Pentsatzean</i>	% 60-70	% 60-70	% 100

Haurrek euskara bereziki ikastetxean eta beren buruarekin dihardute-nean erabiltzen dute eta neurri txikiagoan lagunekin edota familian. Gainera, 7. taulan zerrendaturiko testuinguru denetan, euskara nagusi da parte-hartzaile guztien kasuan. Hau da, gaztelania presente badago ere, elkarrizketen erdia edo gehiago euskaraz izaten dira. Ondorioz, hiru ikergaiok adinkide, gelakide, eta nagusiki euskaraz aritzen diren norbanakoak izanik, parte-hartzaile aproposak ditut.

4.2. Tresnak eta ariketak

Lehenengo aurreikuspenak esaldi-motak (mendekoa edo nagusi bakuna) adizkiaren forman eragina izango duela dio. Hizkuntza-adierazleak oinarri dituen behaketa honetarako, ahozko ekoizpenek osatutako corpusa baliatu da. Bigarren aurreikuspenak adierazle kognitiboekin bat egiten du eta esaldi-errepikapenaren ariketa bat izan du giltzarri. Jarraian, hizkuntza-adierazleak eta adierazle kognitiboak behatzeko haurrei banan-banan eman zitzaizkien proben xehetasunak:

4.2.1. Ahozko ekoizpenetarako prozedurak: elizitazio-ariketak eta irakurketa

Ahozko ekoizpena bi probaren bitartez (elizitazioa eta irakurketa) jaso da. Elizitazio jarduera bi motatakoa izan da: batetik, ikus-entzunezko materiala oinarri izan duen tresna erabili da, ikerketa honetarako beren-beregi sortutakoa; bestetik, MAIN,⁶ M. J. Ezeizabarrenak itzulia (Gagarina eta beste 2019). Azken proba hau aurrerago haur euskaldunekin baliatu den arren (ikus Ezeizabarrena; Murciano 2023), honako ikerketan lehenengoz 11-12 urteko gaztetxoekin erabili da. Jarduera hauez gain, irakurketa-ariketa ere egon da, hori ere ikerketa honetarako preseski diseinatua. Jarraian dituzue ariketa bakoitzari lotutako xehetasunak:

- a) Elizitazio-ariketak (ikus-entzunezko materiala oinarri hartuta): gaztetxoek 3 minutuko elkarrizketa gabeko *sketch* laburrak ikusi zituzten. Ikerlariak, gidoi bati jarraituz, tarteka bideoa moztu eta galderak egingiten zizkien. Beste batzuetan, ikerlariak ikusitakoarekin bat ez zetorren ekintza bat deskribatzen zien haurrei eta haiek zuzendu eta benetan jazotakoa deskribatu behar zuten. Ariketa gauzatu aurretik honako kontsigna hau eman zitzaien gaztetxoei:

Begira, ordenagailuko pantaila honetan pelikula txiki bat ikusiko dugu. Nik sarritan bideoa pausatuko dut eta galdera bat edo beste botako dizut zuk erantzuteko. Baina ni apur bat gezurtia naiz eta, orduan, batzuetan ikusi dugunarekin bat ez datozen gauzak esango ditut. Zuk zuzendu egin beharko didazu eta, ondoren, benetan gertatu dena azaldu. Ados?

- b) MAIN: haurrei hiru gutun-azal erakutsi eta bat aukeratzeko eskatu zitzaien. Barruan istorio bat kontatzen zuten bineta batzuk zeuden, eta haurren zeregina binetek irudikatzen zuten ekintza ahoz azaltzea zen. Eskutitz-azalek eduki bera zuten, baina ariketa horretara aurkeztuz, batetik, haurrentzat erakargarriagoa zen, eta bestetik, hiru parte-

⁶ *Multilingual Assessment Instrument for Narratives* (MAIN) elebidun nahiz cleaniztun goiztiarren narratziarako trebeziak neurtzen dituen tresna da.

-hartzaileek istorio bera kontatu behar izango zutenek, kontaketa konparagarriago izango nituen. Jarduera honelaxe aurkeztu zitzaizen:

Ongi. Ziur aukera hori egin nahi duzula? Ireki gutun-azala, baina niri erakutsi gabe. Kontuz! Ezin dut ikusi ezer eta. Irudiak ikusten dituzu, ezta? Ez al da istorio bat? Hartu behar beste denbora, ikusi ongi irudiak eta gero, kontaidazu.

Behin kontaketa amaitzean, binetetan ageri ziren irudi eta ekintzak euskarri hartuta, ulermen-galderak egin zitzaizkien gaztetxoek.

- c) Irakurketa-ariketak: *Arial* 14 letra-tipoaz eta -tamainaz idatzitako orrialde bateko bi testu eman zitzaizkien gaztetxoek. Istorioek *Tom eta Jerry* marrazki bizidun ezagunen pasarte bana kontatzen zuten eta alboetan kontaketa-ekintzak irudikatzen zituzten marrazkiak zituzten. Jarduera egin aurretik, honako jarraibide hau proposatu zitzaizen:

Gaur testu bat ekarri dizut. Ikusten duzun bezala letra handia dauka eta marrazkiak ere baditu. Ezagutzen dituzu Tom katua eta Jerry xagua? Beno, bada, horien istorio bat da, [esne borrokan / arrainaren atzetik] aritu ziren hartakoa. Lasai irakurri testua eta zerbait ulertzen ez baduzu, galdetu. Aurreneko saiakeran ozen irakurri beharko duzu eta ongi ulertu duzula uste duzunean, neuri azaldu beharko didazu.

4.2.2. *Adierazle kognitiboak: esaldi-errepikapena (LITMUS-SR)*

Adierazle kognitiboak identifikatzeko, LITMUS-SR (Etxeberria eta beste 2021, argitaragabea) ariketa erabili zen. Material hori pilotu gisa haur txikiekin lehenago erabilia izan den arren, 11-12 urteko gaztetxoekin sekula ez da baliatu, hauxe da lehenengoa aldia.

Hiru parte-hartzaileei 58 bideoklip labur aurkeztu zitzaizkien eta, bertan, emakumezko batek esaldi batzuk ahoskatzen zituen. Esaldiak sei mailatan sailkatuta daude, maila bakoitzean, 9-10 esaldi direlarik. Egiturari dagokionez, askotariko esaldiak daude: iragankorrak, ez-ergatiboak, iragangaitzak, ditransitiboak, besteak beste. Hona hemen adibide batzuk (Etxeberria eta beste 2021, argitaragabea: 1, 8 eta 19):

- (4) Amona berandu etorri da. → [Iragangaitza]
 (5) Peruk ez du abestu nahi. → [Iragankorra]
 (6) Jonak eta Pellok irakasleari pilota utzi diote. → [Ditrantsitiboa;
 subjektu koordinatua]

5. Emaitzak

5.1. Emaitzen kodeketa

Hizkuntza-adierazleak behatzeko, ahozko jarduna soilik landu da; izan ere, idatzizkoan HGNIek ez zituen mendeko perpausak ekoitzi. Ahozko ekoizpeneko datuak grabagailu bidez jaso ziren eta, ondoren, Word dokumentuan transkribatu. Aditza ageri den testuinguru oro, jokatu edo jokatu gabea izan, esalditzat jo dut, eta Excel dokumentuan haurraren ahoskera ongien irudikatzen duen grafiaz idatzi da. Jarraian duzue adibide bat:

8. taula. Excel dokumentuko kodeketa-eredua

Ekoizpen-mota	Haurraren ekoizpena	Excelean kodeketa
Ahozkoa	[eş dakit egaten ewşkaraş] (HGNI: 1. grabaketa, 3:28)	Es dakit esaten euskaras

Adizkiari loturiko ondorengo datu hauek kodetu dira:

- a) Esaldi-mota:
- i) Nagusia.
 - ii) Mendekoa: adjunktua, osagarria, semi-osagarria, atributua edo aposizioa.
- b) Aditz-forma:
- i) Jokatua: nagusia edo mendekoa.
 - Forma zuzena: bai/ez (ezezkoa bada zergatia arrazoitu).
 - Adizkiaren deskribapena: pertsona- eta numero-komunztadura.
 - ii) Jokatu gabea.

Jarraian, aditz-morfologiako okerrak:

- Argumentu-komunztadura desegokia.
- Pluralgilearen morfema: isildua edo gehiegizkoa.
- Euskal hiztun helduek ekoizten ez dituzten egituren sorkuntza (*neologismoak*).
- Konplementatzaile-gabezia.
- Konplementatzaile isildua.
- Konplementatzailea behar ez den unean erabiltzea.

Perpau nagusi bakunean eta mendekoan diren adizkiak alderatzeko, *phi*-tasun (pertsona eta numero⁷) berak dituztenak baino ez dira kontuan izan. Beraz, aurreneko azterketan, adizki bakoitzarekin haurrak ekoitziriko forma okerrak zenbatu dira. Bigarren azterketan, mendeko perpausoko okerren eremuari erreparatu zaio: konplementatzailearen marka edo bestelako eremua (pertsona, numero eta gainerakoak).

Adierazle kognitiboak aztertzeko bideraturiko ariketan –LITMUS-SR (Etxeberria eta beste 2021, argitaragabea)–, batetik, gaztetxoak esaldia errepikatzen zenbatetan eskatu duen kodetu da (x2 edo x3, bi eta hiru aldiz hurrenez hurren); eta bestetik, ea haurraren ekoizpena zuzena edo okerra den. Zuzentzat jo dira entzundakoa hitzez hitz errepikatuta dauden testuinguruak edo entzundakotik urrundu arren, gramatikalki zuzenak diren esaldiak. Jarraian bietariko adibideak:

9. taula. LITMUS-SR probaren datu-kodeketa

Zuzen	– Hitzez hitz berdina errepikatu	<i>Amona berandu etorri da.</i> (HGN1: 1. esaldia)
	– Aldaketarekin, baina esaldi gramatikalki zuzena	<i>Anek (amak) dirua galdu duela esan du.</i> (GT1: 2. esaldia)
Oker		<i>Txoria(k) badaki kabira bueltatzen.</i> (GT2: 21. esaldia)

⁷ Ikergaiak *zuka* aldaeran ari dira eta, beraz, ez dago generoari dagokion ezaugarririk adizkian.

Adibideetan parentesi artean ageri diren elementuak (*amak* eta *txoriak* hitzaren *-k* letra) isilduak izan dira. Bestalde, kodeturiko errepikapen-kopuruak, epe laburreko memoria-arazo eta prozesatzeko mugen adierazgarri gisa jo dira.

5.2. Emaizten analisisa

5.2.1. Konplementatzailearen marka

3.1. ataleko aurreikuspenaren arabera, mendeko perpausetan diren adizkietan, horien baliokide diren perpaus nagusietako adizkietan baino oker gehiago egingo du HGN1ek. Hau da, adibidez, *da* eta *dela* aditz-laguntzaileen kasua: lehenengoa, perpaus nagusietan ageri da eta bigarrena mendekoetan, horixe bien arteko alde bakarra. Egindako aurreikuspenaren arabera, oker gehiago espero da *dela* aditz-laguntzailearen erabileran, *da*-rean baino. Parte-hartzaile bakoitzak ekoiztutako adizkiak eta okerren kopuruak, 10., 11. eta 12. taulek zehaztuta dakartzate; HGN1i, GT1i eta GT2ri dago-kie, hurrenez hurren:

10. taula. HGN1, adizkiak; perpaus nagusi bakuneko zein mendekoak

		N		M		
		Kop.	Oker %	Kop.	Oker	
					Kantitatea	%
Iragangaitzak	<i>da/dela</i> ⁸	132	2,27	57	3	5,26
	<i>dira/direla</i>	9	–	10	1	10
	<i>zaiio/zaiola</i>	6	–	3	1	33,33

⁸ Mendeko perpausoko aditzak irudikatuzko *-ela* konplementatzailearen bidez egin dut 10., 11. eta 12. tauletan. Dena den, aintzat hartu beharrekoa da, mendeko aditz jokatuekin *-en* mendera-gailua ere ageri dela.

		N		M		
		Kop.	Oker %	Kop.	Oker	
					Kantitatea	%
Iragankorrak	<i>du/duela</i>	113	1,77	28	6	21,43
	<i>dute/dutela</i>	4	–	4	1	25
Ditrantsitiboak	<i>dio/diola</i>	28	–	3	1	33,33
	<i>diote/diotela</i>	3	–	2	1	50

Oharra: Mendeko perpauseko adizkia (M); perpaus nagusiko adizkia (N); adizkion agerpen-kopuru (kop.); eta perpaus-mota bakoitzaren baitan okerrak izan diren formak. Forma okerren ehunekoak zuzenean adierazi dira perpaus nagusiaren kasuan; mendekoetan, berriz, ehunekoaz gain forma okerren kopuru gordina ere eskaini da.

Adizki bakoitzaren ekoizpen-kopuruak aztertuz (ikus *kop.*) gero, perpaus nagusietako ereduak gehiago direla ohar gaitzke. Egoera horrek 2. eta 3. ataletan mendeko perpausez esandakoarekin bat egiten du. Hau da, mendeko perpaus orok nagusiaren beharra du, baina nagusi orok ez du, ordea, mendeko perpausen beharrik. Okerren ehunekoetan arreta jartzen badugu, bi emaitza orokor ditugu: *a)* mendeko perpauzetan diren adizki-forma guztiekin egin ditu ekoizpen akastunak HGN1ek; *b)* perpaus nagusian adizki batekin forma okerra ekoiztu badu, okerren ehunekoa hazi egiten da adizkia mendekoan denetan. Azken honen erakusle dira *da* eta *du* aditz-laguntzailerak (ikus 10. taulan barren zuria beharrian, grixaska duten laukiak).

Segidan, GT2 eta GT3ren ekoizpenetan ere antzeko jokaerarik ote den ikusiko dugu.

11. taula. GT2, adizkiak; perpaus nagusi bakuneko zein mendekoak

		N		M		
		Kop.	Oker %	Kop.	Oker	
					Kantitatea	%
Iragangaitzak	<i>naiz/naizela</i>	11	–	2	–	–
	<i>da/dela</i>	78	–	29	1	3,44
	<i>dira/direla</i>	7	–	3	–	–
	<i>zaiio/zaiola</i>	5	–	3	–	–
	<i>zaizio/zaiola</i>	2	100	1	1	100
Iragankorak	<i>du/duela</i>	69	–	13	–	–
	<i>ditu/dituela</i>	10	50	8	7	87,5
	<i>dute/dutela</i>	3	–	3	–	–
Ditrantsitiboak	<i>dio/diola</i>	29	–	3	–	–

Oharra: Mendeko perpausiko adizkia (M); perpaus nagusiko adizkia (N); adizkion agerpen-kopurua (kop.); eta perpaus-mota bakoitzaren baitan okerrak izan diren formak. Forma okerren ehunekoak zuzenean adierazi dira perpaus nagusiaren kasuan; mendekoetan, berriz, ehunekoaz gain forma okerren kopuru gordina ere eskaini da.

12. taula. GT3, adizkiak; perpaus nagusi bakuneko zein mendekoak


		N		M		
		Kop.	Oker %	Kop.	Oker	
					Kantitatea	%
Iragangai- tzak	<i>da/dela</i>	124	1,61	29	6	20,69
	<i>dira/direla</i>	9	–	4	–	–
	<i>zaio/zaiola</i>	5	–	1	–	–
Iragankorrek	<i>du/duela</i>	81	–	19	1	5,26
	<i>ditu/dituela</i>	9	–	1	–	–
	<i>duzue/ duzuela</i>	2	–	1	–	–
Ditrantsitiboak	<i>dio/diola</i>	17	–	3	2	66,67

Oharra: Mendeko perpausoko adizkia (M); perpaus nagusiko adizkia (N); adizkion agerpen-kopurua (*kop.*); eta perpaus-mota bakoitzaren baitan okerrak izan diren formak. Forma okerren ehunekoak zuzenean adierazi dira perpaus nagusiaren kasuan; mendekoetan, berriz, ehunekoaz gain forma okerren kopuru gordina ere eskaini da.

GT1ek eta GT2k ere forma oker batzuk ekoitzi dituzte mendeko perpausetan ageri diren adizkietan. Bai GT1ek eta bai GT2k hiru adizki-motarekin ekoitzi dituzte forma okerrak, baina GT1ek perpaus nagusi bakun eta mendekoetan errepikaturiko bederatzai adizki-mota erabili ditu guztira eta GT2k, ostera, zazpi. Bestalde, perpaus nagusiko adizkian okerrak daudenetan, berorien kopurua hazi egiten da mendekoan. Alegia, GT1en kasuan, *ditu* aditz-laguntzailearekin egindako forma okerrak, % 50 izan dira perpaus nagusian eta % 87,5 mendekoan. GT2rekin, berriz, okerren ehunekoa handiagoa da 3. pertsona singularrarekin komunztatzen den *izan* aditz-laguntzailea mendeko perpausuan agertzean.

Halere, ikerketaren asmoetako bat konplementatzailearen marka behatzea izanik, mendeko perpausetan diren adizkien okerren eremuak aztertu ditut. Horretarako, 10., 11. eta 12. tauletan, haur bakoitzarekin zerrendatu diren adizkiak mendeko perpausetan direnean, adizkion forma okerrak konplementatzailearen morfemari lotuta ote dauden (urdinez) edo okerraren arrazioa bestelakoren bat ote den (laranjaz) ikertu dut:


3. irudia. HGN1, mendeko perpausetako adizkien okerrak




Grafikoari lehen begiratu bat emanez gero, mendeko perpausoko adizkiekin ekoitziriko forma okerrak gehienak konplementatzailearen eremuari dagozkiola konturatuko gara; izan ere, kolore urdina da nagusi. Ekoitzitako zazpi adizkitatik bostetan konplementatzailearen morfemarekin soilik izan ditu arazoak HGN1ek. Gainera, *dela* aditz-laguntzailearen kasuan, bestelako eremuekin loturiko okerrak ere zenbatu diren arren, nagusiki (% 66,67) konplementatzailearekin uztartutako eremuan izan ditu hutsegiteak. Adizki bakarraren kasuan, *zaiola* adizkian, hain zuzen ere, oker guztiak bestelako eremura lerratu beharrekoak dira.

GT1en eta GT2ren kasuak behatzean, honako emaitza hauek eskuratu ditut:

4. irudia. GT1, mendeko perpausetako adizkien okerrak



5. irudia. GT2, mendeko perpausetako adizkien okerrak



GT1ek zailtasun gehiago izan du konplementatzailearen marka ez den bestelako ezaugarri morfosintaktikoekin: konplementatzailearen markarekin loturiko okerrak % 42,99 dira; bestelako okerrak, % 57,32. GT2k, be-

rriz, konplementatzailearen markarekin loturiko okerrak baino ez ditu ekoitzi. Dena den, horiek ekoitzitako mendeko perpauseko hiru aditz-laguntzailetan jasoak dira, inon gehiago ez.

5.1.2. Esaldien errepikapen-ariketa

Konplementatzailearen markaz gain, adierazle kognitiboak ere ikerketaren ardatz izan dira. Horrako hori behatzeko LITMUS-SR ariketa baliatu da eta 13. taulak dakartza bildutako emaitzok labur:

13. taula. LITMUS-SR ariketaren emaitzak

		HGN1	GT1	GT2
Zuzenak	Aldaketarik gabe	40	45	53
	Aldaketekin	0	3	4
Okerrak		18	10	1
x 2		5	1	2
x 3		0	2	0

Oharra: LITMUS-SR proban entzundako esaldiak hitzez hitz errepikaturiko edo gramatikalki zuzen egituraturiko esaldi-kopurua, forma okerren kopurua, eta audioa zenbat bider errepikatua izan den kopurua (x 2: bi aldiz; x 3: hiru aldiz).

Forma okerren kopuruak aztertuz ikus daiteke, HGN-zantzuak dituen haurra dela akats gehien egin duena; izan ere, 18 forma oker ekoitzi ditu eta adinkideek 10 (GT1) eta 1 (GT2). Ildo beretik, HGN1ek ez du entzundakotik urruntzen den esaldi gramatikalik ekoitzi, GT1ek eta GT2k, ordea, bai (hiru eta lau, hurrenez hurren). Azkenik, taulak erakusten duenez, HGN1 izan da esaldiak errepikatzeko eskaera gehien egin duena; izan ere, 58 esalditatik 5 birritan entzun behar izan ditu.

6. Eztabaida eta ondorioak

Artikulu honek HGNaren adierazleak euskal hiztun diren gaztetxoengan aztertu eta behatzea izan du helburu. Horretarako, beste hizkuntza eta komunitate batzuetan sakonki ikertu diren hizkuntzazko adierazleetan (morfosintaktikoak) eta adierazle kognitiboetan jarri du arreta. Dena den, 1. atalean aipatu bezala, bi adierazle-mota horiez gain, HGNak beste zenbait adierazle ere baditu; neure ikerlan honetan lau adierazle-mota bereizi ditut: adierazle biografikoak, adierazle kognitiboak, hizkuntzaren erabilera-modalitateak eta hizkuntzazkoak. Diagnostiko faltan, HGN1 izendapenez kode-tutako partaideak HGN-zantzuak erakusten dituela baieztatzeko, aipaturiko adierazle-mota guztiak gogoan hartu dira. 14. taulak HGN1 partaideak HGNaren adierazleekiko duen bateragarritasuna laburbilduta dakar:

14. taula. HGNaren adierazleekiko bateragarritasuna HGN1engan

HGN1en adierazle biografikoak	<i>Hizkuntza-arazoak familian</i>	Aita eta arreba logopedaren zerbitzua jasotakoak dira.
	<i>Sexua</i>	Ikergaia mutikoa da eta mutikoek HGNa izateko probabilitate handiagoa dutela ikusi da nazioarteko ikerketetan (Sanz-Torrent; Andreu 2021).
	<i>Hizkuntzaren garapenean eragin ohi duen haurtzaroko gaitzik (adib., otitisa) ote?</i>	Ez
	<i>Hiztun berantiarra</i>	Lehen hitza: 16-24. hilabeteen artean Lehen esaldia: 25-30. hilabeteen artean

HGN1en hizkuntzaren erabilera-modalitateak	Irakurketa	<ul style="list-style-type: none"> – Aro silabikoa (<i>a-te-a</i> vs <i>atea</i>). – Hasiera faltsuak. – Hitzak (adib., <i>leihatila</i>, <i>buelta</i>, <i>etab.</i>) identifikatzeko zailtasuna. 	Adinkideak baina 2 urte atzerago.
	Idazmena	<ul style="list-style-type: none"> – Ekintzak segida gisa aurkezten dira <i>eta</i> eta <i>baina</i> lokailuak soilik erabiliz. – Testu egitura falta da: kohesio eta koherentzia gabeko testu motzak (63,33 hitz testuko). – Paragrafo bakarra puntuazio zeinu gabe. 	
	Ahozko ekoizpena	Ez du beti garbi artikulatzen.	
	Hiztegia	<ul style="list-style-type: none"> – Errepikapen ugariak eta lexiko orokorra. – Hitzak oroitzeko zailtasuna. 	
HGN1en adieraze kognitiboak	LITMUS-SR	<ul style="list-style-type: none"> Esaldiak behin baina gehiagotan entzun beharra. Entzundakoa hitzez hitz errepikatzeko zailtasuna. 	
	Atzerapen kognitiboa	Ez	
HGN1en hizkuntza-adierazleak	Aditzaren morfologia	Komplementatzailearen morfemarekin lotutako akatsak.	

HGNaren ezaugarriekiko bateragarritasun handia duela HGN1ek erakusten digu taulak, galdetegi linguistikoa eta hizkuntza-gaitasunak neurtzeko erabilitako proba ezberdinek bildu dutenez. Norbanakoak ez ditu soilik arlo morfosintaktikoari loturiko hutsegiteak ekoitzi, HGNaren ezaugarritzat hartu diren adierazle biografikoekin, hizkuntzaren erabilera-modalitateekin edo arlo kognitiboarekin uztarturiko jokaerak ere erakutsi ditu. Esaterako, adinkideek baina zailtasun nabarmenagoak ditu entzundako esaldiak hitzez hitz errepikatzeko. Holako sintomak HGNdun hiztun elebakar zein elebidunekin hauteman dira (Conti-Ramsden eta beste 2001; Tuller eta beste

2018, beste batzuen artean) eta, beraz, beste hizkuntza batzuetan behatu den egoera gure ikergaiarengan ere islatu da.

Hizkuntza-gaitasunei dagokienean, adinkideak baino irakurketa-gaitasun apalagoa hauteman diote irakasleek; izan ere, irakurketa silabikoaren prozesuan dago oraindik haurra. Honez gain, idazmenean, ahozko ekoizpenean eta hiztegi-gaitasunetan ere aurkitu dira adinkideenak baino ahalmen urriagoak. Irizpide horiei jarraituz, beraz, HGN1 parte-hartzaileak hizkuntza-nahasmenduaren zantzuak dituela esateko oinarriak ditut.

Artikulu honek, ordea, adierazle kognitibo eta morfosintaktikoetan arreta jarri du, errepikapen-ariketan eta konplementatzailearen markan, zehazki. Bi aztergai horiei lotuta hipotesi eta ideia ezberdinak izan ditut oinarri.

Batetik, konplementatzailearen marka ahoskatzea jarduera konplexua dela esan dut, bai haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-prozesua ikeru duten lan longitudinalen datuak zein *Computational Complexity Hypothesis* (Jakubowics; Nash 2001) izeneko proposamena euskarri izanik. Konplementatzailearen aurreneko ekoizpenak 4. aroan gauzatzen dira eta, gainera, konplementatzaile-mota ezberdinen ekoizpena ez da aldiberekoa. Adibidez, *-ela* erlatibozko perpauseko *-en* baino goiztiarragoa da. Beraz, kategoria funtzional horren jabekuntza ez da aisa gertatzen haur txikiekin. Konplexutasunaren nozioa HGNaren esparrura ekarriz gero, *Computational Complexity Hypothesis* (Kakubowics; Nash 2001) ideiarene baitan konplementatzailearen atzikia adizkiari eranstea ere jarduera konplexua dela ikusiko dugu, ez baita esaldi orotan aurkituko dugun marka.

Bestalde, testuinguru elebakar zein elebidun/eleantzetan eginiko ikerketek (Conti-Ramsden eta beste 1997; Tuller eta beste. 2018, beste batzuen artean) erakutsi dute, esaldi-errepikapenean badirela aldeak hizkuntza-arazodun eta hizkuntza-arazorik gabeko norbanakoen artean. Alde horiek epe laburreko memoriarekin eta prozesamendu-mailako mugekin lotu izan dituzte (Gathercole eta Baddeley 1990; Ahufinger eta beste 2021; Sanz-Torrent eta Andreu 2021). Izan ere, esaldia entzundako moduan ahoskatu ahal izateko, hura sintaktikoki zein semantikoki ongi ulertu behar da. Jarduera horretan hutsegiteak, gramatikalki okerra den esaldi bat ekoiztera darama norbanakoa (Vinther 2002; Frizelle eta Fletcher 2014).

Beraz, hizkuntza-arazoei zein hizkuntza-jabekuntza goiztiarrari buruz, arlo morfosintaktiko zein kognitiboan egindako aurretiko ikerketak giltzarri ditudala, bi aurreikuspen proposatu ditut:

- i) Mendeko perpausetan diren adizkietan, beren baliokide diren perpaus nagusikoetan baino, forma oker gehiago ekoitziko du HGN-zantzuak dituen gaztetxoak.
- ii) HGNa duen hiztunak, hizkuntza-arazorik ez duten adinkideek baino, esaldi oker gehiago ekoitziko ditu errepikapen-ariketan, epe laburreko memoria eta prozesamendu-mailako arazoak medio.

Lehenengo aurreikuspenarekin loturiko emaitzak behatzean, hiru egoera azpimarratu nahi ditut:

- a) alde kuantitatiboak daude HGN1en eta hizkuntza-arazorik gabeko adinkideen artean.
- b) HGN1ek konplementatzailearen morfemarekin izan ditu bereziki zailtasunak.
- c) GT1ek eta GT2k ere zailtasunak izan dituzte zenbait adizkirekin.

HGN1ek perpaus nagusian zein mendekoan, bietan –erabilitako zazpi adizkitatik zazpitan–, izan ditu arazoak mendeko adizkian. Adinkideek, berri, bederatzitik hirutan, GT1en kasuan, eta zazpitik hirutan, GT2ri dago-kionez. Horretara, arazotsu suertatutako adizkien kopuruan aldeak daude parte-hartzaileon artean. Ildo beretik, HGN1en datuak soilik aztertzen baditugu, bi ezaugarri nabarmen aurkituko ditugu. Hasteko, adizki batek perpaus nagusian forma okerrik ez badu ere, mendekoan ageri den haren baliokidean forma okerrak zenbatu dira. Gainera, perpaus nagusian, adizki batek forma okerrak baditu, mendekoan ere, hark duen baliokidean, oker-kopurua areagotu egin da. Bigarren, 3. irudian jaso den bezala, mendekoan hauteman diren forma okerren atzean konplementatzaileari egotzitako akatsa dago nagusiki. Hau da, mendeko perpauseko zazpi adizkitatik bakar baten baino ez da konplementatzaileari loturiko okerrik behatu.

Garapen tipikoa erakutsi duten hurrek ere, elkarrekiko emaitza ezberdinak erakutsi dituzte. Alegia, GT1en kasuan, konplementatzailearekin

loturiko okerrak gutxi dira. GT2ren kasuan, mendeko perpausean konplementatzailearekin loturiko okerrak besterik ez daude. Dena den, gogoan izan behar dugu, horrako oker horiek hiru adizki-motatan baino ez direla aurkitu eta HGN1en kasuan, ostera, ezaugarri horren okerrak sei adizkitara hedatu direla.

Ondorioz, arestian zerrendaturiko *a)* eta *b)* puntuei lotuta, batetik, eginiko aurreikuspena bete dela azpimarratu behar dut. Izan ere, HGN1ek zailtasun gehiago izan du mendeko perpauseko adizkietan, horien baliokide diren perpaus nagusikoetan baino. Bestetik, konplementatzailearen marka HGNaren euskarazko adierazletzat har dezakegula uste dut. Izan ere, HGN-zantzuak dituen haurrak adinkideek baino oker gehiago izan du esparru honetan.

Aipagai izan dudana *c)* puntuak, berriz, beste errealitate baten berri ematen digu. Alegia, 2. atalean deskribatu denaren baitan, 11-12 urteko hizkuntza-arazorik gabeko haurrek adizkiaren formak, izan perpausa nagusikoak edo mendekoak, berenganatuak izan behar lituzkete. Dena den, ikerketaren emaitzek bestelakoa erakutsi dute. GT1ek forma okerrak ekoitzi ditu *dela*, *zaizkio/zaizkiola* eta *ditu/dituela* adizkiekin. GT2k, berriz, *da/dela*, *du/duela* eta *diola*-rekin sortu ditu forma desegokiak. Ondorioz, esan liteke, 11-12 urteko gaztetxo euskaldunek oraindik ez dutela aditz-morfologiarik testuinguru orotan menderatzen.

GT1i zein GT2ri *dela* aditz-laguntzailea zaila egin zaie. Zailtasunak, haur txikien ekoizpenetan, morfemen gardentasunarekin zerikusia izan dezakeela proposatu izan da (Manandise 1987). Alegia, Traskek (1981) zein Ezeizabarrenak (1995), beste batzuen artean, azaldu dutenez, hirugarren pertsonaren morfema ez da gardena. Batzuek *d-* aurrizkia jo izan dute hirugarren pertsonaren markatzat, baina sarri hirugarren pertsona morfema hutsaren (\emptyset) bidez adierazten da, eta badira bestelako alomorfoak ere: *-o*, *-a*, besteak beste. Edozelan ere, *dela* adizkiari dagokionean, gure ikergaiak konplementatzailearen markarekin baino ez dute zailtasunik izan. Hala bada, bildutako datuei eutsirik, 11-12 urteko haurrek ekoitziriko forma okerrak, *dela* aditz-laguntzailearen kasuan, gardentasun-gabeziari ez dagozkiola ondorioztatu behar dut.

Esaldien errepikapen-ariketari dagokionez, epe laburreko memoria eta prozesamendu-arazoak hauteman ditut HGN-zantzuak dituen haurraren

kasuan. Alegia, memoriaz gain, esaldia sintaktikoki zein semantikoki ulertu egin beharra dago entzun bezala ekoizteko (Vinther 2002; Frizelle eta Fletcher 2014). HGN1ek adinkideek baino zailtasun gehiago izan du entzundakoa hitzez hitz errepikatzeke, eta, hala, forma oker gehien ekoitzi duena izan da (denera, 18). Beraz, neure ikerketan bildutako esaldien errepikapen-ariketaren emaitzek beste ikerketa batzuetan jasotakoekin bat egin dute (Tuller eta beste 2018; Ahufinger eta beste 2018, besteak beste) eta HGN1en epe laburreko memoria eta prozesamendu-arazoak azaleratu ditu. Honela, HGNaren adierazle kognitiboen zantzuak ere erakutsi dira.

Biribilduz esan dezadan, batutako datuei erreparaturik, HGNaren euskarazko balizko zantzu batzuk identifikatu direla. Horrek esan nahi du: batetik, konplementatzailearen markarekin aurkituriko okerrak eta esaldien errepikapen-ariketan aurkituriko zailtasunak, HGNdun haur euskaldunen diagnostikoak bideratzeko balizko adierazleak direla; bestetik, egun probaldi-fasean dagoen LITMUS-SR (Etxeberria eta beste 2021, argitaragabea) lan-tresna aproposa dela 11-12 urteko haurrengan HGNaren behaketa sakonagoa bideratzeko. Hala eta guztiz ere, ikerketa honek oso ikergai-kopuru apalarekin lan egin du eta, horregatik, funtsezkoa da miatzea, ea azterturiko jokabideok HGN1en bereizgarriak bakarrik diren edo populazio zabalago baten adierazgarriak. Eta ildo beretik, hizkuntza-arazoaren emaitza ote den hori, edota emaitzok hizkuntza gutxituarekin, euskararekin, izandako hartu-eman urriaren albo-ondorioak ez ote diren ere zehaztu beharra dago aurrerantzean.

Bibliografia

AHUFINGER, Nadia, Laura FERINU, Fernanda PACHECO-VERA, Mònica SANZ-TORRENT, Llorenç ANDREU (2021). «El trastorno del desarrollo del lenguaje (TDL) más allá de las dificultades lingüísticas: memoria y atención», *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología* 41 (1) (2021): 4-16. Eskuragarri: [<https://doi.org/10.1016/j.rlfa.2019.12.001>]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

ARCHIBALD, Lisa (2021). *Identifying DLD in children under 5 years of age*. Language and Working Memory Lab. Eskuragarri: [https://www.uwo.ca/fhs/lwm/news/2021/06_07_DLDUnder5.html]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

——— eta Susan Elizabeth GATHERCOLE (2007). «Nonword repetition in Specific Language Impairment: more than a phonological short-term memory», *Psychonomic Bulletin & Review* 14 (5): 919-924.

ARTIAGOITIA, Xabier eta Arantzazu ELORDIETA (2016). «On the semantic function and selection of Basque finite complementizers», in *Complementizer Semantics in European Languages*, K. Boye eta P. Kehayov (ed.), Empirical Approaches to Language Typology bilduma, 57. zenbakia. Berlin: De Gruyter Mouton: 379-411.

BARREÑA, Andoni (1993). *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena. INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

——— (1995). *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

——— (2000). «Haurrak, egitura txertatuen jabekuntza eta mintzaide helduen eragina», *Uztaro* 32: 17-33.

BEDORE, Lisa M. eta Laurence B. LEONARD (2005). «Verb inflections and noun phrase morphology in the spontaneous speech of Spanish-speaking children with Specific Language Impairment», *Applied Psycholinguistics* 26 (2) (2005): 195-225. Eskuragarri: [<https://produccioncientifica.ugr.es/documentos/618f57589ff8c939aacc1150?lang=en>]. (2023ko apirilaren 10ean kontsultatua).

BIRDSONG, David, Libby M. GERTKEN eta Mark AMENGUAL (2012). *Bilingual Language Profile. An easy-to-use instrument to assess bilingualism*. Argitalpen digitala: University of Texas at Austin (COERLL). Eskuragarri: [<https://sites.la.utexas.edu/bilingual/>]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

BISHOP, Dorothy Vera Margaret (1994). «Grammatical errors in Specific Language Impairment: competence or performance limitations?», *Applied Psycholinguistics* 15 (4) (1994): 507-550. Eskuragarri: [DOI: 10.1017/S0142716400006895]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

——— eta Margaret Jean SNOWLING (2004). «Developmental Dyslexia and Specific Language Impairment: same or different?», *Psychological Bulletin* 130 (6) (2004): 858-886. Eskuragarri: [DOI:10.1037/00332909.130.6.858]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

———, Margaret Jean SNOWLING, Paul A. THOMPSON, Trisha GREENHALGH, eta CATALISE-2 consortium (2017). «Phase 2 of CATALISE: a multinational and multidisciplinary Delphi consensus study of problems with language development.

Terminology», *JCPP* 58 (10) (2017): 1068-1080. Eskuragarri: [<https://doi.org/10.1111/jcpp.12721>]. (2023ko maiatzaren 2an kontsultatua).

BUIZA-NAVARRETE, Juan José, José Antonio ADRÉN-TORREZ, María GONZÁLEZ-SÁNCHEZ eta María José RODRÍGUEZ-PARRA (2004). «Evaluación de marcadores psicolingüísticos en el diagnóstico de niños con trastorno específico del lenguaje», *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología* 24 (4) (2004): 142-155.

CAIN, Kate, Nikole PATSON eta Leanne ANDREWS (2005). «Age and ability related differences in young readers' use of conjunctions», *Journal of Child Language* 32 (4) (2005): 877-892. Eskuragarri: [DOI:10.1017/s0305000905007014]. (2023ko apirilaren 24an kontsultatua).

CATTS, Hugh William, Suzanne M. ADLOF, Tiffany P. HOGAN eta Susan Ellis WEISMER (2005). «Are Specific Language Impairment and dyslexia distinct disorders?», *JSLHR* 48 (2005): 1378-1396. Eskuragarri: [DOI:10.1044/1092-4388(2005/096)]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

CONTI-RAMSDEN, Gina, Alison CRUTCHLEY eta Nicola BOTTING (1997). «The extent to which psychometric tests differentiate subgroups of children with SLI», *JSLHR* 40 (1997): 765-777. Eskuragarri: [DOI:10.1044/jslhr.4004.765]. (2023ko apirilaren 10ean kontsultatua).

DE RIJK, Rudolf P. G. (2008). *Standard Basque. A progressive grammar*. Cambridge: MIT press.

EBBELS, Susan (2014). «Introducing the SLI debate», *IJLCD* 49 (4) (2014): 377-380. Eskuragarri: [DOI:10.1111/1460-6984.12119]. (2023ko apirilaren 12an kontsultatua).

ETXEBERRIA, Urtzi, Maria Jose EZEIZABARRENA eta Philippe PRÉVOST (2021). *LITMUS-SR*. (Argitaragabea).

EUSKALTZAINDIA (1997). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKO JAURLARITZA (2015). *2015eko ebaluazio diagnostikoa. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*. (Argitalpen digitala). Eskuragarri: [https://isei-ivei.euskadi.eus/documents/635622/1423360/ED15_idaz_zuz_irizp+LH_EUSKARA.pdf/e7754570-ace5-49ce-b9a8-0e190d94bf0b]. (2023ko ekainaren 7an kontsultatua).

——— (2017). *2017ko ebaluazio diagnostikoa. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*. (Argitalpen digitala). Eskuragarri: [<https://isei-ivei.euskadi.eus/docu>

ments/635622/1641272/ED17_4LH_idaz_zuz_EUSK.pdf /bc3ddd05-f654-46d-6-9c19-1a7a3d2aba44]. (2023ko ekainaren 7an kontsultatua).

EZEIZABARRENA, Maria Jose (1995). Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües [Doktorego-tesia]. Gasteiz: UPV/EHU.

——— (2002). «Root infinitives in two pro-drop languages», in *The acquisition of Spanish morphosyntax*, A. T. Pérez-Leroux eta J. Muñoz Licerias (ed.). Dordrecht: Springer: 35-65.

——— eta Aroa MURCIANO (2023). «MAIN euskalduna: haurren kontaketa adinak eta ingurune soziolinguistikoak duten eragina neurtzeko tresna», *Lapurdum* XXIV (2023): 121-131.

FLAX, Judy F., Teresa REALPE-BONILLA, Linda S. HIRSCH, Linda M. BRUSTOWICZ, Christopher W. Bartlett eta Paula Tallal (2003). «Specific Language Impairment in families: evidence for co-occurrence with reading problems», *JSLHR* 46 (3) (2003): 530-543. Eskuragarri: [DOI:10.1044/1092-4388(2003/043)]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

FRIZELLE, Pauline eta Paul FLETCHER (2014). «Relative clause constructions in children with Specific Language Impairment», *IJLCD* 49 (2) (2014): 255-264. Eskuragarri: [DOI:10.1111/1460-6984.12070]. (2023ko apirilaren 10ean kontsultatua).

GAGARINA, Natalia, Daleen KLOP, Sari KUNNARI, Koula TANTELE, Taina VÄLIMAA, Ute BOHNACKER eta Joel WALTERS (2019). *MAIN: Multilingual Assessment Instrument for Narratives (Part I). MAIN materials to be used for assessment (Part. II)*, ZAS Papers in Linguistics bilduma, 56. zenbakia. Berlin: Leibniz-Zentrum: 1-140. (Euskararen bertsioa, M. J. Ezeizabarrenak itzulia eta egokitua).

GATHERCOLE, Susan Elizabeth eta Alan David BADDELEY (1990). «The role of phonological memory in vocabulary acquisition: a study of young children learning new names», *British Journal of Psychology* 81 (1990): 439-454.

GATHERCOLE, Virginia C. M. eta Enlli Món THOMAS (2009). «Bilingual first-language development: dominant language takeover, threatened minority language take-up», *Bilingualism: Language and Cognition* 12 (2) (2009): 213-237. Eskuragarri: [DOI:10.1017/S1366728909004015]. (2023ko apirilaren 12an kontsultatua).

HARDING, Sophie, Maya CHAUHAN-SIMS, Emily OXLEY eta Hannah M. NASH (2023). «A Delphi study exploring the barriers to dyslexia diagnosis and support: a parent's perspective», *International Journal of Research and Practic* 29 (3) (2023):

162-178. Eskuragarri: [<https://doi.org/10.1002/dys.1743>]. (2023ko apirilaren 24an kontsultatua).

JACKSON-MALDONADO, Donna eta Ricardo MALDONADO (2017a). «El uso de conectores en niños con y sin trastorno del lenguaje», *Lingüística Mexicana* 8 (2) (2017): 33-55. Eskuragarri: [DOI:10.1111/1460-6984.12312]. (2023ko apirilaren 10ean kontsultatua).

——— (2017b). «Grammaticality differences between Spanish-speaking children with Specific Language Impairment and their typically developing peers», *IJLCD* 52 (6) (2017): 750-765. Eskuragarri: [DOI:10.1111/1460-6984.12312]. (2023ko otsailaren 2an kontsultatua).

JAKUBOWICZ, Celia, Lea NASH eta Marlies VAN DER VELDE (1999). Inflection and Past tense Morphology in French SLI, in *Proceedings of the 23rd Annual Boston University Conference on Language Development*, A. Greenhill, H. Littlefield eta C. Tano (ed.), i. liburukia. Somerville: Cascadilla Press: 289-300.

——— eta Lea NASH (2001). «Functional Categories and Syntactic Operations in (Ab)normal Language Acquisition», *Brain and Language* 77 (2001): 321-339. Eskuragarri: [DOI:10.1006/brln.2000.2405]. (2023ko otsailaren 20an kontsultatua).

LARRAÑAGA, Maria Pilar (1994). «La evolución del caso en euskera y castellano», in *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, J. M. Meisel (ed.). Madril: Iberoamericana Vervuet: 113-150.

LASARTE, Gema (2019). *Gaitasun komunikatiboa II. Diskurtso komunikatiboak*. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua.

LEYARISTI, Ainhoa (2023). *Hizkuntza Garapeneko Adierazleen bila euskal hiztunen ahotan: Izen- eta aditz-morfologiaren erabilera* [Master Amaierako Lana]. Gasteiz: UPV/EHU.

LEONARD, Laurence B. (1998). *Children with Specific Language Impairment*. Cambridge: MIT Press.

MANANDISE, Esmérald (1987). «Aux in Basque», in *Historical Development of Auxiliaries*, M. Harris eta P. Ramat (ed.). Berlin: De Gruyter Mouton: 317-344.

MCARTHUR, Genevieve, John H. HOGBEN, Veronica T. EDWARDS, Stephanie M. HEATH eta Elise D. MENGLER (2000). «On the “Specifics” of Specific Reading Disability and Specific Language Impairment», *JCPP* 41 (7) (2000): 869-874. Eskuragarri: [DOI:10.1111/1469-7610.00674]. (2023ko otsailaren 19an kontsultatua).

NAIDOO, Sandhya (1972). *Specific dyslexia*. Londres: Pitman.

NEWBURY, Dianne F., Silvia PARACCHINI, Thomas S. SCERRI, Laura WINCHES-TER, Laura ADDIS, Alex J. RICHARDSON eta Anthony P. MONACO (2011). «Investigation of dyslexia and SLI risk variants in reading and language impaired subjects», *Behavioral Genetics* 41 (1) (2011): 90-104. Eskuragarri: [DOI:10.1007/s10519-010-9424-3]. (2023ko martxoaren 3an kontsultatua).

NORBURY, Courtenay Frazier, Debbie GOOCH, Charlotte WRAY, Gillian BAIRD, Tony CHARMAN, Emily SIMONOFF, George VAMVAKAS, Andrew PICKLES (2016). «The impact of non-verbal ability on prevalence and clinical presentation of language disorder: evidence from a population study», *Journal of Child Psychology and Psychiatry* 57 (11) (2016): 1247-1257. Eskuragarri: [http://dx.doi.org/10.1111/jcpp.12573]. (2023ko otsailaren 20an kontsultatua).

PARADIS, Johanne (2007). «Bilingual children with Specific Language Impairment: theoretical and applied issues», *Applied Psycholinguistics* 28 (2007): 551-564. Eskuragarri: [DOI:10.1017/S0142716407070300]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

POURQUIÉ, Marie, Urtzi ETXEBERRIA, Hugues LACROIX, Philippe PRÉVOST (d. g.). *HEGA: Haur Elebidumen Gurasoentzako Galdetegia*. (Argitaragabea eta berrikusten ari direna).

RICE, Mabel eta Kenneth WEXLER (1996). «Toward tense as a clinical marker of Specific Language Impairment in English-speaking children», *JSLHR* 39 (6) (1996): 1236-1257. Eskuragarri: [DOI:10.1044/jshr.3906.1239]. (2023ko martxoaren 20an kontsultatua).

SANZ-TORRENT, Mònica eta Llorenç ANDREU (2021). «El Trastorno del Desarrollo del Lenguaje (TDL): dificultades lingüísticas y no lingüísticas», *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología* 41 (2021): 1-3. Eskuragarri: [DOI:10.1016/j.rlfa.2019.12.001]. (2023ko martxoaren 20an kontsultatua).

SHAPIRO, Lauren eta Judith HUDSON (1991). «Tell me a make-believe story: coherence and cohesion in young children's picture-elicited narratives», *Developmental Psychology* 27 (6) (1991): 960-974. Eskuragarri: [DOI:10.1037/0012-1649.27.6.960]. (2023ko apirilaren 4an kontsultatua).

——— (1997). «Coherence and cohesion in children's stories», in *Processing interclausal relationships. Studies in the production and comprehension of text*, J. Costermans eta M. Fayol (ed.). Mahwah: Lawrence Erlbaum Associates: 23-48.

SPANOUDIS, George C., C. Papadopoulos THIMOTHY eta Spyrou SPYROULA (2018). «Specific Language Impairment and reading disability: categorical distinction or continuum?», *Journal of Learning Disabilities* 52 (1) (2018): 1-12. Eskuragarri: [https://doi.org/10.1177/0022219418775111]. (2023ko apirilaren 4an kontsultatua).

STOKES, Stephanie F., Anita M.Y. WONG, Paul FLETCHER eta Laurence B. LEONARD (2006). «Nonword repetition and sentence repetition as clinical markers of Specific Language Impairment: the case of cantonese», *JSLHR* 49 (2) (2006): 219-236. Eskuragarri: [DOI:10.1044/1092-4388(2006/019)]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

TOMBLIN, James Bruce, Nancy L. RECORDS, Paula BUCKWALTER, Xuyang ZHANG, Elaine SMITH eta Marlea O'BRIEN (1997). «Prevalence of Specific Language Impairment in kindergarten children», *JSLHR* 40 (6) (1997): 1245-1260. Eskuragarri: [DOI:10.1044/jslhr.4006.1245]. (2023ko otsailaren 19n kontsultatua).

TRASK, Robert L. (1981). «Basque verbal morphology», in *Euskalarien nazioarte-jardunaldiak*, Iker bilduma, 1. zenbakia. Bilbo: Euskaltzaindia: 285-304.

TULLER, Laurice, Cornelia HAMANN, Solveig CHILLA, Sandrine FERRÉ, Eléonore MORIN, Philippe PRÉVOST, Christopher DOS SANTOS, Lina Abed IBRAHIM eta Racha ZEBIB (2018). «Identifying language impairment in bilingual children in France and in Germany», *International Journal of Language Communication & Disorder* 53 (4) (2018): 888-904. Eskuragarri: [DOI:10.1111/1460-6984.12397]. (2023ko otsailaren 20an kontsultatua).

VAN DER LELY, Heather J. K. (1994). «Canonical linking rules: forward vs. reverse linking in normally developing and specifically language impaired children», *Cognition* 51 (1994): 29-72.

VINTHER, Thora (2002). «Elicited imitation: a brief overview», *International Journal of Applied Linguistics* 12 (1) (2002): 54-73. Eskuragarri: [DOI:10.1111/1473-4192.00024]. (2023ko apirilaren 2an kontsultatua).

WEXLER, Kenneth, Carson T. SCHÜTZE eta Maben RICE (1998). «Subject case in children with SLI and unaffected controls: evidence for the AGR/TNS omission model», *Language Acquisition* 7 (2) (1998): 317-344. Eskuragarri: [DOI:132.236.27.217]. (2023ko otsailaren 2an kontsultatua).

WONG, Simpson W. L., Wang-On LI eta Anisa CHEUNG (2022). «Graphic novel reading comprehension in Chinese children with developmental language disorder

(DLD)», *Read Writ* 36 (2022): 1631-1649. Eskuragarri: [<https://doi.org/10.1007/s11145-022-10346-7>]. (2023ko apirilaren 4an kontsultatua).

ZUBIRI, Juan Jose (1997). Izen sintagmaren determinazioaren eta kasuen jabe-kuntza eta garapena hiru urte arte. Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren garapena [Doktorego-tesia]. Gasteiz: UPV/EHU.

Ergatiboaren erabilera *euskara-gaztelania* kode-alternantzian: kasu-azterketa bat¹

El uso del ergativo en la alternancia de código *euskera-castellano*: un estudio de caso

L'utilisation de l'ergatif dans l'alternance de code *basque-espagnol* : une étude de cas

The use of the ergative in *Basque-Spanish* code-switching: a case study

URIARTE ORBAÑANOS, Endika
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Letren Fakultatea
euriarte023@ikasle.ehu.eus
<https://orcid.org/0009-0000-1875-129X>
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.279>

Noiz jaso: 2024-01-08
Noiz onartua: 2024-03-04

Lan honen helburua ergatiboaren eta *euskara-gaztelania* kode-alternantziaren (KA) erabileraren arteko harremanetan sakontzea da, lehen hizkuntza (H1) euskara duen eta KA sarritan darabilen hiztun heldu baten kasu-azterketan oinarrituz. Ebidentzia enpirikoa lortzeko bi metodo baliatu dira: batetik, elkarrizketa glotobiografikoa; eta bestetik, onargarritasun-juzguak. Soziolinguistika-literaturan elkartu gabeko bi alor horietatik, emaitzek ergatiboaren erabilera euskara bigarren hizkuntza (H2) duten hiztunen erabilerara hurbiltzen

¹ Artikulu hau neure Master Amaierako Lanean (Uriarte 2023) oinarrituta dago. Ikerketa-lan hori Euskaltzaindiaren eta Mintzolaeren diru-laguntzari esker burutu nuen. Eskerrak eman nahi dizkiet masterreko ikaskideei, Irantzu Epelderi eta Leire Diaz de Gereñuri eginiko oharrengatik. Halaber, neure esker ona adierazi nahi diot Amaia Munarritz-Ibarrolari egindako zuzendari-lana-gatik, bidea erakusteagatik eta baita testu hau moldatzen laguntzeagatik ere. Esan gabe doa, egon litezkeen akatsak neureak besterik ez direla.

dela iradoki digute. Hiztunaren hizkuntza-ibilbidea kontuan hartuta, beraz, ergatiboaren erabilera hizkuntza-higaduraren ondorioa izan daiteke.

Gako-hitzak: kode-alternantzia, ergatiboa, kasu-azterketa, euskara, onargarritasun-juzguak.

El objetivo de este proyecto es profundizar en la relación entre la marca del ergativo y la alternancia de código (AC) *euskera-castellano*, basándonos en el estudio de caso de un adulto con L1 euskera y con práctica habitual de AC. Para obtener evidencia empírica se han utilizado dos métodos: por un lado, una entrevista glotobiográfica; y por otro, los llamados juicios de aceptabilidad. De estos dos ámbitos que la sociolingüística casi no los ha estudiado de manera combinada, hemos extraído resultados novedosos, pues el uso del ergativo se asemeja a un hablante con euskera como segunda lengua. Teniendo en cuenta su historial lingüístico, se podría pensar que dicho uso es la consecuencia de la atrición del lenguaje.

Palabras clave: alternancia de código, ergativo, estudio de caso, euskera, juicios de aceptabilidad.

L'objectif de ce travail est de mieux comprendre la relation entre l'ergatif et l'utilisation de l'alternance de code (AC) *basque-espagnol*, en s'appuyant sur l'étude de cas d'un locuteur adulte dont la première langue est le basque et qui utilise fréquemment l'AC. Deux méthodes ont été utilisées pour obtenir des résultats empiriques : d'une part, l'entretien glotto-biographique et, d'autre part, les jugements intuitifs de l'acceptabilité. Ces deux éléments sans lien apparent ont donné lieu à des résultats innovants, parce que les résultats suggèrent que l'utilisation de l'ergatif se rapproche de celle des locuteurs dont le basque est la seconde. Compte tenu de la trajectoire linguistique du locuteur, l'utilisation de l'ergatif peut être due à l'usure du langage.

Mots-clés : alternance de code, ergatif, étude de cas, basque, jugements de l'acceptabilité.

The aim of this research is to analyse the relationship between the ergative case and Basque-Spanish code-switching (CS), based on a case-study of an adult with L1 in Basque who frequently engages in CS. Empirical evidence was collected using two methodologies: on one hand, a glotto-biographical interview, and on the other hand, some acceptability judgment tasks. The unprecedented combining of those two angles has yielded some interesting results, in that the use of the ergative is closer to that of a person with Basque as their

second language. Bearing in mind the linguistic background of the speaker, such use of the ergative could be due to language attrition.

Keywords: code-switching, ergative, study-case, Basque, acceptability judgement tasks.

URIARTE ORBAÑANOS, Endika (2024). «The use of the ergative in *Basque-Spanish* codeswitching: a case study», *Euskera ikerketa aldizkaria*, 69, 1: 207-252.

1. Sarrera²

Ergatiboa euskalaritzan gehien aztertu den ezaugarri gramatikaletako bat da (Laka 1990, 2002; Salaburu 1992; Dixon 1994; Albizu 2009). Euskaren ergatiboaren jabekuntza (Ezeizabarrena 1996, 2012) eta helduen erabilera (Rodríguez-Ordóñez 2020) eta prozesamendua (Zawiszewski eta beste 2011) aztertu duten hainbat ikerketa psikolinguistikok erakutsi dute ergatiboa euskal hiztunentzat —haur zein heldu— zail gertatzen den ezaugarri gramatikala dela. Bestetik, kode-alternantzia (aurrerantzean KA) azken urteotan psikosoziolinguistikaren arlo ikertuenetarikoa bilakatu da (Bullock & Toribio 2009; Wei 2013). Eta aspalditxoon euskal psikosoziolinguistikaren ere ugaritu dira KAri buruzko lanak (Ibarra 2011; Lantto 2015; Pérez 2022), baina lan gutxi aztertu dute, ordea, ergatiboaren erabilera KAn. Oihartzabalek eta Epeldek (2017) eta Epeldek eta Oihartzabalek (2020), esaterako, *euskara-frantsesa* eta *euskara-gaztelania* KAdun esaldietako ergatiboaren erabilera aztertu zuten, biak lehen hurbilketa gisa ACOBA³ corpuseko adibide batzuetan oinarrituta. Alabaina, oraindik ez dira ezagutzen *euskara-gaztelania* KAn murriztapen gramatikalak ergatiboari dagokionez.

Hain zuzen, gure lan honek horixe du jomugan, ergatiboaren eta KAn erabileraren arteko harremana aztertzea. Horretarako, H1 euskara duen hiztun heldu baten kasu-ikerketa izango da abiapuntua. Hiztunaren bereizgarria da, *euskara-gaztelania* KA maiz egiteaz gain, ergatiboaren kasu-marka isildu ohi duela ahozko ekoizpenean. Hori dela eta, ebidentzia enpiriko in-

² Lan honetan erabili diren laburdurarik garrantzitsuenak:

H1 = lehen hizkuntza, H2 = bigarren hizkuntza, H2g = H2 goiztiarra, H2b = H2 berantiarra.

SAO = subjektua-aditza-objektua,

ABS = absolutiboa,

ERG = ergatiboa,

DAT = datiboa,

NOM = nominatiboa,

ACC = akusatiboa,

DS = determinatzaile-sintagma.

Igkor. = iragankorra eta Igaitz. = iragangaitza.

³ Euskal Herrian KA ikertzeko sortutako datu-base bat, frantsesezko *La parole bilingue. L'alternance codique chez les locuteurs bilingues bascophones* lanetik datorrena.

teresgarria eman dezake KAren eta ergatiboaren arteko harremana ikertzeko. Lanaren hurbilketa psikosoziolinguistikoa izango da, eta hala, datuak biltzeko metodo bi baliatu dira. Datu soziolinguistikoak lortzeko elkarrizketa glotobiografikoa egin zaio (Kasares 2014), bere hizkuntzen erabileraren narrazio biografikoa ezagutzeko. Bestetik, ergatiboaren eta KAren erabilera ere jorratu da ekoizpenari zein ulermenari erreparatuz. Ekoizpenerako, elkarrizketa glotobiografikoaren hizketa sasiespontaneo aztertu da. Ulermena aztertzeko, berriz, bi ariketa eginarazi zaizkio. Alde batetik, euskara hutszeko esaldiak dituen gramatikaltasun ariketa bat, ergatiboaren oharmena arakatzeko (Mazkieran 2022); eta, bestetik, KAdun esaldien murriztapen gramatikalak hobeto ezagutzeko, bereziki, subjektu eta predikatuen artean alternantzia duten KAdun egituren kasu-morfologiazko ezaugarriak, ikerlan honetarako berariaz sortutako onargarritasun-juzguen ariketa bat eginarazi zaio aukeratutako hiztunari. Ariketa hori H1 euskara duten beste hamar hiztunek⁴ ere egin dute, kontrol gisa.

2. Euskararen ergatiboa: haur zein helduen erabilera

Euskal psikolinguistikan ergatiboa izan da gehien aztertu den ezaugarri gramatikaletako bat, bai jabekuntzan (Ezeizabarrena eta beste 2009, 2012; Ezeizabarrena eta Larrañaga 1996; Huarte 2022), bai prozesamenduan (Zawiszewski eta beste 2011), baita erabileran (Tardienta 2021; Mazkieran 2022; Rodríguez-Ordóñez 2020) ere. Oro har, ikerketa horiek ergatiboaren kasu-marka ezaugarri gramatikal zaugarria den ebidentzia enpirikoa eman digute.

Euskal haurren jabekuntzarako lanek erakutsi dute, haurren kasu-markaketaren jabekuntzaren hurrenkera hauxe dela: ABS > ERG > DAT (Huarte 2022). Ergatiboaren kasu-marka datiboarena baino lehenago agertzen bada ere, denbora gehiago behar da sistematikoki erabiltzeko eta egonkortzeko H1 hiztunengan, eta are gehiago H2 hiztunengan (Ezeizabarrena 2012⁵). Ergatiboa da akats gehien erakusten duen kasua, hiztunok ekoizten

⁴ Gure lan honetarako hautatutako hiztunaren adin eta hezkuntza-maila aldetik bertsuak dira.

⁵ 3;00-8;00 adin-tarteko enaitzak dira.

hasten diren unetik bertatik, «espero den testuinguru guztietan behar bezala ekoizteko (% 90etik gora), urte erditik gora itxaron beharra dago» (Ezeizabarrena eta beste 2009: 652). Ezeizabarrenak (2012) ergatiboa zuzen erabiltzen ikasten ari diren aro horri «Ergatiboaren Hautazko Aldia» (*Ergative Optional Stage*) deitzen dio, eta ohikoena aldi honetan H1, H2g eta H2b-dunek *ex-egitezko* hutsak ekoiztea da, hala nola (1a) eta (1b). Gainera, jabe-kuntzan adinaren efektua ere ageri da, euskara H1⁶ eta H2⁷ dutenen artean aldeak aurkitu dira, lehenek horrelako huts gutxiago ekoizten dutela erakutsi baitute Ezeizabarrenak eta bestek (2009). Huartek (2022) eta Duguinek eta Köpkek (2019⁸) azpimarratu dute, H1 dutenen kasu gramatikalen jabe-kuntza-prozesua azkarragoa eta zuzenagoa (% 9 vs % 18) dela, H2 euskara dutenena baino. Absolutiboarekin ez dago ezberdintasunik, baina ergatiboarekin eta datiboarekin erabilera zuzenak *ex-egitezko* hutsarekin trukatzeko dira H2 duten kasuan. H1 euskara dutenek % 90eko zuzentasuna azaleratu dute ergatiboaren erabilerari dagokionez; H2 dutenek, ordea, % 19koa. *Ez-egitezko* hutsetan, H1 dutenek % 9 agertu dute; H2 dutenek, berriz, % 81. *Egitezko* hutsetan, berriz, H1 dutenek % 0 eta H2 dutenek % 8,4 (Huarte 2022⁹).

(1) a. Erregea eman zion (...) diru guztia [xede subjektua: Erregeak].

b. Esan zuen Mattin *Zaku* [xede subjektua: *Zakuk*].

(Ezeizabarrena 2012: 313)

Aldiz, kasu-morfologian oso urriak dira *egitezko* hutsak, esan nahi da, absolutiboaren testuinguruan ergatibo-marka ekoiztea (Ezeizabarrena 2012; Huarte 2022). Hau da, nabarmen maizago gertatzen da ergatiboaren marka isiltzea, gainerabiltzea baino.

Bestalde, haur euskaldunen hizkuntzaren garapena aztertu duten hainbat lanek (Ezeizabarrena eta beste 2009, 2012) ergatiboaren gauzatze bier artean asimetria dagoela aurkitu dute, hots, kasu-sistemaren eta aditz-

⁶ 5;00-5;04 adin-tartekoan emaitzak dira.

⁷ 5;00-5;04 adin-tartekoan emaitzak dira.

⁸ 5;00-6;03 adin-tartekoan emaitzak dira.

⁹ 9-10 urteko umeen emaitzak dira.

komunztaduraren artean gauzatzen dena. Jabekuntzako lanek izen-sintagmetako ergatiboaren kasu-marka arazotsu gertatzen dela erakutsi dute, baina aitzitik, aditz-komunztaduran ageri diren ergatiboaren komunztadura-morfemekin ez da arazorik ageri, oro har. Alegia, ergatiboaren komunztadura-morfemak lehenago egonkortzen dira, eta akats gutxiago ageri da (Ezeizabarrena eta beste 2009).

Euskal esaldien prozesamendua aztertzean ere, Zawiszewskik eta bestek (2011) frogatu zuten H1 euskara zutenen eta gaitasun handia zuten H2 elebidun goiztiarren artean ezberdintasunak zeudela ergatiboaren kasu-markari dagokionez. Esaldi gramatikalen kasuan bi taldeek espero zen moduan erantzun zuten; baina gramatikalak ez ziren kasu-markak zituzten esaldietan, ez-natiboek natiboek baino denbora gehiago behar izan zuten agramatikaltasun hori identifikatzeko, eta ondorioz zuzentasun txikiagoa erakutsi zuten (Zawiszewski eta beste 2011).

Rodríguez-Ordóñezek (2020) euskaraz hainbat gaitasun-mailatako heldu hiztun berrien ahozko ekoizpena aztertuta ere, ergatiboaren kasu-markaren zailtasunaren ebidentziak aurkitu zituen. Euskaraz hizkuntza-gaitasun ertaina zuten H2 hiztunek, ergatiboaren markaren erabileran natiboek besteko zuzentasunik ez zutenek, alegia, nabarmen gehiago isiltzen zuten (% 50-65 vs % 80-90). Hiztun berrien ekoizpenean ere azertu zuen ergatiboaren erabilera Rodríguez-Ordóñezek (2020); eta horretarako, H1 euskara dutenak, H2g dutenak, maila aurreratua dutenak eta maila ertaina dutenak behatu zituen. H1eko hiztunek ez zutela arazorik izan ergatiboa edo absolutiboa zuzentasunez erabiltzeko ondorioztatu zuen. Gaitasun-ertaineko H2g hiztunek, ordea, zailtasunak izan zituzten inergatibo eta inakusatiboak ezberdintzen, biak zero markarekin (Ø) adierazi zituztelako.

Ergatiboaren erabilera nerabe elebidunen artean ere ikertu da (Tardienta 2021; Mazkiaran 2022). Mazkiaranek (2022) profil ezberdina zuten *euskara-gaztelania* elebidunengan ergatiboaren eta beste kasu gramatikalen oharmena nolakoa den ikusi nahi zuen. Juzguen ariketa batean oinarrituta, nerabeei arazo gehien ematen ziena ergatiboaren kasua zela ondorioztatu zuen, bereziki H2 dutenei, eta horien artean H2 berantiarrei H2 goiztiarrei baino gehiago.

Laburbilduz esan beharra dago, psikolinguistika-lanek kasu-sistemaren eta aditz-komunztaduraren artean asimetria dagoela erakutsi dutela. Izan ere, arinago eta zuzenago agertzen dira aditz-komunztadurako ergatibo-morfemak, izen-sintagmako ergatiboaren kasu-markak baino (*ex-egitezko* hutsak nagusi). Prozesamendua eta erabilera helduengan aztertu dutenek ere, kasu-markak ekoizteko eta kasu-marketako akatsak identifikatzeko zailtasunak aurkitu zituzten H2 goiztiar zein berantiarrengan.

3. Kode-alternantziaren ikerketa

Kode-alternantzia (KA)¹⁰ esaldi edo diskurtso batean hizkuntza batetik beste batera salto egiteari deritzo (Poplack 1980; MacSwan 2007). Hizkuntza-txandakatzeari ari garenean, *code-mixing*¹¹ terminoa ere erabiltzen da, baina ez da KAekin nahastu behar; izan ere, *mixing* hitzak nolabaiteko araurik gabeko hizketaldiaren zentzua atxikita darama (Bullock eta Toribio 2009). KA, ordea, arau eta murriztapen gramatikal batzuei jarraitzen dien fenomeno da.

Gizartean KA hizkuntzaren erabilera okertzat hartzea nahiko hedatuta dago, eta hainbat hiztunek uste dute, KA erabiliz gero, nolabaiteko bigarren mailako efektuak izango dituztela etorkizunean hizkuntzaren ekoizpenean (Bolonyai 2009). Horrekin uztartuta, elebidunen gaitasun faltaren adierazgarritzat ere hartu izan da, hein batean elebitasunaren gainean garai batean zeuden estigmei lotuta (Bullock eta Toribio 2009; García 1989; Congdon 1980). Dena dela, elebidunek duten gaitasun-maila altuaren erakusgarri dela diote hizkuntzalariek aspalditik (Bullock eta Toribio 2009).

KAren ikerketan hiru hurbilketa nagusi daude (Bullock eta Toribio 2009):

¹⁰ Ingeleseko *code-switching* terminoa euskaratzeko proposatu den terminoetako bat *hizkuntza lerratzea* (Epelde eta Oihartzabal 2010) da, edo *kode-txandaketa* (Gaztelu eta Zulaika 2016) bezala. Lan honetan *kode-alternantzia* (KA) terminoa erabiliko da.

¹¹ *Code mixing*aren erabilerrari buruz beste proposamen batzuk ere egin dira, ikus Muysken (2000).

- 1) Hurbilketa gramatikal edo estrukturala (*structural approach*), non KA-egituren ezaugarri eta murriztapen gramatikalak aztertzen diren, hots, lexikoa, fonologia, morfologia, sintaxia eta semantika.
- 2) Hurbilketa psikolinguistikoa (*psycholinguistic approach*), non hiztunaren ekoizpen eleaniztuna eta haren zergatia ulertzeko mekanismo kognitiboak ikertzen diren.
- 3) Eta hurbilketa soziolinguistikoa (*sociolinguistic approach*), non hiztunaren testuingurua aztertu eta haren KA egiteko arrazoiak edo zergatiak xehatzen diren.

KAren gaineko lehen lanetatik aztertu da KAdun esaldien egitura linguistikoa zer-nolakoak diren; hain zuzen ere, Poplackek (1980) hiru motatako egiturak identifikatu zituen: *inter-sentential* direlakoak (2), hau da, perpausen arteko alternantzia; bigarrena, *intra-sentential* delakoa (3), hots, perpaus barruko alternantzia; eta azkena, *tag-switching* (4) delakoa, diskurtso markatzaileen, ahozko adierazpen ezagunen eta hitz-jokoen kasuan erabiltzen dena. Gainera, kode-alternantzia mota horiek hiztun-profilen araberrakoak zirela ikusi zuen. Izan ere, *tag-switching* motakoak normalean gaztelania hizkuntza-matrizea zeukatenek eta H2aren (ingelesa) oinarritzko gramatika bakarrik zekitenek egiten zituzten. *Inter-sentential* klasekoak egiteko, H2aren gramatikaren ezagutza aurreko taldearena baino sakonagoa izatea eskatzen zen. Eta *intra-sentential* egiturak ekoizteko bi hizkuntzen gramatikak menperatu behar zituzten (Poplack 1980):

(2)¹² Si tú eres puertorriqueño, *your father's a Puerto Rican* (594. or.).

(3) Siempre está *promising* cosas (596. or.).

(4) Mi *mai* tuvo que ir a firmar y *shit* pa'sacarme, *you know* (600. or.).

3.1. Hurbilketa soziolinguistikoa

Gardner-Chlorosek (2009) dioenez, KA ikuspegi soziolinguistikotik aztertzea ere garrantzitsua da; izan ere, hiztunaren identitatea, hizkuntzarekiko

¹² Lan osoan zehar kode-alternantzia dagoen esaldietan letra etzana erabiliko da bi hizkuntzok bereizteko.

jarrera, edota hiztunaren bizitzako aspektu anitz kontuan hartu beharrekoak direlako haren KA egiteko arrazoiak ulertzeko. Soziolinguistika-azterketek hiru ezaugarri aintzat hartu behar direla erakutsi dute, KAn eragina baitute. Hona hemen ezaugarriok: komunitate jakin batean dauden hiztun guztiei eragiten dietenak, hala nola prestigioa, botere-harremanak eta abar. Bigarrena, hiztunei lotutako faktoreak, bai norbanako gisa, bai hainbat azpitaldetako kide gisa: hizkuntza-gaitasuna, sare sozialak, ideologiak eta abar. Azkena, KA gertatzen den elkarrizketei dagozkien faktoreak. Hain zuzen ere, KA elkarrizketetako baliabide garrantzitsua da, elebakarrek diskurtsoa egituratzeko dituzten tresnei gehitzen zaiena (Gardner-Chloros 2009).

Hiztunei lotutako faktoreei dagokienez, hainbat iritzi ageri dira gure literatura-arloan hiztunen gaitasunaz aritzean. Zentellak (1997) New Yorken bizi ziren Puerto Ricoko haurren (6-11 urtekoak) KAdun ekoizpenak aztertuta, KA horren % 14 bakarrik zela zailtasunagatik ondorioztatu zuen. KA erabiltzeko arrazoiak bestelakoak ziren: ideiak azpimarratzeko, edota beste pertsona baten hitzak markatzeko, esaterako. Ildo beretik jarraituz, Poplackek (1980), Chanek (2009) eta Bullock eta Toribiok (2009) uste dute, hiztunak jariakortasunez KA egiteko, gaitasun-maila altua izan behar duela hizkuntza bietan.

Aldiz, beste ikertzaile batzuen ustez (Cook 2002; Hughes eta beste 2006) hiztunak hizkuntza batetik bestera aldatzeko arrazoia da hizkuntza batean bakarrik jarraitzeko zailtasunak dituela, eta zailtasun horiek ekiditeko edota konpontzeko, ondoen dakien hizkuntzara jotzen duela.

Gaitasun-faktoreari lotuta, zenbait ikertzailek KA hizkuntza-higaduraren (*language attrition*) adierazgarri izan daitekeela proposatu dute (Turian eta Altenberg 1991; Du Bois 2012; Halmari 1993a). Hizkuntza-higadura hiztun bati gertatzen zaion hizkuntzaren galera ez-patologikoa da (Köpke eta Schmid 2004). Hain zuzen, Bolonyaik dioenez (2009: 255), «denboraldi batez edo iraunkorki pertsonengan gertatzen den erabileraren, jakintzaren edo hizkuntza-gaitasunen gainbehera edo dekadentzia da»; eta H2aren erabilera areagotzearen ondorio izaten da (Gallo eta beste 2021).

Euskal elebidunei buruzko lanetan ere gaitasuna faktore gisa agertu izan da (Amorrortu eta beste 2019; Lantto 2015; Pérez 2022). Berriki Pérezek

(2022) 244 gazteren (18-30 urte artekoak) KAren erabilera eta jarrerak aztertu zituen online galdetegi batean oinarrituta. Pérezek (2022), H1 eta ingurune soziolinguistikoa gorabehera, KA gazte gehienek erabiltzen zutela ondorioztatu zuen. Horrez gain, hizkuntza-gaitasunak KAren erabileran eragina duela frogatu zuen, hau da, euskara hutsean aritzeko zailtasuna zutenek KA gehiago baliatu zutela ikusi zuen. Horrekin lotuta, Amorrortuk eta bestek (2019) adierazi zuten, euskaldunek euren hizkuntza-gaitasunari buruz duten iritzia positiboa ez bada, gaztelania makulutzat erabiltzeko aukera handiak egon daitezkeela, «konfiantza falta duten partaideen kasuan bereziki» (Amorrortu eta beste 2019: 57). Gainera, «gaztelaniatik euskara pasatzea “natural” atzematen da, alderantzizko joera, ordea, bortxatu bezala ikusten da, ez-natural» (Amorrortu eta beste 2019: 56). Horretan aurrera eginez gero, esan beharra dago, KA ez dela berdina onartzen ekoizten duenak H1 euskara badu edo H2 (Lantto 2018; Amorrortu eta beste 2019). H1 hiztunen kasuan, arrazoi estilistikoak argudiatu zituzten KAren erabilerazaltzeko; hots, informalago egiteko. Aldiz, H2 dutenen kasuan, gaitasun falta zen hiztunek aipatutako arrazoi nagusia.

Euskaldunen kasuan, Ibarrek (2011) aztertu ditu nagusiki KA erabiltzeko arrazoiak. Batetik, gaitasun falta aipatu da, hiztunen gaitasuna euskaraz delako, edo euskarak komunitatean duen prestigio txikiagatik. Hala, Ibarrek (2011) dioenez, hiztegi espezifikoein lotutako gaiak, hala nola gai zientifikoak edota administraziokoak, prestigio handiagoa erantsitako hizkuntzan, hau da, gaztelaniaz ekoiztea ohikoa da euskaldunengan. Bestetik, funtzio erretorikoak edota espresiboak egitean ere, gaztelania erabiltzen dela dio Ibarrek (2011).

3.2. Murriztapen gramatikalak

KAren ezaugarri gramatikalak aztertu dituztenek edozein alternantzia ez dela posible eta murriztapen gramatikalak daudela erakutsi dute hainbatetan (Poplack 1980; Bullock eta Toribio 2009; Myers-Scotton 1993a). KAren murriztapen gramatikalak aztertzeke, *conflict site* deritzenak biziki baliotsuak eta interesgarriak ditugu. Txandakatzen diren hizkuntzen gramatiken hain-

bat ezaugarri gramatikal dituzten egiturak dira horiek, hala nola determinatzailea gaztelaniaz (genero gramatikala duen hizkuntza) eta izena ingelesez (genero gramatikalik gabeko hizkuntza) konbinatzea; esaterako, *el/la door*.

Zenbait ikertzailek (Chan 2009; López 2020; MacSwan 2007) proposatu dute, ez dagoela inolako murriztapen zehatzik, formalik edo unibertsalik KAri dagokionez, eta murriztapen horiek KAn konbinatzen diren bi hizkuntzen araberakoak direla.

KAn dauden arau gramatikalak azaltzeko hamaikatxo adierazpen teoriko egin dira soziolinguistika-literaturan. Teoria ezagunenetako bat *Matrix Language Frame* (MLF) da (Myers-Scotton 1993a). Horren barruan, *Matrix Language* (ML), edo hizkuntza-matrizea eta *Embedded Language* (EL), edo menpeko hizkuntza, bereizten dira (Myers-Scotton 1993a). Hizkuntza-matrizeak erabakitzen du zein izango den esaldiak edo perpausak izango duen sintaxia edota zein morfema funtzional izango dituen, esate baterako, zein hizkuntzatan egongo den aditz jokaturia edota pluralgilearen marka eta hurrenkera (Myers-Scotton 1993a; Bellamy eta beste 2022).

Ildo beretik, Chanen (2009) *The Null Theory* izeneko proposamenaren arabera, edozein KA-mota edo -egitura posible da, baldin eta inolako gramatika lege unibertsalik urratzen ez bada. Alegia, KA hizkera naturalak gidatzen du (Hoot eta Ebert 2021). Hala ere, printzipioz onargarriak izan behar ez luketen edo naturalak ez diren egiturak ere jaso izan dira erreferentzia-lanetan, adibidez aditz-elkarketa konbinatueta (5):

(5) *Ingelesa-japoniera:*

We **bought** about two pounds *gurai kattekita* no.

We bought about two pounds about bought.

We bought about two pounds.

(Nishimura 1985a: 193, *apud* Chan 2009)

3.2.1. *Subjektu/predikatuaren KAren murriztapenak*

Lan honetan aztergai dugun egitura gramatikala, subjektuaren eta predikatuaren artean alternantzia duten esaldiak dira. KA horrelako egituretan

aztertu duten zenbait ikerketak subjektu guztiak ez direla maila berdinean onargarriak azaldu dute. Hain zuzen, subjektu-posizioan determinatzaile-sintagma (aurrerantzean DS) onargarriagoa da, izenordaina baino (Koronkiewicz 2014; Bellamy eta beste 2022). Koronkiewicz (2020) *gaztelania-inglesea* KAn frogatu zuen, DS zuten subjektuak (6), bai gaztelaniaz bai ingelesez, gehiago onartzen zirela izenordainak baino (7).

- (6) Ese hombre *ordered a glass of water.*
 (7) *Él *ordered a glass of water.*

(Koronkiewicz 2020: 250)

Bellamy eta bestek (2022) egitura berdina izan zuten aztergai p'urhepecha (Michoacan, Mexiko) hizkuntzaren eta gaztelaniaren arteko KAn, *forced choice task* edo «aukera behartua» deritzon metodoaren bidez. Subjektua p'urhepecha hizkuntzan eta predikatua gaztelaniaz zegoen, eta alde-rantziz, eta subjektuen artean hiru izenordain-mota aztertu zituzten: *zu eta ni, gu eta hura*. Emaitzen arabera, subjektu-posizioan gaztelaniaz eta p'urhepechaz 3. pertsona izenordaina zen onartuena (8). Gainera, izenordain koordinatuak/indartsuak bi hizkuntzetan gehiago onartzen zirela ikusi zuten, *tú y yo/t'u ka ji* (9), ez-koordinatuak baino, *yo/ji*, adibidez (10).

- (8) *ima* canta canciones tradicionales.
 Hark-FEM abesti tradizionalak abesten ditu.
 (9) *t'u ka ji* corremos muy lentamente.
 Zuk eta nik oso astiro egiten dugu korrika.
 (10) *ji* corro muy lentamente.
 Nik astiro egiten dut korrika.

3.2.2. *Ergatiboa euskaldunen KAn*

Azkenaldian euskaldunen kode-alternantziak arreta handia jaso duen arren, *euskara-gaztelania* edo *euskara-frantsesa* KAn ezaugarri eta murriztapen linguistikoak deskribatu eta azaltzeaz arduratu diren lan gehienetan, DS nahasiak aztertu dira batik bat, generoa ezartzeko estrategiak zer-nola-koak diren ezagutzeko (Iriondo 2017; Munarriz eta beste 2021; Parafita-Couto eta beste 2015).

Ergatiboa KAn aztertu duten lan bakarrak, Oihartzabal eta Epelde (2017) eta Epelde eta Oihartzabal (2020) dira. Lan horietan, *euskara-frantsesa* KAn zentratu ziren batik bat, eurek esan bezala, corpus murritzean gaiarekiko lehen hurbilketa aurkezteko. Epelde eta Oihartzabalen (2020) eta Oihartzabal eta Epelderren (2017) ikerketek ergatiboaren kasu-markaren erabilera aztertu zuten *euskara-frantsesa* KAn, hots, subjektua euskaraz eta predikatua frantsesez (ez zuten horrelakorik kausitu ACOBA corpusean), baita subjektua frantsesez eta predikatua euskaraz zegoenean ere (11). ACOBA corpuseko datuetan oinarri hartuta, zera ondorioztatu zuten: euskarazko aditza iragankorra zenean, frantsesez zegoen subjektua ergatiboaren kasu-markarekin ageri zela corpusean erregistratu ziren zazpi kasuetan (12a), (12b). Corpusean ez zuten aurkitu aditz iragankorra frantsesez eta euskarazko subjektua zuen adibiderik, ezta absolutiboaren testuinguruan ergatiboaren kasu-marka zuen adibiderik ere.

- (11) Eta beharbada da, badakizu, ohetik erori da, eta beraz, *le chirurgien* edo hartu dit eta...
- (12) a. Eta beraz gaixoa, *chanoine Lafittek* erraten: «oraiko eskuara, ikastoletako eskuara, ba, zer manerak!».
- b. *Brosseak* eiten tu, diseinüak.

(Epelde eta Oihartzabal 2020: 83-84)

Oihartzabal eta Epeldek (2017) eta Epelde eta Oihartzabalek (2020) hauxe aditzera eman zuten: euskarazko aditza iragankorra bazen, subjektuak ergatibo-marka hartuko zuela, baita frantsesez bazegoen ere. Horrez gain, ondorioztatutako beste ideia bat izan zen, «aditzaren eta izen buruaren konfigurazio guzietan, determinatzailearen hizkuntza/posizioa eta ergatiboaren marka elkarri lotuak doaz» (Oihartzabal eta Epelde 2017: 195), hau da, ergatiboaren marka euskarazko DSeKin onargarriagoa dela beste hizkuntza bateko DSeKin baino, adibidez, (13). Edonola ere, egileek eurek aitortu zuten datu gutxitan oinarritu zirela, eta beraz, sakonago aztertzea mereziko lukeela.

- (13) Gizon hark *me disaît*...

(Oihartzabal eta Epelde 2017: 196)

4. Helburuak eta aurreikuspenak

Aurrekari horiek kontuan hartuta, ergatiboaren erabileraren ikerketan sakontzea da gure lan honen helburua, *euskara-gaztelania* KAdun esaldiak aztertuz. Horretarako, bada, H1 euskara duen hiztun heldu baten kasu-azterketa izango dugu ebidentzia enpiriko nagusia. Hain zuzen, ikerketa honetarako motibazio nagusia izan da, kasu-azterketako parte-hartzailearen ergatiboaren kasu-markaren isiltzearen eta KAren erabilera ugariaren ebidentzia anekdotikoa. Abiapuntu horretatik hasita, ergatiboaren itxuraz ezohiko erabilera hori zehaztasunez deskribatu eta azaldu nahi dugu hiztunaren hizkuntza-ibilbidea aintzat hartuta. Horrekin batera, *euskara-gaztelania* KAn ergatiboaren erabileraren gaineko murriztapen gramatikalak ezagutu nahi ditugu, arazo psikolinguistikorik gabeko helduen talde baten ebidentziaz ere baliatuta, kasu-azterketako datuen osagarri gisa.

Zehazki, gure xede nagusiak hiru dira: lehenik, kasu-azterketaren esparruan, ergatiboaren erabilera ekoizpen sasiespontaneoan (euskara hutsezkoetan zein KAdun esaldietan) nolakoa den azaltzea, kualitatiboki eta kuantitatiboki, eta nolakoa den ergatiboarekiko oharmena (onargarritasun-ariketa batean); bigarrenik, hiztun horren euskararen eta KAren erabileran eragina izan dezaketen faktore psikosoziolinguistikokoak arakatzea. Eta hirugarrenik, subjektu eta predikatuen arteko alternantzia duten *euskara-gaztelania* enuntziatuen ezaugarri linguistikokoak xehatzea, kasu-marken erabilera bereziki erreparatuz onargarritasun-ariketa bateko ebidentziaz baliatuta, bai kasu-azterketako parte-hartzailearekin, bai arazo psikolinguistikorik gabeko 10 helduekin.

Ikerketa-galdera (IG) nagusiak eta horietako bakoitzerako eraturako aurreikuspenak (*i, ii, iii*) hauexek dira:

I. IG. Zer-nolako ezaugarriak ditu ergatiboaren erabilerak H1 euskara duen hiztun honengan?

I-i) Kasu-markatzean ageri den patroia bat al dator gainerako erreferentzia-lanetan ikusi denarekin?

Gure aurreikuspena da, batetik, ekoizpenean *ez-egitezko* hutsak *egitezkoak* baino ugariago izatea, jabekuntzan (Ezeizabarrena 2012; Duguine eta Köpke 2019; Huarte 2022) eta helduen erabileran (Rodríguez-Ordóñez 2020) ikusi den bezala (baita H1 hiztunengan ere). Bestalde, erabileran ergatiboaren gauzatze bien arteko asimetria aurreikusten dugu; hots, kasu-markatzean huts batzuk agertzea, baina ez aditz-morfologiako morfemetan arazorik ez agertzea, eta akats horiei antzemateko zailtasun gutxiago izatea, kasu-markako akatsak identifikatzeko baino (Ezeizabarrena 2012; Zawisewski eta beste 2011).

I-ii) Ergatiboaren erabilera berdintsua al da KAdun esaldietan eta euskara hutsez egindakoetan?

Gure aurreikuspena da, ergatiboaren kasu-marka are gehiago isilduko dela KAdun esaldietan euskara hutsezkoetan baino, gaztelaniarekin kontaktuan dagoelako eta hizkuntza NOM-ACC delako (Rodríguez-Ordóñez 2020; Huarte 2022).

I-iii) Zer faktore psikosoziolinguistikok izan dezake eragina hiztunaren euskararen erabileran eta gaitasunean?

Faktore psikosoziolinguistikoek hiztunaren euskararen erabileran eta gaitasunean eragina izango dutela aurreikusten dugu, ez soilik H1 zein duen eta harreman-sareko hizkuntza nagusia zein duen, baita eremu sozialean eta lanean erabilitako hizkuntza edo hizkuntzak zein den edo diren ere.

II. IG. Nolako da ergatiboaren erabilera subjektua hizkuntza batean eta predikatua bestean duten *euskara-gaztelania* KAdun esaldietan?

II-i) Euskara hutsezko esaldietan aurkitzen diren murriztapen linguistiko berberak aurkituko ote dira KAdunetan?

Murriztapen berberak agertuko direla uste dugu, horixe gure hipotesia. Hau da, Epelde eta Oihartzabalek (2020) eta Oihartzabal eta Epeldek (2017) azpimarratu zuten moduan, euskarazko aditza iragankorra bada, gaztelaniazko subjektuak ergatibo-markarik ez onartzea da espero duguna. Bestalde, gaztelaniazko aditza iragankorra bada, euskarazko subjektuak ergatibo-markarik ez izatea da gure ustea, gaztelania hizkuntza NOM-ACC baita.

Gaztelaniazko aditza iragangaitza bada, aldiz, ez dugu ergatibo-markarik euskarazko subjektuan espero.

Bestalde, MLFren teorian oinarrituta, aditz jokatuaren hizkuntzaren arabera kasu-markatzea espero da, hau da, aditz jokatua gaztelaniaz balego, orduan ez luke subjektuak ageriko ergatibo-markarik hartuko, hots, ergatiborik ez (Myers-Scotton 1993a). *The Null Theory*ren (Chan 2009) arabera, berriz, gaztelaniazko predikatuek subjektu absolutiboa izatea espero da eta euskarazkoek, berriz, subjektu ergatiboa.

II-ii) Beste hizkuntza bikote batzuetan aurkitu diren murriztapen linguistikoak ageri dira *euskara-gaztelania* KAn?

Beste hizkuntza-bikoteetan bezala (Koronkiewicz 2014; Bellamy eta beste 2022) aurreikusten dugu *subjektu-predikatu* alternantzia duten KA-egituretan DSak onargarriagoak izatea, subjektu-posizioan izenordainak baino.

5. Metodologia

Zehaztasun metodologikoak aurkezteko, parte-hartzaileak deskribatzen hasiko gara; ondoren, ikerketaren diseinuan datuak biltzeko baliatutako hiru ariketak aurkeztuko ditugu. Bukatzeko, prozedura eta datuen analisiari buruzko zehaztasun batzuk egingo ditugu.

5.1. Parte-hartzaileak

Kasu-azterketarako erabilitako parte-hartzailea Maria¹³ da, 55 urte ditu eta Arratiako¹⁴ bailarako (Bizkaia) herri batean jaioa da. Euskara du H1, nahiz eta eskolako hizkuntza gaztelania izan. Nahiz eta hezkuntza formala gaztelaniaz jaso, Hizkuntza Eskolan euskarako titulua atera zuen, gaur

¹³ Anonimotasuna gordetzeko ezizen hori erabiliko dugu.

¹⁴ Arratia-Nerbioi eskualdea Bizkaiko hego-mendebaldean dagoen bailara da. 2021eko Soziolinguistika Klusterraren kale-neurketaren emaitzek, bailara horretan % 21,3 dela euskararen erabilera kalean erakutsi zuten (Soziolinguistika Klusterra, 2022).

egungo C1en baliokidea dena. Hortaz, gaitasun handiko elebiduna dela on-doriozta daiteke. Egun, euskara eta gaztelania darabiltza eguneroko bizimodu-
duan.

KAdun esaldien onargarritasun-ariketarako, hizkuntza-profilari dagokio-
nez.¹⁵ Maria eta beronen antzekoak diren beste 10 parte-hartzaileen da-
tuak jaso dira (ik. 1. taulan bildutako parte-hartzaileen ezaugarri nagusiak).
Denak Mariaren herri berean jaiok dira, eta adinean ere, parekoak dira
(55-62 urte). Hitzun guztien H1 euskara da eta denak ere gaztelaniaz esko-
latuak izan ziren (euskara ere tartean zela). Taulan ikusten denez, euskaraz
zein gaztelaniaz jarduten dute egunean-egunean.

1. taula. Kontrol-taldeko (KT) 10 parte-hartzaileen eta Mariaren hizkuntza-
profila: E (euskara), G (gaztelania) eta E-G (euskara eta gaztelania)

	Eskolan hizkuntza	Etxeko hizkuntzak		Egungo etxeko hizkuntza	Euskaraz ¹⁶					
		H1 E	2H1 E-G		Erabilera			Kontsumoa		
					Familia	Lana	Lagunak	Irakurri	TB	Irratia
KT1	E-G		X	E	1	1	2	3	2	2
KT2	E-G		X	E-G	2	3	2	3	4	1
KT3	E-G	X		E	2	3	2	3	1	1
KT4	G	X		E	1	3	2	3	3	3
KT5	G		X	E-G	2	3	2	3	1	1
KT6	G		X	G	2	3	3	4	5	3

¹⁵ Mariaren eta kontrol-taldearen hizkuntza-profila betetzeko Mazkiaranen (2022) galdetegi la-
burra erabili dugu.

¹⁶ Talde honen barruan dauden «Familia, Lana, Lagunak» azpiatalean hiru aukera eman zitzaiz-
kien: 1) Bai, beti; 2) Bai, askotan edo gehienetan; 3) Ez, inoiz ez. Bestalde, «Irakurri, TB (telebista),
Irratia» azpiatalean, honako aukera hauek eman zitzaizkien: 1) Egutero; 2) Astean behin edo bitan;
3) Hilabetean behin edo bitan; 4) Urtean behin edo bitan; 5) Inoiz ez. Espazioa dela eta, taulan hiz-
tunek aukeratutako emaitzaren baliokide den zenbakia jarri da.

	Eskolan hizkuntza	Etxeko hizkuntzak		Egungo etxeko hizkuntza	Euskaraz					
		H1 E	2H1 E-G		Erabilera			Kontsumoa		
					Familia	Lana	Lagunak	Irakurri	TB	Irratia
KT7	G	X		G	2	2	2	4	5	1
KT8	G		X	G	2	2	3	4	2	2
KT9	E-G	X		E	2	1	2	3	1	3
KT10	E-G	X		E	2	1	3	3	2	3
Maria	E-G	X		E-G	2	3	2	4	2	1

Iturria: Norberak egina.

5.2. Ikerketaren diseinua

Ikerketa honetarako ebidentzia enpirikoa lortzeko bi metodo eta hiru ariketa baliatu dira: 1) elkarrizketa glotobiografikoa (Kasares 2014); 2) euskara hutsezko gramatikaltasun ariketa bat (Mazkiaran 2022) eta 3) *euskara-gaztelania* esaldien onargarritasun-juzguen ariketa bat. Lehen biak Mariarekin egin dira, eta hirugarrena, Mariarekin eta kontrol-taldearekin.

5.2.1. *Elkarrizketa glotobiografikoa*

Kasaresi (2014) jarraituz, Mariari elkarrizketa glotobiografikoa egin zitzaion ahoz, bi helbururekin: *a)* haren ibilbide linguistikoa ezagutzeko, eta hizkuntzekin duen erabilera eta harremana sakonetik ezagutzeko (hizkuntzen erabileran eragina duten faktore psikosoziolinguistikoa arakatzeko); eta *b)* ekoizpen sasespontaneoko datuak lortzeko. Elkarrizketa ahoz egin zitzaion eta guztira 40 bat galdera egin zitzaizkion Kasaresen (2014) lanean oinarritutako gidoi bat erabiliz. Galderetan honako gai hauek zehaztasunez ezagutzea bilatzen zen: hainbat adin-tartetako hizkuntzen erabilera, hizkuntzekiko harremana eta hizkuntzekiko familia-politikak eta erabakiak, eta

azkenik, KAren erabilera eta jarrerei buruzko informazioa (azken horiek Pérezen (2022) galdetegiaren antzera).

Elkarrizketak 80 bat minutuko luzera izan zuen eta grabagailua erabili zen, geroago transkribaketa egiteko. Transkripzio ortografikoa baliatu da nagusiki, baina hiztunaren ahoskerako aldaera dialektologikoa jasoz.

5.2.2. Gramatikaltasun-ariketa

Mazkieranek (2022) diseinatutako gramatikaltasun-ariketaren helburua, ergatiboaren gauzatzearen (kasu-marka eta aditz-morfologiako ergatiboaren komunztadura-morfema) oharmena nolakoa den aztertzea da. Zawiszewskiren eta besteren (2011) lana abiapuntu izandako ariketa honetan, hainbat esaldi online irakurrarazten zaizkie parte-hartzaileei eta haiek zuzenak edo okerrak diren esan behar dute. Esaldiak euskara hutsean zeuden eta lau baldintza esperimental ageri ziren (ik. 2. taula adibideetarako): baldintza semantikoa (kontrol gisa), absolutiboaren kasu-markaren baldintza, ergatibo-komunztaduraren baldintza eta ergatiboaren kasu-markaren baldintza. Oro har, 160 esaldi esperimental zeuden, eta beste hainbeste betegarri, hau da, guztira 320 esaldi. Esaldiok, gainera, zenbait esaldi hurrenkeratan aurkeztu ziren (posizioen eragina kontrolatzeko).

2. taula. Gramatikaltasun-ariketako materialak

Baldintzak		1. posizioa (SOV)	2. posizioa (SOV)	3. posizioa (SOV)	4. posizioa (SOV)
Ergatiboaren kasu-marka	zuzenak	Ain hoak txakurra aterako du paseatzera	Mugikorra Nai arak ekarri zuen atzo	Loreontzia erosi du Edur nek gaur	Bihar prestatuko du gosaria Ain hoak
	okerrak	* Ain hoa txakurra aterako du paseatzera	*Mugikorra Nai ara ekarri zuen atzo	*Loreontzia erosi du Edur ne gaur	*Bihar prestatuko du gosaria Ain hoa

Baldintzak		1. posizioa (SOV)	2. posizioa (SOV)	3. posizioa (SOV)	4. posizioa (SOV)
Absolutiboaren kasu-marka	zuzenak	Aitor hondartzara joan da	Gurasoekin Naroa euskaraz mintzo da	Mendira joango naiz ni bihar	Joango da paseatzera Garbiñe
	okerrak	*Aitorrek hondartzara joan da	*Gurasoekin Naroak euskaraz mintzo da	*Mendira joango naiz nik bihar	*Joango da paseatzera Garbiñek
Ergatiboarekiko aditz-komuntadura	zuzenak	Nik zu etxera ekarri zaitut	Ni zuk eraman nauzu mendira	Mugikorra amari erosi diot nik gaur	Gustuko duzue bidaiatzea zuek
	okerrak	*Nik zu etxera ekarri zaitu	*Ni zuk eraman nau mendira	*Mugikorra amari erosi dio nik gaur	*Gustuko du bidaiatzea zuek
Baldintza semantikoa	zuzenak	Azterketa oso erreza izan zen.	Zuek perretxikoa jan duzue gaur	Lapurrek eskolatik liburua ostu dute	Ainararen etxean ikusi nuen nik katua
	okerrak	*Horma oso erraza izan zen	*Zuek harria jan duzue gaur	*Lapurrek eskolatik kamioia ostu dute	*Ainararen etxean ikusi nuen nik fabrika

Iturria: Mazkieran (2022: 26).

5.2.3. Onargarritasun-juzguen ariketa

Ariketa hau lan honexetarako diseinatu genuen, beren-beregi, subjektu eta predikatuen arteko alternantzia duten *euskara-gaztelania* esaldien ezau-garri edo murriztapen linguistikoak aztertzeko. Onargarritasun-ariketa honetan parte-hartzaileek Likert eskala (1-4) erabiliz kalifikatu behar izan zituzten esaldiak, muturretako indizeak 1 «onargarritasun gutxien» eta 4 «onargarriena» direla. 3. taulan ikusten denez, 3 aldagai zeuden (subjektua-

ren hizkuntza, predikatu-mota eta subjektuaren kasu-marka) eta 8 baldintza. Horrela, 64 esaldi experimental (8 esaldi baldintzako) eta beste horrenbeste betegarri zeuden, guztira 128. *Microsoft Forms* plataformaz baliatu ginen, eta Mariak zein kontrol-taldeak online bete zuten ariketa.

3. taula. Onargarritasun-juzguen ariketako baldintza bakoitzeko esaldi baten adibidea

Subjektuaren hizkuntza	Predikatua	Kasu-marka	Esaldia
Subjektua euskaraz	Igkor.	-K	Gizon horrek <i>ha comprado un pastel</i> .
		∅	Gizon hori <i>ha comprado un pastel</i> .
	Igaitz.	-K	Kirolari horrek <i>ha subido al pódium</i> .
		∅	Kirolari hori <i>ha subido al pódium</i> .
Subjektua gaztelaniaz	Igkor.	-K	<i>Ese hombre</i> K pastel bat erosi du.
		∅	<i>Ese hombre</i> pastel bat erosi du.
	Igaitz.	-K	<i>Ese deportista</i> K podiumera igo da.
		∅	<i>Ese deportista</i> podiumera igo da.

5.3. Prozedura

Elkarrizketa glotobiografikoa, Mazkianan (2022) euskara hutsezko gramatikaltasun-ariketa eta onargarritasun-juzguen ariketa abian jarri ziren, EHUko Gizakiekin lotutako Ikerketarako Etika Batzordeko (GIEB) oniritzia jaso ondoren (M10/2022/425 kodea). Elkarrizketa izan zen egindako lehen proba (80'). Handik lau egunera online egin zuen Mariak Mazkianan (2022) euskara hutsezko gramatikaltasun-ariketa (55-60'). Handik bigarren egunera, KAdun esaldien onargarritasun-juzguen ariketa burutu zuen, online hori ere (55'). Kontrol-taldeko parte-hartzaileek ere online egin zuten onargarritasun-juzguen ariketa, eta horrekin batera, hiztun-profila ezagutzeko, Mazkianan (2022) galdetegi laburra.

5.4. Datuen analisia

Elkarrizketa glotobiografikotik ateratako datuak bi dira: batetik, haututako hiztunaren ibilbide linguistikoa eta haren euskararekiko harremana eta erabilera; eta bestetik, ergatiboaren eta KAren ekoizpeneko datuak. Hain zuzen, elkarrizketa glotobiografikoaren transkribaketa baliatuta ezaugarri gramatikal jakin batzuetan arreta jarri dugu, hala nola KAren agerpenean, kasu-marken erabileran eta aditzeko subjektuarekiko komunztaduramorfemetan. Ariketa horretan eta gramatikaltasun-ariketaren kasuan, zuzentasunari buruzko datu kuantitatiboak aurkeztu dira, eta Chi-karratu testak egin dira zuzentasun-indizeak alderatzeko. Bestetik, parte-hartzaile guztiek eginiko KAdun esaldien onargarritasun-juzguen ariketaren emaitzen analisirako estatistika deskriptiboaz gain, emaitzak baldintzen artean alderatzeko estatistika inferentziala erabili dugu, Wilcoxon Test ez-parametrikoa, hartan ere, datuen banaketa ez baita normala.

6. Emaitzak

Lehenik, Mariaren elkarrizketa glotobiografikoaren emaitzak aurkeztuko ditugu: alde batetik, hiztunaren ibilbide linguistikoari dagozkionak; eta bestetik, ekoizpen sasiespontaneoari dagozkionak. Ondoren, Mariak egindako euskarazko gramatikaltasun-ariketaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Azkenik, Mariaren eta kontrol-taldearen onargarritasun-juzguen emaitzen berri emango dugu.

6.1. Elkarrizketa glotobiografikoa

6.1.1. *Hizkuntzaren erabileraren narrazio biografikoa*

Maria Arratiako bailara barruko herri bateko 55 urteko hiztuna da eta euskara du H1. Gurasoek euren artean ere euskara erabiltzen zuten, baita Mariarekin eta haren neba-arrebekin ere. Txikitan hainbat seniderekin bizi zen baserrian. Frankismoa dela eta, eskola gaztelaniaz zen, baina dena ez zen

gaztelania izan, Oinarrizko Heziketa Orokorreko (OHO) azken bi urteetan irakasgai pare bat euskaraz ikasi zuen. Nonbait, diktaketak egiten zituzten euskaraz, ortografia eta puntuazioa landuz. OHO bukatu eta gero, Euskarazaleak¹⁷ akademian ikasi zuen Hizkuntza Eskolako euskara agiria lortzeko. Beraz, euskararen aldetik hiztunak gaitasun handia duela esan daiteke.

Haurtzaroan, herriko dendetan, elizan, ile-apaindegian, plazan eta abarretan euskara erabiltzen zuen. Alabaina, farmaziara eta medikuarenera joatean gaztelania erabiltzen zuen, hangoek euskaraz ez zekitelako. Halaber, Mariak 14-15 urte zituenean mediku euskalduna etorri zitzaizen herrira eta euskaraz egiten hasi zen esparru horretan ere: «*Euskaldunbarrie* iziten zan, baia bueno euskeraz iteoan». Beraz, horrek erakusten du, jendeak berari euskaraz egitea eskertzen duela. Ondorioz, esan daiteke euskararekiko jarrerara proaktiboa izan duela.

Gaztaroan, Harreman Publikoen Erdi Mailako Teknikaria ikasketak egin zituen gaztelaniaz bi urtez Bilbon. Garai horretan, lagunetik harremanak euskaldun mantendu ziren. Sasoi hartan ere, gaztelania gehiago entzuten hasi zen baserrian; izan ere, Mariaren neba-arrebek erdaldunak ziren bikoteak ekarri baitzituzten etxera. Horrek ez du esan nahi, halere, gaztelania finkatu zenik hizkuntza bakartzat baserrian. 25 urte zituenean, egun senarra duen gizon euskaldunarekin ezkondu zen, beraz, euren artean ere euskaraz egin dute oro har. Semea jaiotzean, Mariak umea euskaraz hazi eta hezi behar zutela adostu zuen senarrarekin. Urte haietan, Euskal Kultura izeneko ikastaro batzuetara joaten hasi zen Maria euskara lantzerako. Horrelako jarrerarekin, interesa eta aldeko jarrera zuela euskararekiko eta euskal kulturarekiko erakusten du gure hiztunak.

Behin semea izan eta gero lan-mundura berriz sartzeko, geriatría-laguntzaile izateko ikastaroa egin zuen gaztelaniaz. Hori eginda, lanean hasi zen ingurune euskaldun batean, baina handik gutxira, Bilboko auzo batera joan zen lanera, eta han lan-giro erdalduna nagusi zen. Oraindik bertan dirau

¹⁷ 1967an sortutako erakunde autonomo bat izan zen, gaur egun ere martxan jarraitzen duena. Horren helburua euskararen erabilera eta ezagutza sustatzea izan zen (Labayru Fundazioa 2017; Etxebarria 2018).

lanean. Hiztunak onartu egiten du, gaztelaniak bere ahozko ekoizpenean nolabaiteko eragina izan dezakeela (14).

- (14) «— E¹⁸: Eta pasau jatzu nonoz baton batek esatea zeozer euskeraz ta zuk erantzun erderaz?
 — H: Ba bai, bai.
 — E: Eta hori zegaitik da? Igual akostunbraute zauzelako beharren denpora guztien erderaz iten?
 — H: Bai, bai, hori de».

Mariak dio, duen euskara-mailarekin gustura dagoela eta ez dela inor baino gutxiago sentitzen, etxean ikasi eta beti egin duen moduan hitz egiten duela, nahiz eta akademian bizkaiera eta batua ikasi. Halaber, aipatu du, norbere euskararen maila pixkana-pixkana txikitu egiten dela, erabili egiten ez bada «Ze ezpabere erabili ezik galdu iten da, ze nauk ikusten dot naure berba ikerea¹⁹ da ikisiodan apurre ta ezpozu jarraituten dakizun apurre be galtzean doa».

Kontuan izan behar da 16 urte daramatzala gaztelania nagusi den eremu baten lanean; ondorioz, gaztelania bihurtu da egunerokotasunean gehien ekoizten eta entzuten duen hizkuntza. Euskara, aldiz, etxean erabiltzen du, semearekin, senarrarekin eta senitarteekin (euskaraz dakitenekin). Aisian, txikitako lagunekin elkartzean, euskaraz egiten du, baina laneko lagunekin, ordea, gaztelaniaz. Hiztunak behin eta berriz errepikatu du elkarrizketan zehar, berak euskaraz egiten diola euskaraz dakienari. Mariak erantsi digu, akademian ikasi duenari eusten saiatzen dela, dela irratia entzunez, dela telebista ikusiz, dela libururen bat irakurritz. Semearekin eta senarrarekin ere batzuetan KA egiten duela aitortu du, ziur sentitzen ez denean, adibidez (15). Hori, Mariaren ustez, lantokian egiten duen gaztelaniaren presentzia handiaren eragin zuzenarengatik da (16).

- (15) «Gauze bat ezpaiata urtetan da beste era batera esaten bot, ba enauelako zelan da... *que no estoy muy segura de cómo decirlo y*

¹⁸ E = elkarrizketatzailea;

H = hiztuna.

¹⁹ '(Eg)ikera, egiteko era'.

entonces lo digo de la otra forma que me sale. Si estoy en castellano y quiero decir algo en castellano y no me sale, no estoy segura de cómo decir en castellano, me sale en euskera, o estoy hablando en euskera y no me sale cómo decir esa palabra en euskera, pues la digo en castellano. No es que manche ni el euskera ni el castellano, es que complemento uno con otro».

- (16) «— E: Eta ganera beharren be bai, kasi denpora guztien iten dozu erderaz, da hamasei urte esan dozu, ba beitu, hamasei urtean astelehenetik barikure...
— H: Bai, bai, klaro (...) ze ezpabere erabili ezik galdu iten da, ze nauk ikusten dot naure berba ikerea, da ikisiodan apurre ezpozu jarraituten dakizun apurre be galtzean doa».

Era berean, seguru erakutsi du bere burua galdetu diogunean, ea gai izango litzatekeen KA gabe hitz egiteko, bai euskaraz bai gaztelaniaz, eta baietz esan du (17).


- (17) «— E: Zuk usteozu zarella gai ez iteko hori? Hau da, edo beti erderaz edo beti euskeraz?
— H: Hombre, proposatzen banaz bai. Esaten bostezu “gaur in behogu denpora guztien euskeraz”, ba bale..., baie gero bestek be ulertu in behadaudie euskeraz, klaro».

Arestian aipatu duen seguritate falta hori euskara lantzen ez jarraitzeari atxiki dio, gaitasun-agiria 19 urterekin atera eta handik aurrera gehiago jorratu ez duelako, alegia. Haatik, gaur egun duena mantentzen saiatzen da, dela irakurritz, dela entzunez, lehen esan dugun legez.

Laburbilduz, bada, esan dezagun, hiztun honen H1 euskara dela, baina gaztelaniaz eskolatua izan zen eta ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituela. Alabaina, euskara-gaitasun agiria lortu zuen. Agiria lortu zuenetik hona, ez du euskara landu, etxeko euskara «korrientea» —hark dioen moduan— egiten du. Horrezaz gain, lan-esparruan gaztelania izan du urteetan nagusi. Bestetik, hiztunak badaki KA egiten duela, horretaz kontzientea da (18).

- (18) «— E: Bale eta iten dozu igual konbersaziño berean euskeraz da erderaz biek? Salto moduen?
— H: Bai! Askotan bai».

1. irudia. Mariaren glotobiograma



Iturria: Norberak egina.

Familia barruan ere aldaketak egon dira hizkuntza-politikei dagokienez: txikitan euskara zen hizkuntza nagusia senideen artean, baina koinatu-koinata erdaldunak etxera sartuaz batera, gaztelaniaren erabilera hazi egin zen baserrian. Bere etxeko hizkuntza-politikei dagokienez, berak eta senarrak argi zuten, euskara izan behar zela semearen H1; horregatik, euskara hutsean egiten dute semearekin. Lagunekin, ordea, bi hizkuntzak darabiltza egunerokoan. 1. irudian ikus daiteke, laburpen gisa, garai bakoitzeko hizkuntzen erabilera islatzen duen Mariaren glotobiograma.

6.1.2. *Ergatiboaren azterketa ekoizpen sasiespontaneoan*

Ekoizpen sasiespontaneoan hiru alderdi aztertu ditugu: 1) subjektuen kasu-markak, 2) subjektuekiko komunztadura-morfemak aditz jokatueta, eta 3) Mariak ekoitzi dituen KAdun esaldiak, ergatiboaren kasu-markaren eta subjektu eta aditz jokatueta komunztadurari eusten dion ikusteko.

4. taulan laburtuta ikus daitekeen moduan, 798 esaldi identifikatu dira elkarrizketa osoan, eta horietatik aditz jokatueta dutenak % 93,48 dira (N = 744). Gehienetan (% 67,97), subjektua isilduta dago (19), beraz, ezin da kasu-markatzea aztertu. 4. taula horretan ere ikusten denez, subjektua isilduta daukaten esaldien artean % 61,34 iragankorrak dira.

Kasu-markatzea aztertzeke, aditz jokatueta eta ageriko subjektua dutenak (20) aintzat hartu dira, hots, 239 esaldi (horietatik 118 iragankorrak dira, % 49,37). 2. irudira goazen orain: esaldi iragankorretan % 77,11ko zuzentasuna dago subjektuaren markatzean, gainerakoetan ergatiboa isilduta dago, hau da, *ez-egitezko* hutsak daude (21), % 22,89. Irangaitzetan, berriaz, subjektuen % 100ek absolutibo kasua daramate, hau da, *ez dago egitezko* hutsik.

(19) «Egon gintzezan ba filan».

(20) «Nik nauk euskaldunberri esaten dautziet».

(21) «Ze aite fabriken iteoan behar» [xede subjektua: aitek].


4. taula. Emaiza orokorrak

Esaldiak guztira: 798	Aditz jokatua: 744 (% 93,48)	Ageriko subj.: 239 (% 32,03)	Igkor.: 118 (% 49, 37)	Zuzenak: 91 (% 77,11)
		Isilduta: 507 (% 67,97)	Igaitz.: 121 (% 50,62)	Zuzenak: 121 (% 100)
			Igkor.: 311 (% 61, 34)	
	Aditz jokatugabea: 52 (% 5,52)	Igaitz.: 196 (% 38,66)		

Iturria: Norberak egina.

Beraz, 2. irudian ikusten denez, desberdintasun esanguratsua dago ergatiboa eta absolutiboa diren subjektuen kasu-markatzearen zuzentasunean (% 77,11 vs % 100; $\chi^2 (1) = 26, p < ,0001$).

2. irudia. Mariaren zuzentasuna subjektuen kasu-markatzean



Iturria: Norberak egina.

Subjektuen aditz-komunztadurarekiko morfemei dagokienez, aditz jokatuen artean (N = 744) 2 adibide egon dira (% 0,26), non Mariak ez duen subjektuarekiko aditz-komunztadura zuzenik erabili. Subjektu-komunztadura urratzen duten adibide bi horiek egitura iragankorrei dagozkie (22) eta (23), ez dute KARik, eta bitzuek dute ageriko subjektua.

- (22) «Horrik *first/advanced* eta *proficiency* be bai atera zuen (xede-adizkia: [zauzen (zituen)]).
- (23) «Nik naurea iten dogu korriente» (xede-adizkia: dot).

Aztertutako hirugarren alderdia, KA da. Esaldi jokatuen artean, KAdun 52 (% 6,97) esaldi daude (24). Iragangaitzetan, absolutiboaren kasu-markaren erabilera % 100 da zuzena; bestalde, iragankorretan, behin bakarrik isildu da ergatiboaren marka (25). KAdun esaldien artean, subjektua hizkuntza batean eta predikatua bestean duen adibiderik ez dugu topatu.

- (24) «Iten dozu berba *en plan corriente, carrerilla, no?*».
- (25) «Da beste ahizte bat ateraotan *secretariado*».

6.2. Gramatikaltasun-ariketa

Euskara hutsezko gramatikaltasun-ariketan, baldintza esperimental bakoitzaren zuzentasuna aztertu dugu, 3. irudian ikus daitekeen moduan. Baldintza bakoitzean 20 esaldi zuzen eta 20 oker daude. Ergatiboari dagokion baldintza da guztien artean zuzentasun baxuena duena. Ergatibo-marka zuzen agertzen den kasuen % 80 adierazi du Mariak zuzen daudela (26); eta oker erabilia dauden % 55 azaldu du okerrak direla (27). Hau da, ergatibo-markaren isiltzea duten gainontzeko % 45ak zuzentzat (28) eman ditu Mariak.


- (26) Txanoa nik utzi dut etxean.
- (27) Mugikorra Naiara ekarri zuen atzo.
- (28) Ni bazkaria prestatu diot lagunari gaur.

Oso bestelako emaitzak ageri dira absolutiboari dagokion baldintzan. Zuzen zeudenen % 95 jo zituen zuzentzat; eta *egitezko* hutsak zituzten esaldien % 100 markatu zuen oker (29). Beraz, ariketa honetan ere *ez-egitezko* eta

egitezko hutsen arteko asimetria ageri da, eta alde nabarmena da (akatsak % 45 vs % 0, $\chi^2(1) = 9,18, p < 0,001$).

(29) Nik* atzo oporretara joan nintzen.

3. irudia. Mariaren euskara hutsezko esaldietan zuzentasuna baldintzaka



Iturria: Norberak egina.


6.3. Onargarritasun-juzguen ariketa

Jarraian, kontrol-taldearen eta Mariaren KAdun esaldien onargarritasun-ariketaren emaitzak deskribatuko dira. Kontrol-taldearen kasuan (ik. 4. irudia), onargarritasun-indizerik altuena (2,74) euskarazko subjektua duten aditz iragankorreko eta ergatiboaren kasu-markako esaldiek (30) lortu dute. Horiek ergatiboa isilduta daukatenak (31) baino onargarriagoak dira (1,76). Wilcoxon Testak erakutsi duenez, ezberdintasun hori esanguratsua da ($p < 0,001$). Aldiz, gaztelaniazko aditza iragangaitza denean, onargarriagoa da (2,63) ergatiboaren kasu-marka isiltzea (32), ergatibomarketa (1,49) erabiltzea baino (33). Wilcoxon Testaren arabera, ezberdintasun hori ere esanguratsua da ($p < 0,001$). 5. taulara bildu dira Wilcoxon Testaren araberrako alderaketetarako balio estatistiko guztiak. Hala bada,

datu horiek ere aditzera ematen dute, KAdun esaldietan ere ez direla maila berdinean onargarriak egitezko (1,49) eta ez-egitezko (1,76) «hutsak» ($p < 0,01$).

- (30) Idazle horrek *ha traído el periódico*.
- (31) Idazle hori *ha traído el periódico*.
- (32) Mutil hau *ha venido con nosotros*.
- (33) Mutil honek *ha venido con nosotros*.

4. irudia. Kontrol-taldearen onargarritasuna-juzguen ariketan



Iturria: Norberak egina.

Gaztelaniazko subjektuak daudenean, onargarritasuna apalagoa da. Aditza iragankorra denean (34), ergatiboa ez agertzea onargarriagoa da (2,04), bera agertzea baino. Wilcoxon Testak erakutsi duenez, ezberdintasun hori aintzat hartzeko modukoa da ($p < 0,016$). Aditza iragangaitza denean, bestalde, emaitzak ez dira horrenbeste aldatzen; ergatiboaren marka (35) gutxiago onartzen da (1,21), kasu-markarik ez duten esaldiak (36) baino (2,64). Wilcoxon Testak dioskunari jarraituz gero, ezberdintasun hori ere esanguratsua da ($p < 0,001$).

- (34) *Ese escritor egunkaria ekarri du.*
- (35) *Esa señorak txakurrarekin etorri da.*
- (36) *Ese chico gurekin etorri da.*

5. taula. Wilcoxon Testaren araberako alderaketak, baldintzak pareka alderatuta (neurri errepikatuak)²⁰

Wilcoxon Testeko emaitzak			Subjektua euskaraz				Subjektua gaztelaniaz			
			Igaitz.		Igkor.		Igaitz.		Igaitz.	
			- k	Ø	- k	Ø	- k	Ø	- k	Ø
Subj. eusk.	Igkor.	- k						< 0,001	< 0,317	
		Ø	< 0,001		< 0,003		< 0,202	< 0,006	< 0,001	
	Igaitz.	- k	< 0,001				< 0,713	< 0,001	< 0,006	
		Ø	< 0,345		< 0,001	< 0,001	< 0,001	< 0,001	< 0,001	
Subj. gazt.	Igkor.	- k	< 0,001					< 0,008	< 0,001	
		Ø	< 0,001				< 0,016	< 0,001	< 0,001	
	Igaitz.	- k							< 0,001	
		Ø								

Iturria: Norberak egina.

Oro har, esaldi guztiak gogoan hartuta, 10 parte-hartzaile horien emaitzek aditzera ematen dute, euskarazko subjektua eta gaztelaniazko predikatua duten esaldietan kasu-markatzea, hein handi batean, euskararen arauen araberakoa dela (iragankorretan *-k* markadunak hobesten dira, eta iragangaitzetan *-k* marka gabekoak). Aldiz, gaztelaniazko subjektua eta euskarazko predikatua duten esaldietan markatze morfologikoa bestelakoa da: iragankorretan zein iragangaitzetan *-k* marka gabekoak hobesten dira. Hortaz,

²⁰ Estatistikoki esanguratsuak diren balioak letra lodiz adierazi dira.

onargarritasun-ariketa honen arabera, badirudi kasu-markaren ezarpena ez dela aditz jokatua dagoen hizkuntzaren arauen konformidadean egiten, baikik eta subjektua zein hizkuntzatan dagoen begiratuta ezartzen da, hizkuntza horren arauak gailentzen direla.

Mariaren emaitzak bestelakoak dira, 5. irudian ikus daitekeen moduan. Kontrol-taldearen emaitzekin alderatzean, ezberdintasunik nabarmenena euskarazko subjektu eta aditz iragankorrekin ageri da: Mariarentzat maila berdinean onargarria da (2,12, bietan, % 53) subjektuan ergatibo-marka agertzea (37) zein ez agertzea (38). Aditza iragangaitza denean, aldiz, onargariagotzat jo du kasu-markarik ez agertzea (39), ergatibo-marka erabiltzea (40) baino (2,5 vs 1,62).²¹


(37) Gizon horrek *ha comprado un pastel*.

(38) Gizon hori *ha comprado un pastel*.

(39) Kirolari hori *ha subido al podium*.

(40) Kirolari horrek *ha subido al podium*.

5. irudia. Mariaren KAdun esaldien onargarritasun-maila zenbait baldintzetan



Iturria: Norberak egina.

²¹ Lanak partaide bakarra izanik, ezinezkoa da item-kopuru horrekin estatistika inferentziala baliatzea.

Bestalde, subjektua gaztelaniaz dagoenean eta euskarazko predikatua iragankorra (41) nahiz iragangaitza (42) denean, ergatibo-markarik ez duten esaldiek erakusten dute onargarritasun handiena (2,87 eta 2,62).


(41) *Ese hombre pastel bat erosi du.*

(42) *Ese deportista podiumera igo da.*

Hori horrela, Mariaren kasuan ez dirudi euskal gramatika-sistemaren arabera kasu-markatzea darabilenik euskarazko subjektua duten KAdun esaldietan, eta horrexek bereizten du nagusiki gure partaidea kontrol-taldekoengandik.

Bestetik, materialetan DS-subjektuak eta izenordainak kontrolatu direla kontuan hartuta, alderaketa orokorra egin dugu bi horien artean onargarritasun-alderik ikusten ote den jakiteko, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. 6. irudia, baldintza guztietan, izenordainak baino subjektu posizioan DSak onargarriagoak direla erakusten du. Eta ezberdintasun hori adierazgarria da 5 baldintzotan (ik. 6. taulan Wilcoxon Testaren emaitzak zehaztasun estatistikoetarako).

6. irudia. Parte-hartzaile guztien onargarritasuna subjektu motaren arabera



Iturria: Norberak egina.

6. taula. *P* estatistikoaren balioa baldintzaka (Wilcoxon Testaren arabera)

Baldintzak			P-ren balioa
Subj. euskaraz	Igkor.	- <i>k</i>	0,003
		∅	0,854
	Igaitz.	- <i>k</i>	0,014
		∅	0,001
Subj. gazteleraz	Igkor.	- <i>k</i>	0,111
		∅	0,007
	Igaitz.	- <i>k</i>	0,205
		∅	0,003

Iturria: Norberak egina.

7. Eztabaida

Gure lan honen helburu nagusia KAren eta ergatiboaren arteko harremana ikertzea izan da. Horretarako, H1 euskara duen Maria partaidearen kasu-azterketa izan dugu funtsezko abiapuntu. Hurbilketa psikosoziolinguistikoa oinarri hartuta, hiru ariketa konbinatu ditugu ebidentzia empirikoa lortzeko, hurrengo hiru xede hauekin: 1) kualitatiboki eta kuantitatiboki Mariaren ergatibo-erabilera (ekoizpena zein oharrena) nolakoa den deskribatzea; 2) Mariarengan, ergatiboaren eta KAren erabileran eragina izan dezaketen faktore psikosoziolinguistikoak arakatzea. Eta, azkenik, 3) Mariari eta kontrol-taldeari jasotako subjektuen eta predikatuen arteko alternantzia duten *euskara-gaztelania* esaldietan, kasu-markatzearen ezaugarri linguistikoak deskribatzea.

Lehen ikerketa-galdera izan dugu, zer-nolako ezaugarriak ote zituen ergatiboaren erabilerak Mariarengan. Eta horren barruan, zehatzago, hiru azpigaldera eta hipotesi planteatu ditugu. Lehena, ergatiboaren erabilera euskal psikolinguistikako lanetan aurkitu diren joerekin bat zetorren jakitea. Gure hipotesia izan da, eta jakintza-arlo honetako literaturan ikusi be-

zala, asimetria egongo zela kasu-markatzearen eta aditz-morfologiaren artean, eta arazorik agertzekotan ere, kasu-morfologian azaleratuko zirela eta horiek *ez-egitezko* hutsak izango zirela nagusiki. Ekoizpeneko zein gramatikaltasun-ariketako emaitzek geure hipotesia berretsi dute. Ekoizpen sasiespontaneoan ageri diren huts bakarrak ergatiboaren testuinguruetan azaldu dira eta *ez-egitezko* hutsak izan dira (% 23). *Egitezko* hutsik ez da Mariaren ekoizpen sasiespontaneoan. Emaitza horiek bat datoz kualitatiboki haur (Ezeizabarrena eta beste 2009; Duguine eta Köpke 2019; Huarte 2022) zein helduen ekoizpenean (Rodríguez-Ordóñez 2020) aurkitutakoekin. Datu kuantitatiboei erreparatuta, Mariaren isiltzeak (% 45 euskara hutsezko esaldietan) gehiago dira Gernikako H1 hiztun helduenak (% 16) baino, eta ondoz ondoko elebidunen (% 29,4) emaitzetara hurbiltzen da (Rodríguez-Ordóñez 2020).

Bestalde, Mariaren ekoizpenetan ez da apenas akatsik ageri ergatiboaren aditzarekiko komuntadura-morfemetan. Halaz, lan honek beste ebidentzia bat gehiago erantsi dio ergatibo-markatze bien arteko asimetria argudioari (Ezeizabarrena 2012).

Horrezaz gain, onargarritasun-ariketan ere emaitza horiek berretsi dira. Deigarriena gertatu da ergatiboaren isiltzea zuten adibideak ez-onargarrizat hartzea (% 55). Ergatiboa isildutako adibideak Mariak onargarri jo dituela erakusten du horrek; ez, ordea, absolutiboaren testuinguruan ergatibodun subjektuak, akastuntzat hartu baititu (% 100 zuzena). Emaitza horiek onargarritasun-ariketak egin dituzten lanekin alderatzean, badirudi Mariaren jokaera H2 goiztiarretatik gertuago dagoela, H1 hiztunetatik baino (% 80 vs % 55ko zuzentasuna Mazkieranenean (2022) eta % 85koa Zawiszewskiren eta besteren lanean 2011).

Mariaren ergatiboaren erabilera deskribatzen amaitzeko, KAdun esaldiak aztertuta ere agerikoa dena da, Mariak ez duela kontrol-taldearen joera erakusten euskarazko subjektua eta gaztelaniazko predikatu iragankorra duten esaldietan, kasu-marka agertzea edo agertu ez egitea berdintsu onartzen baitu (2,12 vs 2,12), kontrol-taldeak ez bezala (2,74 vs 1,76).

Bestalde, lehen galderaren bigarren hipotesian aurreikusten genuen ergatiboaren kasu-marka isiltzea KAdun esaldietan nabarmenagoa izatea,

euskara hutsezko esaldietan baino (% 45). Ekoizpen sasiespontaneoan ez dugu ebidentzia nahikorik hipotesi hau baieztatzeko edo ezeztatzeko, beraz, aurrerantzean aztertu beharreko gaia da.

Hurrengo hipotesia izan dugu, faktore psikosoziolinguistikoek hiztunaren erabileran eta gaitasunean eragina izango zutela proposatzea. Elkarrizketa glotobiografikoan jasotako datuen arabera, hipotesi hori baieztatea litekeela dirudi. Nahiz eta Mariak euskara etxean jaso (H1), hezkuntza formala batik bat gaztelaniaz hartu izanak eta lan-munduan ere gaztelania nagusi izateak pentsarazten digu, berorren euskararen erabileran eragina izan duela gaztelaniaren nagusitasun horrek, bereziki ahozko ekoizpenean. Azkenaldian, Mariaren erabileran gaztelania, hein batean, euskarari nagusitu zaio; Mariak berak aitortuta dakigu, gaztelania gehiago ekoizten duela eta KA gehiago egiten duela. Hala, Mariaren ergatiboaren erabilera soziolinguistika-literaturan aztertu diren H1 euskaldunena ez bezalakoa izatea hizkuntza-higaduraren ondorioztat har daitekeela uste dugu (Bolonyai 2009; Köpke eta Schmid 2004).

Köpkek (2004) dioenez, egunerokoan denbora luzez H2 gehiagotan erabiltzen bada, H1 baino, H1ak higaduraren bat pairatzeko aukera asko daude. Euskararen kasuan, beraz, ez da harritzekoa «zaila» gertatzen den ezaugarri gramatikal horren erabileran, ergatiboarenean alegia, eragitea. Ergatiboaren isiltzea higadura gramatikalaren ondorio izatea espero da, higaduran H1eko ezaugarri morfosintaktikoen sinplifikazioa eta H2aren ezaugarri morfosintaktikoak H1ean agertzea ohikoa dela kontuan izanda (Gallo eta beste 2021; Pavlenko 2000).

Ildo berean, Mariak aipatu duen KAREN areagotzea ere higaduraren ezaugarri izan daiteke, Turianek eta Altenbergekek (1991) proposatu bezala. Hori bat dator euskal elebidun gazteengan KARAKO aipatzen dituzten arrazoiekin; tartean, gaitasun falta (Pérez 2020; Amorrortu eta beste 2019).

Lanaren bigarren helburuari lot gakizkion. Bigarren ikerketa-galdera hauxe izan da: nolakoa ote da ergatiboaren erabilera *euskara-gaztelania* KADUN esaldietan, zer murriztapen gramatikal daude kasu-markatzeari dagokionez? Kasu-morfologiari begira, euskara hutsezko esaldiek eta KADUN esaldiek murriztapen berberak izatea aurreikusten genuen. Kontrol-taldea-

ren emaitzek halaxe dela erakutsi dute, oro har, hau da, subjektuaren hizkuntzaren sistema morfologikoaren arabera dela subjektu horrek hartzen duen marka morfologikoa subjektu eta predikatuaren arteko KAdun esaldietan, aurreikusitakoa baieztatuz orduan; eta ergatiboaren kasu-markarik gabe predikatu iragangaitzetan. Aldiz, gaztelaniazko subjektuetan ageriko kasu-markarik gabekoak hobesten dira predikatu iragankor nahiz iragangaitzetan. Emaitza horiek bat datoz Epeldek eta Oihartzabalek (2020) *euskara-frantsesa* corpusean aurkitu zutenarekin. Beraz, badirudi, *The Null Theory*k aurreikusi bezala (Chan 2009), gramatika-arauak urratzen ez dituzten egiturak hobesten direla. KAren murriztapen gramatikalak azaltzeko proposatu den MLF deritzon teoriaren aburuz (Myers-Scotton 1993a), subjektuetan hobesten den kasu-sistema predikatuen hizkuntzaren arabera izatea espero da; baina ez da hori kontrol-taldean aurkitu duguna.

Kasu-azterketako Mariaren emaitzak bestelakoak dira euskarazko subjektua duten KAdun esaldien kasuan, baina lehenago esan bezala, geure iritziz, hizkuntza-higadurari lotuta azal litezke emaitza horiek. Oihartzabalek eta Epeldek (2017) esana da, euskarazko subjektuak daudenean, subjektuak ergatiboaren erabilera erregularra izan behar duela, baina Maria gure partaidea ez da hiztun erregular horietako bat, emaitzek erakutsi dutenari begiratu gero.

Azkenik, beste hizkuntza-bikote batzuetan aurkitu diren murriztapen gramatikalak geurean ere ageri diren ala ez aztertu nahi izan dugu *euskara-gaztelania* KAdun esaldietan. Baiezko aurreikuspena genuen, hala izango zela, eta horixe da aurkitu duguna, aurkitu ere, hainbat motatako subjektuen onargarritasuna alderatzean. Alegia, DSak izenordainak baino onargarriagoak direla, testuinguruak testuinguru, *p'urepecha-gaztelania* eta *ingelasa-gaztelania* KAetan bezala (Bellamy eta beste 2022; Koronkiewicz 2014).

8. Ondorioak eta aurrera begirako hausnarketak

Ikerketa honek datu enpiriko berriak ekarri ditu *euskara-gaztelania* KAren eta ergatiboaren arteko harremani dagokienez. Hurbilketa psikosozio-linguistikoko aukera eman du, Mariaren hizkuntza-erabilera pixka bat sa-

kontzeko, deskribatzeko eta horretan eragina izan dezaketen faktore psikosoziolinguistikoak arakatzeko.

Mariaren ergatiboaren erabileran aurreko erreferentzia-lanetan ageri diren antzekotasun kualitatiboak aurkitu dira: ergatiboaren bi gauzatzen arteko asimetria (arazoa kasu-marketara mugatuta), eta kasu-marketan *ez-egitezko* hutsen nagusitasuna (*egitezko* hutsik gabe), bai euskara hutsezko ekoizpenetan eta bai, are nabarmenago berriz, KAn. Areago, kuantitatiboki Mariaren huts-kopurua H1 hiztunengan aurkitu denetik pixka bat urruntzen da, eta H2 goiztiarren emaitzetara gehiago gerturatu. Mariaren ibilbide linguistikoa zehaztasunez aztertuta, zera proposatu dugu: euskara nagusi izatetik gaztelania bere erabileran nagusi izatera pasatzeak ondorioak izan dituela bere ergatiboaren erabileran eta ergatiboarekiko juzgu gramatikaltan. Hori dela eta, Köpkeren eta Schmiden (2004) eta Bolonyairen (2009) ustearekin bat eginez, euskararen erabilera urriagatik, hizkuntza-higadura edo *attrition* delako fenomenoaren adierazgarritzat har daitekeela hori proposatu dugu.

Ildo horretatik, lan honek euskararen ergatibotasuna elementu gramatikal zaugarria delako ideiaren aldeko beste ebidentzia bat gehiago dakar psikolinguistikaren arlora (Ezeizabarrena 2012; Zawiszewski eta beste 2011; Huarte 2022).

Bestalde, gure ikerketak, lehenengoz *euskara-gaztelania* KAdun esaldietan kasu-markatzearen gaineko murriztapen gramatikaletara zehaztasunez hurbiltzeko bidea eskaini du. H1 euskara duten arazo psikolinguistikorik gabeko helduez osatutako kontrol-taldeak euskarazko subjektua eta gaztelaniazko predikatua duten esaldietan, oro har, euskararen kasu-morfologia erabiltzen dela erakutsi dute emaitzek, iragankorretan *-k* markadunak hobesten dira eta iragangaitzetan *-k* marka gabekoak. Gaztelaniazko subjektua eta euskarazko predikatua duten esaldietan, markatze morfologikoa bestelakoa da: iragangaitzetan zein iragankorretan *-k* marka gabekoak hobesten dira, hots, sistema nominatibo-akusatiboetan bezalako markatzeak nahiago dira. Hor-taz, onargarritasun-ariketa honen arabera, pentsa liteke, kasu-markaren ezarpena ez dela aditz jokatua dagoen hizkuntzaren arauen arabera egiten, baizik eta subjektua zein hizkuntzatan dagoen. Horrek inplikazio argiak eta

sendoak dakarzkie murriztapen gramatikalak azaltzeko proposatu diren teoriei (Myers-Scotton 1993a; MacSwan 2007; Chan 2009).

Halaber, beste hizkuntza-komunitate batzuetan (Bellamy eta beste 2020; Koronkiewicz 2014) ezagunak diren murriztapen gramatikal batzuk euskararen ere ageri direla ematen du, besteak beste, DS-subjektuen nagusitasuna izenordainen aldean. Beraz, ebidentzia interesgarria dute ikertzaileek hori murriztapen gramatikalen eta gatazka-guneen gaineko eztabaidetarako.

Aurrera begira, interesgarria izango litzateke, zintzilik gelditu diren galdera horiei erantzuteko ebidentzia enpiriko berria biltzea, esaterako, KA-dun esaldietan ergatiboa isiltzeko joera handiagoa ote dagoen frogatzeko.

Ikerlan honek orain arte ia sakondu eta arakatu ez diren bi ikerlerro uzartu ditu: KAren eta ergatiboaren arteko harremana, emaitza berritzaileak emanaz. Horrez gain, etorkizuneko lanei begira, gure azterketa honek nolabaiteko oinarriak finkatzeaz gain, galdera-ildo berriak ere planteatu dituelakoan gaude. Hortaz, osteko ikerketek KAren eta ergatiboaren arteko harremana eta lotura hobeto ulertzen lagunduko dute.

Bibliografia

ALBIZU, Pablo (2009). «Euskararen kasu-sistema ergatiboa ala ergatiboak? ergatibotasunaren azterketa dialektologiko baterako lehen urratsak», *Lapurdum* 13 (2009): 7-30.

AMORRORTU, Esti, ORTEGA, Ane, GOIRIGOLZARRI, Jone (2019). «Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten behin-behineko emaitzak», in *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: Ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*. Iruñea: Nafarroako Gobernua: 47-61.

BELLAMY, Kate, STADTHAGEN-GONZÁLEZ, Hans eta PARAFITA COUTO, M^a Carmen (2022). «Él code-switches more than tú y yo: new data for the subject pronoun-verb switch constraint», *Languages* 7 (22) (2022):1-13.

BOLONYAL, Agnes (2009). «Code-switching, imperfect acquisition, and attrition», in *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*, Barbara E. Bullock eta Almeida J. Toribio (ed.). Cambridge: Cambridge University Press: 253-269.

BULLOCK, Barbara E. eta ALMEIDA, J. Toribio (2009). *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*. Cambridge: Cambridge University Press.

CONGDON, Sharon (1980). «The battle of bilingual education», *The Washington Post* (1980). Eskuragarri: <https://www.washingtonpost.com/archive/entertainment/books/1980/08/10/the-battle-of-bilingual-education/9a7cc4e1-f779-42d8-ae-95-31c1aae23329/>. Azken kontsulta: 2023/10/11.

COOK, Vivian (2002). *Portraits of the L2 user: Background to the second language user*. Bristol: Multilingual Matters.

CHAN, Brian Hok-Shing (2009). «Code-switching between typologically distinct languages», in *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*, Barbara E. Bullock eta Almeida J. Toribio (ed.). Cambridge: Cambridge University Press: 182-198.

DU BOIS, Inke (2012). «Language attrition and code-switching among US Americans in Germany», *Stellenbosch Papers in Linguistics Plus* 39 (2012): 1-16.

DUGUINE, Isabelle eta Barbara KÖPKE (2019). «Processing strategies used by Basque-French bilingual and Basque monolingual children for the production of the subject-agent in Basque», *Linguistic Approaches to Bilingualism* 9, (4-5) (2019): 1514-1541.

DIXON, Robert Malcom Ward (1994). *Ergativity*. Cambridge: Cambridge University Press.

EPELDE, Irantzu eta Beñat OIHARTZABAL (2010). «Perpaua barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan», *ASJU* 52 (2010): 55-64.

——— (2020). «Ergative marking in Basque-Spanish and Basque-French code-switching», *Zeitschrift für Katalanistik* 33 (2020): 77-98.

ETXEBARRIA, Igone (2018). *Euskerazaleak. 50 urte euskeraren alde 1967-2017*. Bilbo: Labayru Fundazioa.

EZEIZABARRENA, M.^a José (1996a). *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*. Leioa: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

———, eta M.^a Pilar Larrañaga (1996b). «Ergativity in Basque: a problem for language acquisition?», *Linguistics* 34 (1996): 955-991.

———, Ibon MANTEROLA eta Leire BELOKI (2009). «Euskara H2 goiztiarraren ezaugarrien bila: adizkiak eta gramatika kasuak haurren ipuin kontaketen», *Euskara* 54 (2009): 639-681.

——— (2012). «The (in)consistent ergative marking in early Basque: L1 vs. child L2», *Lingua* 122 (2012): 303-317.

GALLO, Federico, Beatriz BERMÚDEZ-MARGARETTO, Yury SHTYROV, Jubin ABU-TALEBI, Hamutal KREINER, Tamara CHITAYA, Anna PETROVA, Andriy MYACHYKOV (2021). «First language attrition: what it is, what it isn't, and what it can be», *Frontiers in Human Neuroscience* 15 (2021): 1-20.

GARCÍA, Robert (1989). «Bilingual education means equal opportunity», *The New York Times* (1989). Eskuragarri: [https://www.nytimes.com/1989/08/18/opinion/l-bilingual-education-means-equal-opportunity-513289.html]. Azken kontsulta: 2023/10/11.

GARDNER-CHLOROS, Penelope (2009). «Sociolinguistic factors in code-switching», in *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*, Barbara E. Bullock eta Almeida J. Toribio (ed.). Cambridge: Cambridge University Press: 97-114.

GAZTELU PÉREZ, Elixabete eta Esther ZULAIKA (2016). «Adierazgarritasun zantzuak euskal gazteen txatetan ☺», *Gogoia* 14 (2016): 105-130.

HALMARI, Helena (1993). «Code-switching strategies as a mirror of language loss: a case study of two child bilinguals», in *The proceedings of the twelfth second language research forum. Papers in Applied Linguistics*, Don Staub eta Cheryl Delk (ed.). Michigan: Michigan State University: 200-215.

HOOT, Bradley, Shane EBERT (2021). «On the opposition of subjects in Spanish: evidence from code-switching», *GLOSSA a Journal of General Linguistics* 6 (1) (2021):1-31.

HUARTE, Maider (2022). «Euskararen jabekuntza testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan: zer esaten diguten haurren testuek kasu gramatikalen erabilerari buruz», *Fontes Linguae Vasconum* 134 (2022): 415-438.

HUGHES, Claire, Elizabeth SHAUNESSY, Alejandro BRICE, Mary Anne RATLIFF eta Patricia ÁLVAREZ MCHATTON (2006). «Code-switching among bilingual and limited English proficient students: possible indicators of giftedness», *Journal for the Education of the Gifted* 30 (1) (2006): 7-28.

IBARRA, Orreaga (2011). «Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código», *OIHENART Cuadernos de Lengua y Literatura* 26 (2011): 277-298.

IRIONDO, Alejandra (2017). «Kode-alternantzia elebidun gazteetan: DS nahiak», *Gogoia* 16 (2017): 25-56.

KASARES, Paula (2017). *Euskaldun hazi Nafarroan: Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*, Jagon bilduma 16. zenbakia. Bilbo: Euskaltzaindia.

KÖPKE, Barbara eta Monika S. SCHMID (2004a). «Language attrition: the next phase», in *First language attrition: Interdisciplinary perspectives on methodological issues*, Monika Susanne Schmid, Barbara Köpke, Merel Keijzer eta Lina Weilemar (ed.). Amsterdam: John Benjamins: 1-43.

——— (2004b). «Attrition is not a unitary phenomenon: on different possible outcomes of language contact situations», in *Bilingual socialization and bilingual language acquisition: Proceedings from the Second International Symposium on Bilingualism*. Vigo: Universidad de Vigo: 1331-1347.

KORONKIEWICZ, Bryan (2014). *Pronoun categorization: Evidence from Spanish-English code-switching*. Doktorego-tesia (University of Illinois).

——— (2020). «Subject-predicate code-switching: testing the need of a matrix language through embedding», in *Hispanic Linguistics: Current issues and new directions*, Alfonso Morales-Font, Michael J. Ferreira, Ronald P. Leow eta Cristina Sanz (ed.). Amsterdam: John Benjamins: 249-264.

LABAYRU FUNDAZIOA (2017). *Euskerazaleak, 50 urte euskerea hauspotzen*, YouTubeko Bideoa, 21: 24. Eskuragarria: [<https://www.youtube.com/watch?v=1Q5NpoQOuR8>]. (2017ko maiatzaren 17an kontsultatua).

LAKA, Itziar (1990). Negation in syntax: on the nature of functional categories and projections [Doktorego-tesia]. (Massachusetts Institute of Technology).

——— (2002). «Ergatiboa definitzen: lehenengo saioa gramatika sortzailean», *ASJU* 44 (2002): 411-424.

LANTTO, Hanna (2015). *Code-switching in Greater Bilbao. A Bilingual variety of colloquial Basque*. Doktorego-tesia (University of Helsinki).

——— (2018). «New Basques and code-switching: purist tendencies, social pressures», in *New speakers of minority languages*, Cassie Smith-Christmas, Noel P. Ó Murchadha, Michael Hornsby eta Máiréad Moriarty (ed.). London: Palgrave Macmillan: 165-187.

LÓPEZ, Luis (2020). «Case, concord and the emergence of default», *Languages* 5 (12) (2020): 1-40.

MACSWAN, Jeff (2005). «A minimalist approach to intrasentential code-switching», *Rivista di Linguistica* 17 (1) (2005): 55-92.

——— (2007). «Code-switching and grammatical theory», in *The Handbook of Bilingualism*, Bhatia Tej. K. eta William C. Ritchie (ed.) Malden (MA): Blackwell Publishing Ltd: 323-351.

MAZKIARAN, Oihane (2022). *Ergatiboaren oharrena euskara-gaztelania elebidun gaztetxoengan*. Master Amaierako Lana (UPV/EHU).

MUYSKEN, Pieter (2000). *Bilingual speech. A typology of code-mixing*. Cambridge: Cambridge University Press.

MYERS-SCOTTON, Carol (1993). *Duelling languages. Grammatical structure in code-switching*. Oxford: Oxford University Press-Clarendon Press.

OIHARTZABAL, Beñat eta Irantzu EPELDE (2017). «Ergatiboaren erabilera euskaldunek egiten dituzten perpauk barneko hizkuntza lerraketetan», *Lapurdum* 20 (2017): 185-203.

PARAFITA COUTO, M.^a Carmen, Amaia MUNARRIZ-IBARROLA, Irantzu EPELDE, Beñat OIHARTZABAL eta Margaret DEUCHAR (2015). «Gender conflict resolution in Spanish-Basque mixed DPs», *Bilingualism: Language and Cognition* 19 (4) (2015): 834-853.

PAVLENKO, Aneta (2000). «L2 influence on L1 in late bilinguals», *Issues in Applied Linguistics* 11 (2) (2000): 175-205.

PÉREZ, Mikel (2022). *Kode-alternantziaren erabilera eta jarrerak euskara-gaztelania elebidun gazteengan*. Master Amaierako Lana (UPV/EHU).

POPLACK, Shana (1980). «“Sometimes I’ll start a sentence in Spanish y termino en español”: toward a typology of code-switching», *Linguistics* 18 (7-8) (1980): 581-618.

RODRÍGUEZ-ORDÓÑEZ, Itxaso (2020). «New speakers of Basque: a Basque-Spanish contact approach», in *Linguistic Minorities in Europe Online*, Miren Lourdes Oñederra eta Iván Igartua (ed.). Illinois: Southern Illinois University Carbondale: 1-26.

SALABURU, Pello (1992). «Euskara, hizkuntza ergatiboa ote da?», in *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker bilduma, 6. zenbakia. Bilbo: Euskaltzaindia: 417-433.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa: Euskal Herria 2021*. Eskuragarri: [<https://soziolinguistika.eus/es/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2>].

TARDIENTA, Uxue (2021). *Gazte elebidunen euskara gaitasunak, hizkuntza ohiturak kontuan harturik*. Gradu Amaierako Lana (UPV/EHU).

WEI, Li (2013). «Conceptual and methodological issues in bilingualism and multilingualism research», in *The handbook of bilingualism*, Bhatia Tej. K. eta William C. Ritchie (ed.). Malden (MA): Blackwell Publishing Ltd: 26-53.

ZAWISZEWSKI, Adam, Eva GUTIÉRREZ, Beatriz FERNÁNDEZ eta Itziar LAKA (2011). «Language distance and non-native syntactic processing: evidence from event-related potentials», *Bilingualism Language and Cognition* 14 (3) (2011): 400-411.

ZENTELLA, Ana Celia (1997). *Growing up bilingual. Puerto Rican children in New York*. Oxford: Blackwell Publishing.

Oharrak

Notas

Remarques

Notes

Aldude eta Urepeleko mintzoa¹

URREIZTI LAFITTE, Oier

Bordeaux Montaigne Unibertsitateko M2 Euskal Ikasketak Masterreko ikaslea

oierurreizti@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.280>

Aldude eta Urepele herrietako euskararen deskribapena egitea da lan honen helburu nagusia. Ikerketa monografikorik sekula egin ez zaion hizkera honi begira ezarririk, bi herrietako hamarna bat adineko hiztunen elkarrizketak aztertu ditugu eta haien euskararen ezaugarriak sailkatu ditugu haien erabileraren zabalaren arabera. Ezaugarriak isoglosetan kokatuz, aiseago ikus dezakegu ibarreko euskarak zein ezaugarri dituen komunean alboko hizkerekin.

¹ 2023ko irailean Maitena Duhalde, Iñaki Camino, Argia Olçomendy eta Céline Mounolen aurrean aurkezturiko Master Amaierako Lana, Céline Mounolek zuzendua.

1. Sarrera

Artikulu honen bidez, Master Amaierako Lanean eginiko ikerketa aurkeztu nahiko genuke, lerro handitan. Hau irakurtzeak egin dugu lana baino informazio guttiago emanen duenez, nahi ezkeron lan hau saritu duen *Mintzola* egitasmoaren webgunean aurki daiteke lana osorik.

Beraz, “Aldude eta urepeleko mintzoa” izena duen memorio lan honetan, aipatu eremuko monografia bat egitea izan dugu helburu. Oraindik espezialki aztertua izan ez den Baigorriko ibarreko “gaina” ukan dugu aztergai, eta helburua hizkera hau ahal den heinean besteekiko kokatzea izan da. Izan ere, orain arte, Zuazok (2021) egin bezala Baigorriko ibarreko euskara aztertu izan da, baina ibar bazterrekoa guttiago.

Aipagarria da, Nafarroa Behereko hego-mendebaldeko mendialde honetan ere euskara galtzen ari dela, hiltun zaharrak pausatzen diren heinean ez baita hizkuntzaren transmisioa bermatua. Alde batetik euskaraz mintzo den jendearen kopurua jausten ari da, baina horrez gain bi herrietan mintzo zen hizkeraren berezitasunak ere gero eta guttiago entzuten dira, aipatu berri dugun joerari ere jarraikiz, bistan dena. Horregatik, are beharrezkoagoa iruditzen zaigu Aldude-Urepeleko mintzoaren monografia bat egitea.

Hori gauzatzeko, alde batetik Aldude eta Urepeleko euskarari eta inguruko hizkerari buruz jada erran denean oinarritu gara. Beraz, ikerketako bi delagun izan ditugu Iñaki Camino (2004), Koldo Zuazo (2021), Orreaga Ibarra (2000), eta sustut aipatu urteetan hizkuntzalari horiek eginiko lanak, horiek baitira interesatzen zaigun garaietan, interesatzen zaizkigun eremuetako euskara sakonkien landu dituztenak.

Bestalde, Aldude-Urepeleko hizkera mintzo duten hiltun batzuen grabaketak lortu eta aztertzea ezinbestekoa da, ezaugarriak eta berezitasunak jasotzeko. Guk, Irulegiko Irratiko garaiko emankizun baten kari ibarreko hiltun batzuei egin elkarrizketak jaso ditugu helburu horretara begira. Erran beharrekoa da, XX. mende hasieran sortu zen jendea aztertu dugula, eta egia errateko, eremu honetako euskararen ezaugarriak aditzeko adin tarte zinez egokia dela pentsa daiteke.

Behin ezaugarriak jaso ondotik, inguruko hizkerekin konparatu eta isoglosak kokatzea izan da gure eginkizuna. Baina hori aipatu aitzin, besteak beste ikerketaren koadro teorikoa eta metodologiari dagozkion xehetasunak aipatzea ezinbestekoa da.

2. Kokapen teorikoa

2.1. Kokapen historiko-geografikoa

Aldude eta Urepeleko mintzoa aztertzeko beharrezkoa da kokapen historiko geografiko eta ekonomikoa egitea, lurraldearen ezaugarriek, gertakari historikoek eta lotura sozialek etengabe eragiten baitute norbanakoaren jokamoldean, baita hizkuntzari dagokionez ere.

Bi herri horiek Ortzaize Baigorriko eskualdean kokatuak dira, eta lotura hertsia dute bien artean, baina baita Baigorriarekin ere. Gehienik soroz, oihanez eta mendiz osatuak diren herri hauek, Ipar-mendebaldean Bankarekin dute muga eta hego-ekialdean Baztan, Erroibar, Esteribar, Orreaga eta Auritzekin. Gune hau Baigorritik gora heldu den bide batek trabeskatzen du, eta zentzu horretan ibarretik ateratzeko bide nagusia Urepeletik pasa gabe Iruñera joateko Urkiagako lepotik pasatzen den bidea da. Urepeletik Sorogainera edo Ibañetara joateko bide ttipiagoak ere badira. Behera bidean, Bankatik Donibane Garazira joateko bidea eta Baionarantz doana aipatu behar dira. Berriki autobus linea bat pasatzen da bertatik, Baigorriarekin lotura egitea ahalbidetzen duena besteak beste.

Alduden 327 herritar bizi da gaur egun eta izena “altu” eta “bide” hitzen elkarketaz osatua dela pentsatzen da. Ahadi eta Iturrunburu mendiek inguratzen duten herriak Baigorri du herri handi hurbilena. Hala ere, autoz 20 bat minutu behar dira batetik bestera joateko.

Aldude, ezagutzen denaren arabera, lehen aldiz XII. mendean “mendi lurralde” gisara izan zen aipatua Nafarroako Artxiboan. Denborarekin, lur amankomunez osaturiko artzaintza eremu bat bilakatu zen Aldude, gehienik inguruko haran batzuetako artzainek erabiltzen ahal zutena. Bertan, hilabete batzuez bizirauteko etxolak eraikitzen bazituzten ere, debekatua

zen iraunkorki bizitzea, lur amankomunak mantentzeko xedez. Nahiz eta luzaz hau errespetatu, populazioaren handitzearekin batera lurren behar materiala geroz eta handiagoa zen Baigorri eta Erroibar gisako ibarretan, presio demografiko eta garapen ekonomikoaren ondorioz.

Baigorriko familietan, Euskal Herriko ohiturari jarraikiz, zaharrenak jasotzen zuen etxaldea oinordetzan. Hortaz, kaltetak, premuak ez zirenak, sortetxetik kanpo bizirauteko aterabide bat atzematera behartuak ziren. Gainera, hazkunde demografiko geroz eta azkarragoak lurraren gaineko presioa areagotu zuen. Testuinguru horretan ziren etxeko haur batzuk familiako ustiapen unitatearen dependentzietan, hots borda delakoetan, urte osorako instalatu, azpi-unitate horiez jabetuz eta, azken finean, sortetxearekiko lotura galduz. Borden autonomizatze prozesu horrek “etxe zahar” eta “etxe berrien” arteko kalapitak sustatu zituen mendeetan zehar.

Fenomeno horren erakusle Aldudeko parrokiaren sortzea izan zen. Izan ere, inguruko ibarretako kaltetek Aldudeko lur amankomun eta zatiezinak kolonizatzea joan ziren. Aldudeko Bailia etxeko “*Esta casa es de val’derro*” inskripzioa lekuko, inguruko ibarrak elkarren arteko gerra sozio-ekonomiko batean murgildu ziren, baliabide-iturri handiko eremua bereganatzeko. Orogen buru Aldude Baigorriko ibarreko Donostei parrokian integratzea joan zen, bertako erregistroetako bataiatze, ezkontza eta ehorzketa aktek erakusten dituen bezala.

Baina, parrokia hedatzen ari baldin bazen ere, baigorriarrek ez zuten begi onez ikusi beren anai-arreba ttikiak sortetxeko baliabideez eta ibarreko lur amankomunetz jabetzea, ezinbesteko baliabideen galtzea zekarrelako. Hemen, azken finean, etxe zahar eta etxe berrien artean margotu zen liskarra baigorriar eta aldudarren artekoa izan zen. Premuen erantzunkizuna aldudarrei erabaki guneetako parte-hartzea debekatzean eta beste lur amankomunetarako sartzeara eragoztean mamitu zen. Aldudek orduan parrokia izatera galdegin eta 1748an lortu zuen, Donosteikoaz bereiziz, nahiz eta Baigorriko ibarreko kontseiluan ez zioten sekulan jarlekurik eskaini.

Banka, berez La Fonderie deitua, prozesu berdintsu baten ondorioa izan zen, aldiz, meategiek eskaini zioten indar ekonomikoari esker zuen nukleo potente eta autonomo bat bilakatzea lortu, bere aldian Donostiez bereiziz.

Hamarkadaz hamarkada tentsioa ez zen lausotu eta Frantziako Iraultzan Aldudeko parrokia udalerrri bilakatu zelarik, Espainiako Erresumaren parte izatea galdetu zuen. Galde honen bidez, baigorriarrei lur amankomunak erabiltzea galarazi nahi zieten, beste estatu batekoak izanik haien eskubi-deak galduko zituztelako. Honek ez zuen esperotako emaitzarik eman, ez baizitzaien galdea onartu (Arvizu 1992).

Demografikoki, 1800. urtean, lehen aldiz kontatu zirelarik biztanleak udalerrri gisa, 1.320 pertsona bizi ziren Alduden. Hortik landa, XIX. mende erdialdean izan zen biztanle kopuru handiena, 2.885 biztanle izatera iritsiz. Orduan hasi zen gainbehera, gazte anitzek emigratu behar izan baitzuen besteak beste, gaur egun den kopurura iristeraino.

Ekonomikoki, etxaldeko autokontsumoa nagusi bazen ere, ohikoa zen laborariek mozkin batzuk saltzea edo baita ere soldatapeko lanean aritzea garai eta denbora mugatuan.

Aldudeko herria aski berria bada, Urepelekoa oraino berriagoa da, Aldudetik separatuz sortu baitzen 1862an, eliza 1841ean eraiki bazuten ere. Prozesua biziki antzekoa izan zen, nahiz eta ez zituen hainbeste talka eragin. Gaur egun 295 biztanle ditu. Hemen ere, XIX. mende erdialdean elkartu ziren biztanle gehien, baina geroztik tendentzia beherakorra izan da.

Gaur egun, aipatzekoa da bi herrietan eskolak badirela, Urepelen publikoa eta Alduden pribatua, eta biak elebidunak direla. Hortaz, haur guztiek dute lotura minimo bat euskararekin. Ekonomikoki, laborantzak toki handia izaten segitzen du, eta xerri hazkuntzak eta ardi esne gasnatzeak garrantzia handia dute, arraintegi batzuk ere badira bi herrietan. Turismoa geroz eta gehiago garatzen ari baldin bada ere, historikoki ez da turista anitz iritsi ibarrera. Erran behar dugu ere, nahiz eta gazte anitzek lanagatik edo beste arrazoinamendu batzuegatik kostalderantz edo Garazialdera bizitzera joan behar izan duen, ibarrarekin lotura handia mantentzen segitzen dela, baita bigarren eta hirugarren belaunaldiak direlarik ere batzuetan. Horrela, ohikoa da asteburuetan ibarrean bizi dena baino jende gehiago biltzea Urepelen edo Alduden, segur aski beste euskara bat garatu duen jendea berriz ere herrian elkartuz.

Azkenik, Urepele eta Aldude aipatzearekin ezin genezake Kintoko eremua aipatu gabe utzi. Hori Erdi Arotik ezagutzen ditugun lur amankomunen erlikia bezala kontsidera dezakegu. Kintoa, gaur egun administratiboki Nafarroa Garaian kokatua den eremua, Baztan eta Erroibarren artean banatua da. Baina duen berezitasuna da, Kintoko lurak mugaren bi aldeetako laborariek erabiltzen ahal dituztela. Bitan zatitua da Kintoa: iparraldeko partea Iparraldeko laborariek erabiltzen ahal dute eta hegoaldekoa Hegoaldekoek. Horregatik, historian zehar bi aldeetako laborarien harremana sustatu du Kintoko eremuaren antolaketak, eta oraino hala dirau. Erran gabe doa, aipatu harremanek hizkeran eragina ukan zutela, eta dutela.

2.2. Mintzoaren sailkapenaz

Aldude-Urepeleko euskara, betidanik Baigorriko ibarreko euskararekin loturik landua izan da. Louis Lucien Bonaparte Frantziako printzea, euskararen azterketari bere biziko zati bat eskaini baitzion, lehena izan zen landu dugun eskualdeko mintzoaz zerbait erraten, Ortzaize, Baigorri, Arnegi eta Luzaide barnebiltzen zituen “Baigorriko azpieuskalkia” aipatzean. Hau, “mendebaldeko behe-nafarra” euskalkiaren zati gisa sailkatu zuen beste bi azpieuskalkirekin: Lapurdikoa eta Aezkoa ibarrekoa. (Bonaparte 1863, 1881).

Pedro de Yrizar (1999) izan zen euskalkiez bere iritzia eman zuen ondorengoa. Berak, Bonaparteren kokapena berretsi zuen, Baigorri inguruko aditz laguntzailea “mendebaldeko Baxe-Nafarrera” izeneko euskalkiaren barnean kokatu baitzuen.

Horrez gain, azpimarratzekoa da Yrizarrek lan horretan Urepele / Aldude / Kintoa hirukotea eta Ortzaize / Bidarra / Baigorri / Banka taldea separatuki lantzea. Izan ere, haren aditz laguntzaileari buruzko lanetan desberdintasunak atzeman zituen ikerlariak guk landu dugun eremuaren eta Banka, Baigorri eta gaineratekoaren artean.

Euskalkien sailkatzera itzuliz, Bonaparten sailkapena berritu zuen lana Koldo Zuazorena izan zen. Lehen proposamena 1997an aurkeztu eta geroztik zehazten joan den Zuazoren euskalkien sailkapenak, besteak beste ordu-

ra arte bereizirik sailkatu ziren “lapurtera” eta “behe-nafarrera” euskalkiak, “nafar lapurtera” izeneko euskalki bakarrean batzen ditu. Zuazok, justuki, 2021ean argitaratu zuen *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara* lanaren sartzet hitzetan, honakoa dio: “2018 eta 2020 bitartean, eskualde horretan zenbait hilabete eman ondoren, Ortzaize, Baigorri eta Garaziko euskara berdintua dela ikusi dut.” hau da, erraten du Bonapartek bereizirik sailkatu zituen “ekialdeko behe-nafarrera” eta “mendebaldeko behe-nafarrera” euskalkien arteko alderarik ez duela ikusten, ez bada Garazin “xuka” egiten dela, Baigorri ez bezala.

Iñaki Caminok, berriz, *Nafarroa Behereko euskara* (2004) tituluko lanean, Baigorriko ibarrak eta sakonkiago mendietan sartuak diren herriek Nafarroa Behereko euskararekin bat egiten ez duten zenbait ezaugarri dituztela dio (usu Nafarroa Garaiko ezaugarriekin bat egiten dutenak). Baina hori erratearekin batean, aitortzen du zaila dela jakitea desberdintasunak isolamendu geografikoari edo mugaz bestaldekoekiko harremanari zor zaien.

Ibarreko auzo diren Nafarroa Garaiko eskualdeetako euskara Aldude-Urepelen baino kinka txarragoan dela erratea ez da anitz bustitzea. Izan ere, Orreaga Ibarak (2000) Erroibar-Esteribarko euskarari buruz idatzi zuen lanean, aitortu zuen eskualdean ez zela kasik gehiago bertako euskararen hiztunik. Geroztik egoera ez dateke hobetu. Bonaparteren sailkapenean “hegoaldeko goi-nafarrera” zeritzon euskalkian kokatua zen hizkera, gaur egungo Zuazoren sailkapen berrituan Bortzirietatik Aezkoaraino hedatzen den “nafarrera”ren parte da.

3. Protokolo metodologikoa

Ikerketa dialektologiko hau aitzina eramateko, bereziki “Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi” Caminoren (2009) metodologian oinarritu gara. Lanaren genesitik, corpusa eratu eta aztertzerainoko bidearen nondik norakoak esplikatuko ditugu datozen puntuetan.

3.1. Lanaren genesisia

Master Amaierako Lanarentzat hautatu dugun gaiaren iturburua, lizenziako hirugarren urtean egin behar genuen dialektologiako lan batean aurkitzen da. Ikerlan bat egin behar genuen, pertsona bat hautatu eta haren hizkera aztertu. Xelextin Saroiberri urepeldarra aztertzea erabaki ona izan zen, haren hizkeran berezitasun franko atzeman eta Urepeleko euskararekiko jakin-min handiagoa piztu baitzigun. Izan ere, gaztetatik entzuniko Urepele zein Aldudeko euskaldunak aditzean zerbait sendi genuelako hautatu genuen garaian lan hura urepeldar bati buruz egitea.

Gehienbat horren ondorio da ikergai hau gauzatu izana.

3.2. Corpora

Dialektologiako lan bat egitean, lehenik hiztunak hautatzea, elkarrizketatzea eta aztertzea izaten da ohiko egin-moldea. Baina gure memoria gaia lagunei zabaltzean, laster oroitarazia izan zitzaigun “Euskal Irratiek”, eta berezikiago, Argitxu Canterok grabatzen zituen “Gure arbasoak” ~1990 - ~2015 emankizunak bazirela Irulegiko irratiko egoitzan. Gure gairako interesgarriak izan zitezkeen hiztun batzuen elkarrizketak gordeak ziren han.

Beraz, haien bila joan eta Irulegiko irratikoek dudatu gabe lagundu gintuzten, emankizunaren artxibategira sarbidea eskainiz. Egia da, memoria batek galdegiten duen batez besteko lan kopurua neurtuz, elkarrizketak ez prestatu eta grabatu behar izateak azterketa sakonkiago egiten lagunduko zuela.

Corpusaren deskribapena egitearren, lehenik gehienak ~1990 - ~2015 artean elkarrizketatuak izan ziren XX. mende hastapenean sortu ziren pertsonak direla erratea beharrezkoa da. Anitz, gaur egun zenduak dira, eta ez du beraz haien euskara xoragarriak ibarreko haizea gehiago ferekatzen, maluruski.

Emankizun hauek hiru oren laurdeneko elkarrizketak ziren, hizkera laxoan emanak, eta guziak kontuan hartuz, agertzen ziren elkarrizketatueta-

tik 18 aldudarrak, eta 19 urepeldarrak ziren. Haien guzien artetik, herritik mugitzeagatik edo beste faktore batzuegatik hizkera ibarrekoa soilik ez zutenak baztertu ondotik, 13 aldudar eta 11 urepeldar hautatu genituen. Horien mintzoa aztertzeaz gain, lizentzian egin laneko Xelextin Saroiberriren euskara ere kontuan hartu dugu datuetan. Berari dagozkionak Ahotsak.eus-eko grabaketetan oinarrituriko datuak dira.

Hautaturiko corpusaren deskribapen labur bat interesgarria izan daitekeela uste dugu, erabili ditugun datuen baliozkotasunaren aldeko argumendu gisara.

Hona hemen beraz aztertu ditugun hiztunei buruzko informazioa:

Aldude

Albert INDA: Aldude Sarandian 1938an sortua. 18 urtetan Ameriketara artzain joana eta 6 urte eta erdiz han egona etxera itzuli aitzin. Gasna egiteaz mintzo, Baigorriko ferian.

Antton INDA: Aldude Ponsozian 1915ean sortua. 81 urte zituen elkarriketa egunean, eta geroztik zendu da. 1945eko gerlari buruz mintzo zaigu, 24 urteetan gerlara joan baitzen.

Ferdinand BIDAURRETA: Aldude Ximunenean (Esnazun) 1939an sortua. Ihiziaz mintzo, Aldudeko saretan ari baitzen. Oraino Alduden bizi da.

Frantxoa BIDAURRETA: Aldude Ximunenean (Esnazun) 1942an sortua. Ferdinand-en anaia. 1964an AEBetara joana, eta oraino han bizi. Gazte garaiaz mintzo zaigu.

Gratien LAXAGUE: Alduden 1904an sortua. 95 urte eginak elkarriketatzean, geroztik pausatua. Gerla egina, Ameriketan ibilia, eta Alduden laborantxan egona da.

Gehexan MUXIKO: Aldude Arrixiloan 1920an sortua. Laborari egona etxean 39-45 urteetako gerla denboran 5 urte preso egona Alemanian. 1986an zendua.

Lucie GOÑI: Aldude Iparrabarrean 1919an sortu zen. 88 urte zituen elkarrizketatu zutenean. Seroretan egona da, eta gaur egun zendua.

Mikel ERRAMUZPE: 1956ean Alduden sortua, Baigorriko Biletzeko zuzendaria. “Ezta musik” emankizuna, beraz ez da iraganaz soilik mintzo.

Mixel HEGI: Maestrugintzan gazte gaztetik, Aljeriako gerlan ibi zen. Horretaz aparte, beti Alduden egona. 66 urte elkarrizketa egunean, eta geroztik pausatua.

Peio SETOAIN: Aldudeko mera izana. “Ezta musik” emankizuna, beraz ez da iraganaz soilik mintzo.

Pierre ERRAMUZPE: Aldude Ezpondainian 1927an sortua. 71 urte elkarrizketa denboran, duela ez hain aspaldi pausatua. Bertsu batzuk kantatzen ditu, eta iruzkintzen.

Pilale LAXAGUE: Aldude Oihanxelaian sortua. Laborantzaz mintzo, beti ibarrean egona, gerla denboran salbu. Alemanian preso egon zen. Duela dozena bat urte joana.

Xemartin SORHONDO: Aldude Mendiberrian sortua, gaur egun pausatua. Gerla bizi izan zuen hark ere, eta bere denboran hainbat lan desberdin egin zituen bizitzeko.

Urepele

Albert ELGART: Urepele Zankaenean 1933an sortua. 64 urte elkarrizketa garaian, geroztik pausatu zen. Laboraria zen, beti Urepelen egona, salbu soldaduska garaian.

Angele HARRIET: Urepele Xokolateroenian 1926an sortua. Etxeko txokolata dendaren segida hartu zuen, herri zentroan dena. Beti ibarrean bizi izana, eta oraino bizi dena.

Erramun KOSKARAT: Urepele Masterrenian bizi, 54 urte elkarrizketa denboran. Laboraria, beti etxean egona eta dagoena, naturatik biziki hurbil bizi.

Jeanne MARTINEZ: Urepele Gauerdian 1919an sortua, eta geroztik pausatua. Beti Urepelen egona. Haur denboraz mintzo.

Jeanne TAPIA: 1909an sortua Kinton. Kareinean bizi izana luzaz. Itsutu zen eritasun baten ondotik, eta geroztik zendua da.

Leoni AIRE: Urepele Xendarinean 1923an sortua 73 urte elkarrizketatzean. Xalbadorren emaztea, beti Urepelen egona, eta herrian bertan zendua.

Mari ANTXAÑO: Kintoan Luisenean 1914ean sortua. Elkarrizketan 83 urte, eta geroztik joana.

Mari URRIKARRIET: Urepele Gainekozinkoinean 1904an sortua, Bokalen bizi izan zen eta hondarrean Urepelera erretiratu, eta han pausatua. 95 urte elkarrizketatzean.

Marie Therese ETXEPARE: Urepele Ilarragorrian 1926an sortua. Baxtandarrenean mendi kaskoan bizi duela 73 urte, eta gaur egun pausatua.

Ttattin UHARRIET: Kintoa Fututenian sortua. 82 urte elkarrizketa garaian. Senarra bankarra, baina bizi guzia Kintoan pasatua. Han pausatu zen.

Xelextin SAROIBERRI: Urepele Zinkoenean 1919an jaioa, eta han berean pausatua. Beti Urepelen egona, eta senarra ere urepeldarra zuen.

3.3. Corpusaren mugak

Aztertu ditugun emankizunak hiru oren laurdeneko elkarrizketak dira, hizkera laxoan emanak. Dialektologiako helburuari begira, guk eginak ez diren elkarrizketak aztertzeak muga batzuk dakartzala argi da. Ez txarrak direlako, baizik eta guk nahi genukeenerako ez baitira izan zitezkeen bezain egokiak.

Alde batetik, elkarrizketak aitzinetik eginak izanik, ezin izan ditugu osoki guk finkaturiko ezaugarrien araberako hiztunak hautatu. Hala ere, honi dagokionez zinez zorrea ukan dugu, tratatu dugun corpusa adin aldetik aski homogeneoa baitzen, eta gainera, ibarreko euskararen (edo izan zenaren) ezaugarriak aztertzeke egokia.

Hala ere, horrek beste muga bat ekarri duela erran behar dugu. Aztertu ditugun hiztunen gehiengoa pausatua izanik, grabaketan duda baten aurrean aurkitzen ginelarik ezin izan dugu pertsonarengana informazio eske joan.

Muga larrienak, elkarrizketen gai eta testuinguruari lotuak dira. Lehenik, Argixu Kanterok elkarrizketak egin zituen moduak eta elkarrizketak hark egin izanak berak eta ez elkarrizketatuekiko pertsona hurbilago batek, ez ditu hiztunengandik forma alokutiboak lortzeko baldintza optimoenak plantan ezarri. Horregatik, ezin izan dugu forma alokutiboetarako buruz idatzitako corpusetako datuekin argumentatu.

Horrez gain, pentsa daiteke hiztun batzuk irratiantzat mintzo direla jakitearekin, hizkera egokitzen dutela, ahal duten heinean behintzat.

Ondotik, aditzekin jarraituz, elkarrizketatuak gehien-gehienean haien iraganaz mintzatzerantz eramana izan dira, eta beraz, bereziki iraganeko aditzak lortu ditugu. Beraz, orainaldiko edo geroaldiko aise guttiago izan ditugu aztertzeko.

Aipatu behar da, “gure arbasoak” ez den beste “ezta musik” izeneko garaiko emankizun batetik hartuak direla Mikel Erramuzpe eta Peio Setoain aldudarren elkarrizketak. Biak ere gure hiztunen adin batez bestekotik nabarmen gazteagoak dira, eta bereziki, ibarretik kanpo ere ibiliak. Baina, oren bateko emankizun hauetan, orainaldiko eta geroaldiko forma gehixeago atzeman ditugu.

Azkenik, adineko hiztunen ahotsak, edota ahoskatzeko moduak zailtzen ahal dute azterketaren zehaztasuna. Grabaketaren kalitatea ere, eragina izan dezakeen faktore bat da.

3.4. Corpusaren azterketa

Corpus aski aberatsa bildu genuen beraz ibarreko hiztunen euskara aztertzeko. Honi segituz, azterketa egiteko erabili dugun metodologia azaltzera goaz.

Corpusa aztertzeko, lehenik, Aldudeko hitzun guziak entzun eta darabilten hizkeraren ezaugarriak agerrarazi ditugu, eta ondotik, urepeldarrekin gauza bera egin dugu.

Horretarako, bi maneratan jardun dugu:

- Hitzun interesgarrienen elkarrizketak transkribatu egin ditugu lehenik. Orotara, lau aldudar eta hiru urepeldarren elkarrizketak transkribatu ditugu.
- Beste hitzunekin, bakoitzarentzat orri bat hartu eta aipagarriak diren ezaugarriak, sailkatu ditugu.

Horrela, masterreko lanean ezaugarri guziak dagozkien sailetan ordenatu ditugu: 1. Fonologia, 2. Izenaren morfologia, 3. Aditzaren morfologia, 4. Adberbioak eta 5. Joskera.

Datu batzuk batuagatik, lexikoa ez dugu landu, horretarako denborarik ez baitugu ukan. Hala ere, azpimarratzekoa da Zuazok (2021) hiztegi mamitsu bat aurkeztu zuela bere lanean.

Behin lana bukatu, atzeman ditugun ezaugarriak gaur egungo hitzun batzuekin partekatu ditugu, haiek emaitza horiek errealitatean entzun edo entzuten ote dituzten galdeginez. Lau urepeldarrekin eta aldudar batekin biltzea lortu dugu. Egia da aztertu ditugun hitzunak baino aise gazteagoak direla ikerlana burutu ondotik ikusi ditugun pertsonak, baina gazteagoak izateak informazio interesgarria ere ekar lezake.

Hori eginik, azterketa bukatzeko aurkitutako ezaugarriak isoglosaka sailkatu ditugu, eremuka egiten diren ezaugarri multzoak sortuz. Horren helburua Aldude eta Urepeleko hizkera kokatzea izan da, ezaugarriekin zein eremurekin bat egiten duten ikusiz.

Artikulu honetan, ez gara ikerketa lanean ezaugarriak sailkatu ditugun moduan ariko, dena xeheki esplikatuz. MAL-ean bukaeran egin genuen bezala azpimarratzekoak diren ezaugarri edo berezitasunak isoglosaka sailkatuko ditugu, landu eskualdeko euskarak eremu bakoitzarekin zein ezaugarri partekatzen duen argiago uzteko.

4. Ezaugarrien kokapena

Erran bezala, atal honetan ikerketan agertu zaizkigun ezaugarriak, eta haien hedadura laburki biltzen ahaleginduko gara. Eskualde honetan ikusi ditugun ezaugarriak hizkera hauekin partekatzen ditu Aldude-Urepeleko mintzoak:

→ Nafarroa Beherean guzian

- Afrikaturik ez hitz hastapenetan: *xakurrak* ‘txakurrak’
- Hasperena desagertzen ari
- RR hobikaria desagertzen ari
- Datibo plurala: *-er* (Lapurdin ere bai)
- Soziatiboa: *-kilan*
- Izenordain hanpatua “nihaur” (Lapurdin ere bai)
- Aditz izeneko *-ite* morfema: *eremaiten* ‘eramaten’
- *-a* morfema galderetan: *aski dea?* ‘aski ote da’
- Iraganean trinkoek *-a-* hartzen dute
- Hanpaturiko adberbioak: *huribil-hurbila* ‘biziki hurbila’
- Hanpaturiko ere: *eiteko’re zen* ‘egiteko ere zen’

→ Baigorriko ibarrean

- *rz lz nz* kontsonante taldeak
- *-xe* eta *-keta* atzizkiak

→ Nafarroa Beherean + Nafarroa Garaian

- Aferesia, edo hitz hastapeneko fonemen erorketa: *zarri* ‘ezarri’
- Sinkopa, edo hitz barneko fonemen erorketa: *erten* ‘erraten’
- Laguntzailerik gabeko aditzoina, baina Nafarroa ekialdean soilik atzematen
- *EDIN eta *EZAN adizkiekin osturiko alegiazko baldintza desagertze bidean

→ Baigorriko ibarrean + Nafarroa Garaian

- “rtz” kontsonante taldea, “st” ordeztu

- *l* edo *n* ondotik heldu direlarik, herskariak ahostun gisa ahoskatzeko joera sumatu dugu: *frango* ‘franko’. Joera hau Lapurdin ere ezagun da.
- *-tikan / -rikan / -larikan* = *-kan* morfema, ibarrean gero eta guttiago entzuten bada ere
- *xuka-rik* ez agertzea
- Nor-Nori-Nork, Nor-Nork aditzen ordez: *ezkinin menturatu* ‘ez ginen menturatu’

→ Nafarreran

- *Ebili* partizipio zaharra
- *-tuko* > *-tiko* geroaldiko morfema

→ Ekialdeko hizkeretan

- Osagarri zuzena genitiboan

Azkenik, landu dugun eskualdean ingurukoetan agertu gabe gelditu diren ezaugarriak aurkeztuko ditugu:

→ Aldude eta Urepelen

- EA > IA bilakatzea gehienetan ez gertatzea
- I + A elkarketan azentua *i* an agertzea
- UA > UIA silaba bat baino gehiagoko hitzetan egitea
- BAN
- *-AREN* > *-AIN* egiteaz gain, *-AEN* egitea
- *RIK* > *IK* ablatibo zaharraren bi agerpen entzun ditugu
- Nor-Nori-Nork eta Nor-Nori sailtako “zkau” erroa
- “iko” datiboko marka: *zaiko* ‘zaio’
- Joan aditzaren trinkoen “za” erroa: *badaza* ‘badoaz’

Horrez gain, aipatzekoa da aztertu ditugun bi herrien artean ez dugula desberdintasun nabarmenik entzun.

Urepeldar batek erranik, eta aditu dugunez aldudarren “plazan” (ordez) eta “à pied” (oinez) (hau guk urepeldar batengandik ere entzuna) erraten dute, frantses hitzak euskarazko esaldietan erabiliz. Hala ere, tendentzia orokorra da frantsesezko hitzak euskarara ekartzea, Alduden nahiz Ipar Euskal Herri osoan, bai zaharren bai gazteengandik ere.

Bestalde, nabarmentzekoa da justuki Urepelen lexikoa lantzeko denborarik gabe gelditu garenez aipatzeko tarterik hartu ez dugun gaztelaniazko hitz anitz entzun ditugula euskarara ekarririk: “*bueno*” *pixkat irri eiteko*’re zen ‘*bueno* pixka bat irri egiteko ere zen’, edo *guk ez’kiniin sukar artzekoik usatzen* ‘guk ez genuen sukar hartzekorik usatzen’ besteak beste.

Lexikoan aipatzekoa litzateke ibarrean entzun dugun beste berezitasun fonetiko bat: “joan” ordez “ban” erratea.

Lehenago erran bezala, hizkeraren deskribapen askoz xeheagoa atzeman daiteke Euskaltzaindiaren webguneko *Mintzola* egitasmoaren 2023ko ikerketa deialdien atalean.

5. Ondorioak

Aldude-Urepeleko hizkeraren sailkapenaz ari zen atalean aipatzen genuen bezala, lan honek islatzen duen errealitate nagusia, ibar bazterreko euskarak Baigorriko euskararekin ezaugarri ugari partekatzen baditu ere, hegoaldean dituen ibarretako euskarak dituen ezaugarri anitz ere dituela da.

Honekin deus berri ez erranik, Caminoren laneko sartzean (2004: 446) hizkuntzalariak egiten duen gogoeta bat ekartzea pertinentea iruditzen zaigu:

Baigorriko hizkuntza-ezaugarri batzuek Ipar Euskal Herriko mende-balderagoko euskararen oihartzuna dakarte eta Nafarroa Behere gehienez ageri diren zenbait ezaugarritarik zertxobait urruntzen dira. Besterik da frogatu ahal izatea, Nafarroa Behereko berrikuntzetarik desberdinak diren Baigorriko bereizgarri gordetzaille batzuk, Baigorriren izaera menditsuaren eta bakartze orografikoaren ondorio diren, ala ondoko Baztan, Esteribar eta Erroibarrekiko hartu-emanari ote dagozkion, ala bi arrazoiak batera biltzen ote diren.

Izan ere, kokapen historiko-geografikoarekin ulertu dugunez, Aldudeko parrokia sortu aitzin eremu horretako soroak bi aldeetako laborariek erabiltzen zituzten. Gainera, Aldude eta Urepeleko herrien sortze prozesuarekin bi aldeetako biztanleak joan ziren ibarrera bizitzera, eta horrek iparraldeko

eta hegoaldekoen harremanak ugaritu zituen, soroekiko norgehiagokak gaur egun arte iraun duelarik.

Zentzu horretan, egia da lan honetan ez dugula ezaugarrien bilakaera landu, garai ezberdinetako datuak konparatuz. Gisa berean, eremu honetako euskarari buruz gehiago jakiteko, Garaziko eta Lapurdiko hizkerekiko gehiago parekatzea komenigarria litzateke.

Beraz, aipaturiko guziak argibide batzuk ematen badizkigu ere, denbora kontuan hartuko duen lanketa egitea ezinbestekoa izanen da ibarreko hizkeraren ezagutzan sakontzeko eta Caminok mahaigaineratzen duen problematikari erantzuteko.

6. Transkribapenak

Lanaren bukaeran, transkribapenak ezarri ditugu txertaturik. Bat aurkituko duzue hemen, egindako lanari buruzko informazio gehigarri gisara.

LEKUKOA: *Poxoziako* Antton Inda

[Nik kampaña einaut Poxozian hoitamar urte in tut nausiaen beldur, beti beldur, sos guti iraaiz.

Alduden pastuut demora haundia eta soldado berze bultaat eerra alamanekine borroka ari niz heeke izitutut ta heeke izitu balinbanutere ni ez bate nehorendako beldur gelditu ni hemen beti gizon azkarra nau.

Alors, gerlako ukaldia sendatu zitzaan baina sendatzetik eta sendatzera bada gauza aunitz bakarrik sosa jiten zaut goernamendutik eta sos harek balioa baitu biziik gelditu bainiz, berze batzu gelditu dira hilak bainan ni bizi beti entseatzia balio du gerlane.

Hoitalau urte, hoitalau urte memento hoeen hoenean, andreta baiteko're iziarria kapablia, hua karriik andriare beantaio artu niin eta goiz aski bainan alare kampaña eerra eraman dut, etxea eosia niin, ta etxiake ezte bate arranguraik, maahtiare zenauzu maluroski garbitiaut, banaut bainan etxia berdin untsa daukat, ta semiare lanian ai zait, Anemari gaizoa urare

apier lafitte bere senarraekilan eta anton zaharra ementxe bakar bakarra, xarmateko maztea jin zat oño oñora aian luzaz iraunen diila.

Oitalau urtetan erreximendia ein'iin hoitabat urtetan ban nintzen erreximendurat. Erreximendia finitia nin bi urte'ein bainitiin. Ta bi urtein burian gerla deklaatu zen, ta gerla as zain nitzan gerlat ban aitzinean ta jakin'zazu niarr'ei'niila handik partitzean berriz gerla eo bainakin eta gerlaa nindoala. Bakarrik ezta bear pentsatu gerla gerla da mainan ezta bear pentsatu hiltzen ahal girela hane ni eninzan hil baina ??eiter ba??.

A Epinal nintzan, La Moselle, ta han bear zen eta alamanen kontra erresistatu anitz baakizu zer den erresistatze ori? Erraitia erres'ta: amen'umiak ilez. Nire gaizua han'nintzan mainan zenauzu gure'yinkoak e'tziin nai ni han il'nindain, uai beldurriak omen dira enizala hilene.

Ba gero handikan alamanek eraman ninduten ospitaleat, ta alamanek xarmanki sendiatu izanaatik gure etsaiak.

Zenauzu, gerla gerla baita, baziren hane, alamaniane iende unak eztakit nik zendako eta ein duun gerla alamanen kontra, ni alamanekilan geoztikane mintzatia niz Alduden, Alduden batek erran daut aatik politika dela gerla.

Urtean eon'nintzan preso.

—*Nun hori ?*

A Fribourg.

Bea noiz jinen nintzan eta Frantziat, ta Frantziat jin nitzan ta hek eta ekarri ninduzuten à Chalons-sur-sône. Treina à huit heures han'tzen ardüratia eta handikan bear ginin *la ligne débarcation* pasatu ta biziki kontent frantziaat pasatziat. Ta frantzia pasatu ginuelaikan andre guziak eta gizonak heldu zien gara guzietaik kafia ta zigarreta ta den guziekilan ta guk estimatzen baigintiin hoinak.

Gero jin ginen Briveat, ta Briven, han, bear giniin demobili/z/atu gu eta zone eta zerakoak baiginen. Hunat jiten gira, hemengo andriak gaizuak, gure bea zaudela pentsatzen dut, eta hemengo'andrek eni berri galdeten zitazkeen heen umiak ea nun'tzien ba nik ez nakin nihaun buriaz'e. Ala-

manak emen, ni beldurrez heen, han untsa ziren ba alamanak izaitia baina hemen enitin untsa hartu. Bakarrik zenauzu in hemene soportatu bearko.

—*Ze urtetan jin zinen hunat? A cause de la blessure. (erantzuna) A ba me ze urte zen?*

En quarante et un.

Gerla ein dut nik ein bear zena *jusqu'à* armistiza artio, *la veille de l'armistice je suis blessé*, baina Anton zaarra beti bizi.

Gero huna sartu nintzalaikan beti ene sortetxia beti leku berian'tzen, ta ene sortetxeakoak'e'ba, salbu eta anea banin eta huare hantzena eta alamanian preso, hurare jin'tzen gero zenauzu nire arzaina, arzaingotikan berrize arzaingora ban nintzan, ta arzaingotikan kantonier sartu nintzan. Ba nikuste eniin bate demora galdu.

—*Zendako utzi zinin artzaingoa ?*

Aire gaxtoak karri baitzaskaun ardi alde'at ta gero artako utzi niin arzaingoa eta gero *euuuuuuh* jar'nintzan kantonier, ta kantonier baikizu lana idorra da, harria jo bear dela, harria joitean (ez jotzean) gizonake kompreintzen diila. Erten dute aunitzek palaierra eztela biziki eta pala hiiatzen baina aunitzendako ez asteko baina gure etxean asteko aunitz eitzen'tzen, nausia ere hain ginin bortitza eta nausi harek beti lan eskasin arrapatzen'tzaun, ta ordian guk bear ginin jo eta jo ari eta aunitzek berriz kritikatzten ginduzuten alde guzietaik hek bate ez'paitziren ari.

—*Ze lan ?*

Acottément, bide baztertako errebidiak eta gaineatekoak eo errekek, erreake in bear baitira erreake ba, nik uste errekek eiten gitin ba untsa. Bakarrik itzalpia urare maite ginin omen, omen hala erden zuten asteko bazterrekok, guk ez'paignin anitz beatzen izalai gu lanian arzen baiginen aitzina, itzalian ala iuzkian hain'tzitzaun laneko embaia eta laneko emaia ez'paitu itzalak eta iuzkiak kentzen.

Bidiake eia bidiak gutiao ziren ba ta uai soera, orai sobera bide in duu eta bide horiek ein tuu baikizu etxia ta ??deitea?? bidia normatzen herrietako mera heeke hala erden'tzauuten. Ta orai bidiak ein'tuu mendietaat'e, ta

mendietaat eitia bidia ondduak eta gaineateko guzia bertzek eemaiten al dazkaaute. Ta guk, ardiak gune'atetaat aldaatzen'tuu eta heek bertzeat ior-tzen, ordian ezta batez giro horrekin.

Harriak hausten nitiin, *blocage*-aindako, uai eta *blocage*'a iten baita, uai ez'ta'iten *blocage*'ik geiao, *blocage*-a iten'tzen bakizu nor'tziren *blocage*-a eta harriaen ateatzaliak mendietaat kartzen'tziren gizonak. Goikoetxea ta bazi-ren olakoatzu izpeiko errebidiare ta erditi'beiti eta ene demboran eina da. Ta iizpeiko errebide artan baziren arri metak aski andiak, salbu eta guk giiletikan gintiin jo eta jo eta jo eta hautsi eta nausia giilekaldian beti. Baa-kizu ze'erran nai din nausia giilekaldian? Obeuzu aantza'derra aztalian ??tau?? ez hura an izaitia giilian bear beitzu beti jo. Ta nik asteko atsa artu niin eta bos'minuta leenau partitu zitzaan eun batez nausia eta banketa'ai-nian jarri baintzen eta bertze'atek salatu nindiin.

Bo deuse, ba deuse zaun niz nausiakin, zautzen bainindiin nausiak untsa ta nausiare ola *bon à tout faire* bat baitzen eerra, ta harekilan uai bakzu zer? Harekin biaamunian untsa izaiteko paatzen ginakon bezperan auniz'trago, ta nausia biziki kontent bihaamunian berriz lana'aste. Nausiaakin beti ber, nau-si gisa berri lanian ari ez'kinez gure ta arrunt eta ??mainutzikiran?? hasiak, mainan, orai bakzu ponxozian nola den? Ponxozian uai panoa bizkarrian artu ta altxa? Salbu eta ezartzen dute nun den ta beldurra eta han beldurra sar-zeko lekian untsa da, beldurrak'tu zaintzen maastia. (emazteak?].

Bibliografia

ARVIZU, F. (1992). *El conflicto de los Alduides (Pirineo Navarro)*. Iruñea: Depar-tamento de Presidencia.

BONAPARTE, L. L. (1863). *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division dialectes, sous-dialectes et variétés*. Londres.

——— (1881). «Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos». *Revista Euskara*: 161-166.

CAMINO, I. (2004). «Irizpide metodologikoak egungo Euskal Dialektologian», *Euskera* 49 (1): 67-102.

——— (2004). «Nafarroa Behereko euskara». *Fontes Linguae Vasconum* 97: 445-486.

——— (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

EUSKALTZAINDIAREN DIALEKTOLOGIA BATZORDEA (2005-2008). «Euskararen Herri Hizkeren Atlas» [EHHA]. «MEHAKA» Baigorriko interpretazio zentroa (2022).

IBARRA, O. (2000). *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Iruñea: NUP.

YRIZAR, P. (1999). *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ZELAIETA, E. (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Bilbo eta Iruñea: Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua.

ZUAZO, K. (1999). «Baigorriko euskara kokatzeari buruz» *Lapurdum* 4: 247-277.

——— (2021). *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara*. Bilbo: UPV/EHU.

Liburu aipamenak

Reseñas de libros

Comptes rendus de livres

Book reviews

Normativitat, (re)estandardització i glotopolítica

Noves mirades des de la sociolingüística catalana

Pradilla Cardona, Miquel Àngel
2024an argitaratua, 296 or.
Argitaletxea: Universitat de València
ISBN: 978-84-1118-295-9

URRUTIA BADIOLA, Andres M.
Euskaltzaindia
ORCID 0000-0002-2139-7137
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.281>



Estándarizazioaren hegaletan

Zinez esanguratsuak dira Miguel Àngel Pradilla irakasleak liburu honetara bildu dituen testuak, katalanez idatziak. Izan ere, hizkuntzen estandarizazio prozesuak errealitate biziak dira azken mendeetan. Hizkuntzak hizkuntza, hiztun kopuru handiko, ertaineko edo txikikoak izan arren, estandarizazio prozesuak behin eta berriro gertatu dira historian eta hizkuntzetan zehar.

Hala ere, estandarizazio bide horiek ez dute aldarte bera izan hizkuntza eta lurralde ezberdinetan. Hain zuzen ere, hori da liburu honen ardatza eta mamia: katalan hizkuntzaren estandarizazioak gaur egun azalarazten dituen kezka eta nondik norakoak. Zeharbidez, esan beharrik ez dago, euskararena ere planteatzen.

tzen zaio euskaldun hiztunari, liburu hau irakurtzen duela, nahiz eta bi hizkuntzak egoera berean egon ez, dela gizarte zereginetan, dela jendarteko funtzioetan.

Hartara, Pradillak segida ematen dio argitalpen honekin, lehendik hasitako bideari. Izatez, *Universitat Rovira i Virgili* delakoaren katalanaren soziolinguistikako katedratikoa da, eta *Institut d'Estudis Catalans* erakundearen *Secció Filològica*ren akademiko zenbakiduna. Garai batean ere (2019-2022) *Societat Catalana de Sociolingüística*ren buru izan zen.

Titulu horiek ahalbidetzen dute, zalantza ñimiñorik gabe, liburu honen egilearen sona eta itzala. Ibilbide honetan aipatzekoak dira, besteak beste, *El laberint valencià* (2004), edota *La Catalanofonia. Una comunitat del segle XXI a la recerca de la normalitat lingüística* (2015), beste testu askoren artean. Lehendik datorren hari soziolinguistikoari eusten dio Pradilla autoreak eta oraingoan osterantzeko urratsa ematen du, egungo estandarizazioaren ezaugarriak plazaratuz katalan hizkuntzari dagokionez. Bidenabar esan daiteke antzeko egoeran egon daitezkeen bestelako mintzaireri buruz ere badiharduela, jardun ere, kasurako, euskarari berari ere aplika dakizkiokeelako halako gogoetak.

Liburuaren azalpen nagusiak laburbiltzeko ahaletan ibiliz gero, laster antzematen da proposamen nagusia, alegia, orain arte hizkuntza estandarizazio prozeduretan gehienez zabaldu den ideologia eraberetzaileari lehiakide etorri zaizkiola, aldiotan, eite desberdineko aukerak, hau da, *desestandarizazioa* eta *berrestandarizazioa* edo *demotizazioa*. Lehenak dakar hizkuntzaren maila desberdinen arteko berdintze bat, eta jada ezarritako estandarraren zentralitatea auzitan jartzea. Bigarrenean, aldiz, orain arte behe mailako hizkuntza aldakiak gorantza datoz jendarteko erabileran, ohiko diren sare sozial zein gainerako baliabideak tartean direla. Horiekin ere loturik datoz estandarrak finkatzeko orduan eta abagunean plurizentrismoa edo gune anitzeko egoera, egun aurrera doana eta mundu mailako dinamikarekin bat egiten duena, globalizazioaren (*glocalització*) bidez.

Edu horretan, zalantzan jartzen dena da aspaldiko kodeketa linguistikoa, Pompeu Fabra (1868-1948) zenak moldatu zuena katalan hizkuntzaren kasuan. Xedea zen orduko hartan hizkuntzaren autonomia bermatzea gaztelaniaren aurrean. Hainbatez, orrietan zehar irakurleari burura dator-

kiona katalan hizkuntzaren erronka da, alegia, orain arteko estandarizazioa azken aldietan ageriko diren joera berriein erkatzea, prozesu horren bidez lortzeko hizkuntzaren kokatze erraza eta erosoagoa bere komunikazio ekosisteman. Zernahi gisaz, autoreak argiro aitortzen ditu hizkuntza gutxituentzat bide berri hauek ekar ditzaketen arriskuak, aurreko ereduarekin oreka lortzen ez bada. Areak ere, hizkuntza horien ordezkapen linguistikoa eta soziala, jendartean hizkuntza nagusiak hedatzen direla. Hitz esanguratsuak dira oso egilearenak: “Un model, en definitiva, que impulse des de la planificació del corpus lingüístic la rehabilitació d’una llengua que no acaba de encontrar un encaix còmode en el seu propi ecosistema comunicatiu” (49. or.).

Kapituluaren hurrenkera ere esandakoaren erakuslea da. Lehen bietan (1. *L’Estandardització lingüística: La dinamicitat d’un concepte calidoscòpic*; 2. *L’Estandardització de les llengües minoritzades: El repte de la tria del model*) estandarizazio linguistikoaren teoriarik gaurkotuenak gogora ekartzen dira. Adibide gisa ere, 3. kapitulan aipatzen dira alemanaren nondik norakoak (*Diasistematicitat vs. Pluricentrisme. Una aproximació a la lingüística de les varietats alemanya*).

Bigarren zatia da katalan hizkuntzaren edukia luze-zabal garatzen duena (4. *Reflexions sobre el procés d’estandardització de la llengua catalana: de Polanco (1984) a l’actualitat*. 5. *Comunicació vs. Demarcació. La gestió de la variació lingüística en la varietat formal de la llengua catalana*. 6. *L’estandardització de la llengua catalana: la modelització de la varietat formal a l’ensenyament*. 7. *L’univers calidoscòpic de la sociolingüística de la variació en l’àmbit de la llengua catalana*). Hirugarrenean, ostera, hizkuntza katalanaren aldaki valentziarraren bide malkartsuari buruzko hausnarketak egiten ditu (8. *Identitat lingüística i estandardització. Els camins sinuosos cap a la modelització de la varietat formal valenciana*. 9. *De fronteres administratives i límits geolectals. La cruïlla lingüística valencianocatalana (I aragonesa)*) eta laugarren zatia da soziolinguistika konparatuari eskaintzen zaiona, 10. kapitulan (10. *La gestió normativa de la llengua portuguesa. Aproximació glotopolítica*) aztertzen baita portuges mintzairaren kudeaketa linguistikoa, hain justu ere, problematika berezkoa duena bi estandar eredu eta bi kontinenteen artean (Portugal eta Brasil).

Aurrekoaren osagarri, kapitulu bakoitzak du bere bibliografia berezia eta berezia, horren bidez ematen zaiola irakurleari ikuspegi osoa eta betea, egunotan hizkuntza estandarizazioan ematen ari diren fenomenoetarako erreferentzia aberatsak.

Hitz batez esateko, liburu honek ahaleginak egiten ditu, soziolinguistikaren teoria orokorretik abiatuta, katalan hizkuntzari buruzko gogoeta metodologiko eta epistemologiko berriak formulatzeko, aurrera joateko pauso berriak lortu nahian. Beharbada, horretan dago bere indarra eta ahulezia ere, egileak ez baitu lorratz bakarreko irtenbidea ematen, betiko eta ohiko estandarizazioaren teoriaren aldamenean, soziolinguistikari ekarpen berriak barnertatzeko.

Munta handiko kontuak, ezbairik gabe, Pradillak behin eta berriro azpimarratzen baititu katalanaren lehen premiak, alegia, biziraupena eta erabilera, berezko duen ekosistema linguistikoa eta gizarte zereginetan.

Hortxe dago, egon ere, liburu honen meritu eta interesa, irakurleentzat ez ezik, hizkuntza plangintzan, hizkuntza gutxiagotuen corpus estandarizazio eta estatus ezarpenean interesaturik dagoen ororentzat ere, izan dadila hori hizkuntzalaria, irakasle, soziologo, legelari, kultur egile... guztiok bai-kaude inplikaturik prozesu honetan, maila teoriko zein praktikoa.

Zer esanik ez, euskararen joko zelaian oro har, eta Euskaltzaindiarenean bereziki, gai hauek nahitaezkoak dira, zeregin nagusiak baititu euskararen akademiak euskararen estandarizazioa eta horren zabalkuntza soziala. Eginginean ere, Euskaltzaindiak gai honen inguruko ekimenak abiarazi ditu betidanik (*Iker* eta *Jagon Sailen* bidez), azkena dela *Arantzazutik mundu zabalera: Euskararen normatibizazioa 1968-2018* (2021), egungo euskararen estandarizazioari sakon so eginez. Beste horrenbeste estandarizazioaren historiari dagokionez, *Euskararen Historia Soziala (EHS)* egitasmoa horren erakusbide dela eta bertara lotu diren emaitza azpimarragarriak. Horiekin batera, nola ez, etengabe egiten diharduen euskararen estandarizazio lana, nahiz hiztegian, nahiz morfosintaxian, nahiz onomastikan, toponimian eta bestelako alorretan, hizkuntzaren estatusa hobetzeko eta garatzeko eginahalak ere bazter utzi gabe.

Labur-zurrean, liburua gomendagarria bezain ernatzailea, euskararen inguruan ari garenontzat mesedegarria eta gogo bizikoa.

Euskera ikerketa aldizkariaren idazketa arauak

Normas de redacción de la revista *Euskera ikerketa aldizkaria*

Règles de rédaction de la revue *Euskera ikerketa aldizkaria*

Guidelines for contributors to the journal *Euskera ikerketa aldizkaria*

Euskera ikerketa aldizkariaren idazketa arauak

Hauek dira *Euskera* ikerketa aldizkariaren oinarrizko idazketa arauak. Aldizkarira aurkezten diren lanek araubide hori bete beharko dute. Hala-ber, malgutasuna eskaini eta arautuak ez dauden xehetasunak bideratzeko, Humanitateetako Chicago estiloak finkatzen dituen arauak onartuko dira (<https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

Euskera ikerketa aldizkariaren helburua ikerketa-lan originalak diren artikuluko akademiko eta zientifikoak argitaratzea da.

Eskuizkribu bat ebaluaziorako igorri aurretik, berratu egin behar da haren edukiak aldizkariaren jakintza-esparruetara egokitzen direla.

Eskuizkribu motak. Egileentzako orientabide modura, *Euskera* ikerketa aldizkariak bere jakintza-esparruetako eskuizkribu mota hauek onartzen ditu:

1. Artikuluak: ikerketa-lan originalak, jite teoriko zein enpirikodunak, garapen tekniko eta analitiko egokia dutenak, eta alorreko aldizkari zientifikoek erabiltzen duten ohiko formatua izatea.
2. Ikerketa artikuluei eskatzen zaien hedadura, garapen teoriko eta zehaztasun analitikoak izan gabe, labur-labur, aurkikuntza esanguratsuak, ekarpen berriak eta orain arteko literatura zientifikoaren interpretazioak egiten dituzten azterketak eta ikerketa-oharrak.
3. Dokumentuak eta txostenak: aldizkariaren ikerketa-esparruan egin diren dokumentazio eta material-ekarpenen behaketa- eta azterketa-lanak.
4. Liburuaren iruzkinak: aldizkariaren jakintza-esparruan, interes akademikoak duten argitalpen berriak aztertzen dituzten saiakera izarako lanak.

Hizkuntzak. Artikuluak, oharrak, txostenak eta iruzkinak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen diren hizkuntzatan argitaratuko dira. Beren-beregi euskaraz argitaratzea sustatuko da, baina ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitako lanak ere lekua izango dute. Horietatik kanpo bes-

te hizkuntzaren batean idatzitako artikulua iritsiko balitz, Idazketa kontseiluak erabakiko luke onartu ala ez.

Lanak igortzea. Eskuizkribuak aldizkariaren webgunea erabiliz helarazi behar dira. Lehenbizi erregistratzeko urratsak bete behar dira, eta ondoren, fitxategiak *Euskera* ikerketa aldizkarira igortzeko jarraibideak bete behar dira. Eskuizkribuarekin batera aurkezpen gutun bat erantsi behar da, eta hor artikulua tipologiaren berri emateaz gain, hura aintzat hartzeko eta aztertzeko eskaria egingo da. Gutun horretan, egileak lauzpabost lerrotan lanaren ekarpena ere azalduko du. Halaber, lana beste aldizkari batzuetara igorri ez izanaren adierazpena egingo du, eta egile eskubideak lagako dizkio aldizkariaren editore den Euskaltzaindiari.

Lanen aurkezpenak. Eskuizkribuak igortzean, egilea esaten ari da aldizkariaren lanak aurkezteko prozedurak ezagutzen eta onartzen dituela eta, halaber, *Euskera* ikerketa aldizkariaren argitalpen prozedura onartzen duela.

Igorritako artikulua behin betikoak izango dira, behar bezala idatziak, akats linguistikorik eta mekanografikorik gabeak. Horretarako, komeni da nork bere ordenagailuan zuzentzaile ortografikoa instalaturik izatea eta hura aplikatzea artikulua Euskaltzaindira bidali baino lehenago.

Artikulua hasieran, egilearen/egileen kidetza (unibertsitatea, ikergunea, erakundea, etab.) eta helbide elektronikoa ezarriko dira.

Testua idazteko 1,5 lerroartekoa erabiliko da, eta zein-nahi argitasun edo zuzenketatarako, orrialdearen albo bietan, 1,5 cm-ko koskarekin idatzirik aurkeztuko dira lanak. Orrialdeak eta oin-oharrak segidako zerrendan zentratuko dira.

Testu-gorputza 12 puntukoa izango da.

Esparru akademikoan ohikoak diren letra tipoak onartuko dira (Arial, Times New Roman, Calibri...). Artikuluaren atal eta azpiatal guztiak zenbaki arabiarretan eta hierarkikoki zenbakituko dira: 1., 1.1., 1.1.1., 1.2., 1.2.1., 2., etab.

Beste hizkuntza bateko hitz solteak letra etzanez idatziko dira. Halaber, letra etzanez idatziko dira liburuen izenburuak eta aldizkariaren izenak.

Artikuluak, zuriuneak aparte, ez dute 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago izango (tauletako testuak barne). Liburu aipamenek, hemen ere zuriuneak aparte, ez dute 6.000 karaktere baino gutxiago eta 10.000 baino gehiago izango.

Originalak (bi kopia, horietarik bat anonimoa) nahitaez euskarri elektronikoa (DOC(X), ODT edo RTF formatuetan) eta aldizkariko webguneko plataformaren bidez helaraziko dira. PDF bertsioa ere bidali behar da.

Taulak eta irudiak. Lerro eta zutabeetan ematen den informazioa TAULA izenarekin izendatu behar da. Argazkiak eta grafikoak IRUDIA izenarekin izendatu behar dira. TAULAK eta IRUDIAK ordena kronologikoaren arabera zerrendatu behar dira, taulak alde batetik eta irudiak bestetik. Bietan iturria adierazi behar da. Taulak eta irudiak deskribatzeko oinak 10eko letra-gorputzarekin idatziko dira, esandako horien aurretik.

Orokorrean, material grafikoa, mapak, laminak, argazkiak eta abar 1300 pixeleko gutxieneko zabalera tamaina izango dute eta 300 dpi-ko bereizmena. Irudiak eta taulak, eskuizkributik aparte, beste fitxategi batean txertatuta igorri behar dira. Irudi kopuruaren ondorioz, artikulua luzerak araututako muga gainditzen badu, aldizkariaren Idazketa Batzordeak erabakiko du argitaratu ala ez.

Eskuizkribuaren formatua

Lehen orrialdea

Artikuluaren izenburua lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa).

Egilearen izen osoa. Beheko lerroan, egilearen kategoria profesionala eta zein erakunderi atxikia dagoen. Lehenbizi erakunde nagusia eta jarraian, balego, erakunde nagusitik eratorritakoak. Halaber, helbide elektronikoa eta egile bat baino gehiago bada, nor izango den gutuneriaren jasotzailea.

Jarraian, lanaren laburpena aurkeztuko da. Ikerketa-artikuluarekin batera, haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta gako-hitzak (gehienez

ere sei) emango dira. Laburpenak eta gako-hitzak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez idatziak izan behar dira. Esan gabe doa artikulua hirugarren hizkuntza batean idatzia badago, hizkuntza horretan ere aurkeztu behar direla aipatutako gako-hitzak eta laburpena. Gomendatzen da laburpenak argi adieraztea zein diren ikerketaren helburuak, metodologia eta erabilitako dokumentazio-iturriak, eta, jakina, zein diren aurkikuntza edo ondorio nagusiak.

Bigarren orrialdea

Ikerketa-artikulua, oharra, txostena edo liburu-aipamena aurkezten da. Aintzat hartu behar da arestian zehaztu diren baldintzak bete behar dituela.

Oin-oharrak, aipuak eta erreferentzia bibliografikoak

Aipu laburrak. Lau lerro baino laburragoak direnak testuan bertan jasoko dira eta testu-gorputzaren tamaina bera izango dute. Komatxoaren eredu hierarkia honen arabera izango da: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Azkenik, aipuaren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da: “[...] jarraitzen zuen Zaldibiak” (Intxausti 1999).

Aipu luzeak. Aparteko pasartean idatziko dira, letra tamaina 10,5 puntukoa izango da eta testu arruntetik bereizteko, ezkerretik eta eskuinetik 1,5 cm-ko koska utzi behar da. Halaber, aipuaren aurretik eta ondoren, tarteko lerro zuri bat utziko da. Kasu honetan, amaierako puntua erreferentziaren aurretik jarriko da: [...] jarraitzen zuen Zaldibiak. (Intxausti 1999). Aipuko lehen lerroak ez du ondokoak baino barrurago egon behar.

Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ezin da sartu.

Idatzi gabe geratzen den esaldia edo esaldi zatia kako zuzen edo parentesi karratu artean eta hiru etenpuntu jarrita adieraziko da: [...].

Aipaturiko erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikulua iren bukaeran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, eta Egilea Urtea sisteman oinarrituta, honela: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Egile bakarra denean, deitura eta urtearen artean ez da komarik jarriko: (Villasante 1961).

Bi egile direnean, bi deiturak puntu eta koma bidez bereiziko dira: (Furet; Ozouf 1977). Hainbat libururi erreferentzia egiten zaienean, argitasuna helburu, bestelako formula batzuk erabili ahal izango dira: (Deumert eta Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

Egileak hiru baino gehiago direnean, lehena eta *et al.* edo “eta beste” jarriko da. Bukaeran, erreferentzia guztiak zerrendatzen direnean, egile guztiak agertu behar dira.

Egilerik ez denean obra bera aipatuko da, eta izenburua luzea bada, eten-puntuak erabiliko dira: (Registro... 1829: 133).

Erreferentzia bibliografiko osoak artikulua iren bukaeran zerrendatuko dira, oinarritzko eredu honen arabera:

- AZKUE, Resurreccion Maria (1896). *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao: Müller y Zavaleta.
- LAFON, René (1975). «Indices personnels n’expriment rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris: 331-337.
- LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.
- MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.
- URKIXO, Julio (1967). «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los “Refranes y sentencias” en vascuence de 1596», *ASJU* I (1967): 3-44.

- ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Dokumentua modu elektronikoan soilik eskura daitekeenean, honela aurkeztuko da:

Egilearen deitura, Egilearen izena (argitalpen urtea). «Artikuluaren izenburua», *Argitalpenaren izenburua*, zenbakia: or-or. <http://www.xxxxxxxx.helbidetik.eskuratua>. (Kontsulta data ere jarri behar da).

- WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet: Zortzigarren lurralde konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf> (2018ko ekainaren 4an kontsultatua)

Dokumentuak beste euskarri batzuetan argitaratu direnean (CD-ROM, DVD), irizpide berak erabiliko dira, baina amaieran euskarria zein den adieraziko da kako zuzenen edo parentesi karratuen artean [...].

Egileak artikuluaren bibliografia oinarrizko eredu horren arabera antolatu du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

Normas de redacción de la revista *Euskera ikerketa aldizkaria*

Estas son las normas de redacción básicas de la revista *Euskera ikerketa aldizkaria*. Los trabajos que se presenten a esta revista deberán cumplir dicha normativa. Para ofrecer una mayor flexibilidad y ayudar en aspectos que no estén lo suficientemente detallados, se tendrán en cuenta las normas que dicta el estilo Chicago para Humanidades. Los artículos adoptarán y utilizarán las reglas establecidas por el Chicago Style for Publication in the Humanities (Chicago Manual of Style. <https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

Euskera ikerketa aldizkaria tiene por objeto la publicación de artículos académicos y científicos que sean trabajos originales de investigación.

Antes de enviar un manuscrito para su evaluación, le rogamos que verifique que su contenido se ajusta a los ámbitos temáticos de la revista.

Tipo de manuscritos. Como orientación para los autores, *Euskera ikerketa aldizkaria* acepta para su consideración, dentro de sus ámbitos de estudio, estos tipos de trabajos:

1. Artículos: deberán ser trabajos de investigación originales, de carácter teórico o empírico, con un adecuado desarrollo teórico o analítico y tener el formato habitual de las revistas científicas especializadas.
2. Estudios y Notas de Investigación: deberán informar brevemente de hallazgos singulares, nuevas aportaciones, replicación de hallazgos o añadidos a la literatura científica que justifiquen su publicación sin la extensión y desarrollo teóricos o el detalle analítico requerido a los artículos.
3. Documentos e informes. Deberán presentar trabajos en los que se realice una exploración y análisis de aportaciones documentales sobre las materias y temas tratados por la revista.
4. Crítica de libros: serán trabajos ensayísticos que analicen novedades editoriales de interés académico y científico en el ámbito de la lengua vasca.

Lenguas. Los artículos originales de investigación, las notas, los documentos e informes y las críticas de libros se publicarán en cualquier idioma utilizado en el mundo académico del País Vasco. Se priorizará la publicación en euskera, pero tendrán cabida a su vez, los trabajos escritos en inglés, castellano o francés. Si llegase un trabajo escrito en una lengua diferente a las citadas, sería el Consejo de Redacción el que decidiera publicarlo o no.

Envío de trabajos. Los manuscritos deben ser remitidos utilizando la página web de la revista, registrándose y siguiendo las instrucciones para remitir ficheros a *Euskera ikerketa aldizkaria*. El manuscrito se acompañará de una carta de presentación pidiendo la consideración del manuscrito y una orientación sobre su tipología. En esta carta el autor explicará en 4-5 líneas cuál es la aportación del trabajo que presenta y la declaración de no envío simultáneo a otras revistas. Así mismo, en esta carta figurará la cesión de derechos al editor.

Presentación de trabajos. El envío de manuscritos presupone, por parte de los autores, el conocimiento y aceptación de estas instrucciones, así como de las normas del proceso editorial de *Euskera ikerketa aldizkaria*. Los artículos enviados serán definitivos, debidamente redactados, libres de errores lingüísticos y tipográficos. Para ello, es recomendable tener instalado un corrector ortográfico en el ordenador y aplicarlo antes de enviar los artículos a Euskaltzaindia.

Para la redacción del texto se utilizará interlineado de 1,5 líneas, y para cualquier aclaración o corrección, los trabajos se escribirán con sangría de 1,5 cm a ambos lados de la página. Las páginas y notas al pie se contarán cronológicamente. El cuerpo del texto será de 12 puntos. Se aceptarán tipografías típicas en el ámbito académico (Arial, Times New Roman, Calibri...).

Todos los apartados y subapartados del artículo se numerarán en números arábigos y jerárquicamente: 1., 1.1., 1.1.1., 1.2., 1.2.1., 2., etc.

Las palabras sueltas en otra lengua se escribirán en cursiva. Los títulos de libros y revistas también se escribirán en cursiva.

En general, la longitud de los artículos, sin contar los espacios, no debe ser menor de 30.000 caracteres ni mayor de 60.000 (incluidos los textos de

las tablas). Las críticas de libros, igualmente, sin contar los espacios, tendrán no menos de 6.000 caracteres ni más de 10.000.

Los originales (2 copias, una anonimizada) serán enviados mediante la plataforma en formato electrónico (formatos DOC (X), ODT o RTF). Una de las copias se debe enviar en formato PDF.

La información proporcionada en filas y columnas debe llamarse TABLA. Las fotografías y gráficos deben llamarse IMAGEN. Las TABLAS y las IMÁGENES deben enumerarse cronológicamente, las tablas por un lado y las imágenes por otro. Ambas deben indicar la fuente.

Los subtítulos para los pies de foto y las imágenes deben escribirse en cuerpo 10 y colocarse encima de las tablas e imágenes.

En general, el material gráfico, mapas, láminas, fotografías, será de un tamaño mínimo de 1300 píxeles de ancho y 300 ppp, con la mayor calidad posible. Las figuras, cuadros o imágenes deberán enviarse en un archivo aparte del trabajo, no incluidas en el texto. En el caso de que la extensión resultante de los trabajos por causa de las ilustraciones sea mayor, el Consejo de Redacción decidirá si es pertinente su publicación.

Formato del manuscrito

Primera página

Título del trabajo en euskera (además en castellano, francés e inglés).

Nombre completo del autor y la categoría profesional con indicación debajo de cada autor, de la institución, universidad o centro de investigación donde ejerce su actividad (primero la institución general, seguido de la institución o instituciones subordinadas), dirección postal completa y dirección de correo electrónico. En caso de varios autores se indicará el responsable de correspondencia.

Después se proporcionará un resumen (máximo de 500 caracteres) y palabras clave (máximo de seis). Los resúmenes y las palabras clave deben

estar escritos en euskera, castellano, francés e inglés (Abstract y Keywords). No hace falta decir, que si el artículo está escrito en una tercera lengua, las palabras clave y el resumen también deben enviarse en dicha lengua. Se recomienda que el resumen exponga con claridad la finalidad del estudio o investigación (objetivos); los procedimientos básicos y/o fuentes documentales utilizadas (métodos); los principales hallazgos encontrados (resultados), y las conclusiones más relevantes, así como resaltar los aspectos nuevos e importantes del estudio.

Segunda página

Será la de arranque del texto del manuscrito propuesto que, en todo caso, habrá de atenerse a las ya citadas características generales.

Notas, citas y referencias bibliográficas

Citas breves. Las de menos de cuatro líneas se incluirán en el texto y tendrán el mismo tamaño que el cuerpo del texto. Las comillas dependerán de la siguiente jerarquía: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Finalmente, el punto final de la cita se colocará después de la referencia: “[...] Zaldibia continuó” (Intxausti 1999).”

Citas largas. Se escribirán en un pasaje aparte, con un tamaño de letra de 10,5 puntos y sangría de 1,5 cm a izquierda y derecha. Además, antes y después de la cita, se dejará una línea blanca intermedia. En este caso, el punto final se colocará antes de la referencia: [...] Zaldibia continuó. (Intxausti 1999) La primera línea de la cita no debe ser más profunda que la siguiente.

No se pueden insertar líneas blancas entre los párrafos de la cita.

La oración no escrita o parte de la oración se indicará entre corchetes y con tres puntos de corte: [...] Todas las referencias citadas deben, si es posible, incluirse en el texto, vinculándolas a la bibliografía que suele adjun-

tarse al final del artículo, y utilizando el sistema Autor Año, como sigue: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Cuando hay un solo autor, no se coloca coma entre el nombre y el año: (Villasante 1961). Cuando son dos autores, los dos nombres se separan por punto y coma: (Furet; Ozouf 1977). Cuando se haga referencia a varios libros o artículos, si se considera necesario, se podrán utilizar otras fórmulas (Deumert y Vandenbussche 2003; Coupland, Kristiansen y Deumert 2011).

Cuando los autores son más de tres, deben aparecer el primero y luego *et al.* o y otros. Al final, cuando se enumeran todas las referencias, deben aparecer todos los autores.

Cuando no haya autor, se mencionará la obra en sí, y si el título es largo, se utilizarán puntos de corte: (Registro... 1829: 133).

Las referencias citadas se darán completas al final del artículo, ordenadas alfabéticamente, de acuerdo con este modelo básico:

- AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.
- LAFON, René (1975). «Indices personnels n’exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», en *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. París: Sociedad de Lingüística de París: 331-337.
- LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.
- MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa y UPV/EHU.
- URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los “Refranes y sentencias en euskera” de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Cuando el documento sólo esté disponible en formato electrónico, se presentará de la siguiente manera:

Nombre del autor (año de publicación). Título del artículo. Título de la publicación, xx: p-p. <http://www.xxxxxxxx> . Recuperado de. (También se debe incluir la fecha de consulta).

- WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf> (Consultado el 4 de junio de 2018).

Cuando los documentos se publiquen en otro soporte (CD-ROM, DVD), se seguirá el mismo criterio, pero al final se indicará el soporte entre corchetes [...].

El autor organizará la bibliografía del artículo de acuerdo con este modelo básico. Podrá consultar con la persona a cargo de la editorial para resolver cualquier problema específico o particular.

Règles de rédaction de la revue *Euskera ikerketa aldizkaria*

Voici les règles de base de rédaction de la revue *Euskera ikerketa aldizkaria*. Les travaux présentés à la revue devront respecter ces règles. Pour offrir une plus grande flexibilité et apporter une assistance sur des aspects qui ne seraient pas suffisamment détaillés, on tiendra compte des règles édictées par le Chicago Style for Publication in the Humanities (<https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

L'objet de la revue *Euskera ikerketa aldizkaria* est la publication d'articles universitaires et scientifiques issus de travaux de recherche originaux. Voici les principaux domaines dont traitera la revue :

Avant d'envoyer un manuscrit pour qu'il soit évalué, nous vous demandons de bien vouloir vérifier que son contenu corresponde aux domaines d'étude proposés.

Type de manuscrits. Pour orienter les auteurs, sachez que *Euskera ikerketa aldizkaria*, parmi ses domaines d'étude, accepte d'examiner ce type de travaux :

1. Articles : il devra s'agir de travaux de recherche originaux ayant un caractère théorique ou empirique, avec un développement théorique ou analytique adéquat, et ayant le format habituel des revues scientifiques spécialisées.
2. Etudes et notes de recherche : elles devront faire état brièvement de découvertes singulières, de nouvelles contributions, d'interprétation de découvertes ou d'ajouts à la littérature scientifique qui justifient leur publication sans l'extension et le développement théoriques ou les détails analytiques requis pour ces articles.
3. Documents et rapports : ils devront présenter des travaux de recherche et d'analyse des contributions documentaires dans l'un des domaines de recherche dont traite la revue.
4. Critique de livres : il s'agira d'essais analysant les nouveautés éditoriales à caractère universitaire dans l'un des domaines de recherche dont traite la revue.

Langues. Les articles de recherche originaux, les notes, les documents et rapports et les critiques de livres seront publiés dans l'une des langues utilisées dans le milieu universitaire du Pays Basque. La priorité sera donnée à la langue basque mais auront également leur place les travaux rédigés en anglais, en espagnol ou en français. Si un article est présenté dans une langue autre que les langues citées, c'est le comité de rédaction qui décidera de le publier ou pas.

Envoi des travaux. Les manuscrits devront être remis en utilisant la page web de la revue, ils devront être enregistrés et suivre les instructions de téléchargement des fichiers sur *Euskera ikerketa aldizkaria*. Le manuscrit sera accompagné d'une lettre de présentation demandant l'examen du manuscrit et une information quant à sa typologie. Dans cette lettre l'auteur devra expliquer en quatre ou cinq lignes de quelle nature est sa contribution ainsi qu'une déclaration stipulant qu'elle n'a pas été présentée simultanément à d'autres revues. La lettre contiendra aussi la cession des droits à Euskaltzaindia.

Présentation des travaux. L'envoi des manuscrits suppose de la part des auteurs la connaissance et l'acceptation de ces instructions ainsi que des règles de procédure éditoriale de *Euskera ikerketa aldizkaria*. Les articles envoyés seront définitifs, rédigés comme il se doit, exempt d'erreurs linguistiques et typographiques. Il est pour cela recommandé d'installer sur l'ordinateur un correcteur orthographique et de vérifier le texte avant d'envoyer les articles.

Au début de l'article il convient de préciser l'appartenance de l'auteur ou des auteurs (université, centre de recherche, institution,...) ainsi que les adresses électroniques.

Pour la rédaction du texte on utilisera l'interligne 1,5 et pour tout type d'éclaircissement ou de correction les travaux seront présentés avec un alinéa de 1,5 cm des deux côtés de la page. Les pages et les notes figureront en pied de page par ordre chronologique.

Pour le corps du texte on utilisera une taille de caractère de 12 points.

Seront acceptées les polices habituellement utilisées dans le milieu universitaire (Arial, Times New Roman, Calibri,...). Tous les paragraphes et

sous-paragraphes de l'article seront numérotés en chiffres arabes et de manière hiérarchique : 1., 1.1., 1.1.1., 1.2., 1.2.1., 2., etc.

Les mots isolés en langue étrangère s'écriront en italique. Les titres de livres et de revues s'écriront également en italique.

De manière générale, les articles, sans compter les espaces, devront compter au moins 30 000 caractères et au plus 60 000 caractères (y compris les textes des tableaux). De la même façon, les comptes rendus de livres, sans compter les espaces, devront compter entre 6 000 et 10 000 caractères.

Les originaux (2 copies, dont une anonymisée) seront envoyés sur la plateforme du site web de la revue sous leur forme électronique (formats DOC (X), ODT ou RTF). Une version PDF du document devra également être envoyée.

Tableaux et images. L'information présentée sous forme de lignes et de colonnes doit être nommée TABLEAU. Les photos et les graphiques doivent être nommés IMAGE. Les TABLEAUX et les IMAGES doivent être classés de façon chronologique, les tableaux d'un côté et les images de l'autre. Ils doivent tous les deux indiquer quelle est leur source. Les légendes de photos et d'images doivent avoir une taille de police de 10 et figurer au-dessus des tableaux et des images.

De manière générale, le matériel graphique, les cartes, les gravures, les photos devront avoir une résolution minimale de 1300 pixels et 300 ppp. Les images et les tableaux seront envoyés dans un fichier à part. Dans le cas où les travaux dépasseraient la longueur maximale fixée à cause du volume des images, le comité de rédaction décidera si leur publication est pertinente.

Format du manuscrit

Première page

Titre du document en quatre langues (basque, espagnol, français et anglais).

Nom complet de l'auteur. Ligne suivante, sa catégorie professionnelle et nom de l'institution, de l'université ou du centre de recherche où il exerce son activité. Tout d'abord l'institution générale, puis la ou les branches de l'institution concernée. L'adresse électronique et, dans le cas d'auteurs multiples, sera indiqué le nom du destinataire du courrier.

On fournira ensuite un résumé (avec un maximum de 500 caractères) et des mots-clés (6 au maximum). Les résumés et les mots-clés doivent être écrits en basque, en espagnol, en français et en anglais. Il va sans dire que si l'article est écrit dans une troisième langue, les mots-clés et le résumé doivent être écrits dans cette même langue. Il est recommandé d'exposer clairement dans le résumé la finalité de la recherche, la méthodologie, les sources documentaires utilisées et enfin quelles sont les principales découvertes et les conclusions les plus significatives.

Seconde page

Elle présente l'article de recherche, les notes, le rapport ou la référence du livre. Il ne faut pas perdre de vue le fait que le texte doit répondre aux exigences précisées plus haut.

Pieds de page, citations et références bibliographiques

Citations courtes. Celles qui ont moins de quatre lignes seront insérées dans le texte et auront la même taille de police que le corps du texte. Les guillemets respecteront la hiérarchie suivante : « xxxx "xxx 'xxx' xxx" xxx ». Enfin, le point final de la citation sera placé après la référence : "[...] continuait ainsi Zaldibia" (Intxausti 1999)."

Citations longues. Elles figureront dans un passage à part et auront une taille de police de 10,5 points et un alinéa de 1,5 cm à gauche et à droite par rapport au reste du texte. De plus, avant et après la citation on laissera une ligne vide. Dans ce cas le point final sera placé avant la référence : [...] continuait ainsi Zaldibia. (Intxausti 1999). La première ligne de la citation ne doit pas avoir de retrait par rapport à la suivante.

On ne doit pas insérer de ligne vide entre les paragraphes de la citation.

La phrase non écrite ou la partie de phrase sera indiquée entre crochets et avec trois points de suspension : [...].

Toutes les références citées doivent si possible être insérées dans le texte et reliées à la bibliographie qui est habituellement ajoutée à la fin de l'article, en utilisant le système Auteur Année ci-après : (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Lorsqu'il n'y a qu'un auteur, on ne met pas de virgule entre le nom et l'année : (Villasante 1961).

Lorsqu'il y a deux auteurs, les deux noms sont séparés par un point-virgule : (Furet ; Ozouf 1977). Lorsqu'il est fait référence à plusieurs livres ou articles et si on l'estime nécessaire, on pourra utiliser d'autres formules (Deumert et Vandebussche 2003 ; Coupland, Kristiansen et Deumert 2011).

Lorsqu'il y a plus de trois auteurs, il convient de citer le premier et ensuite la formule *et al.* ou *et autres*. Enfin, lorsque les références sont listées, tous les auteurs doivent être cités.

Lorsqu'il n'y a pas de nom d'auteur, on ne mentionnera que le titre de l'œuvre et, si le titre est long, on utilisera des points de suspension : (Registro... 1829 : 133).

Toutes les références bibliographiques citées seront présentées à la fin de l'article, classées par ordre alphabétique, selon le modèle suivant :

- AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.
- LAFON, René (1975). « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris : 331-337.
- LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

- MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa y UPV/EHU.
- URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los “Refranes y sentencias en euskera” de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Lorsque le document n’est disponible qu’en format électronique, il sera présenté de la manière suivante :

Nom, Prénom de l’auteur (année de publication), « Titre de l’article », *Titre de la publication*, numéro : p.-p., <http://www.xxxxxxxx>. (Il faut également citer la date de consultation).

- WALIÑO, Josu (2016). « Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen », *Euskera* 61, 1: 42-44. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf> (consulté le 4 juin 2018).

Lorsque les documents sont publiés sur un autre support (CD-ROM, DVD), la même méthode sera utilisée, mais à la fin le support sera indiqué entre crochets [...].

L’auteur organisera la bibliographie de l’article selon ce modèle de base. Il pourra en référer au responsable d’édition pour résoudre tout problème spécifique ou particulier.

Guidelines for contributors to the journal *Euskera ikerketa aldizkaria*

These are the basic guidelines for contributors to the journal *Euskera ikerketa aldizkaria*. Papers submitted to this journal must follow these guidelines. To give greater flexibility and assist with aspects not defined in sufficient detail, the guidelines established by the Chicago Humanities style. Papers must adopt and use the rules laid down by the Chicago Style for Publication in the Humanities (Chicago Manual of Style. <https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

The purpose of *Euskera ikerketa aldizkaria* is to publish academic and scientific papers that are original research work. These are the main subject areas of the journal:

Before submitting a manuscript for assessment, please make sure its content fits into the fields of study proposed.

Manuscript types. As guidance for authors, *Euskera ikerketa aldizkaria* accepts for consideration the following types of work within its fields of study:

1. Papers: these must be original research work, of a theoretical or empirical nature, in appropriate theoretical or analytical depth and in the habitual format for specialist academic journals.
2. Studies and research notes: these must report briefly on singular findings, new contributions, replication of findings or additions to the academic literature to justify their publication without the theoretical length and depth or the analytical detail required in full papers.
3. Documents and reports: work submitted must explore and analyse documentary contributions to the subject and topics dealt with by the journal.
4. Book reviews: these will be essay-type pieces analysing new publications of academic and scientific interest in the field of the Basque language.

Languages. Original research papers, notes, documents and reports and book reviews will be published in any language used in the academic world of the Basque Country. Publication in Basque will be prioritised but work written in English, Spanish or French will also be acceptable. In the event of a piece arriving in a language other than those mentioned above, the editorial committee will decide whether to publish it or not.

Sending work. Manuscripts must be sent in via the journal's website, registering and following instructions for uploading files to *Euskera ikerketa aldizkaria*. The manuscript must be accompanied by a covering letter requesting it be considered and an indication of its type. In this letter the author must explain in 4-5 lines what the contribution of the work submitted is, and declare that they are not sending it to other journals at the same time. The letter must also include a grant of rights to the publisher.

Submission of work. Sending in manuscripts implies that authors are aware of and agree to these instructions, as well as to the rules of the *Euskera ikerketa aldizkaria* editorial process. The papers sent must be final, properly written and free from language and typographical errors. It is therefore advisable to have a spell checker installed on the computer and to use it before sending papers off.

The author or authors' institution (university, research centre, institution, etc.) must be cited at the beginning of the paper together with the pertinent email addresses.

Line spacing of 1.5 is to be used to write the text, and scripts must have a margin of 1.5 cm at both sides of the page for any explanations or corrections. Pages and footnotes are to be numbered in order.

Body text must be in 12 point.

Typical fonts in the academic sphere (Arial, Times New Roman, Calibri, etc.) will be accepted. All sections and subsection of the article are to be numbered hierarchically with Arabic numbers: 1., 1.1., 1.1.1., 1.2., 1.2.1., 2., etc.

Individual words in another language are to be written in italics. The titles of books and journals must also be written in italics.

In general, articles must be of no less than 30,000 or more than 60,000 characters, not counting spaces but including text in tables. Book reviews must be between 6,000 and 10,000 characters, not counting spaces.

Originals (2 copies, one anonymised) must be sent via the platform in electronic format (DOC (X), ODT or RTF formats). One of the copies must be sent in PDF format.

Information arranged in rows and columns must be called TABLE. Photographs and graphs must be called IMAGE. TABLES and IMAGES must be numbered in order, tables on one side and images on the other. The source must be indicated in both cases. Subtitles for captions for photos and images must be written in 10-point body text and placed over the tables and images.

In general, graphic material, maps, plates and photographs must be at least 1300 pixels wide and 300 ppi, in the best resolution possible. Figures, boxes and images must be sent in a separate file from the work, not included in the text. In the event that the illustrations make the piece longer, the editorial committee will decide whether to publish it.

Manuscript format

First page

Title of the work in Basque (as well as in Spanish, French and English)

Full name of the author and their professional status, stating the institution, university or research centre where they work under each author (first the general institution, followed by the subordinate institution or institutions), full postal address and email address. If there are several authors, it must be specified which of them is responsible for correspondence.

After this an abstract must be given (maximum 500 characters) with key words (up to six). Abstracts and key words must be written in Basque, Spanish, French and English. Needless to say, if the paper is written in a third language the key words and abstract must also be sent in that lan-

guage. It is recommended that the abstract clearly outline the purpose of the study or research (aims), the basic procedures and/or documentary sources used (methods), the main findings (results) and the most salient conclusions, as well as highlighting the important new aspects of the study.

Second page

This is where the text of the manuscript submitted begins, in all cases conforming to the general features mentioned above.

Notes, quotations and bibliographical references

Short quotations. Those of less than four lines are to be included in the text and will be the same size as the body text. The quotation marks must conform to the following hierarchy: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Finally, the full stop at the end of the quotation must be placed after the reference: “[...] Zaldibia continuó” (Intxausti 1999).

Long quotations. These are to be written as a separate paragraph, with a font size of 10.5 points and a 1.5 cm margin to the right and left. Also, an intermediate blank line must be left before and after the quotation. In this case, the final full stop must come before the reference: [...] Zaldibia continuó. (Intxausti 1999) the first line of the quotation must not be deeper than the following one.

Blank lines must not be inserted between the paragraphs of the quotation.

Unwritten sentences or part-sentences are to be indicated by an ellipsis between square brackets: [...]. A references cited must, if possible, be included in the text, linking them to the bibliography that generally comes at the end of the paper, using the Author Year system, as follows: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

When there is a single author, no coma goes between their name and the year: (Villasante 1961). When there are two authors, the two names are

separated by a semi-colon: (Furet; Ozouf 1977). When reference is made to several books or articles, if it is felt necessary, other formulas may be used (Deumert & Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

When there are more than three authors, the first must appear followed by *et al.* or *and others*. At the end, when all the references are listed, all the authors must appear.

If there is no author, the work itself is mentioned and, if the title is long, an ellipsis is used: (Register... 1829: 133).

The references cited are to be given in their entirety at the end of the paper, in alphabetical order, according to this basic model:

- AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.
- LAFON, René (1975). «Indices personnels n’exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. París: Sociedad de Lingüística de París: 331-337.
- LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.
- MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa & UPV/EHU.
- URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los “Refranes y sentencias en euskera” de 1596», *ASJU* I (1967): 3-44.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Where the document is only available in electronic format, it is to be presented in the following way:

Author's name (year of publication). Title of the article. Title of the publication, number: pp. <http://www.xxxxxxxx>. (The date on which it was consulted must also be included).

- WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf> (consulted on 4th June 2018).

Where the documents are published on some other medium (CD-ROM, DVD), the same criterion is to be followed, but at the end the medium is to be indicated between square brackets [...].

The author must organise the bibliography of the paper in accordance with this basic model. They may consult the person responsible at the publisher to settle any specific or individual issue.

2024rako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el 2024 / Prix de l'abonnement pour 2024 / Subscription prices for 2024

Espainia: 20 €

Atzerria / Extranjero / Etranger / Other countries: 25 €

Zenbaki solteen prezioa 2024rako / Precios de los números para el 2024 / Prix des numéros pour 2024 / Prices of issues for 2024

EUSKERA ikerketa aldizkaria 2024, 69, 1: 20 €

EUSKERA ikerketa aldizkaria 2024, 69, 2: 20 €

Salmenta eta banaketa / Venta y distribución / Vente et distribution / Sale and distribution

Euskaltzaindiko Argitalpen Zerbitzua

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

Fax: 94415 8144

e-mail: euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus

* * *

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituen bezala, eskatzaile horrek esanbidezko baimena ematen du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezela; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira. Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: info@euskaltzaindia.eus. Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

* * *

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo. El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo

ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección info@euskaltzaindia.eus. En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.

* * *

Lacheteur donne son autorisation expresse pour que les informations personnelles relatives à sa commande soient intégrées au fichier informatique d'Euskaltzaindia qui est destiné exclusivement à offrir un service personnalisé à l'utilisateur. Ce fichier est inscrit à l'Agence de Protection des Données et est géré conformément à la Loi Organique 15/1999 du 13 décembre sur la Protection des Données à Caractère Personnel. L'utilisateur est informé de ses droits d'accès, de rectification, d'annulation et d'opposition relatifs à ses données personnelles et peut demander l'exercice de ses droits par écrit, en adressant un courrier électronique à info@euskaltzaindia.eus. Dans tous les cas, l'utilisateur garantit l'exactitude des données personnelles qu'il aura fournies.

* * *

The applicant expressly authorises that the personal data provided in relation to his/her order may be included in the Euskaltzaindia computer file, intended exclusively to provide a personalised service to the user. This file is registered with the Data Protection Agency and is managed in accordance with the provisions of Spanish Organic Law 15/1999 of 13 December 1999 on the Protection of Personal Data and other implementing regulations. The user is informed of his/her rights of access, rectification, cancellation and opposition with regard to his/her personal data, and may exercise these rights in writing to the email address info@euskaltzaindia.eus. In any event, the user guarantees that the personal data provided are truthful.

